

KG

COLECCIÓN **GAZTEAK**BILDUMA

13

K

Euskadiko gazteak 2016

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

COLECCIÓN **GAZTEAK**BILDUMA 13

KGk

Euskadiko gazteak 2016

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2017

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia:	1.a, 2017ko abendua
Ale-kopurua:	500 ale
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila
Internet:	www.euskadi.eus
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1-01010 Vitoria-Gasteiz
Egilea:	Oskar Longo Imatz, Miren Bilbao Gaztañaga eta Nieves Corcuera Bilbao
Koordinazioa:	Gazteen Euskal Behatokia
Bildumaren diseinua:	Canaldirecto • www.canal-directo.com
Azaleko irudia:	iStockphoto
Maketazioa:	Composiciones RALI, S.A.
Imprimatzea:	Gráficas DOSBI, S.L.
ISBN:	978-84-457-3435-3
L.G.:	VI 6-2018

Aurkibidea


AURKEZPENA	11
SARRERA	13
METODOLOGIA	15
1. FAMILIA-, PRESTAKUNTZA- ETA OKUPAZIO-EGOERA	17
1.1. Sarrera	17
1.2. Familia- eta bizitegi-egoera	18
1.3. Okupazioa eta diru-sarrerak	21
1.3.1. Okupazio nagusia	22
1.3.2. Diru-sarreraren jatorria	24
1.3.3. Lana bilatzea	25
1.3.4. Laneko esperientzia, ikerketa eta praktikaldiak atzerrian	26
1.4. Maila soziala	28
1.5. Ikasketak eta prestakuntza	30
1.5.1. Bukatutako ikasketa-maila	30
1.5.2. Ikasketa-esperientziak edo ikasketa-elkartrukeak atzerrian	34
1.5.3. Ingeles-maila	35
1.5.4. Euskara-maila	35
1.5.5. Etengabeko ikaskuntza	37
1.5.6. Euskal Hezkuntza-sistemaren balorazioa	38
1.5.7. Ikastegian eskainitako orientazio profesionalaren balorazioa	40
1.6. Ondorioak	41
2. EGOERA PERTSONALAREN ETA SOZIALAREN BALORAZIOA	43
2.1. Sarrera	43
2.2. Egoera pertsonalaren balorazioa	44

2.3. Arazo pertsonalak	46
2.4. Gazteen egoeraren balorazioa, oro har	51
2.5. Euskadiko egoeraren balorazioa	53
2.6. Administrazioek gazteen arloan egiten duten jardunaren balorazioa	56
2.7. Ondorioak	58
3. JARRERA POLITIKOAK ETA PARTAIDETZA	61
3.1. Sarrera	61
3.2. Politikarekiko interesa	61
3.3. Identitate-sentimendua	64
3.4. Jarrera ideologikoa: ezkerre versus eskuina	68
3.5. Gizarte-aldaketarako nahia	70
3.6. Atxikimendu handiena eragiten duen alderdi politikoa	72
3.7. Hauteskundeetako parte-hartzea	75
3.8. Gai publikoetan gehiago parte hartzeko nahia	76
3.9. Asoziazionismoa	77
3.10. Boluntariora	83
3.11. Ondorioak	85
4. BALIO ETA JARRERA SOZIALAK	87
4.1. Sarrera	87
4.2. Sinesmen erlijiosoak	87
4.3. Zenbait gai sozialen aurreko jarrera	91
4.3.1. Sexu bereko pertsonen arteko ezkontza	92
4.3.2. Sexu-aldaketa	93
4.3.3. Abortu libre eta borondatezkoa	94
4.3.4. Eustanasia	95
4.3.5. Kanabisa legeztatzea	96
4.3.6. Erlijioa irakastea ikastetxeetan	97
4.3.7. Ideia politiko edo erlijiosoak indarkeriaren bidez defendatzea	98
4.4. Tolerantzia ideologikoa	100
4.5. Atzerriko immigrazioarekiko jarrerak	101
4.6. Euskadira errefuxiatuak heltzearekiko jarrera	106

4.7. Mugikortasun jasangarria	108
4.8. Kontsumo jasangarria	111
4.9. Ondorioak.....	116
5. INTERNET ETA SARE SOZIALAK	119
5.1. Sarrera.....	119
5.2. Sare sozialen erabilera	119
5.3. Sare sozialen erabilerari loturiko esperientzia negatiboak	125
5.3.1. WhatsApp taldeetatik kanporatzea	125
5.3.2. Sare sozialetan identitatea ordeztzea	126
5.3.3. Irudi konprometituak edo umiliagarriak zabaltzea	127
5.3.4. Zibergaitzespena eta ziberjazarpena	127
5.4. Ziberaktibismoa	128
5.5. Ondorioak.....	131
6. AISIA, KIROLA, KULTURA ETA EUSKARA.....	133
6.1. Sarrera.....	133
6.2. Denbora libre erabilgarria.....	133
6.3. Aisialdiko jarduerak.....	134
6.3.1. Musika entzutea	136
6.3.2. Kanean egotea	136
6.3.3. Filmak, serieak edo telebista-programak ikustea	137
6.3.4. Youtuben, Vimeon eta antzekoetan bideoak ikustea	137
6.3.5. Kirola egitea	138
6.3.6. Kontsolekin, ordenagailu-jokoekin edo mugikorreko jokoekin jolastea	139
6.3.7. Tabernetara joatea	141
6.3.8. Lonjara joatea	141
6.3.9. Eskulanak egitea, jostea edo kozinatzea, zaletasun gisa	142
6.3.10. Aisialdiko bestelako jarduera batzuk	143
6.4. Lonjak edo gazte-lokalak	145
6.5. Kirola.....	147
6.6. Jarduera artistiko edo kulturalak.....	150
6.7. Kultura- edo kirol-ikuskitzetara joatea	153

6.8.	Irakurtzea	156
6.9.	Euskara	158
6.10.	Ondorioak	163
7.	EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK	165
7.1.	Sarrera	165
7.2.	Berdintasunik eza lana lortzean	166
7.3.	Berdintasunik eza etxeko lanak banatzean	168
7.4.	Zaintza-lanari buruzko iritzia ordaindutako lanaren aldean	169
7.5.	Auzoan edo herrian gauzez ibiltzeko beldurra	172
7.6.	Emakumeen aurkako hainbat indarkeria motaren larritasuna	174
	7.6.1. Sexu-harremanak izatera behartzea.....	177
	7.6.2. Etxetik irtetea debekatzea.....	178
	7.6.3. Mehatxatzea.....	178
	7.6.4. Mespretxuak egitea.....	179
	7.6.5. Gauzak erabakitzen ez uztea.....	180
	7.6.6. Iraintzea.....	181
7.7.	Ondorioak	181
8.	OSASUNA ETA SEXUALITATEA	183
8.1.	Sarrera	183
8.2.	Osasun-egoera	183
	8.2.1. Osasunaren pertzepzio subjektiboa.....	184
	8.2.2. Gaixotasun kronikoak edo desgaitasunak.....	187
	8.2.3. Arazo psikologikoak azken 12 hilabeteetan.....	189
8.3.	Ohitura osasungarriak	191
	8.3.1. Elikadura orekatua.....	191
	8.3.2. Bizimodu aktiboa.....	193
8.4.	Arrisku-jokabideak	195
	8.4.1. Tabakoa.....	195
	8.4.2. Alkohola.....	197
	8.4.3. Legez kanpoko drogak.....	198

8.5. Sexualitatea	199
8.5.1. Esperientzia sexu-harremanetan	200
8.5.2. Homosexualitatea gaixotasuntzat hartzearekiko adostasun-maila	202
8.5.3. Sexu-aukera aldatzeari buruzko iritzia	204
8.6. Ondorioak	206
EMAITZARIK AIPAGARRIENAK	209
BIBLIOGRAFIA	221
TAULEN ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA	227
I. ERANSKINA. ERABILITAKO GALDERA SORTA	239
II. ERANSKINA. INKESTATU DIREN IBILBIDEAK	247



Aurkezpena

Euskadiko Gazteak 2016 argitalpen berri hau Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteen Euskal Behatokiak lau urtean behin egiten dituen ikerketen bosgarren emanaldia da. Seriea 2000. urtean jarri zen martxan, aldian behin EAEko gazteriari buruzko informazioa ematen duen ikerketa soziologikoa eskaintzeko. Aurreko edizioetan gertatu zen moduan, *Euskadiko Gazteak 2016* ikerketak gazteen egoera eta kezka hobeto ezagutzeko beharrari erantzuten dio, hala, administrazio publikoek hobeto erantzungo baitiete gazteen beharrei.

Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Plana abian jartzen ari den une honetan, gazteen egoerari eta iritziei buruzko lehen eskuko informazioa izatea komeni da. Zerbait aldatu nahi badugu, lehendabizi ondo ezagutu eta neurtu behar dela kontuan hartuta, azterketa hau (Gazteen Euskal Behatokiak egindako gainerako ikerketekin batera) etorkizuneko helburu eta xedeak markatzeko oinarria da.

Gure gazteei galdetu zaie zein diren haien kezka nagusiak, eta enpleguari loturiko gaiak aipatu dira gehien, baita prestakuntzari eta ikasketei loturikoak ere. Egoeraren balorazioak hobera egin duen arren, oraindik badaude erakundeen arreta eskatzen duten gaiak. Eta, zalantzarik gabe, gazteak berak kontuan hartu behar dira haien bizi-kalitatea hobetzera zuzendutako politikak diseinatzeko orduan. Izan ere, azterketan ere agerian uzten den moduan, gazteek parte hartu nahi dute politikak eraikitzen, Europako gainerako gazteen kasuan ere gertatzen den moduan.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Siletik, azterketa honetan, diagnostikoa eskaintzen dugu, EAEko gazteen errealitatea hobetuko duten politikak diseinatzeko tresna gisa erabiltzeko eta, aldi berean, politika horien segimendua egiteko eta eraginkortasuna neurtzeko.

Beatriz Artolazabal Albeniz
Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburua



Sarrera

Euskadiko Gazteak 2016 lana Gazteen Euskal Behatokiak izenburu horrekin lau urtean behin egiten duen ikerketa soziologikoaren bosgarren emanaldia da.

Serieari 2000. urtean eman zitzaion hasiera, eta, beraz, hamarkada eta erdi darama biztanleriaren sektore bat, gazteak, aztertzen. Izan ere, ezaugarri bereizgarriak dituzte gazteek, eta, horrenbestez, erakundeen berariazko arreta behar dute. Gazteen Euskal Behatokiaren egitekoetako bat gizarteari gazteen egoerari buruzko diagnostiko eguneratu eta iraunkorra ematea da, eta horretarako tresna da Euskadiko Gazteak azterketa.

Ikerketaren oinarria gazteen lagin adierazgarri bati egiten zaion etxez etxeko inkesta da, eta gazteen iritziak eta jarrerak biltzen ditu hainbat alderdiri buruz, besteak beste: familia, jardun nagusia, prestakuntza, euskararen ezagutza eta erabilera, jarrera eta iritzi politikoak, partaidetza soziala, aisiaren erabilera, sare sozialekiko eta Internetekiko harremana, erlijio-sinesmenak, zenbait balioen aurreko jarrera, osasuna, eta sexualitatea bizitzeko modua.

Ikerketa honek, aurrekoek bezala, 15 urtetik 29 urtera bitarteko pertsonak jotzen ditu gaztetzat, inguruko testuinguru hurbiletan, adibidez, Europan, egiten den antzera.

Ikerketaren azterketa garrantzitsuenetako bat gazteen iritzien eta jarreraren bilakaerari buruzkoa da. Atal guztietan, informazioa hainbat aldagaitan banatuta ematen da. Oinarritzkoenen artean daude, besteak beste, sexua, adina, bizi diren lurralde historikoa eta elkarrizketatutako pertsonaren jatorria. Halaber, ahal den guztietan, iritziak eta jarrerak EAEko biztanleria osoarekin alderatzen dira, bai eta Espainiako edota Europako gazteekin ere.

Edizio honetako berritasun gisa, nabarmentzekoa da ikerketa honetan aurreko edizioetan aztertu ez ziren zenbait gai jasotzen direla, hala nola gazteek gehien erabiltzen dituzten sare sozialen analisia, ziberaktibismoaren helmena (sare birtualek ahalbidetzen dituzten gizarte-partaidetzarako bide gisa ulertuta) eta sare sozialen bidezko zenbait jazarpen- edo bazterkeria-egoera zehatz.

Euskadiko Gazteak 2016 azterketak, beraz, EAEko gazteen jarrera, balio eta jokabideen argazkia eskaintzen du eta, aldi berean, haien beharren, arazo nagusien eta kezken hurbilketa egiten du. Espero dugu azterketa erabilgarria izango zaiela gazteen esparruan ardura politiko eta teknikoak dituztenei, gizarte osoari eta EAEko gazteei berei.

Ezin dugu sarrera hau amaitu gure galderei eskuzabaltasunez erantzun dieten 1.500 gazteei eskerrak eman gabe, eskaini duten lankidetzarengatik.



Metodologia

Azterketa honetan erabilitako metodologia kuantitatiboa izan da eta, horretarako, elkarrizketa indibidualak egin zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historiko bakoitzeko 15-29 urteko gazteen lagin adierazgarri bati. 1.500 inkesta egin dira, guztira: 400 Araban, 600 Bizkaian eta 500 Gipuzkoan.

Elkarrizketak etxez etxe egin dira eta, horretarako, erantzun egituratu eta itxiak erabili dira galdera gehienetan. Beste galdera batzuetan, ordea, parte-hartzaileen erantzun ireki eta espontaneoak eskatu dira. Elkarrizketak euskaraz edo gaztelaniaz egin dira, inkestari erantzun dioten gazteek eskatzen zuten hizkuntzaren arabera.

Inkestari erantzuteko pertsonen hautapen-prozedura fase anitzeko laginketarekin eta laginketa geruzatuarekin egin da. Lehendabizi, ibilbide kopurua ezarri da (20 inkesta ibilbide bakoitzeko) lurralde historiko bakoitzean: 20 ibilbide Araban, 30 Bizkaian eta 25 Gipuzkoan. Ondoren, inkestak zein udalerrian egingo diren zehazteko, alde aurretik ezarritako ibilbide kopurua eta tainaren arabera (10.000 biztanle baino gutxiago, 10.000 biztanletik 120.000 biztanlera bitarte, eta hiriburuak) sailkatutako udalerrietan gazteen banaketa kontuan hartu da.

Zehazkiago, Arabako 20 ibilbideak honela banatu dira: 3 ibilbide 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan (inkestak horrelako udalerririk bakar batean zein ezaugarri berdineko behin baino gehiagotan egin dira ibilbideak osatu ahal izateko); 2 ibilbide 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan; eta 15 ibilbide Gasteizen. Bizkaiko 30 ibilbideak honela banatu dira: 6 ibilbide 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan; 15 ibilbide 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan; eta 9 ibilbide Bilbon. Azkenik, Gipuzkoako 25 ibilbideak honela banatu dira: 5 ibilbide 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan; 13 ibilbide 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan; eta 7 ibilbide Donostian. Txosten honetako II. eranskinean ibilbide guztiak zehazten dira.

Udalerririk eta ibilbide bakoitzaren barruan bisitatu beharreko helbideak hautatzeko, ausazko abiapuntu bat zehaztu da ibilbide bakoitzean eta markatutako ibilbideari jarraitu zaio, txandakako atarrietara joanez. Atari bakoitzeko solairu bakoitzean inkesta bat egiteko muga jarri da, eta hamar ateko multzo bakoitzeko ezin zen inkesta bat baino gehiago egin. Elkarrizketatuko ziren gazteen azken hautaketa sexu- eta adin-kuotek mugatu dute, eta muga zehatzak ezarri dira okupazio nagusiaren eta emantzipazio-egoeraren harira.

Inkestatuko zen pertsona aukeratu ostean, inkestaren aurkezpen-gutuna erakutsi zaio, inkesta Gazteen Euskal Behatokitako egiten dela egiaztatzen duena. Gutun horretan azaldu da bere erantzunak erabat anonimoak eta konfidentzialak direla eta inkestatutako pertsona guztien esku harremanetarako telefono-zenbaki bat jartzen dela, zalantzak edo bestelako kontuak argitzeko.

Inkestatu beharreko pertsonak 15 urte zituen kasuetan, aitaren edo amaren baimena eskatu da, inkesta egin aurretik. Gainera, kasu guztietan, inkesta nolabaiteko intimitatez egitea eskatu da, hau da, inguruan seniderik izan gabe, horrek eraginik izan ez zedan inkestatutako pertsonaren egiazaletasunean bereziki sentikorrek diren zenbait gairen inguruan galdetutakoan (sexua, droga-kontsumoa, afinitate politikoa eta abar).

Elkarrizketa amaitu ostean, inkestatutako pertsonaren telefono-zenbakia eskatu da, inkesten kalitateari buruzko telefono bidezko kontrola egin ahal izateko. Kontrol horren helburua ibilbideak, kuotak eta galdetegia bera behar

bezala bete direla bermatzea izan da. Akatsak hautemandakoan, zuzendu egin dira, posible izan denean; beste kasu batzuetan, inkestak baliogabetu egin dira eta ezaugarri bereko udalerrietan egindako beste inkesta batzuekin ordezkatu dira, alegia, sexu- eta adin-kuota bereko pertsonen, ogibide- eta bizitegi-muga bera dutenei, egindako inkestekin.

Kalitate-kontrol hori ez da soilik telefonoz egin, baizik eta baita bertaratuta ere. Telefono bidezko ikuskaritzaren kasuan, inkestatutako pertsonen erantzunak egiaztatu dira eta ikuskaritza horretan izandako elkarrizketa grabatu egin da (euskarri magnetikoan). Ikuskaritza presentzialaren kasuan, inkestatzaile bakoitzak eginiko landa-lanaren barruko zenbait etxebizitza aukeratu dira ausaz, baita telefono bidezko ikuskaritza egitea ezinezkoa izan den kasuak ere (telefonoa beti dago komunikatzen, deiak mugatuta ditu, telefonoa itzalita edo estaldurarik gabe dago...). Guztira, inkesten % 43,9 kontrolatu dira (% 35,7 telefonoz eta, gainerako % 8,2, modu presentzialean).

Landa-lan hori 2016ko otsailaren 18tik martxoaren 18ra bitarte egin da. Elkarrizketa gehienak otsailaren 18tik martxoaren 10era bitarte egin ziren, baina inkesten kontrol- eta ikuskaritza-prozesuaren ondorioz, errepikatu egin behar izan dira bertan behera utzitako inkestak; hori dela eta lana martxoaren 18an amaitu zen guztiz.

Inkesta guztiak baliozkotu ostean, emaitzak haztatu egin dira eta milakotara igo dira, EAEko lurralde historikoetako biztanleria gaztearen banaketan oinarrituta aurkeztu ahal izateko, orobat aztertutako adin-taldeen egiazko banaketan oinarrituta, Eustat Euskal Estatistika Erakundeak 2015eko urtarrilaren 1ean argitaratutako biztanleria-datu ofizialekin bat.

Egotz daitekeen laginketa-errorea, lagina erabat ausazkoa izango zatekeen kasu teorikoan, \pm % 2,6 da EAEko gazte guztien artean, konfiantza-maila % 95,5 eta $p=q=0,5$.

Lagin orokorraren barruan multzo zehatz bateko banakoak aukeratzeak hasierako laginketa-erroreak gora egitea dakar. Hori dela eta, zenbait datu aztertutako fenomenoaren hurbilketa gisa ulertzekoak dira, eta ez magnitude zehatz gisa. Edozelan ere, tauletan kolektibo bereizi bakoitzari egindako inkesta kopurua ageri da.

Ikerketaren diseinua, emaitzen azterketa eta txostenaren idazketa Gazteen Euskal Behatokiaren erabateko erantzukizuna dira.

Landa-lana, bestetik, *Ikertalde Grupo Consultor* enpresak egin du, Gazteen Euskal Behatokiak berariaz adierazitako jarraibideei jarraituta. Inkesten kalitate-kontrolerako, beste enpresa baten lankidetzat egon da: *Iritzi, Investigación Social*.

1

Familia-, prestakuntza- eta okupazio-egoera

1.1. SARRERA

EAEEn 15-29 urteko 283.517 gazte zeuden 2016ko urtarrilaren 1ean, aurreko urteetan baino gutxiago, alegia, eta etengabeko beheranzko joera hauteman da; 2000. urtean 15 urtetik 29 urtera bitarteko 466.003 pertsona zeuden; 2004an, berriz, 407.140; 2008an 353.170 gazte zeuden; 2012. urtean 309.078 gazte zeuden eta 2016an, berriz, 283.517.

Gazteen kopuru absolutuak behera egitearekin batera, EAEko bizi-itxaropenak gora egin du eta, ondorioz, pertsona adindun gehiago daude; alegia, gure biztanleria-piramidea zahartzen ari da. Hori dela eta, gazteriak gero eta pisu gutxiago du EAEko biztanleriaren guztizkoaren gainean: 2000. urtean, 15-29 urteko pertsonak EAEEn bizi ziren biztanleen guztizkoaren % 22,2 ziren. 2004an, gazteen pisua % 19,4ra jaitsi zen; 2008an, % 16,4 zen; 2012an, % 14,1; eta 2016an, berriz, % 13,1. Datu horiekin, Europako batezbestekotik oso urrun gaude, 2016an, % 17,4 baitzen Europako batezbestekoa.

Bestalde, inkesta egin zen uneko egoera ekonomikoaren irudi bat izateko, nabarmendu dezakegu 2016ko lehen hiruhilekoko langabezia-tasa % 25,8 zela 16 urtetik 29 urtera bitarteko pertsonengan, Gazteen Euskal Behatokiak eman dituen Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat) datu ofizialen arabera¹. Hau da, lanerako prest dauden eta elkarriketaren aurreko lau asteetan lana bilatzeko kudeaketaren bat egin duten gazteen artean, lautik bat langabezian dago.

16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren langabezia-tasa orokorra hamar puntu baxuagoa da (% 14,5) EAEEn 2016ko lehen hiruhilekoan, Eustaten datuekin bat.

Higiezinen merkatuari dagokionez, etxebizitza libreen (berriak eta bigarren eskukoak) batez besteko prezioa 245.000 euro zen EAEEn 2016ko lehen hiruhilekoan, eta alokairu librearen batez besteko errenta, berriz, 873,80 euro hilean². Salerosketa-prezioak etengabe egin du behera 2007az geroztik, urte hartan maila gorenera heldu ostean. Alokairu-errenten prezioak, bestalde, behera egin zuen hasiera batean baina berriro ari da igotzen, urtetik urtera, 2012az geroztik.

¹ Gazteen Euskal Behatokia. Estatistikak (Lan-atalari buruzko adierazleen kontsulta) [linean] Hemen eskuragarri: <http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-7650x/eu/estatistikak/temasV1.apl?idioma=e&ambito=1> [Kontsulta: 2017/05/11]

² Etxebizitzako Behatokia (2016): *EAEko Higiezinen Eskaintzari buruzko Inkestaren taula estatistikoak. 2016ko 1. hiruhilekoa* [linean] Hemen eskuragarri: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/estatistika/eaeko-higiezinen-eskaintzari-buruzko-inkestaren-taula-estatistikoak-2016ko-1-hiruhilekoa/r41-ovse01/eu/> [Kontsulta: 2017/05/19]

Hezkuntzaren esparruan, nabarmentzekoa da eskola-uzte goiztiarraren, alegia, derrigorrezko ikasketak baino egin ez dituzten eta ikasten jarraitu ez duten (inkesta egin aurreko lau asteetan inolako ikastarorik edo prestakuntzarik ez dute egin) 18 urtetik 24 urtera bitarteko pertsonen ehunekoa % 7,5 zela 2014an (azken datu eskuragarria da hori), alegia, Espainiako eta Europako batezbestekoen azpitik dago (% 19 eta % 10,7, hurrenez hurren, 2016an³). Hau da, euskal gazteek hein handiagoan egiten dituzte derrigorrezko ikasketen osteko ikasketak, Espainiako eta Europako gazteek baino.

Hori oinarri hartuta, jarraian ikusiko dugu non eta norekin bizi diren gazteak, zer familia osatzen dituzten, zer ikasketa-maila duten eta zein den haien okupazio nagusia. Horiek funtsezko datuak dira, ikerketa honetan jorratzen diren gaien inguruan gazteen iritziak eta jokabideak ulertzen lagunduko digutelako.

1.2. FAMILIA- ETA BIZITEGI-EGOERA

EAEko 30 urtetik beherako gazte gehienak jatorrizko familiarekin bizi dira, hau da, gurasoekin, anai-arrebekin eta etxean bizi diren gainerako senideekin. Etxe horren titularrak ez dira gazteak izaten. Gazteriaren % 72ari buruz ari gara.


Gazteen % 24ak adierazten dute jatorrizko familia bizi den etxebizitzaz bestelako batean bizi direla modu jarraituan, hau da, gazteen ia laurdena emantzipatuta dago.

Gazteen % 3, astegunetan, unibertsitate-egoitza batean edo familiaren etxebizitza ez den beste batean bizi dira, eta asteburu eta oporraldietan, familiarekin. Esan liteke pertsona horiek erdi-emantzipatuta daudela.

Gainerako % 1a planteatu direnen bestelako egoera batean dago.

1.1 grafikoa

15-29 URTEKO GAZTEEN BANAKETA, BIZI DIREN ETXEA KONTUAN HARTUTA (%)



Jarraian, egoera horietako bakoitza zehatz-mehatz aztertuko dugu.

³ EUROSTAT, Europar Batasuneko Bulego Estatistikoa: *Database: Youth* (Gazteriari buruzko datu estatistikoak) [linean] Hemen eskuragarri (ingelesez): <http://ec.europa.eu/eurostat/data/database> [Kontsulta: 2017/05/18]

Jatorrizko familiarekin modu jarraituan bizi diren pertsona gehienak, hau da, emantzipatuta ez daudenak, 25 urtetik beherakoak (% 76) eta ikasleak (% 69) dira, eta familiaren dirutik bizi dira nagusiki (% 68), nahiz eta gutxi batzuek beka, gizarte-laguntza edo bestelako diru-sarreraren bat duten. Bikotekidea izan ala ez, ez dira harekin bizi (% 99) eta ez dute seme-alabarik (% 98).

Erdi-emantzipatuen kasuan, esan daiteke kasu gehienetan 20 urtetik 29 urtera bitarteko pertsonak direla (% 79), ikasten ari direla (% 85) eta ekonomikoki familiaren mende daudela (% 75). Baina badaude lanean ari diren pertsonen kasuak ere, beraz, pentsa liteke familiaren etxeaz bestelako udalerrri batean lan egiten dutela eta asteburuetan familiaren etxera itzultzen direla. Termino absolutuetan hain kopuru txikia direnez, ezin da sakonkiago aztertu kolektibo horren egoera.

Bestalde, emantzipatuta daudenek 25 urtetik 29 urtera bitarte dute kasu gehienetan (% 76). Hirutik bi lanean ari dira (% 64) eta, gutxiengoa izanik ere, kolektibo horretan langabezian dauden pertsonen presentzia (% 18,3) handiagoa da batezbesteko orokorra baino. Gehienak lanetik eratorritako diru-sarrerekin bizi dira (% 68), nahiz eta ehuneko handi baten diru-sarrera nagusia langabezia-prestazioa edo gizarte-laguntzak diren (% 17). Gazte emantzipatuen % 59 bikotekidearekin bizi dira eta hamarretik hiruk seme-alabaren bat dute (% 30). Nabarmenezkoa da kolektibo honen barruan atzerrian jaiotako pertsonen presentzia erlatibo handiagoa dutela (gazte emantzipatuen % 31 atzerritarrak dira).

Emantzipatutako gazteen ezaugarriak aztertu ordez, begiratzen badugu zer kolektibok dituzten emantzipazio-zifra handiagoak, ikusten da emantzipazioak nabarmen egiten duela gora adinarekin, ohikoagoa dela emakume gazteengan gizon gazteengan baino, eta handiagoa dela, halaber, atzerrian jaiotako gazteen kasuan EAEn jaiotako gazteen kasuan baino.

1.1 taula

GAZTEEN BANAKETA BIZI DIREN ETXEA KONTUAN HARTUTA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)


(%)	Norekin bizi zara?							
	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Jaiolekua*	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Euskadi	Atzerria
Emantzipatuak	24	29	19	2	17	48	19	50
Erdi-emantzipatuak	3	4	3	2	5	3	2	1
Ez emantzipatuak	72	66	77	96	78	46	78	48
Beste egoera batean	1	1	1	0	0	3	1	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	1184	249

* Espainiako gainontzeko lekuetan jaiotako gazteei buruzko datuak ez dira gurutzaketa-aldagai bezala erabili, laginean gutxi jaso zirelako.

Azken urteotan etengabe egin du gora gazte emantzipatuen ehunekoak: 2004an % 14 ziren eta 2016an, berriz, % 24.

1.2 grafikoa

15-29 URTEKO EMANTZIPATUEN EHUNEKOAREN EBOLUZIOA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

Emantzipazioak gora egiteko arrazioen artean, nabarmentzekoa da euskal gazteek gero eta gehiago erabiltzen dutela alokairu-modalitatea. Gazteen Euskal Behatokiak egindako *Gazteen emantzipazioa Euskadin 2015*⁴ azterketak egiaztatzen duen moduan, 16 urtetik 29 urtera bitarteko gazte emantzipatuen % 73,6 alokairuan bizi dira. Alokairuari esker, erostean baino bizkorrago eta konpromiso-maila txikiagoarekin eskuratu daiteke etxebizitza; hori dela eta, hipoteka-kredituarekin konprometitu nahi ez duten, edo ezin duten, gazteak alokairuaren bidez emantzipatu daitezke.

Azken urteotan gertatu den beste aldaketa nabarmen bat da gora egin duela ezkontuta egon gabe bikotekidearekin bizi diren pertsonen kopuruak. 2004an, 30 urtetik beherako pertsonen % 5 ezkontuta zeuden eta beste % 5 bikotekidearekin bizi ziren, ezkontuta egon gabe. 2016an, legez ezkontutako pertsonen ehunekoa duela hamabi urtekoaren berdina da (% 5), baina ezkontuta egon gabe bikotekidearekin bizi diren pertsonen ehunekoa bikoiztu egin da eta % 10era heltzen dira. Edozelan ere, gazte gehienak ezkongabeak dira eta ez dira bikotekidearekin bizi (% 84). Gainerako % 1a bananduta edo dibortziatuta dago.

Bikotekidearekin bizi diren (legez ezkontuta egon ala ez) emakume gazteen ehunekoa handiagoa da bikotekidearekin bizi diren gizon gazteena baino (% 21 eta % 11, hurrenez hurren). Beraz, horrek adierazten du emakume gazteen gizonezko bikotekideek adin handiagoa izaten dutela eta, beraz, kasu askotan, gure azterketan ezarritako 30 urteko muga gainditzen dutela.

Adinak gora egin ahala, pertsona gehiago bizi dira bikotekidearekin (ezkontuta egon ala ez). 15-19 urteko adin-taldearen % 2 bizi da bikotekidearekin; 20 urtetik 24 urtera bitartekoen % 9; eta 25-29 urtekoen % 33.

Emantzipatutakoen kolektiboan % 59, hau da, erdia baino gehiago ezkontuta daude edo bikotekidearekin bizi dira.

⁴ Bilbao Gaztañaga, Miren; Longo Imatz, Oskar eta Corcuera Bilbao, Nieves (2017): *Gazteen emantzipazioa Euskadin 2015* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/presentacion_publicaciones/eu_10717/adjuntos/emantzipazio_liburua_e.pdf [Kontsulta: 2017/09/30]

Azkenik, nabarmendu behar da 30 urtetik beherako hamar pertsonatik batek duela seme-alabaren bat (% 9). Zehazki, % 6k seme-alaba bakarria dute; % 2k bi dituzte; eta % 1ek hiru seme-alaba edo gehiago dituzte.

Seme-alabak dituzten emakume gazteen kopurua egoera berean dauden gizon gazteen bikoitza da (% 12 eta % 6, hurrenez hurren).


Adinak gora egiten duen heinean, gora egiten du, halaber, seme-alabaren bat dutenen ehunekoak: 15 urtetik 19 urtera bitartekoen % 1ek; 20-24 urtekoen % 5ek; eta 25 urtetik 29 urtera bitartekoen % 18k.

Baina seme-alabak izatea gehien baldintzatzen duen aldagaia jaiolekua da. EAEn jaiotako 30 urtetik beherako pertsonen artean, % 5ek baino ez dituzte seme-alabak. Atzerrian jaiotako diren kasuan, berriz, % 30ek dute seme-alabaren bat.

Seme-alabak dituzten gazteen ehunekoak etengabe egin du gora 2000. urteaz geroztik; urte hartan, gazteen % 3k baino ez zuten seme-alabarik. Azken urteotan atzerriko gazteek biztanlerian pisu handiagoa hartzeak nabarmen eragin du guraso gazteen ehunekoa igotzean.

1.3 grafikoa

SEME-ALABAREN BAT DUTEN GAZTEEN EHUNEKOAREN EBOLUZIOA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

1.3. OKUPAZIOA ETA DIRU-SARRERAK

Jarraian gazteen okupazio nagusia zein den ikusiko dugu, eta aztertuko dugu gazteen diru-sarrera nagusia zein den edo eskura duten diruaren jatorria zein den. Gainera, ikusiko dugu gazte horietako zenbat ari diren lan bila eta zenbatek duten lan-esperientzia atzerrian.

1.3.1. Okupazio nagusia

15 urtetik 29 urtera bitarteko gazteen erdiaren baino gehiagoren (% 55) okupazio nagusia ikasketak dira. Multzo horretan, soilik ikasten dutenak (% 45) eta, ikasketez gainera, dirua izateko lanen bat egiten duten baina ikasle gisa definitzen diren pertsonak (% 10) bereizten dira.


Gazteriaren heren baten (% 32) okupazio nagusia lana da: % 28k modu eskusiboan eta % 4k ikasketaren bat egiten dute, lan egiteaz gainera.

% 11 langabezian daude. Kolektibo honetan, langabezia-prestazioa jasotzen dutenak gutxiengoa dira (% 3), eta gainerako % 8ak ez du prestazioa kobratzen.

% 1ek dio, nagusiki, etxeko lanetan edota familiakoak zaintzen diharduela eta % beste 1ek, berriz, beste egoera batean dagoela dio.

1.4 grafikoa

GAZTEEN BANAKETA, OKUPAZIO NAGUSIA KONTUAN HARTUTA (%)



Adinak gora egiten duen heinean, jaitsi egiten da nagusiki ikasten diharduten gazteen ehunekoa (20 urtetik beherakoan artean % 92 izatetik, % 18 izatera igarotzen da 25 urtetik 29 urtera bitartekoan artean), eta igo egiten da lanean diharduten gazteena (adin handieneko taldean gehiengoa dira) baina baita ere langabezian dauden gazteena.

Emakume eta gizon gazteen artean, ez dago desberdintasun handirik okupazio nagusiari dagokionean. Azpimarragarria da gizon gazteen artean ez dagoela okupazio nagusitzat etxeko lanak, seme-alaben zaintza edo beste senide batzuen zaintza dutenen kasurik; emakume gazteen kasuan, berriz, seme-alaben karga handiagoa da, lehen adierazi dugun moduan, eta egoera hori jasota geratu da, nahiz eta oso pisu txikia izan (% 2).

Jairolekuari begiratzen badiogu, ikus daiteke lanean diharduten gazteen proportzioa oso antzekoa dela EAEn jaio direnen eta atzerrian jaio direnen artean, baina ikasleen eta langabezian dauden gazteen zifrak, berriz, oso desberdinak dira (EAEn jaio diren gazte gehienak ikasten ari dira, eta atzerritarren artean, berriz, herena baino pixka bat gehiago dira ikasleak; gainera, lau atzerritarretik ia bat langabezian dago).

1.2 taula

GAZTEEN BANAKETA OKUPAZIO NAGUSIA KONTUAN HARTUTA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

Orain zure zeregin nagusiaz hitz egingo dugu. Gaur egun ondoko zein egoeratan zaude?								
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Jaiolekua*	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Euskadi	Atzerria
Ikasten	55	54	56	92	63	18	59	37
Lanean	32	33	31	3	24	62	31	32
Langabezian	11	11	11	3	11	18	9	24
Etxeko lanak edo familiakoak zaintzen	1	2	0	0	1	2	0	4
Beste egoera batean	1	0	2	2	1	0	1	3
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	1184	249

* Espainiako gainontzeko lekuetan jaiotako gazteei buruzko datuak ez dira gurutzaketa-aldagai bezala erabili, laginean gutxi jaso zirelako.

Aurreko urteekiko egon den eboluzioa aztertuz gero, ikus daiteke soilik ikasten ari diren pertsonen ehunekoak serieko altuena dela orain. Okupazio bakartzat lana duten gazteek 2012ko ehuneko berdina osatzen dute, baina aurreko urteetan baino askoz pisu gutxiago dute. Bestalde, langabezian dauden gazteen ehunekoak behera egin du 2012. urtearekiko, baina oraindik ere 2000 eta 2008 urteen artean erregistratutako zifren gainetik dago.

1.3 taula

GAZTEEN BANAKETAREN EBOLUZIOA OKUPAZIO NAGUSIA KONTUAN HARTUTA (%)

Orain zure zeregin nagusiaz hitz egingo dugu. Gaur egun ondoko zein egoeratan zaude?					
(%)	2000	2004	2008	2012	2016
Ikasten soilik	43	43	39	41	45
Ikasten eta lanean	8	14	10	10	14
Lanean	41	38	41	28	28
Langabezian	7	4	8	18	11
Etxeko lanak edo familiakoak zaintzen	1	1	2	1	1
Beste egoera batean	0	1	1	2	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100
(n)	1364	1500	1500	1500	1500

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko Gazteak seriea).


1.3.2. Diru-sarreraren jatorria

Gazteen erdia baino gutxiago lanean ari dela ikusita, ez da harrizkoa gazte gehienek diru-sarrerak familiarengandik jasotzen duten diruan oinarritzea (edo bikotekidearen diru-sarrerak, kasu gutxi batzuetan). 15-29 urteko gazteen % 54ren kasuan, hori da diru-sarrera nagusia.

Beste % 37k lana dute diru-iturritzat. Soilik % 2k adierazi dute langabezia-prestazioa dutela baliabide ekonomiko nagusitzat eta gehiagok adierazi dute, % 4k, alegia, eskura duten diru gehiena beste prestazio edo gizarte-laguntza batzuetatik jasotzen dutela, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentatik (DBE), ezgaitasun-pentsioren batetik eta abar. Azkenik, % 1ek beka aipatu ditu eta % 2k, berriz, planteatutako diru-sarreraz bestelakoren bat adierazi dute.

1.5 grafikoa

GAZTEEN BANAKETA, DIRU-SARREREN JATORRI NAGUSIA KONTUAN HARTUTA (%)



Diru-sarreraren jatorria aztertzen badugu, okupazio nagusiaren arabera, ikusiko dugu lan egiten duten pertsonen % 95en kasuan lana dela diru-sarrera nagusia. Ikasleen kasuan, gehienek familiarengandik jasotzen dute dirua (% 84), baina % 13k adierazi dute beren baliabide ekonomiko nagusia lan osagarri edo puntualak direla. Langabezia dauden gehienek kasuan, familia edo bikotekidea da diru-sarreraren jatorri nagusia (% 54); soilik langabeen % 20k adierazi dute diru-sarrerak nagusiki langabezia-prestaziotik jasotzen dituztela, eta % 16k diote beren baliabide ekonomiko nagusia beste prestazio edo gizarte-laguntzaren bat dela.

Adinak gora egiten duen heinean, jaitsi egiten da diru-hornitzaile nagusitzat familia duten gazteen ehunekoa, eta gora egiten du diru-sarrerak lanetik eskuratzen dituzten gazteen ehunekoa.

Gazte etorkinak ere ekonomikoki familiaren mende daude, nagusiki; baina EAEn jaiotako gazteekin konparatuz gero, ikus daiteke gazte atzerritarrek hein txikiagoan jasotzen dutela familiaren dirua eta, bestalde, hein handiagoan daudela prestazio eta gizarte-laguntzen mende.

1.4 taula

GAZTEEN BANAKETA DIRU-SARREREN JATORRI NAGUSIA KONTUAN HARTUTA, ADIN-TALDEAREN, OKUPAZIO NAGUSIAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

(%)	Zein da zure diru-sarrerren iturri nagusia?								
	GUZTIRA	Adin-taldeak			Okupazio nagusia			Jaiolekua*	
		15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Ikasten	Lanean	Langabezian	Euskadi	Atzerria
Familia edo bikotekidea	54	91	58	21	84	4	54	56	46
Lana	37	7	33	66	13	95	0	38	33
Langabezia-prestazioa	2	0	2	4	0	0	20	2	4
Bestelako prestazio edo laguntza sozialak	4	0	4	6	2	0	16	2	12
Beste iturri bat (bekak...)	3	1	3	3	1	1	10	2	4
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	450	450	600	800	489	173	1184	249

* Espainiako gainontzeko lekuetan jaiotako gazteei buruzko datuak ez dira gurutzaketa-aldagai bezala erabili, laginean gutxi jaso zirelako.

1.3.3. Lana bilatzea


Gaur egungo egoera alde batera utzita, gazteen % 35ek diote lana bilatzen ari direla. Langabezian dauden pertsonen artean, % 89 dabilta lan bila. Ikasleen artean, % 27k diote lan bila dabiltzala eta, lanean ari direnen artean, berriz, hiru pertsonatik bat (% 31) beste lan baten bila dabil.

Adinak gora egiten duen heinean, gora egiten du, halaber, lan bila dabiltzan gazteen ehunekoak, eta gauza bera gertatzen da amaitutako ikasketa-maila handiagoa den heinean ere; prestakuntza-etapa amaitutakoan, gazte gehiago dabil lanean eta lan bila.

Atzerrian jaiotako gazteen artean, lan bila dabiltzanen proportzioa handiagoa EAEn jaiotakoen artean baino. Horrek zerikusia du gazte atzerritarren artean ikasle gutxiago egotearekin eta langabezia-egoeran dauden pertsonen proportzioa handiagoa izatearekin.

1.6 grafikoa

LAN BILA DABILTZAN GAZTEAK, ADIN-TALDEAREN, OKUPAZIO NAGUSIAREN, AMAITUTAKO IKASKETA-MAILAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)



Lan bila dabiltzan gazteen ehunekoak behera egin du, duela 4 urteko datuekin konparatuz gero; 2012an, gazteen % 40 lan bila zebiltzan eta 2016an, berriz, % 35. Hori gertatzen da, nagusiki, 2016an langabezian dauden gazteen ehuneko txikiagoa erregistratu delako (ikusitako dugun moduan, gazteak dira hein handiengan lana bilatzen dutenak).

1.3.4. Laneko esperientzia, ikerketa edo praktikaldiak atzerrian

Gaur egun bizi dugun mundu globalizatu honetan, lanari buruz ari garenean, ezin ditugu ahaztu lan-arrazoiengatik atzerrira egiten diren bidaiak.

Gazteen % 8k adierazi dute noizbait (gutxienez) bidaiatu dutela atzerrira lanera. Gazteen beste % 6k diote ikasketa-praktikak edo ikerketaren bat (ikerketa-beka batekin) egin dituztela atzerrian. Arrazoi bat edo bestea dela, gazteen % 12 atzerrira joan dira lanarekin erlazionatutako arrazoiengatik.

Adinak eta ikasketa-mailak gora egiten duen heinean, gora egiten du, halaber, atzerrira lanera joan direla dioten gazteen ehunekoak. Baina, zalantzarik gabe, atzerrian jaiotako gazteak dira gehien joan direnak lanera atzerrira (% 21). Beren burua klase sozial baxukotzat edo ertain-baxukotzat hartzen dutenen artean, gazte gehiagok adierazi dute atzerrira joan izana lanera, klase sozial ertain, ertain-altu edo altukotzat definitzen direnekin alderatuta.

Atzerriko ikasketa-praktikak edo ikerketa ere ohikoagoak dira adinak eta ikasketa-mailak gora egiten duten heinean ere. Baina, kasu honetan, EAEn jaio direnen ehunekoak bikoiztu egiten du atzerrian jaiotako pertsonen kasuan erregistratzen den ehuneko. Era berean, ikasketa-praktikak egiteko edo ikertzeko atzerrira joatea ohikoagoa da klase sozial altuko edo ertain-altuko pertsonen artean, gainerako gazteekin konparatuta.

1.5 taula

ATZERRIRA LANERA, IKASKETA-PRAKTIKAK EGITERA EDO IKERTZERA BIDAIATU DUTEN GAZTEAK, ADIN-TALDEAREN, AMAITUTAKO IKASKETA-MAILAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

(%)	Zu joan al zara inoiz atzerrira ondoko gauzak egitera?*								
	GUZTIRA	Adin-taldeak			Amaitutako ikasketa-maila			Jaiolekua**	
		15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Derrigorrezkoak	Derrigorrezkoen osteko bigarren mailakoak	Goi-mailakoak	Euskadi	Atzerria
Lan egiteko	8	1	7	13	5	8	11	5	21
Ikasketa praktikak egiteko edota ikerketa beka batekin ikertzeko	6	3	6	9	2	5	13	6	3
(n)	1500	450	450	600	566	457	473	1184	249

* Banan-banan aurkeztutako galderei dagozkien baiezko erantzunen ehunekoak dira.

** Espainiako gainontzeko lekuetan jaiotako gazteei buruzko datuak ez dira gurutzaketa-aldagai bezala erabili, laginean gutxi jaso zirelako.

Azken urteotan, jakin nahi izan da zenbat gaztek emigratu duten atzerrira lan egitera eta zenbat geratu diren han. Kopuru hori gutxi gorabehera zenbatesteko, eta pertsona horiengana *ad hoc* inkesta bidez heltzea posible ez denez, EAEn bizi diren gazteei galdetu diegu ea 35 urtetik beherako anai-arrebarik duten atzerrian lanean, edota adin horretako lehengusu edo lehengusinarene bat duten egoera berean (izan ere, familia batzuk seme edo alaba bakarra dute eta, hortaz, inork ezingo luke aipatu atzerrian dagoen pertsona hori).

EAEn jaiotako pertsonen erantzunak bakarrik hartuta (izan ere, atzerrian jaiotako gazteek ziurrenik izango dute familia atzerrian bizitzen eta lanean), esan liteke EAEn jaiotako 15 urtetik 29 urtera bitarteko gazteen % 3k badutela 35 urtetik beherako anai-arrebaren bat atzerrian lanean, eta % 11k badutela adin horretako lehengusu edo lehengusinarene bat atzerrian lanean.

Jarraian, atzerrian lanean dagoen 35 urtetik beherako anai-arreba edo lehengusu-lehengusinarene bat dutela dioten gazteen erantzunak aztertuko ditugu (nahiz eta jakin zenbait kasu beharbada errepikatuta daudela, inkestatutako zenbait pertsona senideak izan litezkeelako eta, hortaz, posible delako atzerrian dagoen gazte berari buruz aritzea), eta atzerrian dituzten senide horiek atzerrira lanera joateko arrazoiei buruzko galderak egingo dizkiegu. Hemen bizi direnek (eta ez emigratutako pertsonak berak) gehien aipatutako arrazoia da hemen lan-itxaropenik ez zutela (% 37). % 17k diote beren senideak esperientzia berriak bizi nahi zituela, beste toki eta kultura batzuk ezagutu nahi zituela, hizkuntzak ikasi nahi zituela eta abar. Beste % 17k aipatu dute atzerrira joateko arrazoia proiektu bat egitea edo lanpostu bat betetzea zela, lehendik ere lan egiten zuen enpresaren barruan. % 14k diote beren senidea ikerketa-beka baten ondorioz edo ikasketa-praktikak egitera joan zela atzerrira. Pertsona gutxiagok adierazten dute senidea familiarekin batera joan zela atzerrira, eta orain han bizi dela eta lanean ari dela (% 6); edo une honetan kanpoan ikasten ari dela eta lana duela, dirua irabazteko (% 2). Gainerako % 7k bestelako arrazoiak adierazi dituzte edo ez dakite zergatik emigratu zuen beren senideak.

1.4. MAILA SOZIALA


Maila soziala aipatzen dugunean, gazteen klase sozialari buruz ari gara, gazteek berek hautematen duten moduan. Klase soziala irizpide ekonomikoetan (ondarea, errentak eta eroste-ahamena) oinarritutako estratifikazioa da, baina pertsonen klase-kontzientzia ere kontuan hartzen du. Kontzientzia horrek, sarritan, erlazio handiagoa du familiaren jatorriarekin edo egoerarekin, norberaren baliabide ekonomikoekin baino.

Kasu honetan, gazteei eskatu zaie zer klase sozialetakoak diren definitu dezaten, beren okupazioa, bizilekua, hilean eskuragarri duten dirua eta abar alde batera utzita.

EAEko gazte gehienek jotzen dute klase ertainekoak direla: % 65ek, alegia. Gazteen % 11k jotzen dute klase sozial altukoak edo ertain-altukoak direla. Moltzo hori, era berean, honela banatzen da: % 1ek dio klase altukoa dela eta % 10ek, berriz, klase ertain-altukoak direla. Bestalde, % 22k esan dute klase sozial baxu edo ertain-baxukoak direla. Hortaz, ikusten dugu beren burua klase baxukotzat edo ertain-baxukotzat hartzen duten pertsonen kopuruak bikoiztu egiten duela beren burua klase altu edo ertain-altukotzat dutenena. Edozelan ere, eta lehen taldean gertatzen zen moduan, kolektibo honetan ere gehienek muturrekoak ez diren posizioetan kokatzen dute beren burua (% 17k jotzen dute klase sozial ertain-baxukoak direla, alegia, klase baxukoak direla diotenak -% 5- baino askoz gehiagok). Azkenik % 2k ez dute bere burua definitu.

1.7 grafikoa

GAZTEEN BANAKETA, BEREN BURUA KOKATZEN DUTEN KLASE SOZIALA KONTUAN HARTUTA (%)



Kolektibo gehienetan, beren burua klase ertainekotzat jotzen duten pertsonak gailentzen dira. Baina klase sozial altukoak edo ertain-altukoak, edo klase sozial baxukoak edo ertain-baxukoak direla dioten artean, zenbait diferentzia nabarmentzen dira.

Pertsonak zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta argiago kokatzen dute beren burua klase sozial altuan edo ertainean. 15-19 urtekoen taldean, pertsona gehiagok jotzen dute beren burua klase sozial altuko edo ertain-altukotzat (% 15), klase baxu edo ertain-baxukotzat (% 13) baino. Bestalde, 25 urtetik 29 urtera bitarteko adin-taldean, klase sozial baxu edo ertain-baxuaren kontzientzia handiagoa da (% 30), klase altu edo ertain-altuarena baino (% 7).

Neurri batean adinari lotuta, ikus dezakegu beren burua klase altuko edo ertain-altukotzat gehien jotzen dutenak ikasleak direla (% 13), eta langabezian dauden gazteak direla, berriz, beren burua klase baxu edo ertain-baxukotzat (% 37) gehien jotzen dutenak.

Jaiolekuak ere desberdintasun handiak uzten ditu agerian. Atzerrian jaiotako gazteek askoz hein handiagoan hartzen dute beren burua klase sozial baxu edo ertain-baxukotzat, EAEn jaiotako gazteekin alderatuta (% 35 eta % 20, hurrenez hurren).

1.6 taula

GAZTEEK BEREN BURUA KOKATZEN DUTEN KLASA SOZIALA, ADIN-TALDEAREN, OKUPAZIO NAGUSIAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

(%)	Zein maila sozialetan kokatuko zenuke zeure burua?								
	GUZTIRA	Euskadi			Okupazio nagusia			Jaiolekua*	
		15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Ikasten	Lanean	Langabezia	Euskadi	Atzerria
Altua edo ertain-altua	11	15	10	7	14	8	3	12	4
Ertaina	65	69	67	61	68	65	57	66	58
Ertain-baxua edo baxua	22	13	21	30	16	26	37	20	35
Ed/Ee	2	2	2	1	2	1	3	2	3
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	450	450	600	800	489	173	1184	249

* Espainiako gainontzeko lekuetan jaiotako gazteei buruzko datuak ez dira gurutzaketa-aldagai bezala erabili, laginean gutxi jaso zirelako.

Beren burua klase sozial altu edo ertain-altukotzat jotzen duten gazteen ehunekoak arinki egin du gora, aurreko urteekiko. Beren burua klase baxu edo ertain-baxuan kokatzen duten pertsonen ehunekoa antzera mantendu da 2012tik, baina altuagoa da krisiaz aurreko urteetan izandakoa baino.

Klase baxua edo ertain-baxua gehiago aipatzearekin batera, behera egin du beren burua klase ertainekotzat duten gazteen ehunekoak. Hortaz, esan daiteke klase ertainak pobretu egin direla (egiazki edo subjektiboki), ziurrenik, lan prekarioek gora egin dutelako eta emantzipatzeko zailtasunak hautematen direlako, etxebizitzak garestiak direla eta.

1.7 taula

GAZTEEK BEREN BURUA KOKATZEN DUTEN KLASA SOZIALAREN EBOLUZIOA (%)

(%)	Zein maila sozialetan kokatuko zenuke zeure burua?				
	2000	2004	2008	2012	2016
Altua edo ertain-altua	9	8	7	7	11
Ertaina	81	84	78	71	65
Ertain-baxua edo baxua	8	7	13	21	22
Ed/Ee	2	1	1	2	2
GUZTIRA	100	100	100	100	100
(n)	1364	1500	1500	1500	1500

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

1.5. IKASKETAK ETA PRESTAKUNTZA

Gazteei buruz ari garenean ezinbestekoa da hezkuntza aipatzea; izan ere, lehen ere aipatu dugun moduan, gazte gehienek okupazio nagusia ikasketak dira. Gainera, lan egiten dutenen artean ere, ehuneko txiki bat motaren bateko ikasketaren bat egiten ari da. Hori dela eta, bereziki egokia da gazteen prestakuntza-maila aztertzea.

Atal honetan aztertuko dugu EAEko gazteek zer ikasketa egin dituzten adin-tarte bakoitzean, zer euskara- eta ingeles-maila duten, ikasketa-jardueraren bat egiten ote duten ikasketa arautuez gainera, euskal hezkuntza-sistema nola baloratzen duten, eta orobat ikastegiek zer lan-orientazio eskaintzen duten.


1.5.1. Bukatutako ikasketa-maila

Bukatutako ikasketa-maila maximoa, hein handi batean, adinaren arabera da, batez ere derrigorrezko mailetan, horietan eskola-uztea oso baxua baita. Gazteen % 13k lehen hezkuntza bakarrik dute bukatuta, eta derrigorrezko bigarren mailako ikasketak egiten ari dira. % 25ek derrigorrezko bigarren mailako ikasketak amaitu dituzte (DBH edo antzekoa), ikasten jarraitzen duten ala ez alde batera utzita. % 31k derrigorrezkoaz osteko bigarren mailako ikasketak amaitu dituzte: % 21ek Batxilergoa eta % 10ek lanbide-heziketako erdi-mailako zikloa. % 31 dira, halaber, goi-mailako tituluren bat dutenak: % 15ek lanbide-heziketako goi-mailako zikloa egin dute, % 12k unibertsitate-gradua egin dute, %3k gradu ondoko ikasketak, masterra edo doktoretza egin dute, eta gainerako % 1ak, berriz, goi-mailako arte-ikasketak.

15-19 urte dituztenen artean, gehienek (% 77) derrigorrezko hezkuntza bakarrik amaitu dute, eta beste % 22k derrigorrezkoaz osteko bigarren mailako ikasketak dituzte bukatuta. 20 urtetik 24 urtera bitarteko kasuan, ia erdiak (% 48) bukatu du derrigorrezkoaz osteko bigarren hezkuntza, eta herenak (% 34) goi-mailako ikasketak ditu. Adin handieneko taldean (25-29 urtekoak), erdiak baino gehiagok (% 53) dituzte goi-mailako ikasketak, baina nabarmentzekoa da 25 urtetik 29 urtera bitarteko bost pertsonatik batek (% 22) derrigorrezko ikasketak bakarrik bukatu dituela.

1.8 grafikoa

GAZTEEK AMAITUTAKO IKASKETA-MAILA HANDIENA, ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)



Harrigarria da 25-29 urtekoen taldean derrigorrezko hezkuntza bakarrik bukatu duten pertsona gehiago egotea, 20-24 urteko adin-taldean baino. Hori gertatzen da adin handiagoko taldean atzerrian jaio diren pertsona gehiago

daudelako eta, aurrerago ikusiko dugun moduan, atzerritarren ikasketa-maila baxuagoa izaten da EAEn jaiotako gazteena baino.

Hezkuntza-maila altuena zer kolektibok duten aztertzeko, eta EAeko gazteen ikasketa-mailak zer bilakaera izan duen ikusteko, 25 urtetik 29 urtera bitarteko adin-taldea bakarrik hartuko dugu kontuan, tarte horretan goi-mailako ikasketak bukatuta izateko beharrezko adina izaten baita.


25-29 urteko emakumeek ikasketa-maila altuagoa izaten dute adin-talde bereko gizonek baino: emakumeen % 57k eta gizonen % 48k dituzte goi-mailako ikasketak.

Beren burua klase sozial altuko edo ertain-altukotzat duten 25 urtetik 29 urtera bitarteko pertsonak dira hezkuntza-maila altuena dutenak (% 71k goi-mailako ikasketak dituzte). Lortutako ikasketa-mailak behera egiten du klase sozialak ere behera egin ahala; horrela, adin-talde bererako, beren burua klase sozial ertainekotzat hartzen dutenen % 56k dituzte goi-mailako ikasketak, eta % 44k, berriz, beren burua klase sozial baxu edo ertain-baxukotzat dutenen kasuan.

EAEn jaiotako 25-29 urteko gazteen % 60k goi-mailako ikasketak burutu dituzte. Atzerriko gazteen kasuan, ehunekoa nabarmen baxuagoa da, % 27, alegia.

1.9 grafikoa

25 URTETIK 29 URTERA BITARTEKO GAZTEEK AMAITUTAKO IKASKETA-MAILA HANDIENA, SEXUAREN, KLASA SOZIAL SUBJEKTIBOAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)



2016an eta 2012an 25-29 urteko gazteek zuten ikasketa-maila maximoak konparatzen baditugu, ikusiko dugu ez dela ia aldaketarik egon: 2012an, adin-tarte horretako pertsonen % 22k derrigorrezko titulazioa bakarrik zuten; % 26k derrigorrezkoaz osteko bigarren hezkuntzako titulazioa zuten (Batxilergoa edo lanbide-heziketako erdi-mailako zikloa); eta % 52k goi-mailako ikasketak zituzten (lanbide-heziketako goi-mailako zikloa edo graduoko zein gradu ondoko unibertsitate-ikasketak).

Bestalde, ikasketa-maila aztertu ordez, egindako ikasketa motari begiratzen badiogu (derrigorrezko ikasketak, Batxilergoa, erdi-mailako edo goi-mailako heziketa-zikloak eta unibertsitate-ikasketak), ikusiko dugu 15 urtetik 29 urtera bitarteko pertsonen taldean % 15ek bakarrik burutu dituztela unibertsitate-ikasketak, eta asko samar direla (% 38) derrigorrezko ikasketak baino egin ez dituztenak.


Adin-taldeka aztertzea funtsezkoa da, prestakuntza-etapak nola burutzen diren ikusteko. Eta 30 urtetik beherako pertsonen bost urteko multzoek duten eboluzioari 29 urtetik gorako pertsonen datuak gehitzen badizkiogu, gazteriaren prestakuntzak izan duen eboluzioaren irudi osoagoa lortuko dugu.

20 urte izan aurretik, lau pertsonatik hiruk derrigorrezko ikasketak baino ez dituzte bukatu eta gainontzeko 15-19 urteko gazteen artean askoz gehiagok egin dute (arrakastaz) Batxilergoa, heziketa-zikloa egin dutenekin alderatuta. 20 urtetik 24 urtera bitarteko pertsona gehienek Batxilergoa edo heziketa-zikloa (erdi-mailakoa edo goi-mailakoa) dute eginda. 25 urtetik 29 urtera bitartean, herenak baino ez ditu ikasketak utzi derrigorrezko ikasketen edo Batxilergoaren titulua lortu eta gero, eta gehienek titulazio profesionala edo unibertsitate-titulazioa dute. Gainera, adin-talde honetan, heziketa-zikloak egin dituztenak gehiago dira (% 35), unibertsitate-ikasketak bete dituztenak baino (% 31).

Adinean aurrera egiten jarraituz gero, ikusiko dugu adinak gora egin ahala gora egiten duela oinarritzko ikasketak dituzten pertsonen ehunekoak, eta behera egiten dutela, berriz, ikasketa profesionalen eta unibertsitate-ikasketen tituludunek⁵.

1.10 grafikoa

GAZTEEK AMAITUTAKO IKASKETA MOTA, ADIN-TALDEAREN ARABERA, ETA 29 URTETIK GORAKO EAEKO BIZTANLEEN IKASKETEKIKO KONPARAZIOA, ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)




30 urteko eta gehiagoko biztanleriari buruzko datu-iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (60. Euskal Soziometroa).

Berrito ere 25-29 urteko taldeari begiratzuz gero (horretan, gehienek jadanik amaitu dituzte ikasketa arautuak), diferentziak hautematen dira gizonen eta emakumeen artean. Emakumeek hein handiagoan egin dituzte unibertsitate-ikasketak (% 37) eta gizonek, berriz, erdi-mailako edo goi-mailako heziketa-zikloak (% 39).

⁵ Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariak (2016): 60. Euskal Soziometroa. Euskal iritzi publikoa 20 urtetan [linean] Hemen eskuragarri: http://www.euskadi.eus/documentacion/sociometro_vasco_60/eu_def/adjuntos/16sv60.pdf [Kontsulta: 2017/05/17]

1.11 grafikoa

25-29 URTEKO GAZTEEK AMAITUTAKO IKASKETA MOTA, SEXUAREN ARABERA (%)



Datu horien eboluzioa aztertuz gero, ikusiko dugu gizonen eta emakumeen arteko diferentziak jadanik agerikoak zirela aurreko urteetan ere.

Edozelan ere, 25-29 urteko pertsonen burututako ikasketa motaren eboluzioa aztertzean, azpimarragarriena da heziketa-zikloen (erdi-mailakoak edo goi-mailakoak) pisuak gora egin duela, 2012. urteaz geroztik gainditu egiten baitu unibertsitate-ikasketen pisua.

2004an, unibertsitate-titulazioa zuten 25-29 urteko gazteen ehunekoak nabarmen gainditzen zuen heziketa-zikloen (LH-I edo LH-II) bat egin zuten gazteen ehunekoa. 2008an behera egin zuen goi-mailako ikasketak egin zituzten pertsonen ehunekoak, gazteak hein handiagoan laneratu zirelako (urte horretan langabezia-tasa txikiagoak ziren); hala, gora egin zuten soilik Batxilergoa burutu zuten gazteen ehunekoak. 2012an, krisialdi ekonomiko bete-betea eta langabezia-tasa altuak zeudenean, gora egin zuen heziketa-zikloak egitea aukeratu zuten gazteen kopuruak, batetik, heziketa-zikloak laneratzeko itxaropen hobek eskaintzen zituztelako eta, bestetik, mota guztietako ziklo gehiago eskaintzen zirelako. 2016ko egoera 2012koaren antzekoa da.

1.8 taula

25-29 URTEKO GAZTEEK AMAITUTA DUTEN IKASKETA MOTAREN EBOLUZIOA (%)

Zein ikasketa maila duzu amaituta?				
(%)	2004	2008	2012	2016
Derrigorrezkoak edo Batxilergoa	31	41	35	33
Lanbide-heziketako erdi- edo goi-mailako zikloak	27	28	34	35
Unibertsitate-ikasketak	42	31	30	31
GUZTIRA	100	100	100	100
(n)	500	500	600	600

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

Azkenik, azpimarratzekoa da lanean diharduten 25-29 urteko gazteen ehunekoa oso antzekoa dela heziketa-zikloren bat egin dutenen (% 69) eta unibertsitate-ikasketak egin dituztenen (% 68) artean.

1.5.2. Ikasketa-esperientziak edo ikasketa-elkartrukeak atzerrian

Ikasketak osatzeko, gazte asko atzerrira joaten dira hizkuntzak ikastera edo hobetzera, baita ikasketak egitera edo eskola- zein unibertsitate-elkartrukeetan parte hartzera ere. Gazteen % 23az ari gara hizkuntza-ikasketen kasuan, eta % 14az, bestelako ikasketen edo elkartrukeen kasuan.

Bi arrazoi horietakoren bat dela medio, 15-29 urteko EAEko gazteen % 27 atzerrira joan dira, ikasketen harira.

Neskek mutilek baino gehiago bidaiatu dute atzerrira, arrazoa hizkuntzak ikastea edo hobetzea zenean (nesken % 25 eta mutilen % 20), baita bidaia hori ikasteko edo eskola- zein unibertsitate-elkartrukeetan parte hartzeko egiten zenean ere (nesken % 17 eta mutilen % 12).

25 urtetik beherako pertsonen artean honelako esperientzia gehiago daude 25 urtetik 29 urtera bitartekoen artean baino, nahiz eta desberdintasunak oso nabarmenak ez izan.

Ikasketa-maila eta, batez ere, ikasketa mota dira erabakigarriak: bi esperientziak ohikoagoak dira Batxilergoa edo unibertsitate-ikasketak burututa dituztenen artean, heziketa-zikloak egin dituztenen artean baino.

Edozelan ere, klase soziala da aldagai erabakigarriena. Izan ere, beren burua klase altu edo ertain-altukotzat hartzen duten gazteak (hortaz, baliabide ekonomiko handienak dituztenak) dira ikastera atzerrira gehien bidaiatu dutenak.

1.9 taula

ATZERRIRA IKASKETA-ARRAZOIENGATIK BIDAIATU DUTEN GAZTEAK, AMAITUTAKO IKASKETA MOTAREN ETA KLASE SOZIAL SUBJEKTIBOAREN ARABERA (%)

Zu joan al zara inoiz atzerrira ondoko gauzak egitera?*								
(%)	GUZTIRA	Amaitutako ikasketa mota				Klase sozial subjektiboa		
		Derrigo- rezkoak	Batxi- lergoa	Heziketa- zikloak	Unibertsitate- ikasketak	Altua edo ertain- altua	Ertaina	Baxua edo ertain- baxua
Hizkuntza bat ikasi edo hobetzeko	23	14	32	17	39	42	21	20
Ikasteko edota eskolako edo unibertsitate ikasle-trukeetan parte hartzeko	14	7	23	10	27	31	13	11
(n)	1500	566	310	368	245	166	963	347

* Banan-ban aurkeztutako galderi dagozkien baiezeko erantzunen ehunekoak dira.

1.5.3. Ingeles-maila

EAEko gazteen % 42k diote ondo edo nahiko ondo mintzatzen direla ingelesez. % 35k diote badakitela ingeles pixka bat eta laurden batek (% 24) aitortzen du ez dakiela ezertxo ere, edo hitz gutxi batzuk baino ez dakizkiela.


Ingeles-ezagutza handiagoa da adin-talde gazteenean eta, bestalde, gora egiten du burututako ikasketa-mailak ere gora egiten duen heinean. Baina egindako ikasketa motan ikusten dira diferentzia handienak, ikasketa-mailan baino gehiago. Unibertsitate-ikasketak egin dituzten gazteek dakite ingeles gehien; talde horretan, % 61ek ondo edo nahiko ondo daki ingelesez, eta erdi-mailako edo goi-mailako heziketa-zikloren bat egin duten gazteen % 25ek baino ez.

Ingelesa hobekien hitz egiten dutenak, edozelan ere, atzerrira hizkuntzak ikastera edo hobetzera joan diren gazteak dira, edo atzerrian ikasi dutenak edo eskola- zein unibertsitate-elkartrukeak egin dituztenak. Talde horretan, % 72k diote ingelesez ondo edo nahiko ondo mintzatzen direla.

Bestalde, gazte atzerritarren ia erdiak (% 48) diote ez dakitela batere ingelesik edo hitz gutxi batzuk baino ez dituztela ezagutzen.

1.12 grafikoa

GAZTEEN INGELES-MAILA, ADIN-TALDEAREN, AMAITUTAKO IKASKETA MOTAREN, IKASKETAK ATZERRIAN EGITEAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)



Gazteen ingeles-mailak hobera egin du azken lau urteetan. 2012an, 15 urtetik 29 urtera bitarteko pertsonen % 30ek zioten ingelesez ondo edo nahiko ondo zekitela hitz egiten. 2016an, berriz, % 42k aitortu dute ingeles-maila hori.


1.5.4. Euskara-maila

Hamar gaztetik zazpik adierazi dute euskaraz ondo edo nahiko ondo dakitela hitz egiten (% 69). Baina euskararen ezagutza-maila ez da uniformea EAE osoan, alegia, alde nabarmenak daude lurralde historikoen artean.

Araban, gazteen % 51k diote ondo edo nahiko ondo dakitela euskaraz; Bizkaian, % 68k; eta Gipuzkoan daude zifra altuenak, alegia, % 79k. Gainera, Gipuzkoan euskaraz oso ondo hitz egiten dakitenek gehiengoa osatzen dute, beste bi lurraldeetan ez bezala.

1.13 grafikoa

GAZTEEN EUSKARA-MAILA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)



Adinak behera egin ahala, gehiagok diote euskara oso ondo edo nahiko ondo ezagutzen dutela. Bukatutako ikasketa-maila ere zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da euskara-maila.

Azkenik, jaiolekua erabakigarria da: atzerrian jaio direnen artean, gehienek (% 76) ez dakite batere euskararik edo hitz gutxi batzuk baino ez dituzte ezagutzen.

1.10 taula


GAZTEEN EUSKARA-MAILA, ADIN-TALDEAREN ETA AMAITUTAKO IKASKETA-MAILAREN ARABERA (%)

Zure euskara-mailari dagokionez...?	Zure euskara-mailari dagokionez...?						
	GUZTIRA	Adin-taldeak			Amaitutako ikasketa-maila		
		(%)	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Derrigorrezkoak	Derrigorrezkoen osteko bigarren mailakoak
Oso ondo hitz egiten dakite	47	53	49	41	40	47	56
Nahiko ondo hitz egiten dakite	22	28	20	18	25	24	17
Zerbait esan dezakete	11	7	12	12	10	9	11
Ez dakite ezer edo hitz batzuk baino ez	20	12	19	29	25	20	16
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	450	450	600	566	457	473

Euskaraz oso ondo edo nahiko ondo dakitela dioten gazteak taldekatuz gero, ikusten da gazteek euskara hitz egiteko duten ezagutza-mailak edo gaitasunak gora egin duela. Xehetasun gehiagoz aztertuz gero, hautematen da gorakada hori Bizkaian gertatu dela; Gipuzkoan egoera ia berdin mantendu da eta Araban, berriz, atzerakada txikia egon da.

1.14 grafikoa

EUSKARA ONDO EDO NAHIKO ONDO DAKITEN GAZTEEN EHUNekoAREN EBOLUZIOA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

1.5.5. Etengabeko ikaskuntza

Etengabeko ikaskuntza edo bizi osoko ikaskuntza (*lifelong learning*) Europako hezkuntzaren arloko politikaren zutabeetako bat da eta etengabeko prestakuntza du xede, lanera bideratuta edo ez. Europako Batzordeak honela definitu du: ikuspegi pertsonal, zibiko, sozial edo enpleguari lotutako ikuspegitik begiratuta, kualifikazioak, jakintzak eta gaitasunak hobetzeko helburuarekin bizitza osoan egindako ikasteko jardueraren oro. Definizio zabal horretan pertsonaren bizitza osoko ikaskuntzari ematen zaio garrantzia eta ikaskuntza formala, ez-formala eta informala biltzen ditu⁶.

EAEko gazteen etengabeko ikaskuntzaren nondik norakoa aztertzeko, azken hamabi hilabeteetan ikastaro edo prestakuntzako jardueraren bat egin ote duten galdetu diegu gazteei, ikasketak zabaltzearekin, aisialdiarekin, kirolarekin eta abarrekin loturik (baina ikasketa-planetan sartzen ez dena, ikasleen kasuan).

Gazteen % 40k diote azken urtean halako prestakuntza-jardueraren bat egin dutela. Ehuneko hori ez da ia aldatu azken lau urteetan; alegia, 2012an, % 41ek zioten ikastaro edo prestakuntza osagarriren bat egin zutela.

Ez da alde handirik hautematen sexuaren edo adin-taldearen arabera, baina bai, ordea, okupazioaren arabera. Ikasleak dira prestakuntza-jardueraren osagarri gehien egiten dituztenak (zehazki, gazte ikasleen % 45ek). Gainera, ikasketa-


⁶ Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila. *Etengabeko ikaskuntza* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-644/eu/contenidos/informacion/etengaitaskun/eu_def/index.shtml [Kontsulta: 2017/05/16]

maila altuagoa den heinean, gazte gehiagok egiten dituzte beren curriculuma edo prestakuntza hobetzeko jarduerak, eta unibertsitate-ikasketak eginda dituztenek agertzen dituzte ehuneko altuenak, ikasketa mota guztien artean.

Baina zifra altuenak dituen kolektiboa beren burua klase sozial altu edo ertain-altukotzat duten gazteena da. Talde horretan, pertsonen erdiak baino gehiagok adierazten dute prestakuntza-ikastaro edo -jardueraren bat egin dutela (ikasketen osagarria, baldin eta ikasten ari badira) azken urtean.

1.15 grafikoa

GAZTEEK IKASKETA ARAUTUETATIK KANPOKO IKASTARO EDO PRESTAKUNTZA-JARDUERAK EGITEA AZKEN URTEAN, OKUPAZIO NAGUSIAREN, AMAITUTAKO IKASKETA-MAILAREN, AMAITUTAKO IKASKETA MOTAREN ETA KLASA SOZIAL SUBJEKTIBOAREN ARABERA (%)



EAEEn jaiotako gazteek hein handiagoan egiten dituzte prestakuntza-jarduerak atzerrian jaiotakoek baino (% 42 eta % 30, hurrenez hurren).

1.5.6. Euskal hezkuntza-sistemaren balorazioa


Hezkuntza-maila, hizkuntzen ezagutza-maila eta bestelako prestakuntza-jarduera osagarriak ikusi ostean, aztertuko dugu gazteek nola baloratzen duten EAEen eskaintzen den hezkuntza, bai hezkuntza-sistematik eskaintzen dena orokorrean eta bai lanbide-heziketako ikasketen eta unibertsitate-ikasketen eskaintza.

Hiru gaztetik bik (% 67) jotzen dute EAEko hezkuntza-sistema oso ona edo nahiko ona dela. % 9k nahiko txarra edo oso txarra dela diote, eta gainerakoien artean, batzuek ez dute ez iritzi onik eta ez txarrik (% 20) eta beste batzuek ez dute erantzun (% 4).

Euskal hezkuntza-sistemaren balorazio positiboak nabarmen hobera egiten jarraitzen du gazteen artean. 2000. urtean, gazteen % 44k iritzi ona zuten euskal hezkuntza-sistemari buruz. Ehuneko horrek hobera egiten jarraitu du pixkanaka, eta jaitsi egin da iritzi ez ona eta ez txarra ez dutenen proportzioa; izan ere, 2000. urtean bi ehunekoaren arteko aldea 5 puntukoa zen eta 2006an, berriz, portzentajezko 47 puntukoa.

1.16 grafikoa

GAZTEEK EUSKADIKO HEZKUNTZA-SISTEMAZ EGITEN DUTEN BALORAZIOAREN EBOLUZIOA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

Euskal hezkuntza-sistema baloratzeko orduan, iritziak nahiko uniformeak dira eta ez dago ia alderik kolektiboen artean. Oro har, EAEko hezkuntza-sistema hobekien baloratzen dutenak ikasleak dira (horietako % 70ek iritzi oso ona edo nahiko ona dute euskal hezkuntza-sistemari buruz) eta balorazio txarrena egiten dutenak berriz, langabezian dauden gazteak dira (nahiz eta, halere, iritzi positiboa izan % 60k). Lanean diharduten gazteek euskal hezkuntza-sistemaren balorazio positiboa egiten dute kasuen % 66an.

Egindako ikasketa-mailaren edo motaren arabera, ez dago alde esanguratsurik. Halaber, atzerriko eskola- edo unibertsitate-elkartrukeetan parte hartu izanak edo atzerrian ikasi izanak ere ez du eragin handirik (halakoetan, beste hezkuntza-sistema batzuk ezagutzen dira eta EAEkoa haiekin konparatuz baloratu daiteke). Esperientzia hori bizi izan dutenek, eta ez dutenek, balorazio positiboa egiten dute euskal hezkuntza-sistemari buruz (% 66 eta % 68, hurrenez hurren).

Jarraian, balorazio-esparrua xehetasun handiagoz zehaztuko dugu. Arreta lanbide-heziketan edo heziketa-zikloetan jartzen badugu, ikusiko dugu gazteen % 56k iritzi oso ona edo nahiko ona dutela EAEn eskaintzen diren heziketa-zikloen inguruan (erdi-mailakoak eta goi-mailakoak). % 5ek baino ez dute iritzi negatiboa (nahiko txarra edo oso txarra). % 13k ez dute iritzi ez onik eta ez txarrik, eta % 26k ez dute iritzirik adierazi.

Erantzunik eman ez dutenen ehunekoa ikusita (oinarrian, ezagutza-faltarengatik), egokiagoa da heziketa-zikloen bat (erdi-mailakoa edo goi-mailakoa) egin dutenen erantzunak soilik kontuan hartzea. Kolektibo horretan, lautik hiruk (% 74) oso iritzi ona edo nahiko ona dute EAEn eskaintzen diren heziketa-zikloi buruz. % 16k ez dute iritzi ez onik eta ez txarrik. Eta halako ikasketak egin dituztenen % 7k iritzi negatiboa dute (oso txarra edo nahiko txarra) ikasketa profesionalen EAEko eskaintzari buruz. Gainerako % 3k ez diote galderari erantzun.


Unibertsitate-ikasketei dagokienez, sarrerako arazo berarekin egiten dugu topo. Gazte guztien % 43k EAEko unibertsitate-eskaintzaren balorazio positiboa egiten dute; % 14k ez dute ez iritzi onik eta ez txarrik; % 6k balorazio negatiboa egiten dute; eta % 37k ez diote galderari erantzun. Hori dela eta, graduako edo gradu ondoko unibertsitate-ikasketak egin dituztenengan zentratuko gara.

Unibertsitate-ikasketak egin dituzten gazte gehienek (% 63) iritzi oso ona edo iritzi nahiko ona dute EAEko unibertsitate-ikasketei buruz. % 19k ez dute ez iritzi onik eta ez txarrik. % 11k iritzi negatiboa dute (nahiko txarra edo oso txarra). Gainerako % 7k ez dute erantzun.

Bakoitzak egindako ikasketa motaren arloan EAEko hezkuntza-eskaintzari buruzko balorazioak konparatzen baditugu, ikusiko dugu ikasketa profesionalak egin dituzten gazteek hobeto baloratzen dituztela EAEn eskaintako heziketa-zikloak, unibertsitatean ikasi dutenek EAEko unibertsitate-ikasketei buruz eginiko balorazioa baino.

1.17 grafikoa

EUSKADIN ESKAINTZEN DIREN HEZIKETA-ZIKLOEI ETA UNIBERTSITATE-IKASKETEI BURUZKO IRITZIA, HALAKO IKASKETAK EGIN DITUZTEN GAZTEEN ALDETIK (%)



1.5.7. Ikastegian eskaintako orientazio profesionalaren balorazioa

15-29 urteko gazteen erdiak baino zertxobait gehiagok balorazio positiboa egiten dute ikastegian etorkizun profesionaleko aukerei buruz jaso dituzten informazioari eta orientazioari buruz: gazteen % 54k uste dute oso ona edo nahiko ona izan dela. % 22k uste dute ez dela ez ona eta ez txarra izan; eta % 12k uste dute informazio eta orientazio txarra edo oso txarra jaso zutela. Bestalde, gazteen % 8k adierazi dute beren ikastegian ez zutela inolako informaziorik edo orientaziorik jaso etorkizunera begira, eta gainerako % 4ak ez dute erantzun. Hortaz, askoz gehiago dira beren ikastegian eskaintako orientazio profesionala ona izan zela uste dutenak, txarra izan zela uste dutenak baino.

Derrigorrezko ikasketak baino bete ez dituzten pertsonak dira hein handiengan adierazi dutenak ez dutela inolako informaziorik edo orientaziorik jaso beren etorkizun profesionalari buruz (% 12). Edozelan ere, aztertutako gainerako


kolektiboetan gertatzen den moduan, jasotako orientazioari buruzko balorazio positiboek gainditu egiten dituzte negatiboak (% 51 eta % 8, hurrenez hurren, kolektibo honetan).

Heziketa-zikloak egin dituzten gazteen eta unibertsitatean ikasi duten gazteen balorazioak bereizten baditugu, ikusiko dugu lehen taldeak hobeto baloratzen duela jasotako informazio eta orientazio profesionala.

Langabezian dauden pertsonen artean, beren ikastegian lan-orientaziorik jaso ez duten pertsonen proportzioa % 12 da, eta lanean edo ikasten ari diren pertsonen kasuan, berriz, % 7. Gainera, langabezian dauden gazteek beren ikastegian jasotako lan-orientazioari buruz egiten duten balorazio positiboa batez bestekoaren azpitik dago (% 43) eta, talde horretan, balorazio ez ona eta ez txarra egiten dutenen proportzioa beste taldeetan baino handiagoa da (% 26).

1.18 grafikoa

GAZTEEK IKASTEGIAN JASOTAKO LAN-ORIENTAZIOARI BURUZ EGITEN DUTEN BALORAZIOA, OKUPAZIO NAGUSIAREN ETA AMAITUTAKO IKASKETA MOTAREN ARABERA (%)



1.6. ONDORIOAK

Gazte gehienak familiaren etxean bizi dira. Aitzitik, gazteen ia laurdena emantzipatuta dago eta emantzipazio-datuek gora egin dute azken urteotan.

Adinak gora egiten duen heinean, gora egiten du, halaber, emantzipatuen ehunekoak; dena den, adin handieneko taldean (25 urtetik 29 urtera bitartekoak) ere ez dira gehiengoak izatera iristen. Emakume emantzipatu gehiago dago, gizon emantzipatuak baino. Baina, zalantzarik gabe, emantzipazio-zifra handienak dituen kolektiboa gazte atzerriarrena da (atzerrian jaiotako pertsonen erdia emantzipatuta dago).

Gazte emantzipatu gehienak bikotekidearekin bizi dira. Bikotekidearekin ezkondata egon gabe bizi diren pertsonen kopuruak bikoiztu egiten du legez ezkondata daudenen kopurua.

Hamar gaztetik bakarrak du seme-alabaren bat, baina zifra hori hirukoiztu egiten da gazte emantzipatuen eta gazte atzerritarren kasuan.

Gazteen erdiak baino gehiagok ikasketak ditu okupazio nagusitzat; herena baino ez da lanean ari. Lana duten gazteen proportzioak gora egiten du adinarekin batera, eta gehiengoa dira 25-29 urteko gazteen artean.

Ikasketak egiten denbora asko ematearekin lotuta, ikusten da hamar gaztetik hiruk goi-mailako ikasketak dituztela, alegia, gradu edo gradu ondoko unibertsitate-ikasketak, goi-mailako heziketa-zikloak edo goi-mailako arte-ikasketak. 25-29 urteko taldeari berriro begiratzen badiogu (adin horietan gehienek jadanik amaitu dute prestakuntza-etapa), ikusten da erdiak baino gehiagok duela goi-mailako titulazioa.

Bestalde, 15 urtetik 29 urtera bitarteko hamar gaztetik lauk ondo dakite ingelesez eta, hamar gaztetik zazpik, ondo dakite euskaraz. Unibertsitate-titulazioa duten gazteak dira ingeles gehien dakitenak. Amaitutako ikasketak mailak gora egin ahala, hobea da, halaber, euskaraz ondo egiteko gaitasuna, baina alde esanguratsuenak lurralde historikoarekin du erlazioa: Gipuzkoako gazteak dira euskara gehien dakitenak eta, lurralde horretan, gazte gehienek diote oso ondo dakitela, Araban eta Bizkaian gertatzen ez den bezala.

Orobat, 30 urtetik beherako hamar pertsonatik lauk prestakuntza-jarduera gehigarriren bat egin dute azken hamabi hilabeteetan. Unibertsitate-titulazioa duten gazteak dira ikastaro eta prestakuntza-jarduera gehigarri gehien egin dituztenak, horiek edozein motatakoak izanik ere.

Hobera egin du euskal hezkuntza-sistemaren gaineko balorazioak, oro har, eta 2016an hiru gaztetik bik iritzi oso ona edo nahiko ona dute hezkuntza-sistemari buruz. EAEko heziketa-zikloen eta unibertsitate-ikasketen eskaintza baloratzeko orduan, ikusten da heziketa-zikloak (erdi-mailakoak edo goi-mailakoak) egin dituztenek zertxobait hobeto baloratzen dituztela EAEn eskaintzen diren heziketa-zikloak, unibertsitate-titulazioak dituztenek EAEko unibertsitate-ikasketei buruz egiten duten balorazioarekin konparatuta. Edozelan ere, balorazio positiboak nagusitzen dira bi taldeetan.

Heziketa-zikloak egin dituzten pertsonak dira, halaber, beren ikastegian jasotako lan-informazioa eta -orientazioa hobekien baloratzen dutenak.

Hamar gaztetik batek atzerrira bidaiatu du lan-arrazoiak direla eta, eta laurdenak baino gehiagok, ikasketak direla eta.

Gazteen okupazioa eta baliabide ekonomikoak edozein izanik ere, gehienek klase sozial ertainekotzat jotzen dute beren burua, eta hori hala izan da kolektibo guztietan. Dena den, egia da adinak gora egin ahala (eta, horrekin batera, langabezian dauden gazteen zifrak igo ahala), igo egiten dela beren burua klase sozial baxu edo ertain-baxukotzat jotzen dutenen proportzioa. Beren burua klase sozial baxu edo ertain-baxukotzat jotzen duten gazteen kopurua askoz handiagoa da 2012an eta 2016an, krisi ekonomikoaz aurreko urteetan baino.

2

Egoera pertsonalaren eta sozialaren balorazioa

2.1. SARRERA

Euskal gazteek beren egoera pertsonalari, gazteria orokorraren egoerari eta euskal gizarte osoaren egoerari buruz duten iritzia testuinguruaz ezagutzeko, 2016ko otsailaren 18aren eta martxoaren 18aren artean, egun horietan gauzatu baitzen inkesta-lana, bai eta lehenago izandako gertaera esanguratsuenak gogoraraztea komeni da.

2015ean ondoz ondoko bi hauteskunde-prozesu egon ziren, eta mapa politikoan Podemos eta Ciudadanos alderdi berriak indarrez sartu ziren. 2015eko maiatzaren 24an udal-hauteskundeak egon ziren Estatu osoan, baita EAEko udal-hauteskundeak eta Batzar Nagusietako hauteskundeak ere.

Udal-hauteskundearen ondoren, 2015eko abenduaren 20an, hauteskunde orokorrak egin ziren, *Euskadiko Gazteak 2016* txostenaren landa-lana hasi baino bi hilabete lehenago, hain zuzen. Hauteskunde horietan Podemos eta Ciudadanos alderdi politiko berrien errebalida izan zen, Estatuko politikan.

Podemosek 42 diputatu lortu zituen hauteskunde horietan (horri erkidegoetako hauteskunde-koalizioen 27 aukiak gehitu behar zaizkio) eta 40, berriz, Ciudadanosek; hala, gobernua eratzea zaildu egin zen. Mariano Rajoyk, boto gehien jaso zituen alderdikoa (Alderdi Popularra) hautagaiak, uko egin zion gobernuko presidentetzarako hautagaitzat aurkezteko erregaren gonbidapenari, ezin zuelako behar adinako gehiengoa lortu. Ciudadanosekin akordio batera heldu ostean, PSOEko hautagai Pedro Sánchezek onartu egin zuen hautagai gisa aurkeztea, baina baztertu egin zuten Ganberan, martxoaren lehen egunetan. Maiatzaren 3an Diputatuen Kongresua eta Senatua desegin ziren, Espainiaren historiako legealdi laburrena amaituz, eta beste hauteskunde-prozesu bat deitu zen 2016ko ekainaren 26rako.

Ezgonkortasun politikoaren ondorioz, okerrera egin zuten finantza-erakundeek hazkunde ekonomikoari buruz egindako aurreikuspenek, iragarri baitzuten atzerakada egongo zela enplegua eta ekonomia berreskuratzen.

EAEan, 16 urtetik 29 urtera bitarteko gazteen langabezia-tasa pixkanaka jaisten hasia zen, 2013an eta 2014an maximoetara heldu ostean, baina oraindik ere % 25ekoa zen 2015eko azken hiruhilekoan eta 2016ko lehen hiruhilekoan.

Politikak bizitza sozialean presentzia bizia zuen testuinguru horretan jaso genuen gazteen iritzia beren egoerari eta arazo esanguratsueni buruz, alegia, proposamen berriak eta ekonomiaren eta lanaren esparruan ziurgabetasun handia zeuden egoera batean.

2.2. EGOERA PERTSONALAREN BALORAZIOA

Nahiz eta egoera oso aldekoa ez izan, batez ere lan-merkatuari dagokionez eta gazteek emantzipatzeko dituzten aukerei dagokionez, EAEko gazteak, oro har, gustura daude beren egoera pertsonalarekin. Gehien-gehienek (% 79) adierazi dute gustura daudela; % 14 ez daude ez gustura eta ez ez-gustura; eta % 7k adierazi dute ez daudela gustura une honetan duten egoerarekin.

Egoera pertsonalarekin gustura daudela adierazi dute gehienek, baina ez hori bakarrik, izan ere, hamabost puntutan egin dute gora 2000. urtetik. Ildo horretan, esan daiteke gazte gehienak oraindik ikasten ari direla eta gurasoekin bizi direla, eta, ondorioz, ez dietela oraindik lan-munduko zailtasunei edo etxebizitza eskuratzeko zailtasunei aurre egin. Hala, egoera pertsonalarekin gustura egotea, nagusiki, familiarekiko eta lagunetikiko harremanen, aisia-esperientzien, denbora librearen eta prestakuntzaren araberakoa da. Pertzepzio hori beste eremu geografiko batzuei buruzko, beste talde sozialei buruzko edo, besterik gabe, helduen egoerari buruzkoarekin alderatzen badute, baliteke euren egoera pertsonala besteena baino hobea dela ulertzea, funtsean, haiek baino egoera txarragoan daudenekin alderatzen dutelako.

2.1 grafikoa

EGOERA PERTSONALAREKIKO GOGOBETETZEAREN EBOLUZIOA (%)



20 urtetik beherako gazteak dira, gehienbat, egoera pertsonalarekin gustura daudela diotenak (% 86). Adinean aurrera egin ahala, gustura daudela dioten ehunekoak nagusi diren arren, txikitu egin dira (20-24 urtekoetan % 77, eta 24 urtetik gorakoetan % 76). Horren arabera, badirudi gazteak ikastetxetik atera eta lan-merkatuan txertatzen hasten diren heinean, hau da, errealitatearekin kontaktu handiagoa izaten dutenean, emantzipatzeko zailtasunak izaten dituztenean eta abar, beren gogobetetze-mailak behera egiten duela.

Hain zuzen ere, okupazio nagusia da desberdintasun handienak agerian uzten dituena: ikasten edo lan egiten duten hamar gaztetik zortzi gustura agertzen dira beren bizitzarekin, eta langabezia dauden gazteen erdia baino ez.

Bestalde, gizonen eta emakumeen arteko aldeak ez dira esanguratsuak.

2.1 taula

NORBERAREN EGOERA PERTSONALAREKIKO GOGOBETETZEA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)


Zuk, oro har, nola ikusten duzu zure egoera pertsonala gaur egun? Pozik zaude ala ez zaude pozik?									
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Okupazio nagusia		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Ikasten	Lanean	Langabezia
Pozik zaude	79	81	78	86	77	76	83	82	52
Ez zaude pozik ezta gaizki ere	14	12	15	10	18	13	12	13	26
Ez zaude pozik	7	7	6	4	5	10	4	5	22
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	800	489	173

Egoera pertsonalarekiko adierazitako gogobetetze-mailarekin koherente izanik, bitzta nola doakien galdetu diegunean, 0-10 bitarteko eskala batean balioesteko eskatu diegu eta 7,3ko batez besteko balioa lortu da.

Batezbesteko hori 2000. eta 2004. urteetan jasotakoak baino puntu-erdi handiagoa da 2016an, bai eta EAEko 18 urtetik gorako biztanleriak 2016an adierazitakoa baino puntu bat handiagoa ere gazteen artean.

2.2 grafikoa

EGOERA PERTSONALAREN KALIFIKAZIOAREN EBOLUZIOA, GAZTEENGAN ETA BIZTANLERIA OROKORREAN (0-10 ESKALA)



18 urteko eta gehiagoko biztanleriari buruzko datu-iturria: Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (*Euskal Soziometria* 60. *Euskal iritzi publikoa 20 urtetan*).

Gogobetetze-maila adierazi dutenean bezalaxe, gaur egun bitzta nola doakien puntuatu behar dutenean, 20 urtetik beherakoek eman dute puntuazio handiena (batez beste 7,5 puntu). Sexuaren arabera ez dago alde handirik; bai, ordea, okupazioaren arabera: langabezia dauden gazteak dira puntuazio txikiena agertzen dutenak (6,0), alegia, okupazio nagusitzat ikasten edo lanean ari diren gazteen puntu eta erdi azpitik.

2.2 taula

NORBERAREN EGOERA PERTSONALAREN KALIFIKAZIOA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (0-10 ESKALA)

Otiak 10erako eskala erabiliz (0ak esan nahi du oso txarto eta 10ak oso ondo), nola esango zenuke doakizula bitzta gaur egun?									
Batez bestekoa (0-10)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Okupazio nagusia		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Ikasten	Lanean	Langabezian
Egoeraren balorazioa	7,3	7,3	7,3	7,5	7,3	7,2	7,5	7,5	6,0
(n)	1500	750	750	450	450	600	800	489	173

2.3. ARAZO PERTSONALAK

Gazteen kezka nagusiak ezagutzeko, gazteei eskatu zaie beren kabuz adieraz ditzaten (hau da, erantzunik iradoki gabe) gehien kezkatzen dituzten hiru gaiak.

Lan-merkatuari loturiko arazoak aipatu dituzte gehien gazteek, bai krisialdi ekonomikoa hasi aurretik, bai ondoren. 2016an aurreko urteekiko izan den berrit asun handiena (2012an arazo ekonomikoak ziren nagusi) da hezkuntzak eta ikasketek kezken artean bigarren postua dutela, serie honetan lehen aldiz.

Hirugarren tokian, arazo ekonomikoak daude, bai pertsonalak, bai orokorrak; laugarrenean, norberaren osasuna edo osasun-sistema, oro har; eta bosgarrenean, etxebizitza eta emantzipatzeko zailtasunak. Azken hori Euskadiko gazteen kezka nagusia izan zen 2008an (higiezinen burbuilaren eta sektoreko prezio-gorakadaren une gorenarekin bat eginez), lanaren aurretik (gogoan izan behar da une hartan langabezia-tasa oraingoa baino dezente baxuagoa zela).

2.3 taula

GAZTEEN ARAZO EDO KEZKA NAGUSIEN EBOLUZIOA (%)*

Zeintzuk dira zuri gehien kezkatzen zaituzten arazoak?			
(%)	2008	2012	2016
Lanari loturiko arazoak	63	73	56
Hezkuntza eta ikasketak	15	15	22
Arazo ekonomikoak	19	32	15
Osasuna eta osasun-sistema	3	11	8
Etxebizitza eta emantzipazioa	67	18	8
(n)	1500	1500	1500

* Ehuneko baturak 100 gaingaitzen du hiru erantzun eman ahal zirelako.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

Hortaz, gazteen kezka nagusia lana da, zehazkiago, lan-falta edo lan-baldintzak.

2016an, Euskadiko gazteen % 56k diote lan-merkatuari lotutako arazoak direla kezka nagusia; besteak beste, langabezia, laneko prekarietatea, aldi baterako lan-kontratuak, lan-erreforma eta soldata baxuak.

Ez da harritzekoa lan-merkatuari lotutako arazoak aipatzea, 2016ko lehenengo hiruhilekoan (hots, inkesta egin denean) % 25,8koa izan baita 16 urtetik 29 urtera bitartekoen langabezia-tasa, Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) Gazteen Euskal Behatokiari emandako BJA datuen arabera⁷. Bestela esanda: lanean hasteko moduan dauden lau gaztetik batek ez du lanik aurkitzen, nahiz eta modu aktiboan bilatu.

Tasa hori Europar Batasuna osatzen duten 28 herrialdeetako gazteen 2015eko batezbestekoa (% 15,7, Eurostat Europako Erkidegoko Estatistika Bulegoak emandako datuen arabera) baino 10 puntu handiagoa da⁸. Halaber, 2016ko lehen hiruhilekoan, EAeko biztanleria orokorraren langabezia-tasa % 14,5 da (Eustaten datuen arabera⁹), hau da, gazteen langabezia-tasa biztanleria orokorraren langabezia-tasa baino hamar puntutik gora altuagoa da. Hortaz, agerian geratu da zailtasunak dituztela gazteek Euskadin lana lortzeko.

Baina, lana lortu ondoren, laneko prekarietatearen arazoa dago. 2015eko amaieran, Gazteen Euskal Behatokiak egindako inkesta batean¹⁰, gazte landunen % 44,2k adierazi zuten aldi baterako lana zutela, eta % 5,9k, berriz, ez zutela lan-kontraturik. Horretaz gain, gazte landunen herenak (% 34,6) esan zuten lanaldi partzialeko lanpostua zuela; gehienek nabarmendu zuten ez zutela halako lanik nahi, baina ez zutela aurkitu lanaldi osokorik, edo enpresak enplegu-erregulazioko espedientea zuela eta horrek lanaldia murriztera behartzen zuela. 30 urtetik beherako gazteen batez besteko soldata, inkesta hartan bertan gazte landunek emandako kopuruetatik abiatuta kalkulatuta, ia ez zen 1.000 eurora iristen hilean (hain zuzen ere, 996 euro zen). Eta hori, kontuan hartu gabe ia erdiak (% 46,7) aitortutakoa; alegia, beren lanak ez zuela edo ia ez zuela zerikusirik zeukaten prestakuntzarekin.

Edonola ere, 2012an baino gutxiagok aipatu dituzte lan-merkatuari lotutako arazoak, urte hartan aipatu baitzen gehien; hain zuzen ere, gazteen % 73k aipatu zituzten, beren kabuz. Baina urte hartako langabezia-tasa altuagoa zen 2016koa baino.

Hala ere, argitu behar da era horretako arazoak aipatu dituzten gazteen ehunekoaz ari garela, eta ez emandako erantzunen ehunekoaz, hiru erantzun eman zitezkeenez, batzuetan pertsona berberak alor bereko bizpahiru arazo aipatu baititu. Datu honek adierazten du zenbat gaztek aipatzen dituzten mota bakoitzeko arazoak, pertsona berberak behin baino gehiagotan aipatuta ere.

Lan-merkatuari lotutako arazoak are gehiagotan aipatzen dira adinean aurrera egin ahala; horrela, 20 urtetik beherakoen % 30k aipatu dituzte, 20-24 urtekoen % 64k, eta 25 urtetik 29 urtera bitartekoen % 71k.

Alde horiek logikoak dira, kontuan izan behar baita 15-19 urtekoen artean gehienak ikasten ari direla, eta gai honen inguruan dauzkaten kezkak beste era batekoak direla (hain zuzen ere, ikasketak amaitzean lanik aurkituko

⁷ Gazteen Euskal Behatokia: Estatistikak (Lan-atalari buruzko adierazleen kontsulta) [linean] Hemen eskuragarri: <http://www.gazteaukera.euskadi.net/r/58-7650x/eu/estatistikak/temasV1.apl?idioma=e&ambito=1> [Kontsulta: 2017/05/11]

⁸ EUROSTAT, Europar Batasuneko Bulego Estatistikoa: Database: Database by themes: Population and social conditions: Youth (gazteriari buruzko datu estatistikoak eta definizioak) [linean] Hemen eskuragarri (ingelesez): <http://ec.europa.eu/eurostat/data/database> [Kontsulta: 2017/05/15]

⁹ EUSTAT, Euskal Estatistika Erakunde. Biztanleria jardueraren arabera [linean]. Hemen eskuragarri: http://eu.eustat.eus/bancopx/euskara/id_2307/indiceRR.html [Kontsulta: 2017/09/25]

¹⁰ Bilbao Gaztañaga, Miren; Longo Imatz, Oskar eta Corcuera Bilbao, Nieves (2016): *Gazteak eta enplegua Euskadin 2015* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteak_bilduma/eu_liburuak/adjuntos/Juventud_empleo%202015_e.pdf [Kontsulta: 2017/05/15]

duen). Aldiz, 25 urtetik gorako gehienek amaitu dute prestakuntzaldia, eta langabezia-tasa altua eta lan prekario asko duen lan-merkatuari aurre egiten ari dira.

Ia ez dago alderik sexuaren edo lurralde historikoaren arabera, baina bai okupazio nagusiaren arabera. Izan ere, langabezia daudenean aipatzen dituzte gehien era horretako arazoak (hots, % 81ek), baina baita gazte landun gehienek ere (% 65ek).

2.4 taula

GAZTEEN ARAZO NAGUSIAK, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN
ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)*

%	Zeintzuk dira zuri gehien kezkatzen zaituzten arazoak?								
	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Okupazio nagusia		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Ikasten	Lanean	Langabezia
Lanari loturiko arazoak	56	56	57	30	64	71	46	65	81
Hezkuntza eta ikasketak	22	27	18	40	21	9	35	7	8
Arazo ekonomikoak	15	16	15	9	18	18	13	18	18
Osasuna eta osasun-sistema	8	10	7	8	10	8	9	8	8
Etxebizitza eta emantzipazioa	8	8	8	1	7	14	4	13	14
(n)	1500	750	750	450	450	600	800	489	173

* Ehunekoen baturak 100 gaintzen du hiru erantzun eman ahal zirelako.

Lana lortzeko itxaropenik ez izatea hain arazo handia da, ezen alboratu egiten baititu gainerako kezka; horregatik dago hainbesteko alde bigarren arazoarekin, hots, ikasketekin (% 22).

2013ko amaieran, LOMCE onartu zen, eta horrek ziurgabetasuna eragin du haren aplikazioari buruz, bereziki DBH eta Batxilergoa amaitutakoan errebalida egiteari buruz; bestalde, garestitu ere egin dira unibertsitateko tasak, besteak beste. Hori guztiori ikasleen betiko kezkei gehitu zaie (azterketak gaintzea, nahi diren ikasketak egin ahal izatea eta abar), eta, horren ondorioz, handitu egin da arazo horren aipamen kopurua, 2008ko eta 2012ko % 15etik.

Esan dugun moduan, lanari lotutako arazoak gehiagotan aipatzen dira adinean gora egin ahala, baina, ikasketen kasuan, kontrakoa gertatzen da, gazteenek (gehienak ikasleak) aipatzen baitituzte gehien: alegia, 15-19 urtekoen % 40k, eta 25-29 urtekoen % 9k.

Kasu honetan badira aldeak sexuaren arabera. Mutilek baino neurri handiagoan aipatzen dituzte neskek hezkuntzarekin eta ikasketekin erlazionatutako arazoak: hain zuzen ere, nesken % 27k, eta mutilen % 18k. Jakina, ikasle diren gazteek aipatzen dute kezka hori batez ere (% 35).

Gazteek gehien aipatzen dituzten arazoetatik hirugarrena arazo ekonomikoei lotuta dago: diru-falta, etxeko egoera ekonomikoa, bizitza garestitzea eta abar.

Arazo hau lanari lotuta dago; horregatik izan zen aipatuena 2012an (% 32), lan-merkatuaren arazoekin batera, krisialdi ekonomikoaren eta hark lan-merkatuan duen eraginaren ondorio zuzen gisa.

2016an, langabezia-tasa txikiagoa denez, gutxiagotan aipatu da 2012an baino, lan-merkatuari lotutako arazoekin gertatzen den moduan. 2012an gazteen % 32k aipatu bazituzten ere arazo ekonomikoak, 2016an % 15ek aipatu dituzte.

Kasu honetan, 20 urtetik gorakoen eta beherakoen artean dago aldea. 15 urtetik 19 urtera bitartekoen artean, % 9k aipatu dituzte arazo ekonomikoak; 20 urtetik 24 urtera bitartekoen artean, % 18k; eta 25-29 urtekoen artean ere, % 18k.

Gazte landunen % 18k eta langabezian daudenen proportzio berak aipatu dituzte arazo horiek, ikasleek baino zertxobait gehiago (% 13).

Kasuan kasu, gainerako arazoak gazteen % 10ek baino gutxiagok aipatu dituzte. Lehen esan dugun moduan, osasuna eta osasun-sistema daude gazteek dauzkaten kezken sailkapeneko laugarren tokian. 2016an, gazteen % 8k aipatu dituzte arazo horiek kezka nagusien artean.

Arazo honen aipamen kopuruaren bilakaera gorabeheratsu samarra da. 2008an, gazteen % 3k aipatu zuten arazo hori, eta 2012an, berriz, % 11k. Ziurrenik aldaketa hori ez da gazteen osasuna andeatzearen ondorio, baizik eta krisialdi ekonomikoak osasun-arloan eragin dituen murrizketen ondorio.

Bosgarren tokian etxebizitza dago. 2016an, gazteen % 8k aipatu dute etxebizitza, baina azken zortzi urteetan beherakada nabarmena izan du gazteen kezken zerrendan. 2008an (etxebizitza garestien zegoen garaian) kezka nagusia izan zen (% 67), baina, 2012an gazteen % 18k aipatu zuten eta, 2016an, berriz, % 8k.

Beherakada horren arrazoietakoa bat izan daiteke, langabezia-egoera eta laneko prekarietatea ikusita, gazte askok ez dutela asmorik epe motzera emantzipatzeko eta, hortaz, ez direla ari etxebizitza bila. Lanak eta egoera ekonomikoak ez badute apur bat ahalbidetzen etxebizitza eskuratzea, horrek asmo errealista izateari uzten dio, logikoa denez.

Egoera hori testuinguruan kokatzeko, halaber esan dezakegu, Etxebizitzako Behatokiak kaleratutako datuen arabera, 2016ko lehenengo hiruhilekoan Euskadin etxebizitza libreen batez besteko prezioa (etxebizitza berriak eta erabiliak aintzat hartuta kalkulaturakoa) 245.200 eurokoa izan dela¹¹. Etxebizitza garesti egoteaz gain, oso zaila izaten da hipoteka-kredituak lortzea, nomina finkoa eta diru-sarrera nahikoak izan behar baitira banku-erakundearen onarpena izateko. Alokairua aukeratu gero, batez besteko alokairu-errenta 873,80 eurokoa izan da hilean hiruhileko horretan. Kontuan izanda gazte landunen batez besteko soldata hilean 996 euro dela, garbi dago gazte gehienek ezin dutela bakarrik emantzipatu, ezta bakarrik etxebizitza erosi ere (ez dugu ahaztu behar lanean ari diren eta, hortaz, soldata jasotzen duten gazteak gutxiengoa direla 30 urtetik beherakoen artean).

Etxebizitzarekin eta emantzipazioarekin erlazionatutako arazoak batez ere 25-29 urtekoek aipatu dituzte (2016an, % 14k).

Etxebizitzaren atzetik, beste arazo batzuk daude; hona hemen kasuan kasu arazo horiek aipatu dituzten gazteen ehunekoak:

- Familia (familia-harremanak, senideren baten egoera...): gazteen % 7k aipatu dute.
- Gizarte-desberdintasunak eta sexismoa: gazteen % 6k aipatu dituzte.

¹¹ Etxebizitzako Behatokia (2016): *ob. cit.*

- Egoera politikoa, alderdien arteko konfrontazioa, adostasun politiko falta...: % 6k aipatu dituzte.
- Etorkizunarekiko kezka (% 4).
- Emakumeen aurkako indarkeria (% 3).
- Ustelkeria eta iruzurra (% 3).
- Drogak (% 3).
- Ingurumen-arazoak (% 3).
- Balioen krisia edo balio-falta: norberekoikeria, intolerantzia, errespetu-falta (% 2).
- Lagunekiko arazoak (% 2).
- Bake-prozesua, ETako presoen egoera (% 2).
- Immigrazioa eta hari lotutako arazoak, arrazakeria kasu (% 2).
- Zerbitzu eta laguntza publikoen funtzionamendua eta estaldura (% 2).
- Euskararekin erlazionatutako era guztietako arazoak, erabiltzen ez delako edo lana lortzeko beharrezkoa delako (% 1).
- Delinkuentzia eta herritarren segurtasun-falta (% 1).
- Gazteentzat lokalik ez egotearen arazoak, aisialdiko eskaintza txikia... (% 1).
- Bullyinga (% 1).
- Amodioarekin edo bikotekidearekin erlazionatutako arazoak (bikotekidearekiko harremanak, bikotekiderik ez izatea...) (% 1).
- Pentsioak (% 1).

Gazteen kezkek eta oro har 18 urtetik gorakoek alderatzen baditugu¹², ikus dezakegu bi kasuetan lan-merkatuari lotutako arazoak direla aipatuena: hain zuzen ere, gazteen % 56k aipatzen dituzte, eta oro har 18 urtetik gorakoek % 53k.

Bigarren arazoa aztertzean agertzen dira diferentziak. Gazteentzat, ikasketak dira bigarren arazoa (% 22k aipatu dituzte; aldiz, oro har 18 urtetik gorakoek % 7k baino ez); eta, oro har 18 urtetik gorakoentzat, berriz, osasuna (% 15ek aipatu dute; eta 15-29 urtekoen kasuan % 8k baino ez).


Bi taldeetan, arazo ekonomikoak daude hirugarren tokian, antzeko portzentajeak dituztela: gazteen % 15entzat, eta oro har 18 urtetik gorakoek % 13rentzat.

Beste alde nabarmen batzuk ere badaude; besteak beste, zenbat pertsonak aipatu dituzten pentsioak (gazteen % 1era ez da heltzen, nahiz eta, oro har biztanleria orokorraren % 6k aipatu) eta etorkizunarekiko kezka (gazteen % 4k eta, oro har, biztanleria orokorraren % 1ek baino gutxiagok).

¹² Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2016): *ob. cit.*

2.3 grafikoa

GAZTEEN ETA BIZTANLERIA OROKORRAREN KEZKEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)*



* Ehunekoen baturak 100 gainditzen du hiru erantzun eman ahal zirelako.

18 urteko eta gehiagoko biztanleriari buruzko datu-iturria: Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea.


2.4. GAZTEEN EGOERAREN BALORAZIOA, ORO HAR

Gazteen egoeraren balorazioak hobera egin du, nahiz eta oraindik pixka bat handiagoa den egoera txarra dela uste dutenen ehunekoa (% 26), egoera ona dela uste dutenena baino (% 24). Gazteen ia erdiak (% 49) esan dute egoera hala moduzkoa dela, hots, ona alderdi batzuetan eta txarra beste batzuetan.

Azken hamabost urteotako emaitza negatiboenak 2012an izan ziren, urte hartan hamar gaztetik ia lauk uste baitzuten gazteriaren egoera txarra zela. 2016an, ehuneko horrek behera egin du; gazteen laurden batek balorazio negatiboa egin du gazteen egoerari buruz.

2.4 grafikoa

GAZTERIA OSOAREN EGOERARI BURUZKO BALORAZIOAREN EBOLUZIOA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko Gazteak seriea).

Gizon gazteek emakume gazteek baino neurri handixeagoan uste dute egoera positiboa dela, eta adinak gora egiten duen heinean, iritzia negatiboagoa da. Lanean ari direnek edo langabezian daudenek ere pertzepzio negatiboagoa dute ikasleek baino. Dena den, argitu behar da langabezian dauden gazteen iritzia hobe puntutan baino gehiagotan hobera egin duela 2012az geroztik, urte hartan % 55ek esan baitzuten gazteriaren egoera txarra zela.

2.5 taula

GAZTERIA OSOAREN EGOERAREN BALORAZIOA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)

Nolakoa da, zure ustez, gaur egungo gazteen egoera, oro har?									
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Okupazio nagusia		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Ikasten	Lanean	Langabezian
Ona	24	21	27	29	24	20	26	21	19
Hala moduzkoa	49	53	46	52	52	45	51	47	49
Txarra	26	26	26	19	24	33	22	32	31
Ed/Ee	1	1	1	0	0	2	1	0	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	800	489	173

Baina gazteen egoerari buruz iritzi negatiboa agertzen dutenak beren burua klase sozial baxu edo ertain-baxukotzat duten gazteak dira. Hala, % 43k uste dute gazteen egoera txarra dela, eta proportzio horrek gazte guztien batezbestekoa hamazazpi puntutan gainditzen du.

Politikarekiko interesak ere diferentziak erakusten dizkigu. Balorazioa negatiboagoa da politikan interes handia edo dezente interes duten gazteen artean (% 36k diote gazteriaren egoera txarra dela), politikan interes gutxi edo inolako interesik ez dutenekin alderatuta (% 19).

2.6 taula

GAZTERIA OSOAREN EGOERAREN BALORAZIOA, KLASE SOZIAL
SUBJEKTIBOAREN ETA POLITIKAREKIKO INTERESAREN ARABERA (%)

Nolakoa da, zure ustez, gaur egungo gazteen egoera, oro har?						
(%)	GUZTIRA	Klase sozial subjektiboa			Politikarekiko interesa	
		Altua edo ertain-altua	Ertaina	Baxua edo ertain-baxua	Handia edo nahikoa	Gutxi edo batere ez
Ona	24	14	29	11	17	29
Hala moduzkoa	49	69	48	46	47	51
Txarra	26	16	22	43	36	19
Ed/Ee	1	1	1	0	0	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	166	963	347	800	489


2.5. EUSKADIKO EGOERAREN BALORAZIOA

2016an Euskadiko egoera orokorrari buruz gazteek egindako balorazioak hobera egin du, eta 2008ko balioetara heldu gara. Gazteen % 31k uste dute egoera ona dela; % 53k uste dute positiboak diren eta positiboak ez diren alderdi batzuk daudela; eta, azkenik, % 14k uste dute egoera txarra dela.

Euskadin egoera ona dela uste duten gazteen kopurua 2000. urteaz geroztik izan dugun altuena da, eta bikoiztu egiten du egoera txarra dela uste dutenen kopurua.

2.5 grafikoa

EUSKADIKO EGOERA OROKORRAREN BALORAZIOAREN EBOLUZIOA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

Emakumeek gizonak baino hein txikiagoan uste dute Euskadiko egoera orokorra ona dela, baina ehuneko txikiagoa dute, halaber, erantzun negatiboaren aukeran. Edozelan ere, diferentziak ez dira oso nabarmenak.

Adina da, berriro ere, gazteen arteko aldeak zehazten dituen aldagaia. Zenbat eta adin txikiagoetan, orduan eta positiboagoa da iritzia; 15 urtetik 19 urtera bitarte dituzten gazteen artean, % 37k uste dute egoera ona dela, eta 20 urte edo gehiago dituztenen artean, berriz, proportzio hori ez da % 30era iristen.

Ikasleek (lagineko gazteenak izan ohi dira, oro har) iritzi positiboagoak agertzen dituzte lan egiten dutenek edo langabezian daudenek baino.

Baina (datu globalek 2012az geroztik hobera egitearen ildo berean) nabarmendu behar da langabezian dauden gazteen artean ere hobera egin duela balorazioak. 2016an langabezian dauden gazteen % 19k uste dute Euskadiko egoera txarra zela; 2012an, berriz, proportzio hori % 40ra heltzen zen.

2.7 taula

EUSKADIKO EGOERA OROKORRAREN BALORAZIOA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)

Nolakoa da, zure ustez, Euskadiren egoera, oro har?									
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Okupazio nagusia		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Ikasten	Lanean	Langabezian
Ona	31	29	32	37	29	27	34	26	27
Hala moduzkoa	53	55	50	51	56	52	51	56	51
Txarra	14	13	15	9	14	18	12	17	19
Ed/Ee	2	3	3	4	1	3	3	1	2
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	800	489	173

2016an, diferentzia handienak eragiten dituen aldagaia elkarrizketatutako pertsonen beren buruari aitortzen dioten klase soziala da. Beren burua klase baxu edo ertain-baxukotzat duten gazteen % 27k uste dute egoera txarra dela, eta proportzio hori gazteria orokorraren datua baino portzentajezko 13 puntu altuagoa da.

Politikarekiko interesak ere, gai publikoekiko kezka gisa ulertuta, desberdintasunak eragiten ditu, nahiz eta ez klase sozialak bezainbeste. Egoera soziopolitikoan interes handiena agertzen duten pertsonen jarrera kritikoagoa dute eta uste dute gauzak okerrago daudela, politikan interesik ez duten pertsonen baino.

2.8 taula

EUSKADIKO EGOERA OROKORRAREN BALORAZIOA, KLASE SOZIAL SUBJEKTIBOAREN ETA POLITIKAREKIKO INTERESAREN ARABERA (%)


Nolakoa da, zure ustez, Euskadiren egoera, oro har?						
(%)	GUZTIRA	Klase sozial subjektiboa			Politikarekiko interesa	
		Altua edo ertain-altua	Ertaina	Baxua edo ertain-baxua	Handia edo nahikoa	Gutxi edo batere ez
Ona	31	30	35	17	26	35
Hala moduzkoa	53	52	53	55	54	52
Txarra	14	12	10	27	19	10
Ed/Ee	2	6	2	1	1	3
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	166	963	347	800	489

Gazteria osoaren egoerari eta Euskadiko egoera orokorrari buruzko iritziak izan duen eboluzioa osorik baloratzea komeni da.

2000. urtean, *Euskadiko gazteak* seriea martxan jarri zenean, hamar gaztetik bik balorazio positiboa egin zuten gazteriaren egoerari eta Euskadiren egoera orokorrari buruz. 2004an, gazteen egoerak lau urte lehenago erregistratutako ia balorazio bera jaso zuen, eta Euskadiren egoeraren balorazioak nabarmen egin zuen hobera (2000. urteko balorazioa portzentajezko sei puntutan gainditu zuen). 2008an, biek hiru puntutan egin zuten hobera, baina distantzia finkatzen hasi zen. 2012an joera positiboa eten zen eta behera egin zuten bie loturiko balorazioek. Eta, bien arteko diferentzia murriztu arren, portzentajezko hiru puntuko aldea zegoen Euskadiko egoera orokorraren alde. Beherakada hamar puntukoa izan zen gazteen balorazioan, eta hamahirukoa, Euskadiren egoeraren balorazioan. 2016ko azken neurketa honetan, balorazioek hobera egin dute; hala, bi kasuetan, 2008ko mailetara heldu dira, eta mantendu egin da Euskadiko egoeraren aldeko portzentajezko zazpi puntuko aldea.

2.6 grafikoa

GAZTERIA OSOAREN ETA EUSKADIKO EGOERA OROKORRAREN BALORAZIO POSITIBOAREN EBOLUZIOA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).


2.6. ADMINISTRAZIOEK GAZTEEN ARLOAN EGITEN DUTEN JARDUNAREN BALORAZIOA

Administrazioaren hiru mailek gazteria-arloan egindako jardueraren balorazioak hobera egin du eta guztiek lortu dute gazteen oniritzia 2016an; lehen aldia izan da hori gertatu dela Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien kasuan.

2012an Udalak ziren balorazio onena jasotzen zuten administrazioak; 2016an, Eusko Jaurlaritzak okupatu du postu hori (5,5), nahiz eta administrazioaren hiru mailei emandako kalifikazioen arteko aldeak oso txikiak izan.

2.7 grafikoa

ADMINISTRAZIOEK GAZTERIAREN ARLOAN EGINDAKO JARDUNAREN BALORAZIOAREN EBOLUZIOA (0-10 ESKALA)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

Serie osoan, ikusten da emakumeek eta, batez ere, 20 urte baino gutxiagoko pertsonak ematen dituztela puntuazio altuenak, nahiz eta sexuaren araberako diferentziak ez diren esanguratsuak udalak edo Eusko Jaurlaritza baloratzeko orduan.

2.9 taula

ADMINISTRAZIOEK GAZTERIAREN ARLOAN EGINDAKO JARDUNAREN BALORAZIOA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (0-10 ESKALA)

Otik 10erako eskalan, zeinean 0a oso txarra den eta 10a oso ona den, nola baloratzen duzu zure udalak gazteriaren arloan egiten duen lana? Eta zure diputazioak gazteria arloan egiten duena? Eta Eusko Jaurlaritzak gai honetan egiten duena?						
(0-10 arteko batezbestekoa)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Udalak	5,4	5,5	5,4	6,1	5,0	5,2
Diputazioak	5,3	5,5	5,2	5,9	5,0	5,3
Eusko Jaurlaritza	5,5	5,6	5,4	6,1	5,2	5,5
(n)	1500	750	750	450	450	600

Araban bizi diren gazteek baloratzen dute hobekien erakundeen lana, horien puntuazioak 6 puntura heltzen baitira, baita gainditu ere, Eusko Jaurlaritzaren kasuan. Gipuzkoak ere batezbestekoaz gainera baloratzen ditu hiru administrazioak baina, kasu honetan, udalek lortzen dute nota onena. Bizkaian, Eusko Jaurlaritzak eta udalek nahikoa atera dute, eta Foru Aldundia ez da 5era heltzen.

10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrri txikietan bizi direnek puntuazio arinki altuagoak eman dizkiete erakunde guztiei. Bestalde, 10.000 biztanle baino gehiago dituzten, baina hiriburuak ez diren, udalerrri ertainetan bizi direnek eman dizkiete balorazio txarrenak udalei, Foru Aldundiei bai eta Eusko Jaurlaritzari ere.

2.10 taula

ADMINISTRAZIOEK GAZTERIAREN ARLOAN EGINDAKO JARDUNAREN BALORAZIOA, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA (0-10 ESKALA)

Otik 10erako eskalan, zeinean 0a oso txarra den eta 10a oso ona den, nola baloratzen duzu zure udalak gazteriaren arloan egiten duen lana? Eta zure diputazioak gazteria arloan egiten duena? Eta Eusko Jaurlaritzak gai honetan egiten duena?							
(0-10 arteko batezbestekoa)	GUZTIRA	Lurralde historikoa			Udalerrriaren tamaina		
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Txikia	Ertaina	Hiriburua
Udalak	5,4	5,9	5,0	5,8	5,7	5,2	5,5
Diputazioak	5,3	6,0	4,9	5,6	5,6	5,1	5,5
Eusko Jaurlaritza	5,5	6,2	5,2	5,7	5,7	5,3	5,7
(n)	1500	400	600	500	280	600	620

Erakundeen lanari dagokionez, inkestatutako gazteei galdetu zaie ea beren ustez erakundeek beren iritzia kontuan hartzen ote duten. 2012tik 2016ra bitarte, 10 puntutan egin du gora erakundeek gazteen iritzia kontuan hartzen dutela uste duten gazteen ehunekoak, eta % 17 izatetik % 27 izatera pasa da. Erakundeek beren iritzia kontuan hartzen dutela uste duten gazteen kopuruak gora egiteak harremana du, beharbada, administrazioen jardueraren balorazioak hobera egitearekin.

Hobekuntza egon arren, egia da gazte gehienek uste dutela erakundeek ez dituztela kontuan hartzen gazteen iritziak.

Gizonen eta emakumeen iritziak antzekoak dira; izan ere, gizonen % 28k eta emakumeen % 26k uste dute gazteen iritziak kontuan hartzen direla. Datua adin-taldeka aztertuz gero, ikusten da iritzi positiboa pixka bat altuagoa dela 15-19 urteko taldean, horretan, % 31k uste baitute erakundeek kontuan hartzen dituztela gazteen iritziak.

Diferentzia handienak beste aldagai batzuetan aurkitzen dira, hala nola gizarte-aldaketarako nahian edo politikarekiko interesean. Horrela, gizartea goitik behera aldatu beharko litzatekeela edota erreforma handiak egin behar direla uste dutenen artean, bai eta politikarekiko interes handia edo dezentekoa dutenen artean ere, gazteria orokorrean baino gehiago nagusitzen da erakundeek beren iritzia kontuan hartzen ez dutelako ustea.

2.11 taula

ERAKUNDEEK GAZTEEN IRITZIA KONTUAN HARTZEN DUTELAKO IDEIAREKIKO ADOSTASUNA, GIZARTERAKO NAHI IZANDAKO ALDAKETA-MAILAREN ETA POLITIKAREKIKO INTERESAREN ARABERA (%)

Instituzioek kontuan hartzen dituzte gazteen iritziak?							
(%)	GUZTIRA	Gizarterako nahi izandako aldaketa-maila				Politikarekiko interesa	
		Dagoen moduan ondo dago	Hobetu daiteke txikiak eginez	Aldaketa edo erreforma sakonak behar ditu	Zeharo aldatu behar da	Handia edo nahikoa	Gutxi edo batere ez
Bai	27	58	51	17	9	20	32
Ez	66	34	43	75	87	74	60
Ed/Ee	7	8	6	8	4	6	8
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	83	461	640	279	560	911

2.7. ONDORIOAK

Lan-merkatuari loturiko arazoak dira (lana aurkitzeko zailtasunak edo lan-baldintzak) gazteen kezka nagusia, nahiz eta arazo hori askoz gutxiago aipatzen den 2012an baino, 2008ko ehunekoen azpitik geratzeraino.

Enpleguaren atzetik, hezkuntzarekin eta prestakuntzarekin erlazioatutako gaiak, zentzu zabalean, lehen aldiz iritsi dira bigarren postura gazteak kezkatzen dituzten arazoetan.

Bigarren postu horretan etxebizitza zegoen 2008ra arte. Etxebizitzaren gaia, 2012an gazteen kezken artean hirugarren postuan geratu ostean, bosgarren postura jaitsi da 2016an.

Gazteen kezken artean, hirugarren eta laugarren postuan arazo ekonomikoak eta osasuna daude, hurrenez hurren.

2012. urtearekin alderatuta, hobera egin dute balorazioek bai egoera pertsonalari dagokionez, eta bai, oro har, gazteen eta Euskadiren egoerari dagokienez.

Esparru pertsonalean, gehienak gustura ageri dira eta hamar gaztetik zortzik adierazi dute beren bizitzarekin gustura daudela; hala, hamarretik 7,3ko puntuazioa egozten diote beren uneko egoera pertsonalari.

Oro har, gazteen egoera ona dela uste duten gazteen ehunekoak hamar puntutan egin du gora, baina oraindik gehiago dira oro har gazteen egoera txarra dela uste dutenak; gazteen erdiaren ustez, kalifikazioa hala moduzkoa baino ez da. Arlo honetan, balorazio negatiboenak beren burua klase sozial baxukotzat edo ertain-baxukotzat dutenek egin dituzte, baita langabezian daudenek ere.

Euskadiren egoera baloratzean, gazteen erdiak uste dute hala moduzkoa dela; zenbait alderditan uste dute ona dela eta beste alderdi batzuetan, berriz, txarra. Gainerakoen artean, balorazio positiboek negatiboak gaintzen dituzte.

2004az geroztik gertatu den moduan, eta iritzi positiboek gora egiten jarraitu arren, gazteek hobeto baloratzen dute Euskadiren egoera orokorra gazteena baino, kolektibo gisa hartuta.

Orobat, hobera egin du administrazioek gazteria-arloan duten jarduerari buruzko iritziak, 2016an gaintitzeko moduko nota lortu baitute. Hala ere, gazte gehienek uste dute erakundeek ez dituztela kontuan hartzen beren iritziak.



3

Jarrera politikoak eta partaidetza

3.1. SARRERA

Azterketa hau egin zen unea intentsitate politiko handikoa izan zen. 2015eko abenduaren 20an hauteskunde orokorrak egon ziren eta EAEn Podemos - Ahal dugu alderdiak irabazi zuen boto kopuruan baina ez aulki kopuruan. Alderdi horrek 2014an hartu zuen parte lehen aldiz hauteskundeetan, Europar Parlamenturako hauteskundeetan, alegia.

Estatuan, Alderdi Popularrak jaso zuen boto gehien, baina gehiengo absolutua izatetik urrun geratu zen. Itun-politika egitea beharrezkoa zen gehiengoak lortzeko eta alderdi politikoak ez ziren ados jartzen. Azkenik, epeak parlamentu-gehiengorik lortu gabe bukatu ostean, hauteskunde berriak deitu ziren 2016ko ekainerako.

Hortaz, inkesta egin zen unean, alderdiek parlamentu-gehiengoa lortzeko egin litzaketen koalizioak ziren eztabaidagai eta politikarekin irekitzen ziren albistegi guztiak.

3.2. POLITIKAREKIKO INTERESA


EAEko gazteen % 13k diote politikan interes handia dutela. % 26k diote dezenteko interesa dutela; hala, guztira, EAEko hamar gaztetik lauk diote politikan interes handia edo dezentekoa dutela (% 39).

Aitzitik, % 29k interes gutxi dute eta % 30ek ez dute inolako interesik. Beraz, esan dezakegu 30 urtetik beherako pertsona gehienek ez dutela interesik politikan (% 59).

Pisu handirik izan ez arren, gazteek politikan duten interesak nabarmen egin du gora eta 2016an serieko erregistro altuena lortu du.

3.1 grafikoa

GAZTEEK POLITIKAREKIKO DUTEN INTERESAREN EBOLUZIOA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

Orain arte, gazteek politikarekiko zuten interesak ez zuen alde handirik agertzen 18 urteko eta gehiagoko biztanleek agertzen zuten interesarekiko. Baina 2016an hamar puntuko alde dago batzuen eta besteen artean eta, gainera, azken urteetan ez bezala, gazteen interesa handiagoa da biztanleria orokorrarena baino.

3.2 grafikoa

POLITIKAN INTERES HANDIA EDO NAHIKOA DUTEN GAZTEEN EHUNEKOAREN ETA 18 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIAREN BATEZBESTEKOAREN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



18 urteko eta gehiagoko biztanleriari buruzko datu-iturria: Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (*Euskal Soziometroa* 60. *Euskal iritzi publikoa 20 urtetan*).

Euskal gazteek politikarekiko duten interesa Espainiako gazteen interesaren antzekoa da, Espainian % 37,6k adierazi baitute gai horretan interes handia edo dezentekoa dutela¹³.

Gizon gazteek interes arinki handiagoa agertzen dute politikan emakume gazteek baino (% 43 eta % 36, hurrenez hurren). Eta interes hori handiagoa da 20 urtetik gorakoen artean, adin horretara heltzen ez diren pertsonen artean baino: % 31, 15-19 urtekoen taldean; % 44, 20-24 urtekoen taldean; eta % 42, berriz, 25-29 urtekoen taldean. Joera hori Espainiako gazteria osoan behatutakoarekin bat dator.

Amaitutako ikasketa-maila igo ahala, gora egiten du politikarekiko interesak ere. Derrigorrezko ikasketak bakarrik egin dituzten pertsonen artean, % 27k adierazi dute politikan interesa dutela; gehienez ere derrigorrezkoen osteko bigarren hezkuntzako ikasketak (Batxilergoa edo erdi-mailako heziketa-zikloa) amaitu dituztenen artean, politikan interesa duten gazteen proportzioa % 42 da; goi-mailako titulazioa (unibertsitate-ikasketak edo goi-mailako heziketa-zikloa) dutenen artean, berriz, politikan interesa adierazi duten pertsonen proportzioa % 51ra igotzen da. Edozelan ere, unibertsitate-titulazioa duten gazteek dute interes handiena (% 60).

Beren burua klase sozial altu edo ertain-altukotzat dutenek, eta beren burua klase sozial baxu edo ertain-baxukotzat dutenek interes handiagoa agertzen dute, beren burua klase ertainekotzat hartzen dutenek baino.

3.1 taula

POLITIKAREKIKO INTERESA, AMAITUTAKO IKASKETA MOTAREN
ETA KLASA SOZIAL SUBJEKTIBOAREN ARABERA (%)

Oro har, nolako interesa duzu politikan?								
(%)	GUZTIRA	Amaitutako ikasketa mota				Klase sozial subjektiboa		
		Derrigo- rrezkoak	Batxi- lergoa	Heziketa- zikloak	Unibertsitate- ikasketak	Altua edo ertain- altua	Ertaina	Baxua edo ertain- baxua
Handia+nahikoa	39	27	48	36	60	47	35	48
Gutxi+batere ez	59	71	51	62	39	51	64	50
Ed/Ee	2	2	1	2	1	2	1	2
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	566	310	368	245	166	963	347

Azkenik, EAEn jaiotako gazteek askoz interes handiagoa dute politikan atzerrian jaiotakoek baino. Azken kolektibo horretan, % 17k baino ez dute adierazi politikan interes handia edo dezenteko interesa duenik, eta EAEn jaiotako pertsonen kasuan % 43k.

¹³ INJUVE, Espainiako Gazteriaren Institutua (2017): *Informe Juventud en España 2016* [linean] Hemen eskuragarri: <http://www.injuve.es/sites/default/files/2017/24/publicaciones/informe-juventud-2016.pdf> [Kontsulta: 2017/06/28]

3.3. IDENTITATE-SENTIMENDUA

Identitate-sentimendua aipatzen dugunean, gazteek euskal sentimendua eta espainiar sentimendua aurkatzen dituen ardatz klasikoan hartzen duten jarrerari buruz ari gara, baita, bestalde, gazteek europar sentimenduarekiko duten jarrerari buruz ere.

Gazteen heren batek baino gehiagok (% 37) esan dute soilik euskaldun sentitzen direla (eta ez espainiar; izan ere, talde horretan badago beren burua europartzat hartzen duten pertsonen ehuneko bat). % 16k beren burua euskaldunagotzat hartzen dute espainiarizat baino; beraz, esan liteke gazteen erdiak baino gehiagok (% 53) nagusiki euskal identitate-sentimendua dutela.


Laurdenak baino gehiagok (% 26) adierazi dute euskaldun eta espainiar sentitzen direla hein berean, bi identitateetako bat baztertu gabe edo bat aldeztu gabe.

Bestalde, % 3k espainiarizat dute beren burua euskalduntzat baino gehiago, eta % 2 soilik espainiar sentitzen dira. Beraz, EAEn bizi diren gazteen % 5 baino ez dira sentitzen nagusiki espainiar.

Gainera, % 11k beste identitate bat aipatu dute, euskaldunaz eta espainiarraz aparte, eta gainerako % 5ak ez daki edo ez dio galderari erantzun.

3.3 grafikoa


GAZTEEK EUSKAL/ESPAINIAR IDENTITATE-ARDATZEAN HARTZEN DUTEN POSIZIOA (%)



Azken urteetan ez da aldaketa handirik gertatu gazteak euskaldun edo espainiar sentitzearen inguruan. Azpimarragarriena da gora egin duela euskal eta espainiar identitateez bestelako identitate batzuk aipatzen dituztenen kopuruak. Erantzun-aukera hori 2012an eskaini zen lehen aldiz eta, urte hartan, % 7k aipatu zuten hala sentitzen zirela; 2016an, proportzio horrek % 11ra egin du gora. Aurreko urteetan, proportzio handi batek ez zuen erantzun, eta horrek pentsaraz dezake beren burua beste identitate batekotzat hartzen zutenek, besterik gabe, ez zutela erantzuten.

3.4 grafikoa

GAZTEEK EUSKAL/ESPAINIAR IDENTITATE-ARDATZEAN HARTZEN DUTEN POSIZIOAREN EBOLUZIOA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

Gazteen identitate-sentimendua 18 urteko eta gehiagoko EAEko biztanleen batezbestekoarekin konparatzen badugu, ikusiko dugu gazteen artean soilik euskaldun sentitzen direnen proportzioa handiagoa dela.

3.5 grafikoa

EUSKAL/ESPAINIAR IDENTITATE-ARDATZEAN 15-29 URTEKO GAZTEEK ETA 18 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIAK HARTZEN DUTEN POSIZIOAREN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



18 urteko eta gehiagoko biztanleriari buruzko datu-iturria: Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (*Euskal Soziometria* 60. Euskal iritzi publikoa 20 urtetan).

Adinak behera egin ahala, pertsona gehiago sentitzen dira soilik euskaldun; baina horrek ez du esan nahi 25 urtetik 29 urtera bitarteko taldean nagusiki espainiar edo euskaldun eta espainiar sentitzen diren pertsona gehiago daudenik, baizik eta adin-talde horretan beste identitate batekin identifikatzen direnen proportzio handiagoa dagoela, hain zuzen ere, adin-talde horretan dagoelako atzerrian jaio diren pertsonen proportzio handiena.

Kasu honetan, jaiolekua da aldagai garrantzitsuena. EAEn jaiotako gazteen artean, % 62 soilik euskaldun edo espainiar baino euskaldunago sentitzen dira; atzerrian jaiotakoaren artean, berriz, % 61 euskaldunaz eta espainiarraz bestelako identitate batekin identifikatzen dira.

Gazteak bizi diren lurralde historikoaren arabera ere badaude aldeak. Bizkaian eta Gipuzkoan bizi diren pertsonen erdiak baino gehiagok diote nagusiki euskaldun sentitzen direla. Arabako gazteen kasuan, hala sentitzen direnen proportzioa txikiagoa da gainerako lurraldeetan baino, eta euskaldun zein espainiarizat definitzen diren pertsonen proportzioa handiagoa; hain zuzen ere, Araban, bi taldeen ehunekoak ia bat datoz.

3.2 taula

GAZTEEK EUSKAL/ESPAINIAR IDENTITATE-ARDATZEAN HARTZEN DUTEN POSIZIOA,
LURRALDE HISTORIKOAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

Euskal herritarra edo espainiarra sentitzearen artean, nola jotzen duzu zure burua?						
Euskarria (%)	GUZTIRA	Lurralde historikoa			Jaiolekua**	
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskadi	Atzerria
Euskal herritarra bakarrik + Euskal herritarra espainiarra baino gehiago	53	41	54	55	62	9
Euskal herritarra bezain espainiarra	27	40	25	22	28	15
Espainiarra, euskal herritarra baino gehiago + Espainiarra bakarrik	5	5	4	6	3	5
Beste nortasuna*	11	9	10	13	2	61
Ed/Ee	5	4	6	4	5	10
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	400	600	500	1184	249

* Erantzuteko aukera hau ez zitzaion inkestatuei eskeini.

** Espainiako gainontzeko lekuetan jaiotako gazteei buruzko datuak ez dira gurutzaketa-aldagai bezala erabili, laginean gutxi jaso zirelako.

Europar sentimenduari dagokionez, esan daiteke gazteen % 45 oso edo dezente europar sentitzen direla, eta % 49, berriz, ez direla batere europar sentitzen edo europar sentimendu txikia dutela. Gainerako % 6ak ez dute iritzirik agertu.

Muturreko jarrerari behatzen badiegu, ikus daiteke batere europar sentitzen ez diren pertsonen ehunekoak (% 21) bikoiztu egiten duela oso europar sentitzen diren pertsonena (% 11).

2016an, oso edo dezente europar sentitzen diren gazteen ehunekoa 2008an erregistratutakoaren antzekoa da, 2012an beherakada egon ostean (beherakadak ziurrenik zerikusia izan zuen EBK krisialdi ekonomikoari aurre egiteko agindutako politika ekonomikoekin), eta, edozelan ere, 2000. eta 2004. urteetako zifrak baino handiagoa.

3.3 taula

GAZTEEN EUROPAR SENTIMENDUAREN EBOLUZIOA (%)

Zenbateraino sentitzen duzu zure burua europarra?					
(%)	2000	2004	2008	2012	2016
Oso europarra	8	7	11	10	11
Nahikoa europarra	25	29	33	29	34
SENTIMENDU EUROPARRA (Oso + Nahikoa)	33	36	44	39	45
Ez oso europarra	37	40	30	33	28
Batere europarra ez	21	15	19	19	21
Ed/e	9	9	7	9	6
GUZTIRA	100	100	100	100	100
<i>(n)</i>	<i>1364</i>	<i>1500</i>	<i>1500</i>	<i>1500</i>	<i>1500</i>

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

20 urte bete ez dituzten gazteak dira europarren sentitzen direnak (zehazki, % 52).

Gipuzkoan bizi diren gazteek agertzen dituzte europar sentimendu handienak (% 47) eta zifra baxuenak, berriz, Araban erregistratu dira (% 41).

Azkenik, nabarmentzekoa da EAEn jaiotako gazteak europarragoak sentitzen direla atzerrian jaiotakoak baino (% 46 eta % 38, hurrenez hurren).

3.4 taula

GAZTEEN EUROPAR SENTIMENDUA, ADIN-TALDEAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

¿Y en qué grado te sientes europeo/a?									
(%)	GUZTIRA	Adin-taldeak			Lurralde historikoa			Jaiolekua*	
		15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskadi	Atzerria
Oso edo nahikoa europarra	45	52	40	43	41	44	47	46	38
Ez oso edo batere europarra ez	49	40	54	52	53	50	46	48	55
Ed/Ee	6	8	6	5	6	6	7	6	7
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
<i>(n)</i>	<i>1500</i>	<i>450</i>	<i>450</i>	<i>600</i>	<i>400</i>	<i>600</i>	<i>500</i>	<i>1184</i>	<i>249</i>

* Espainiako gainontzeko lekuetan jaiotako gazteei buruzko datuak ez dira gurutzaketa-aldagai bezala erabili, laginean gutxi jaso zirelako.

Sentimendu euskaldun / espainiarra eta sentimendu europarra konbinatzen baditugu, ikusiko dugu proportzio handienak laurdena baino pixka bat gehiago baino ez duela hartzen (% 28), eta proportzio hori nagusiki euskaldunak sentitzen diren, baino batere europarrak sentitzen ez diren edo europar sentimendu txikia dutenei dagokie. Hurrengo taldeak % 22ko pisua du guztizkoaren gainean eta, horretan, nagusiki euskaldun sentitzeaz gainera, europar ere sentitzen diren gazteak daude. Hurrengo taldea euskaldun, espainiar eta europar sentitzen direnen taldea da (% 15). Horren ondoren, euskaldun eta espainiar sentitzen diren, baina europar sentitzen ez direnak daude (% 10); horien atzetik, euskaldun edo europar sentitzen ez direnak daude (% 9); eta, azkenik, euskaldun sentitzen ez diren, baina europar sentitzen direnak (% 6). Gainerako % 10ak ez dute adierazi beren nortasun sentimendutariko bat.

3.5 taula

GAZTEEK DUTEN EUSKAL, ESPAINIAR ETA EUROPAR SENTIMENDUEN KONBINAZIOA (%)

	(%)	Euskal herritar-espainiar sentimendua				GUZTIRA
		Euskal herritarra	Euskal herritarra bezain espainiarra	Espainiarra edo beste herri batekoa	Ed/Ee	
Europar sentimendua	Oso + nahikoa europarra	22	15	6	2	45
	Ez oso + batere europarra ez	28	10	9	2	49
	Ed/Ee	3	1	1	1	6
GUZTIRA		53	26	16	5	100

3.4. JARRERA IDEOLOGIKOA: EZKERRA VERSUS ESQUINA


2016an, gazte gehienek (% 56) beren burua ideologikoki ezkerrekotzat jo dute (muturreko ezkerria, ezkerria edo zentro-ezkerria); % 7k zentrokotzat hartzen dute beren burua; eta % 4k, berriz, eskuinekotzat (muturreko eskuina, eskuina edo zentro-eskuina).

Euskal gazteen herenak (% 33) ez dute beren jarrera ez adierazi, muturreko eskuinaren eta muturreko ezkerriaren arteko eskala gradualean bere burua kokatzeko eskatzen zaienean.

Eskala ideologiko horretan beren burua kokatzen ez duten gazteen ehunekoak behera egin du eta nabarmen egin du gora, berriz, ezkerrekotzat definitzen direnen ehunekoak, 2000. urteaz geroztik izan den balio altuenera heldu baita.

3.6 grafikoa

GAZTEEK EZKER/ESKUIIN ARDATZ IDEOLOGIKOAN HARTZEN DUTEN POSIZIOAREN EBOLUZIOA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

Gizon gazteek hein handiagoan jotzen dute beren burua ezkerrekotzat emakume gazteek baino (% 59 eta % 53, hurrenez hurren), baina horrek ez du esan nahi emakumeek beren burua zentrotako edo eskuinekotzat jotzen dutenik hein handiago batean, baizik eta gutxiago kokatzen dutela beren burua ardatzean (emakumeen % 38k ez dute planteatutako aukerarik aldeztu). Baina badaude gizonen eta emakumeen arteko diferentzia horiek baino alde nabarmenagoak agertzen dituzten beste aldagai batzuk. Alegia, adina, ikasketa-maila, jaiolekua, klase soziala, politikarekiko interesa edo euskal / espainiar ardatzean non kokatzen duten beren burua.

Adinean gora egin ahala, handitu egiten da beren burua ezkerrekotzat hartzen dutenen proportzioa; izan ere, 15-19 urtekoen taldean % 49 da eta % 60, berriz, 25-29 urtekoen taldean. Adinean gora egin ahala, behera egiten du ardatzean beren burua kokatzen ez dutenen proportzioak, eta beren burua eskuineko edo zentrotzat definitzen dutenen zifra, berriz, antzera mantentzen da.

Ikasketa-maila altuagoetan ere gora egiten du beren burua ezkerrekotzat jotzen dutenen proportzioak, eta behera egiten du erantzun ez dutenen proportzioak. Gauza bera gertatzen da euskal / espainiar identitate-ardatzari begiratzen badiogu: euskal sentimenduak gora egin ahala, gora egiten dute ezkerreko jarrerak ere.


Politikan interes handia edo dezentekoa dutenen artean, hamarretik zortzik (% 81) ezker ideologikoan kokatzen dute beren burua eta zifra horrek bikoiztu egiten du politikan interes gutxi edo batere ez dutenen ezkerreko jarrerarena (% 40). Politikan interes gutxi edo batere interesik ez dutenen artean, ia erdiek (% 49) ez dute beren burua ezker / eskuin ardatzean kokatu.

EAEen jaiotako pertsonen beren burua hein handiagoan jotzen dute ezkerrekotzat, atzerrian jaiotako pertsonen baino. Izan ere, ikusi dugun moduan, politikan interesa duten pertsonen hein handiagoan kokatzen dute beren burua ezkerrean, eta EAEen jaiotako gazteek interes handiagoa dute politikan atzerrian jaiotakoekin baino.

Kasu honetan, alde nabarmenak daude klase sozialaren arabera. Izan ere, beren burua klase sozial altu edo ertain-altukotzat dutenen artean erregistratzen dira proportzio handienak eskuin edo zentrotako jarrera ideologikoan (% 21).

3.7 grafikoa

GAZTEEK EZKER/ESKUIN ARDATZ IDEOLOGIKOAN HARTZEN DUTEN POSIZIOA, ADIN-TALDEAREN, AMAITUTAKO IKASKETA-MAILAREN, JAIOLEKUAREN, KLASE SOZIAL SUBJEKTIBOAREN, POLITIKAREKIKO INTERESAREN ETA EUSKAL/ESPAINIAR SENTIMENDUAREN ARABERA (%)



3.5. GIZARTE-ALDAKETARAKO NAHIA


Gazteak oso kritiko agertzen dira egungo gizartearekin. Soilik % 5ek uste dute gure gizartea ondo dagoela bere horretan. % 29k uste dute aldaketa txikiekin hobetu daitekeela, baina, halere, gutxiengo izaten jarraitzen dute (% 34, guztira).

Bestalde, gazte gehienek uste dute nabarmen aldatu behar dela gure gizarte-eredua: % 43k uste dute erreforma sakonak egin behar direla eta % 20k uste dute gure gizartea errotik aldatu behar dela. Guztira, gazteen ia bi herenek (% 63) gizarte-aldaketa nahi dute. Gainerako % 3ak ez dute iritzirik eman.

Gazteek 2016an emandako erantzunak 2012an jasotakoekin konparatzen baditugu, ikusiko dugu iritzirik antzekoak direla. Dena den, arinki gora egin dute muturreko jarrerak, hau da, gure gizartea dagoen moduan ondo dagoela uste dutenen proportzioak eta gizartea errotik aldatu behar dela uste dutenen proportzioak.

3.8 grafikoa

GAZTEEK GURE GIZARTEAREKIKO DUTEN IRITZIAREN EBOLUZIOA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).


Adinean gora egin ahala, gehiago dira jarrera kritikoak eta gazte gehiagok uste dute gure gizarteak erreforma sakonak behar dituela edo gizartea errotik aldatu behar dela.

Politikan interes handia edo dezentekoa duten pertsonak eta beren burua ideologikoki ezkerrekotzat duten pertsonak ere hobekuntza sakonak edo errotiko aldaketak hein handiagoan eskatzen dituzte, politikan interes gutxi edo batere interesik ez duten gazteekin edo beren burua eskuin edo zentrokotzat duten gazteekin alderatuta.

Langabezian dauden gazteak eta beren burua klase sozial baxu edo ertain-baxukotzat duten gazteak dira gure gizartea errotik aldatzea hein handienez eskatzen dutenak. Bestalde, atzerriko gazteak dira, hein handienez, gure gizartea bere horretan ondo dagoela edo aldaketa txikiak hobetu daitekeela uste dutenak. Hain zuzen ere, bi jarrera horiek aldeztu dituztenak gehiengo dira atzerriko pertsonen artean.

3.9 grafikoa

GAZTEEK GURE GIZARTERAKO NAHI DUTEN ALDAKETA-MAILA, ADIN-TALDEAREN, JAIOLEKUAREN, KLASE SOZIAL SUBJEKTIBOAREN, OKUPAZIO NAGUSIAREN, POLITIKAREKIKO INTERESAREN ETA EZKER/ESKUIN ARDATZ IDEOLOGIKOAN HARTZEN DUTEN POSIZIOAREN ARABERA (%)



3.6. ATXIKIMENDU HANDIENA ERAGITEN DUEN ALDERDI POLITIKOA

Gazteei beren pentsamoldetik hurbilen dagoen alderdi politikoa zein den ere galdetu zaie. Galdera hori modu irekian egin da, aukera politikorik eskaini gabe.

EAEko gazteen heren batek baino gehiagok (% 37) ez dute erantzun eta % 11k adierazi dute ez dagoela bere ideietatik gertu dagoen alderdi politikorik. Hortaz, ikusten dugu gazteen ia erdiek (% 48) ez dutela alderdi politikorik aipatu.

Alderdi politikoak aipatzean, gazteen atxikimendu handiena eragiten duena Podemos da (% 20k aipatu dute), eta bigarren postuan, Podemosek gertu, Bildu dago (% 18). Gainerako aukerak gazteen % 5ek baino gutxiagok aipatu dituzte, kasuan kasu: % 4k EAJ aipatu dute, beste % 4k Alderdi Sozialista, % 3k Ezker Batua, % 1ek Alderdi Popularra, % 1ek Ciudadanos, eta gainerako % 1ak parlamentu-ordezkaritzarik gabeko beste alderdi batzuk aipatu ditu.

Datu horiek aurreko urteetako datuekin konparatzen baditugu, ikusten da Podemos panorama politikoan sartzeak goitik behera aldatu dituela erantzunak. 2000. urtetik 2012. urtera bitarte gora egin du, pixkanaka, bere pentsamoldetik gertu zegoen alderdirik ez zegoela uste zutenen proportzioak, eta gazteen erdiak gehiagok zioten hori duela lau urte. 2016an % 11ra jaitsi da proportzio hori; gora egin dute zalantzek eta erantzun gabekoek, eta Podemos hartzen dute gazteek beren pentsamoldetik hurbilen dagoen alderdizat.

3.6 taula

GAZTEEK BEREN PENTSAMOLDETIK HURBILEN DAUDELA JOTZEN DUTEN ALDERDI POLITIKOEN EBOLUZIOA (%)

Zein alderdi politiko dago zure pentsaeratik gertuen?					
(%)	2000	2004	2008	2012	2016
Podemos / Ahal dugu	–	–	–	–	20
Bildu*	15	14	12	16	18
EAJ / PNV	12	8	5	5	4
PSOE	4	6	7	4	4
Izquierda Unida / Ezker Batua	4	7	3	1	3
PP	2	1	1	1	1
Ciudadanos	–	–	–	–	1
Beste batzuk**	1	1	2	3	1
Bat ere ez	38	43	50	53	11
Ed/Ee	25	21	19	16	37
GUZTIRA	100	100	100	100	100
(n)	1364	1500	1500	1500	1500

* Bilduren baitan Amaiur, Batasuna, Sortu, EA, Aralar, Alternatiba eta ezker abertzalearen aipamenak daude.

** 2012an «beste batzuk» kategoriaren baitan Equo (% 1ek aipatua) eta «abertzaleak, orokorrean» (beste % 1ek) zeuden.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

Alderdi baten edo bestearen alde egiteko gehien eragiten duten aldagaiak honako hauek dira: politikarekiko interesa, euskal / espainiar identitate-ardatzean izandako posizioa; ezker / eskuin ardatz ideologikoan izandako posizioa; eta gizartea aldatzeko beharrari buruzko iritzia.

Politikan interes gutxi edo batere interesik ez duten gazte gehienek ez dute erantzun edo adierazi dute ez dagoela beren pentsamoldetik hurbil dagoen alderdirik. Politikan interesa (handia edo dezentekoa) duten pertsonen kasuan, batezbestekoaz gaildi egin dute gora Bildu (kolektibo honetan gehien aipatzen den alderdia da), Podemos eta Ezker Batua alderdien aipamenek.

Beren burua nagusiki euskalduntzat hartzen duten pertsonen artean, erantzun-tasa handiagoa da eta batezbestekoaz gaildi aipatzen dira Bildu eta EAJ. Beren burua euskaldun bezain espainiarizat duten pertsonen aipatzen dituzte gehien Podemos, Alderdi Sozialista eta Ezker Batua. Beren burua nagusiki espainiarizat dutenek edo beste identitate bat aipatzen dutenek agertzen dituzte erantzun gabekoen tasa altuenak, hein handiagoan azaltzen dute beren ideietatik gertu dagoen alderdirik ez dagoela eta gehien aipatzen dute Alderdi Popularra.

Ezkerreko gazteak dira gehien erantzuten dutenak eta atxikimendu-ehuneko handienak agertzen dituztenak Bildu (lehen aukera), Podemos eta Ezker Batua alderdiekiko. Beren burua eskuin edo zentrokotzat definitzen duten gazteak dira EAJ eta Alderdi Popularra gehien aipatzen dituztenak. Ardatz ideologikoan beren burua kokatzen ez duten gazte gehienek ez diote galderari erantzun eta batezbestekoa baino hein handiagoan adierazten dute ez dagoela beren ideietatik hurbil dagoen alderdirik.

3.7 taula

GAZTEEK BEREN PENTSAMOLDETIK HURBILEN DAGOELA JOTZEN DUTEN ALDERDI POLITIKOA, POLITIKAREKIKO INTERESAREN, EUSKAL/ESPAINIAR SENTIMENDUAREN, ETA EZKER/ESKUIN ARDATZ IDEOLOGIKOAN HARTZEN DUTEN POSIZIOAREN ARABERA (%)

Zein alderdi politiko dago zure pentsaeratik gertuen?									
(%)	GUZTIRA	Politikarekiko interesa		Euskal herritar-espainiar sentimendua			Ezker-eskuin ardatzean hartutako posizioa		
		Handia + Nahikoa	Gutxi + Batere ez	Euskal herritarra	Euskal herritarra bezain espainiarra	Espainiarra edo beste herri batekoa	Ezkerra	Zentroa edo eskuina	Ed/Ee
Podemos / Ahal dugu	20	17	25	19	25	15	27	12	10
Bildu	18	8	33	32	1	3	29	4	2
EAJ /PNV	4	4	4	5	4	2	2	17	3
PSOE	4	5	3	2	8	7	6	3	2
Izquierda Unida / Ezker Batua	3	1	6	3	5	2	6	0	0
PP	1	1	2	0	1	4	0	10	0
Ciudadanos	1	1	1	0	2	1	0	7	0
Beste batzuk	1	1	1	1	2	2	1	2	1
Bat ere ez	11	15	4	7	12	15	5	10	20
Ed/Ee	37	48	20	31	40	49	23	34	62
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	911	560	765	425	236	835	157	508

Azkenik, gizartea bere horretan ondo dagoela edo aldaketa txikiekin hobetu daitekeela uste duten pertsonak agertzen dute erantzun gabekoen tasa altuena eta batezbestekotik gora aipatzen dituzte EAJ, Alderdi Sozialista eta Alderdi Popularra. Gure gizarteak erreforma sakonak behar dituela edo errotik aldatu behar dela uste dutenen artean, batezbestekotik gora aipatzen dira Podemos, Bildu eta Ezker Batua.


3.7. HAUTESKUNDEETAKO PARTE-HARTZEA

Partaidetza politikoko forma klasikoena hauteskundeetan parte hartzea da. Horregatik, 18 urtetik gorako gazteei (bozkatzeko eskubidea dutenei) galdetu zaie ea inkesta egin aurreko hiru urteetan hauteskunderen batean bozkatu ote duten. Kontuan hartzen badugu inkesta 2016ko lehen hiruhilekoan egin dela, honako hauteskunde hauek kontuan hartzen dira: 2015eko abenduko Hauteskunde Orokorrak; 2015eko maiatzeko udal- eta foru-hauteskundeak; eta / edo 2014ko maiatzeko Europar Parlamenturako hauteskundeak (2013an ez zen hauteskunderik egon EAEn).

Gazte gehienek (% 70) esan dute 2014an eta 2015ean egindako hauteskundeetako batean bozkatu dutela, gutxienez. % 13k adierazi dute ez zutela bozkatu ezin zutelako, askotariko kausengatik (18 urte ez izatea oraindik, espainiar herritartasuna ez izatea, hauteskunde-egunean gaixorik egotea eta abar); beste % 14k adierazi dute ez zutela bozkatu hala erabaki zutelako, hots, ez zutelako nahi; eta gainerako % 3ak ez du erantzun.

3.10 grafikoa

18 URTEK 29 URTERA BITARTEKO GAZTEEN HAUTESKUNDE-PARTAIDETZA, INKESTA EGIN AURREKO HIRU URTEETAN (%)



Datu hori handiagoa da 2008an erregistratutakoa baino (% 56)¹⁴. Datuak interpretatzeko orduan, gogoan izan behar da 2008az aurreko hiru urteetan EAEn bi hauteskunde-deialdi egon zirela: 2005ean Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egon ziren; 2006an ez zen hauteskunderik egon; eta 2007an udal- eta foru-hauteskundeak egon ziren (Ezker Abertzalearen hautagaitza legez kanpo utzi zen hauteskunde-barruti gehienetan).

2016an, politikan interes handia edo dezentekoa dutela adierazi duten 18-29 urteko pertsonek boto-ehuneko handiagoa agertzen dute (% 87), politikarekiko interes gutxi edo batere interesik agertzen ez dutenek baino (% 57).

Beren burua ezkerrekotzat definitzen dutenek hein handiagoan adierazi dute bozkatu izana (% 83), ideologikoki eskuin edo zentrokatat direnek baino (% 64) eta horiek, halaber, gehiago bozkatu dute ezker / eskuin ardatzean beren burua kokatzen ez dutenek baino (% 47).

Euskal identitate-sentimenduak gora egin ahala, gora egiten du bozkatu dutela dioten gazteen proportzioak ere: % 33 dira, beren burua nagusiki espainiarizat edo beste identitate batekotzat (euskaldun edo espainiarraz aparte) jotzen dutenen artean; % 70, euskaldun bezain espainiarizat definitzen direnen artean; eta % 83, nagusiki euskalduntzat definitzen direnen artean.

¹⁴ Bilbao Gaztañaga, Miren eta Trabada Crende, Elías (2011): *Herritarren parte hartzeari eta Europar Batasunari buruzko EAEko gazteen iritzia* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteen_joerak/es_liburuak/adjuntos/joerak_3_tendencias.pdf [Kontsulta: 2017/05/25]

Alderdi abertzaleak (EAJ edo Bildu) beren pentsamoldetik gertuen daudela diotenek ere hein handiagoan adierazi dute bozkatu izana, abertzaleak ez diren alderdi politikoeak (Podemos, Ezker Batua, Alderdi Sozialista, Alderdi Popularra, Ciudadanos edo beste alderdi batzuk) hurbilago sentitzen direnek baino: % 90 eta % 82, hurrenez hurren.

Gure gizartean erreforma sakonak edo errotiko aldaketak nahi dituzten pertsonen hein handiagoan adierazi dute bozkatu izana (% 77), gure gizartea bere horretan ondo dagoela edo aldaketa txikiekin hobetu daitekeela uste dutenek baino (% 59).

Baina diferentzia handienak agertzen dituen aldagaia jaiokua da: EAEn jaio diren 18-29 urteko gazteen % 81ek diote bozkatu dutela, eta atzerrian jaiotako pertsonen artean proportzioa % 16koa baino ez da. Azken talde horretan, gehienek (% 58) diote ez dutela bozkatu ezin izan dutelako.


3.8. GAI PUBLIKOETAN GEHIAGO PARTE HARTZEKO NAHIA

Gazteriaren zati batek (% 42) jotzen du hauteskudeen bidez parte hartzea ez dela nahikoa, eta modu aktiboagoan parte hartu nahi du gai publikoetan. % 8k uste dute jada nahikoa parte hartzen dutela eta % 47k adierazi dute ez dutela modu aktiboagoan parte hartu nahi du gai publikoetan. Gainerako % 3ak ez du erantzun.

Gai publikoetan gehiago parte hartzeko nahia 2012ko mailetan mantendu da, urte hartan ere gazteen % 42k adierazi baitzuten gehiago parte hartu nahi zutela. Ehuneko hori, edozelan ere, handiagoa da 2000. eta 2008. urteen artean erregistratutakoa baino.

3.11 grafikoa

GAZTEEK GAI PUBLIKOETAN MODU AKTIBOAGOAN PARTE HARTZEKO DUTEN NAHIAREN EBOLUZIOA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko Gazteak seriea).

Gai publikoetan gehiago parte hartzeko nahia ohikoagoa da politikan interes handia edo dezentekoa dutenen artean (% 62), ideologikoki ezkerrekotzat definitzen direnen artean (% 51), nagusiki euskaldun sentitzen direnen artean (% 50), alderdi abertzaleak beren pentsamoldetik hurbilen daudela uste dutenen artean (% 60) eta gure gizarteak erreforma sakonak edo errotiko aldaketa behar dituela uste dutenen artean (% 49). Hau da, hauteskunde-deialdietan parte hartu dutela gehien dioten kolektiboek adierazi dute bizitza publikoan modu aktiboagoan parte hartzeko nahi handiena.

3.12 grafikoa

GAZTEEK GAI PUBLIKOETAN MODU AKTIBOAGOAN PARTE HARTZEKO DUTEN NAHIA, POLITIKAREKIKO INTERESAREN, EZKER/ESKUIN ARDATZ IDEOLOGIKOAN HARTZEN DUTEN POSIZIOAREN, EUSKAL/ESPAINIAR SENTIMENDUAREN, BEREN IDEIETATIK HURBILEN DAUDEN ALDERDIEN ETA GURE GIZARTERAKO NAHI DUTEN ALDAKETA-MAILAREN ARABERA (%)




3.9. ASOZIAZIONISMOA

Elkarteetan edo asoziazionismoan esku hartzea da gizarte-partaidetzaren funtsezko adierazpideetako bat. Elkarrekin helburu asko eta askotarikoak izan ditzakete, politikoak, ludikoak, kulturalak eta abar, baina gizarte batean dagoen partaidetza-mailaren termometro ona dira.

2016an, EAEko gazteen ia erdiak (% 46) elkarrekin bateko kide dira. Urteotan gorabehera handiak izan dituen serieko altuena da datu hori.

3.13 grafikoa

GAZTEEN ASOZIAZIONISMO-TASAREN EBOLUZIOA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

Elkarteetako afiliazio-maila edo asoziazionismo-tasa antzekoa da gazteen eta EAEko 18 urteko eta gehiagoko pertsonen artean (% 46 da gazteen kasuan eta % 47, berriz, 18 urteko eta gehiagoko biztanlerian¹⁵).

Nolanahi ere, Espainiako gazteriaren guztizkoarekin konparatzen badugu, ikusiko dugu EAEko asoziazionismo-tasa altuagoa dela Espainiakoa baino (% 36,6)¹⁶.

EAEn bizi diren gazteengan zentratzen bagara, eta elkarte motei begiratzen badiegu, ikusiko dugu EAEko gazteak, nagusiki, kirol- edo mendi-elkarteetako kide egiten direla (% 24); izan ere, zenbait kirol egiteko (batez ere kirol lehiakorrak) beharrezkoa da federatuta egotea eta, horretarako, kirol-klub edo -elkarte bateko kide izan behar da.

Gazteak nagusiki kidetzen diren beste elkarte mota bat dibertimenduzko elkarteak dira, hala nola konpartsak, lagunarteak, blusak, txokoak edo elkarte gastronomikoak eta abar (% 13). Gazteen elkarteek edo aisia-elkarteek, bai eta elkarte kulturelek edo artistikoek ere gazteen % 8 hartzen dituzte, kasuan kasu. Gazteen % 5ek diote gaur egun banda, koro edo musika-talde bateko kide direla eta % 4k, berriz, elkarte politiko edo alderdi politiko batekoak. % 3 ikasle-elkarte batean daude eta proportzio berdinean diote euskara sustatzeko elkarteren bateko (% 3) edo osasunarekin, desgaitasunarekin edo osasun-laguntzarekin erlazioatutako elkarteren bateko (% 3) kide direla.

Gutxiago dira bestelako elkarteetako kideak: elkarte erlijioso edo parrokia-elkarteak, elkarte ekologista edo kontsumo ekologikoko elkarteak, elkarte feminista edo emakumeekin erlazioatutako elkarteak, giza eskubideak

¹⁵ Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariakoa (2015): 58. *Euskal Soziometria. Kultura demokratikoa* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/sociometro_vasco_58/es_def/adjuntos/15sv58.pdf (45. orria) [Kontsulta: 2017/05/30]


¹⁶ INJUVE, Espainiako Gazteriaren Institutua (2017): *ob. cit.*

defenditzeko edo garapenerako lankidetzako elkarteak, edo LGTB mugimenduarekin erlazionatutakoak, sindikatuak, elkarte profesionalak edo etorkin-elkarteak.

Lehenago izan arren gaur egun kide ez direla adierazi dutenei begiratu gero, ikusiko dugu kirol-elkarteetan daudela zifra altuenak. Hain zuzen ere, gazteen ia erdia (% 49) kirol- edo mendi-elkarte bateko kide dira edo izan dira.

3.14 grafikoa

GAZTEEK ELKARTE MOTA DESBERDINEKIN DUTEN HARREMANA (%)



Elkarte mota desberdinen eboluzioa aztertuz gero, ikusten da gora egin duela kirol-elkarte edo -klubetako kide diren gazteen ehunekoak, baina baita beste elkarte batzuen presentziak ere, besteak beste: dibertimenduzko elkarte, gazte-elkarte edo denbora libreko elkarte, elkarte kultural edo artistiko, edo elkarte politikoenak. Nolanahi ere, zehaztu behar da inkesta batetik bestera elkarteak desberdin izendatzeak edo multzokatzeak beharbada eragina izan duela aldaketa horretan.

3.8 taula

GAZTEEK ELKARTE MOTA DESBERDINETAN GAUR EGUN DUTEN KIDETZE-MAILAREN
EBOLUZIOA (%)

Orain elkarte eta erakunde batzuk aipatuko dizkizut. Esango didazu horietakoren bateko kide edo partaide zaren...?				
(%)	2000	2008	2012	2016
Kirol-elkarteak edo mendi-taldeak*	22	25	15	24
Dibertimenduzko taldeak (peñak, konpartsak, txokoak...)	10	7	8	13
Gazteen elkarteak edo aisialdiko taldeak**	4	2	2	8
Kulturalak edo artistikoak	8	6	4	8
Musika taldeak, bandak edo abesbatzak	–	4	5	5
Elkarte politikoak	3	1	1	4
Ikasleen elkarteak	4	3	4	3
Euskara sustatzeko elkarteak	4	2	2	3
Osasunari, elbarritasunei edo osasun-laguntzari lotutako elkarteak, etab.*	5	3	1	3
Elkarte erlijiosoak edo parrokiako taldeak	–	1	1	2
Elkarte ekologista edo kontsumo ekologikoenak	3	1	1	2
Elkarte feministak edo emakumeei lotutakoak	1	1	1	2
Giza-eskubideen ingurukoak, garapenerako kooperaziokoak, LGTB mugimenduari lotutakoak, etab.*	5	3	3	2
Sindikatuak	3	3	2	2
Profesionalen elkarteak	–	1	1	2
Etorkinen elkarteak	–	–	1	1
(n)	1364	1500	1500	1500

* 2008an, kirol-elkarteak eta mendizaleen taldeak bereizten ziren. Taulan, datu horiek batu egin dira, 2012 eta 2016koekin alderaketa egin ahal izateko. Gauza bera gertatu da osasunarekin edo ezintasunekin lotutako elkarteei dagokienez, 2012rarte bereiztuta baitzeuden. 2016rarte ere giza eskubideen aldeko elkarteak eta hirugarren munduaren garapenerako lankidetzari lotutakoak bereiztu egiten ziren.

** Aurreko urteetan «eskautak edo gazte-klubak» taldeei buruz galdetzen zen.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

Jarraian, 2016ko datuak xehatuko ditugu. Gizon gazteek askoz presentzia handiagoa dute emakume gazteek baino kirol- edo mendi-elkarteetan: gizonen % 33 honelako elkarteren bateko kide dira, eta emakumeen % 14. Gainera, ohikoagoa da kirol-talde edo -klub bateko kide izatea adinean behera egin ahala (% 18 dira 25 urtetik 29 urtera bitartekoen artean eta % 33, berriz, 20 urtetik beherakoaren artean). Gazteek beren buruari aitortzen dioten klase sozialak gora egin ahala ere igo egiten da kirol-klubetako kide diren pertsonen ehunekoa (% 38, beren burua klase sozial altu edo ertain-altukotzat dutenen artean). Baina kirol-elkarteekin erlazio handiena duen kolektiboa kirola astean hirutan edo gehiagotan egiten duten gazteena da (horien % 40 kirol-elkarte edo -kluben bateko kide dira).

Ohikoagoa da dibertimenduzko elkarteetako kide izatea EAEn jaiotako gazteen artean (% 15), atzerrian jaiotako gazteen artean baino (% 2). Amaitutako ikasketa-mailak gora egin ahala, igo egiten da halako elkarteetako kide direla dioten gazteen ehunekoak, eta % 17 dira halakoetako kide, goi-mailako ikasketak dituztenen artean.

Gazte-elkarteak edo denbora libreko elkarteak ohikoagoak dira 20 urtetik beherako pertsonen artean (% 11), ikasleen artean (% 11) eta, batez ere, beren burua klase sozial altu edo ertain-altukotzat dutenen artean (% 16). Ohikoagoa da halako elkarteetako kide izatea EAEn jaiotako gazteen artean (% 9), atzerrian jaiotako gazteen artean baino (% 3).

Adin handiagoa duten eta ikasketak amaituta dituzten gazteak sarriago izaten dira elkarte kultural edo artistikoetako kide; goi-mailako titulazioa duten gazteen artean (unibertsitate-ikasketak edo goi-mailako heziketa-zikloa), % 13 dira elkarte artistiko edo kulturalen bateko kide.

Gizon gazteek emakumeek baino presentzia handiagoa dute musika-elkarteetan (bandak, koroak, musika-taldeak eta abar): % 7 eta % 4 dira, hurrenez hurren. Unibertsitate-titulazioa duten pertsonak dira halako elkarteetan gehien parte hartzen dutenak (% 10).

Politikan interes handia edo dezentekoa duten pertsonak dira elkarte politikoetan gehien sartzen direnak (% 9). Unibertsitate-titulazioa dutenak ere hein handiagoan erlazionatzen dira halako taldeekin batezbestekoa baino (% 8). Alderdi abertzaleak beren pentsamoldetik hurbilen daudela uste dutenen artean, elkarte politikoekiko afiliazioa handiagoa da (% 13), alderdi ez-abertzaleekin identifikatuago sentitzen direnen artean baino (% 3). Beren ideietara hurbiltzen den alderdi politikorik ez dagoela uste dutenen artean, elkarte politikoekiko afiliazioa nulua da.

Ikasleak dira hein handiengan ikasle-elkarteetan sartzen direnak; hala ere, kolektiboaren % 4 baino ez dira.

Emakumeak (% 5), unibertsitate-titulazioa duten pertsonak (% 7), politikan interes handia edo dezentekoa duten pertsonak (% 6) eta nagusiki euskalduntzat definitzen diren pertsonak (% 5) dira euskara sustatzeko talde edo elkarteetan gehien sartzen direnak.

Gaixotasun kroniko edo desgaitasunen bat dutela adierazi duten pertsonak dira, hein handiengan, osasunari, desgaitasunei edo osasun-laguntzari loturiko elkarteetan kidetzen direnak (kolektiboaren % 8). Emakume gazteek ere gehiago parte hartzen dute halako elkarteetan, gizon gazteek baino (% 5 eta % 2, hurrenez hurren).

Beren burua klase baxu edo ertain-baxukotzat jotzen dutenak (kolektiboaren % 5), ideologikoki zentro edo eskuinekotzat definitzen direnak (% 6) eta atzerrian jaiotako gazteak (% 5) dira elkarte erlijiosoetan edo parrokia-elkarteetan gehien parte hartzen dutenak. Baina hein handiagoan izaten dira elkarte erlijiosoetako kide erlijio katolikoaz bestelakoak dituzten gazteak (kolektibo horren % 15).

Elkarte ekologisten pisua antzekoa da kolektibo guztietan. Nabarmentzekoa da politikan interes handia edo dezentekoa dutela adierazten duten pertsonen afiliazio-proporzio handiagoa (% 5).

Emakumeak dira elkarte feministetan edo emakumeekin erlazionatutako elkarteetan gehien kidetzen direnak (% 4), baina baita politikan interes handia edo dezentekoa dutenak (% 5) eta unibertsitate-titulazioa dutenak (% 6) ere.

Ikasketa-mailak gora egin ahala, gora egiten du giza eskubideak, garapenerako lankidetzak, LGTB mugimenduari loturiko elkarteak eta horrelako elkarteetako kide direla adierazi dutenen ehunekoak ere. Horrela, halako erakundeekin harremana duten pertsonen proportzioa % 5 da goi-mailako titulazioa duten pertsonen artean, eta % 1, berriz, derrigorrezko ikasketak dituzten pertsonen artean.

Sindikatu-elkarteetako edo elkarte profesionaletako kide izatea ohikoagoa da lanean ari diren eta unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen artean. Dena den, klase sozial baxu edo ertain-baxuko gazteen kasuan ohikoagoa da sindikatuetakoko kide izatea, eta klase sozial altu edo ertain-altuko gazteen kasuan, berriz, elkarte profesionaletako kide izatea.


Jakina, etorkin-elkarteetako kide izatea ohikoagoa da atzerrian jaiotako gazteen kasuan, kolektibo horretako % 5ek adierazi baitute halako elkarteren bateko kide direla. Etorkin-elkartei buruz ari garenean, etorkinez osatutako elkarteak, elkarte kulturalak eta abar aipatzen ditugu, eta ez etorkinei laguntzeko elkarteak (horiek giza eskubideekin lan egiten duten elkarten kategorian sartu dira).

Sexuaren araberako diferentziei behatzen badiegu, ikus daiteke, oro har, gizon gazteek kirol-elkarteetako eta musika-taldeetako kide izateko joera handiagoa dutela emakumeek baino, eta emakumeek, berriz, presentzia handiagoa dutela elkarte feministetan, euskara sustatzeko elkarteetan eta osasunari edo osasun-laguntzari loturiko elkarteetan.

Batez ere kirol-elkarteetan gizonen presentzia handiagoa izatearen ondorioz, mutilen asoziazionismo-tasa neskena baino askoz handiagoa da (% 52 eta % 41, hurrenez hurren). Gainera, asoziazionismo-tasak gora egiten du adinean behera egin ahala eta bukatutako ikasketen maila handiagoa den heinean. Halaber, tasa horrek gora egiten du beren burua klase sozial altu edo ertain-altukotzat duten pertsonen artean eta politikan interes handia edo dezentekoa dutela adierazten duten pertsonen artean.

3.15 grafikoa

GAZTEEN ASOZIAZIONISMO-TASA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN, AMAITUTAKO IKASKETA-MAILAREN, KLASE SOZIAL SUBJEKTIBOAREN ETA POLITIKAREKIKO INTERESAREN ARABERA (%)



Kirol-elkarteak kontuan hartuko ez bagenu, ikusiko genuke asoziazionismo-tasak handiagoa izaten jarraitzen duela politikan interesa duten pertsonen eta goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen kasuetan, baina desagertu egiten dira sexuaren, adinaren eta klase sozialaren arabera desberdintasunak.

3.10. BOLUNTARIOTZA

Hauteskundeetan parte hartzeak edo elkarte bateko kide izateak (betiere, elkartearen barruan partaidetza aktiborik ez badago) baino inplikazio pertsonal handiagoa eskatzen duen partaidetza modua da boluntario-lanak egitea.


Boluntariotza honako hau dela ulertzen dugu: beste pertsona batzuei edo komunitateari laguntzeko norberaren borondatez egiten diren ordaindu gabeko lanak, astean gutxienez ordubeteko dedikazioa eskaintzea eskatzen dutela. Definizio horretan hainbat jardura biltzen dira; hala nola, monitore edo begirale izatea aisialdiko jardura edo irteeretan, artearekin edo kulturarekin loturiko jardueretan, kirol-taldeetan entrenatzaile izatea... edo GKEei (DYA, Gurutze Gorria...) laguntzea, desgaitasunak dituztenei edo etorkinei laguntzea eta abar, baina beti ordainsaririk jaso gabe. Beraz, beste hainbat lan alde batera geratzen dira; esate baterako, jaiak edo jaialdiak antolatzea eta abar, unean uneko jardunak baitira, eta finkatutako definizioari jarraiki, jarduerak jarraitutasunez egin behar dira. Aitzitik, denboratarte labur batean baina dedikazio eskusiboz edo ia eskusiboz egiten diren boluntario-jarduerak bai sartzen dira definizio horretan, hala nola: atzerriko boluntario-lanetan, udaleku berezietan eta abarretan parte hartzea.

EAEko gazteen % 11k gaur egun boluntario-jarduerak egiten dituela diote. % 19k adierazi dute lehen egin izan dituztela, baina orain ez. Edozelan ere, boluntario-lanetan inoiz jardun ez direnak gehiengoa dira (% 69).

Boluntario-lanetan diharduten gazteen proportzioak gora egin du azken urteetan eta 2008an % 6 izatetik, % 7 izatera pasa zen 2012an, eta % 11 izatera, berriz, 2016an. Zenbait ikastegitan boluntario-lanak egiten hasteak eragina izan du, beharbada, halako jarduerak egiten dituzten gazteen ehunekoak igotzean.

3.16 grafikoa

GAZTEEK BOLUNTARIO-LANAK EGITEAREN EBOLUZIOA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

Gaur egun, gizonak baino emakume gazte gehiago dago boluntario-jarduerak egiten (emakumeen % 15 eta gizonen % 8).

Gaur egun, boluntario-lanak ohikoagoak dira amaitutako ikasketa-mailak gora egin ahala eta nabarmenagoa da unibertsitate-titulazioa duten gazteen artean (% 20), orobat politikan interes handia edo dezentekoa duten gazteen artean (% 20), beren burua ezkerrekotzat jotzen dutenen artean (% 16) bai eta elkarteren bateko kide diren gazteen artean ere (% 21).

3.17 grafikoa

BOLUNTARIO-LANAK EGITEN DITUZTEN GAZTEAK, SEXUAREN, AMAITUTAKO IKASKETA-MAILAREN, AMAITUTAKO IKASKETA MOTAREN, POLITIKAREKIKO INTERESAREN, EZKER/ESKUIN ARDATZ IDEOLOGIKOAN HARTZEN DUTEN POSIZIOAREN ETA ELKARTEETAKO KIDE DIREN ARABERA (%)



Gainera, gazteen % 5ek diote boluntario-lanetan edo garapenerako lankidetzan aritu direla atzerrian edo laneko udalekuren batean parte hartu dutela atzerrian.

Emakumeek hein handiagoan hartu dute parte atzerriko boluntario-esperientzietan gizonek baino (% 6 eta % 3, hurrenez hurren). 20 urtetik 29 urtera bitarteko pertsonen artean, elkarteren bateko kide direnen artean, eta gure gizarteak erreforma sakonak edo errotiko aldaketa behar dituela uste duten gazteen artean, atzerrian boluntario-lanak egin dituztenen proportzioa % 6 da. Proportzio hori % 8ra igotzen da politikan interes handia edo dezentekoa duten gazteen kasuan, % 9ra beren burua klase sozial altu edo ertain-altukotzat dutenen artean eta % 12ra unibertsitate-ikasketak dituzten gazteen kasuan.

Baina proportzio handiena gaur egun boluntario-lanetan jarduten duten gazteen artean erregistratzen da: % 18k diote horrelako esperientziaren bat izan dutela atzerrian.

3.11. ONDORIOAK

Euskal gazteriaren jarrera politikoan berritasunak daude 2016an. Politikarekiko interesak gorakada nabarmena izan du eta 2000. urteaz geroztik erregistratu den altuena da, biztanleria orokorraren batez besteko interesaz gaindi. 2016an, hamar gaztetik lauk diote politikan interes handia edo dezentekoa dutela.

Euskal / espainiar identitate-ardatzean kokatzeko orduan, gazteen erdiak baino gehiagok soilik euskalduntzat edo espainiar baino euskaldunagotzat hartzen dute beren burua, EAEko biztanleria orokorraren batezbestekoaz gaindi. Bestalde, gazteen ia erdia europar sentitzen dira eta sentimendu horrek gora egin du azken urteotan.

Gazte gehienek ideologikoki ezkerrekotzat definitzen dute beren burua, eta serieko balio altuena lortu da. Horrek ez du eragin eskuinekotzat edo zentrokotzat definitzen direnen proportzioa jaistea (beti izan dira gutxiengoa), baizik eta ardatzean kokatzen ez direnen proportzioak behera egitea. Halaber, gehienek uste dute gure gizarteak erreforma sakonak edo errotiko aldaketa behar dituela. Beren burua ideologikoki ezkerrekotzat hartzen dutenak dira aldaketa soziala gehien eskatzen dutenak.

2012tik 2016ra bitarte nabarmen egin du behera beren pentsamoldera hurbiltzen den alderdi politikorik ez dagoela uste duten gazteen ehunekoak. Podemos, 2014an sortutako alderdi politikoa, da euskal gazteen artean afinitate handiena duen aukera, Bilduren aurretik, baina gertu.

2016an, hiru gaztetik bik adierazi dute inkestaren aurreko hiru urteetan deitutako hauteskundeetako batean bozkatu zutela. Hauteskundeetan hein handiagoan hartzen dute parte politikan interesa duten gazteek, beren burua ezkerrekotzat definitzen dutenek, nagusiki euskaldun sentitzen direnek, alderdi abertzaleen ideiekin bat datozenek eta aldaketa soziala nahi dutenek.

Hamar gaztetik lauk adierazten dute modu aktiboagoan parte hartu nahiko luketela gai publikoetan, hauteskundeetan bozkatzeko soilaz haratago. Boto-ehuneko altuenak agertzen dituzten kolektiboak partaidetza aktibo handiagoa nahi dutenak dira.

Orotariko elkarteetako kidez-mailari begiratzen badiogu, gizartean parte hartzeko modu gisa, ikusten da 2016an gazteen ia erdia dela elkarteren bateko kide, alegia, aurreko urteetan baino zertxobait gehiago. Dena den, aurreko urteetan bezala, kirol- edo mendi-elkarte eta -klubak dira gazte gehien hartzen dituztenak (gazteen laurden bat kirol-elkarteren bateko kide da).

Hamar gaztetik batek dio boluntario-lanak egiten dituela. Ehuneko horrek ere gora egin du aurreko urteekiko. Halako lanak egiten dituzten emakumeen proportzioak bikoiztu egiten du gizonena. Elkarteetako kide diren pertsonen artean, boluntario-lanak egiten dituzten gazteen bolumena handiagoa da.

Gizon eta emakume gazteen arteko diferentziei begiratzen badiogu, esan daiteke emakumeek interes gutxiago dutela politikan gizonen baino, eta gizonen baino hein txikiagoan kokatzen dutela beren burua ezker / eskuin ardatzean. Gizonen asoziazionismo-tasa handiagoak dituzte, kirol-elkarteetan presentzia handiagoa dutelako. Emakumeek, berriz, balio altuagoak agertzen dituzte boluntario-lanak egiteari dagokionez.



4

Balio eta jarrera sozialak

4.1. SARRERA

Kapitulu honetan, EAEko gazteen balio eta jarrera sozialei loturiko zenbait gai jorratzen dira hainbat ikuspegi oinarri hartuta, hala nola sinesmen erlijiosoak, immigrazioarekiko eta atzeritarrekiko jarrerak, ideia eta sinesmen desberdineko pertsonetikiko tolerantzia ideologikoa eta jasangarritasunari loturiko jarrerak.

EAEko gazteek zenbait gaurkotasun-gairi buruz duten iritzia ere jaso nahi izan da (hala nola Siriako gerrak okerrera egiteak Europaranzko migrazioa eragitea).

4.2. SINESMEN ERLIJIOSOAK


EAEko gazteek erlijio-fenomenoari buruz duten posizioari begiratzen badiogu, ikus daiteke gazteen erdia baino gehiago (% 58) erlijiotik urruntzen dela; gazteen % 46k adierazi dute ez-sinestunak edo ateoak direla, eta % 12k diote ez dutela interesik edo agnostikoak direla.

Gai honetan bereziki argia da belaunaldi-etena. Ikerketa honetan EAEko gazteei buruz jasotako datuak eta *Euskal Soziometroa 60: euskal iritzi publikoa 20 urtetan*¹⁷ azterlanean EAEko biztanleria orokorrari buruz jasotako datuak konparatzen baditugu, ikus daiteke 18 urteko eta gehiagoko biztanleriaren % 55ek katolikotzat aitortzen dutela bere burua, eta 15 urtetik 29 urtera bitarteko pertsonen artean, berriz, proportzio hori % 27 dela.

¹⁷ Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzakoa (2016): *ob.cit.*

4.1 grafikoa

GAZTEEK ETA 18 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIAK
ERLIJIO-GAIETAN BEREN BURUA NOLA AITORTZEN DUTEN (%)



18 urteko eta gehiagoko biztanleriari buruzko datu-iturria: Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (*Euskal Soziometroa 60. Euskal iritzi publikoa 20 urtetan*).

EAEko gazteen datuak Espainiako gazteen datuekin konparatzen baditugu ere aldeak hautematen dira. Espainiako gazteen artean,¹⁸ % 43k katolikotzat dute beren burua (% 8 katoliko praktikanteak eta % 35, katoliko ez-praktikanteak); EAEn, berriz, gazteen % 27k. Ez dakigu katoliko ez-praktikante gisa identifikatzeak zelako esanahiak dakartzan bere baitan, baina beharbada adierazten du katolizismoa inkulturaziotzat onartzen dutela, hau da, oinordetutako kulturako zati izatera pasa den zerbait bezala, edo kontserbatzen den tradizio gisa, nahiz eta esanahi sakratua aldatu eta esanahi sekularrekin ordeztu.

Arreta osoa EAEko gazteengan jarriz gero, ikus dezakegu gazte ateoaren proportzioa batezbestekoa baino handiagoa dela 25 eta 29 urte bitartekoen artean bai eta gizonen artean ere. Jaiolekuak ere alde nabarmena adierazten du: atzerrian jaiotako gazteak EAEn jaiotakoak baino askoz erlijiosoagoak dira eta haien artean katolikoa ez den beste erlijioetan sinesten dutenen portzentaje handia dago.

¹⁸ INJUVE. Espainiako Gazterien Institutua (2014): *Cifras jóvenes. Sondeo de Opinión. Jóvenes, valores y ciudadanía* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.injuve.es/sites/default/files/2016/04/publicaciones/tablassondeo_2014-2.pdf [Kontsulta: 2017/07/12]

4.1 taula
ERLIJIOARI DAGOKIONEZ HARTUTAKO JARRERA, SEXUAREN,
ADIN-TALDEAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

Erljio gaitan nola definitzen duzu zure burua?								
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Jaiolekua*	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Euskadi	Atzerria
Katoliko praktikantea	4	4	5	5	4	4	3	12
Katoliko ez praktikantea	23	27	20	24	25	21	23	25
Beste erlijio bateko sinestuna	8	8	8	7	6	10	2	40
Jainkoarengan sinestuna, ez erlijioetan	4	5	4	6	4	3	4	5
Indiferentea, agnostikoa	12	12	11	11	12	12	13	4
Ez sinestuna, ateoak	46	43	48	43	46	48	52	9
Ed/Ee	3	2	4	4	3	2	3	4
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	1184	249

* Espainiako gainontzeko lekuetan jaiotako gazteei buruzko datuak ez dira gurutzaketa-aldagai bezala erabili, laginean gutxi jaso zirelako.

EAEko gazteen erlijioarekiko jarreraren eboluzioak beherakada handia izan du katolikotzat definitzen diren pertsonen artean, eta hori aztertzea komeni da.

EAE beren burua katoliko praktikantetzat aitortzen duten pertsona gazteen ehunekoak behera egin du, 1998an¹⁹ % 14 izatetik 2016an % 4 izateraino. Halaber, nabarmen egin du behera katoliko ez-praktikantetzat definitzen diren proportzioak ere, 1998an % 45 izatetik, 2016an % 23 izateraino. Aurkako muturrean, beren burua ez-sinestuntzat, agnostikotzat edo ateotzat duten pertsonen taldea etengabe ari da hazten; hala, 1998an % 31 izatetik % 43 izatera pasa ziren 2008an, % 54 izatera 2012an eta gaur egun % 58 dira.

¹⁹ Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariakoa (1999): *Gazteen argazkiak-3, 1998-1999* [linean] Hemen eskuragarri: <http://www.euskadi.eus/gazteen-argazkiak/web01-s1lehike/eu/> [Kontsulta: 2017/06/05]

4.2 taula

ERLIJIOARI DAGOKIONEZ HARTUTAKO JARRERAREN EBOLUZIOA (%)


Erljio gaitan nola definitzen duzu zure burua?				
(%)	1998	2008	2012	2016
Katoliko praktikantea	14	8	4	4
Katoliko ez praktikantea	45	38	30	23
GUZTIRA KATOLIKOAK	59	46	34	27
EZ DUITE SINESTEN, AGNOSTIKOAK, ATEOAK	31	43	54	58
(n)	3578	1500	1500	1500

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko Gazteak seriea).

Beren burua katoliko praktikantetzat edo beste erlijio batzuetako sinestuntzat (nagusiki, musulmanak) definitzen duten gazteen praktika erlijiosoari dagokionez (elkarriketatutako pertsonen % 12 dira), aipatu behar da % 44 erlijio-ofizioetara edo gurtza-tokietara astean behin baino gutxiagotan joaten direla; % 27 astean behin joaten dira; eta % 15, berriz, astean behin baino gehiagotan.

4.2 grafikoa

ERLIJIO KATOLIKOA EDO BESTE ERLIJIO BATZUK PRAKTIKATZEN DITUZTELA DIOTEN GAZTEAK ELIZARA EDO GURTZA-ZENTRORA JOATEN DIREN MAIZTASUNA (%)*



* Oinarria: Katoliko praktikantetzat definitzen diren edo beste erlijio batzuk praktikatzen dituzten gazteak (% 12).

Gurtza-tokira joateko maiztasunaren datuei EAEko gazte guztien datu orokorren kasuan begiratzen badiegu, ikusten da % 2 bakarrik joaten direla gurtza-tokiren edo elizaren batera astean behin baino gehiagotan, eta % 5 astean behin.


4.3. ZENBAIT GAI SOZIALEN AURREKO JARRERA

Jarraian, hainbat egoera azalduko ditugu eta gazteek egoera horien aurrean aldeko edo kontrako jarrera hartzen ote duten aztertuko dugu. Gai horietako batzuk eztabaidagai publikoak dira, beste batzuk legegintza-erreformen xede izan dira, beste batzuk legezkotasunaren eta legez kanpokotasunaren arteko linboan daude... baina guztiek ere gazteen joerak neurtzen laguntzen dute.

Kapitulu honetan, honako gai hauek jorratu dira, aldekoen portzentajeen arabera ordenatuta: sexu bereko pertsonen arteko ezkontza (% 91); sexu-aldaketa (% 86); abortu libre eta borondatezkoa (% 84); eutanasia (% 79); kanabisaren legalizazioa (% 56); eskoletan erlijioa irakastea (% 29); eta, azkenik, ideia politiko edo erlijiosoak indarkeriaz defendatzea (% 16).

4.3 grafikoa

IZAERA SOZIALEKO ZENBAIT GAIEN ALDEKO JARREREN EBOLUZIOA (%)



* 2008an ez zen kanabisaren legalizazioari buruz galdetu.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

Grafiko horretan, aztertutako gai sozialen aurrean agertzen den babes-mailaren eboluzioa ageri da. Aurrera egin du jarrera positiboak sexu bereko pertsonen arteko ezkontzei, sexu-aldaketari, abortuari eta eutanasiari buruz. Bestalde, behera egin du kanabisa legeztatzeari, eskoletan erlijioa irakasteari eta ideia politiko edo erlijiosoak indarrez defendatzeari buruzko babes-jarrerak.

4.3.1. Sexu bereko pertsonen arteko ezkontza

Espanian, sexu bereko pertsonen arteko ezkontza legezkoa da 2005eko uztailaren 3az geroztik. 2004an, Alderdi Sozialista, José Luis Rodríguez Zapatero buru zuela, hauteskunde orokorretara aurkeztu zenean, programan «sexu bereko pertsonen ezkontzak eta horrek berarekin dakartzan eskubide guztiak ahalbidetzeko» konpromisoa jaso zuen. Hauteskundeetan sozialistek garaitu ostean eta gobernua osatu ostean, eztabaida ugariaren ondoren, 2005eko ekainaren 30ean onartu zen kode zibila aldatzen zuen eta sexu bereko pertsonen arteko ezkontzari bide eman zion legea (ezkontzari ez ezik, bestelako eskubide batzuei ere, hala nola baterako adopzioari, oinordetzari eta pentsioei). Legea²⁰ 2005eko uztailaren 2an argitaratu zen eta sexu bereko pertsonen arteko ezkontza legezko izatera pasa zen Espainian 2005eko uztailaren 3an, hala, sexu bereko pertsonen ezkontza legeztatu zuen munduko hirugarren herrialdea izan zen²¹. Berriki, Alemanian legeztatu dira sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak eta gutxi dira, gaur egun, oraindik ere aurka ageri diren Europako herrialdeak (Italia, Grezia edo Polonia, adibidez).

EAEko euskal gazteen % 91 sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen alde daude. Gai honen aurrean agertzen den babesak gora egin du azken urteotan (% 86, 2008an; % 87, 2012an). Eta ia eguneroko fenomeno bihurtzen den heinean, pentsa daiteke babesek ere gora egingo dutela. Gaur egun, oraindik gazteen % 7 sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren aurka agertu dira eta % 3k ez du aurkako edo aldeko jarrerarik hartu.

Emakumeek adostasun handiagoa agertu dute gai horrekin mutilek baino (% 92 eta % 89, hurrenez hurren). Eta desberdintasunak hauteman dira, halaber, aztertutako hiru adin-taldeetan. Gazteen artean (15-19 urte), % 92 alde ageri dira; 20-24 urtekoen artean, % 93 ageri dira alde; eta beherakada txikia hautematen da 25-29 urtekoen artean (% 88).

4.3 taula

SEXU BEREKO PERTSONEN ARTEKO EZKONTZARI BURUZKO IRITZIA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

Orain esadazu, zuk zeuk egingo zenukeenaz aparte, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde ala kontra zauden								
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Jaiolekua*	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Euskadi	Atzerria
Alde	91	92	89	92	93	88	95	64
Kontra	7	6	7	5	5	8	3	30
Ed/Ee	3	2	4	3	2	4	2	6
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	1184	249

* Espainiako gainontzeko lekuetan jaiotako gazteei buruzko datuak ez dira gurutzaketa-aldagai bezala erabili, laginean gutxi jaso zirelako.

²⁰ ESPAINIA (2005): *Uztailaren 1eko 13/2005 Legea, Kode Zibila aldaraztekoa, ezkontzeko eskubidearen arloan* [linean] Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/boe/dias/2005/07/02/pdfs/A23632-23634.pdf> eta http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/legedia_euskaraz/es_3818/adjuntos/Zuzenbide-zibila/Kode_Zibila_aldaraztekoa_ezkontzeko_eskubidearen_arloan.pdf [Kontsulta: 2017/07/01]

²¹ WIKIPEDIA (2004): *Sexu bereko pertsonen arteko ezkontza* [linean] Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): https://es.wikipedia.org/wiki/Matrimonio_entre_personas_del_mismo_sexo_en_Espa%C3%B1a [Kontsulta: 2017/07/12]

Diferentzia esanguratsuagoak aurkitu nahi izanez gero, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen aurrean agertutako babesa elkarriketatutako pertsonaren jaiolekuarekin gurutzatuta aurkitzen ditugu.

EAEen jaiotako eta atzerrian jaiotako pertsonen arteko diferentzia portzentajezko 30 puntutik gorakoa da (% 95 eta % 64, hurrenez hurren). EAEen bizi diren baina atzerrian jaio diren gazteen % 30 sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren aurka daude.

4.3.2. Sexu-aldaketa

Sexu-aldaketan, pertsona transexual batek jaiotzetik zuen sexua aldatzen du, bere genero-identitatera egokitzeko. Sexu-aldaketa adierazteko termino kliniko egokia sexua berregokitzeko kirurgia da, eta sexua berregokitzeko terapiako zati da kirurgia hori.²² Osasungintza publikoan duela zenbait urtetatik sexua berregokitzeko ebakuntzak egiten diren arren sare publikoan, gai honek eztabaida eta gatazkak eragin ditu etengabe.

Nolanahi ere, EAEko gazte gehienentzat, sexu-aldaketa eztabaida handirik eragin beharko ez lukeen gaia da, izan ere, % 86 erabat alde ageri dira. % 9 aurka ageri dira eta % 5ek ez dute adierazpen argirik egin gai honen inguruan.

Adierazle horrek ere bilakaera positiboa izan du. 2012an, gazteen % 82 sexu-aldaketaren alde ageri ziren; ehuneko hori 2008an erregistratutakoa baino altuagoa zen (% 78).

Gai honekiko adostasuna, berriro ere, pixka bat handiagoa da emakumeen artean, gizonen artean baino (% 88 eta % 85, hurrenez hurren), eta berriro ere ikusten da adostasunak arinki behera egiten duela 25-29 urte dituztenen artean (% 84).

Elkarriketatutako pertsonen jaiolekuari behatuz gero, diferentzia handiak hautematen dira. EAEen jaio direnen artean, % 91 sexu-aldaketaren alde ageri dira, eta atzerriko herrialderen batean jaio direnen artean, berriz, % 57 baino ez dira ageri gai honen alde.

4.4 taula

SEXU-ALDAKETARI BURUZKO IRITZIA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN
ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

Orain esadazu, zuk zeuk egingo zenukeenaz aparte, sexu-aldaketaren alde ala kontra zauden								
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Jaiolekua*	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Euskadi	Atzerria
Alde	86	88	85	88	88	84	91	57
Kontra	9	8	10	8	8	11	4	36
Ed/Ee	5	4	5	5	5	5	5	7
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	1184	249

* Espainiako gainontzeko lekuetan jaiotako gazteei buruzko datuak ez dira gurutzaketa-aldagai bezala erabili, laginean gutxi jaso zirelako.

²² WIKIPEDIA (2006): *Sexu-aldaketa* [linean] Hemen eskuragarri: <https://eu.wikipedia.org/wiki/Sexu-aldaketa> [Kontsulta: 2017/07/12]

4.3.3. Abortu libre eta borondatezkoa

2010ean abortuaren legea onartu zenean, 16 urteko adina finkatu zen abortatzeko adin-nagusitasuntzat. Adin txikiko haurdunek (16 eta 17 urte) beren lege-ordezkarietako bati (aita, ama edo tutorea) jakinarazi behar zioten, gutxienez, abortatzeko erabakia hartu zutela. Ez zen beharrezkoa gurasoei erabakia jakinaraztea gogorkeria, familia-indarkeria, tratu txarrak edo mehatxuak argudiatzen baziren edo babesgabetasun-egoeraren bat gertatzen bazen; kasu horietan, gizarte-zerbitzuen txostenean jaso behar zen egoera.

2015eko irailean, Alderdi Popularraren gobernuak abortuaren legea erreformatu zuen²³ eta goitik behera aldatu zuen abortatu nahi duten adin txikikoen egoera. Gaur egun, 18 urtetik beherako emakumeek gurasoen edo lege-ordezkarien baimena behar dute abortatu ahal izateko. Horrek esan nahi du adin txikiko emakumeek osasun-zentrorra haiekin joan behar dutela eta abortatzeko borondatea gurasoen baimen sinatuarekin batera formalizatu behar dutela. Adin txikikoaren eta gurasoaren artean gatazkarik badago adin txikikoak abortatu ahal izateko beharrezko baimenaren inguruan, judizialki ebatzi beharko da, Kode Zibilarekin bat.

EAEn, gazteen % 84 abortu libre eta borondatezkoaren alde daude. % 11 aurka daude eta % 5ek ez dakite zer jarrera hartu edo nahiago dute bere jarrera ez adierazi.

EAEko gazteen artean, abortu libre eta borondatezkoaren aldeko iritzia eboluzioak ere goranzko joera agertzen du. 2008an, gazteen % 76 zeuden abortuaren alde; 2012an, % 79ra egin zuen gora; eta 2016an, berriz, % 84ra.

Ez dago ia alderik sexuaren arabera edo adin-taldearen arabera. Diferentzia nagusia, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren eta sexu-aldaketaren kasuan bezala, elkarrizketatutako pertsonaren jaiolekuak zehazten du. EAEn jaiotako gazteen kasuan, % 91 alde ageri dira, eta atzerrian jaiotako pertsonen artean, handiagoa da aurka daudenen proportzioa (% 48), alde daudenen baina (% 45).

4.5 taula

ABORTU LIBRE ETA BORONDATEZKOARI BURUZKO IRITZIA,
SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

Orain esadazu, zuk zeuk egingo zenukeenaz aparte, abortu libre eta borondatezkoaren alde ala kontra zauden								
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Jaiolekua*	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Euskadi	Atzerria
Alde	84	86	83	84	85	83	91	45
Kontra	11	10	11	9	11	13	4	48
Ed/Ee	5	4	6	7	4	4	5	7
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	1184	249

* Espainiako gainontzeko lekuetan jaiotako gazteei buruzko datuak ez dira gurutzaketa-aldagai bezala erabili, laginean gutxi jaso zirelako.

²³ ESPAINIA (2015): *11/2015 Lege Organikoa, irailaren 21ekoa, neskato adingabeen eta gaitasuna judizialki aldatuta duten emakumeen babes indartzeko haurdunaldiaren borondatezko etenduran* [linean] Hemen eskuragarri: http://boe.es/boe_euskera/dias/2015/09/22/pdfs/BOE-A-2015-10141-E.pdf [Kontsulta: 2017/07/01]

4.3.4. Eutanasia

Narriadura luze eta penagarriaren ideiak herritar asko eramaten ditu noiz eta nola hil nahi duten erabaki nahi izatera. Ramón Sampedroren hitzetan, bizitzeko eskubidea badago, baina ez edonola bizitzeko betebeharra. Hori da eutanasia despenalizatzea proposatzen dutenen abiapuntua. Medikuek lagunduta hil ahal izateko aukera izateak eskubide zibilak zabaltzea ekar lezake²⁴.

Eutanasia beti da aktiboa, zuzenean heriotza eragiten duelako edo horretarako baliabideak eskuragarri jartzen dituelako. Eta beti izan behar du borondatezkoa. Beharrezkoa da pazientearen eskaera kontziente, informatu, libre eta errepikatua.

EAEko gazteen % 79 eutanasiaren alde agertu dira; % 14 erabat aurka ageri dira; % 7k ez dute iritzirik adierazi edo nahiago dute ez erantzun.

Ez da alderik nabaritzen gizon eta emakume gazteen artean gai honi dagokionez, eta adinaren arabera ikusten da arinki gora egiten duela eutanasiaren aldeko iritzia 20 urtetik gorako pertsonen artean.

Diferentzia handiak daude gai honen inguruan EAEn jaiotako pertsonen eta atzerrian jaiotako pertsonen artean adierazi dituzten pertzepzioen artean. EAEn jaio direnen artean, % 84 alde ageri dira; atzerrian jaio direnen artean, berriz, % 49.

4.6 taula

EUTANASIARI BURUZKO IRITZIA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

Orain esadazu, zuk zeuk egingo zenukeenaz aparte, eutanasiaren, hau da, gaixo sendaezinari hiltzen laguntzea, berak horrela eskatzen badu, alde ala kontra zauden								
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Jaiolekua*	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Euskadi	Atzerria
Alde	79	80	78	75	80	80	84	49
Kontra	14	14	14	16	14	13	8	45
Ed/Ee	7	6	8	9	6	7	8	6
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	1184	249

* Espainiako gainontzeko lekuetan jaiotako gazteei buruzko datuak ez dira gurutzaketa-aldagai bezala erabili, laginean gutxi jaso zirelako.

Espanian, eutanasiaren alde ageri diren gazteen proportzioa²⁵ pixka bat handiagoa da EAEn bizi diren gazteena baino (Espainiako gazteen % 84 eta EAEkoen % 79).

Bestalde, EAEko gazteen artean 2016an jasotako eutanasiaren aldeko iritzia azken urteotako batezbestekoekin bat datoz: % 82, 2008an; eta % 73, 2012an.

²⁴ Pérez Oliva, Milagros (2017): *La hora de la eutanasia* [linean] Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): http://politica.elpais.com/politica/2017/03/31/actualidad/1490960180_147265.html [Kontsulta: 2017/07/10]

²⁵ INJUVE, Gazteen Espainiako Institutua (2014) *ob. cit.*

4.3.5. Kanabisa legeztatzea

Zenbait herrialdetan, hala nola Uruguain, Kanadan edo Estatu Batuetako zenbait estatutan, legeztatuta dago kanabisa xede terapeutiko eta dibertimendu-xedeetarako erabiltzea. Gure ingurunean, azken urteotan, kontsumo partekatua ideiarekin pean, kanabis-klub sozial deritzenek funtzionatu dute, eta ez da tirabira handirik hauteman indarrean dauden legeekin.

Baina gai hori, une honetan, ez dago alderdi politikoaren mahai gainean eta ez dago eztabaida sozial garrantzitsurik.

% 56 bakarrik ageri dira kanabisa legeztatzearen alde. Ez da ehuneko txikia, baina egia da % 27 aurka daudela eta % 17 ez direla ez alde eta ez aurka ageri.

Kanabisa legeztatzearen aldekoen proportzioak arinki egin du behera 2012az geroztik (% 61), baina kontra daudenen pisua bere horretan mantentzen da (% 27). 2012tik 2016ra handitu dena jarrerarik (ez alde, ezta kontra ere) hartzen ez dutenen portzentajea izan da.

Alde ageri direnen proportzioa handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino (% 60 eta % 52, hurrenez hurren), arrazoi ideologikoak eta gizonen kontsumo-prebalentzia handiagoak direla eta.

Kanabisa legeztatzearekiko adostasun-mailak gora egiten du adinean gora egin ahala ere, eta 19 urtetik beherakoen arteko % 47tik 20-24 urtekoen arteko % 58ra eta 25-29 urtekoen arteko % 62ra igotzen da.

4.7 taula

KANABISA LEGEZTATZEARI BURUZKO IRITZIA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

Orain esadazu, zuk zeuk egingo zenukeenaz aparte, kanabisaren legalizazioaren alde ala kontra zauden						
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Alde	56	52	60	47	58	62
Kontra	27	29	25	32	26	25
Ed/Ee	17	19	15	21	16	14
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600

Kanabisa legeztatzearen alde ageri direnen proportzioa handiagoa da klase sozial baxu edo ertain-baxukotzat definitzen diren pertsonen artean (% 60).

Halaber, zenbait diferentzia hauteman dira elkarriketatutako pertsonen jatorriaren arabera. EAEn jaiotakoan artean % 61 ageri dira kanabisa legeztatzearen alde, baina proportzio hori askoz txikiagoa da atzerrian jaiotakoan artean (% 29), horiek aurka ageri baitira, nagusiki.

Kanabisa legeztatzearen aldeko iritziek % 89ra egiten dute gora, azken hilabeteetan legez kanpoko drogaren bat kontsumitu duten gazteen artean.

4.8 taula

KANABISA LEGEZTATZEARI BURUZKO IRITZIA,
KLASE SOZIAL SUBJEKTIBOAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

Orain esadazu, zuk zeuk egingo zenukeenaz aparte, kanabisaren legalizazioaren alde ala kontra zauden						
(%)	GUZTIRA	Klase sozial subjektiboa			Jaiolekua*	
		Altua edo ertain-altua	Ertaina	Baxua edo ertain-baxua	Euskadi	Atzerria
Alde	56	51	55	60	61	29
Kontra	27	26	28	28	22	56
Ed/Ee	17	23	17	12	17	15
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	166	963	347	1184	249

* Espainiako gainontzeko lekuetan jaiotako gazteei buruzko datuak ez dira gurutzaketa-aldagai bezala erabili, laginean gutxi jaso zirelako.

4.3.6. Erlijioa irakastea ikastetxeetan

EAEko gazteak eskoletan erlijioa irakastearen aurka ageri dira, alde baino gehiago. % 58 gai horren aurka daude eta % 29 alde.

Ikastetxeetan erlijioa irakastearen aldeko iritziek behera egin dute azken urteotan: % 40 zeuden alde 2008an; % 38, berriz, 2012an; eta % 29 ageri dira alde, 2016an.

Emakumeak hein handiagoan agertzen dira eskoletan erlijioa irakastearen alde (% 32, eta gizonen kasuan, berriz, % 27). Halaber, badirudi gazteenak ere hein handiagoan agertzen direla gai honen alde (15-19 urteko gazteen % 34, eta 25-29 urtekoen % 27, berriz).

4.9 taula

ESKOLETAKO ERLIJO-IRAKASKUNTZARI BURUZKO IRITZIA,
SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

Orain esadazu, zuk zeuk egingo zenukeenaz aparte, ikastetxeetan erlijioa irakastearen alde ala kontra zauden						
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Alde	29	32	27	34	28	27
Kontra	58	56	60	52	60	61
Ed/Ee	13	13	13	14	12	12
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600

Elkarriketatu diren gazteen klase sozialaren arabera, ez da alderik hautematen aldekoen portzentajeetan, baina eskoletan erlijioa irakastearen kontra daudenen pisuak gora egiten du klase sozial subjektiboa jaitsi ahala; beren burua klase sozial altuan edo ertain-altuan kokatzen dutenek neurri txikiagoan adierazten dute beren iritzia gai honen inguruan.

Hori da atzerriko pertsonen (% 58) EAEn jaiotakoek baino (% 24) adostasun-maila handiagoa agertzen duten gai bakarra.

4.10 taula

ESKOLETAKO ERLIJIO-IRAKASKUNTZARI BURUZKO IRITZIA,
KLASE SOZIAL SUBJEKTIBOAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

Orain esadazu, zuk zeuk egingo zenukeenaz aparte, ikastetxeetan erlijioa irakastearen alde ala kontra zauden						
(%)	GUZTIRA	Klase sozial subjektiboa			Jaiolekua*	
		Altua edo ertain-altua	Ertaina	Baxua edo ertain-baxua	Euskadi	Atzerria
Alde	29	30	30	29	24	58
Kontra	58	54	57	63	62	33
Ed/Ee	13	16	13	9	13	9
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	166	963	347	1184	249

* Espainiako gainontzeko lekuetan jaiotako gazteei buruzko datuak ez dira gurutzaketa-aldagai bezala erabili, laginean gutxi jaso zirelako.

Eskoletan erlijioa irakastearen aldeko iritziak elkarriketatutako pertsonen jarrera erlijiosoaren arabera aztertzen baditugu, ikus daiteke beren burua katoliko praktikantetzat aitortzen duten pertsonak daudela eskoletan erlijioa irakastearen alde, hein handienez (% 72). Pertsona katoliko ez-praktikanteen artean, aldeko iritziak % 49 dira. Aurkako muturrean, beren burua ateotzat definitzen duten pertsonak daude, horien % 14 soilik agertzen baitira eskoletan erlijioa irakastearen alde.

Espainiako gazteen artean, eskoletan erlijioa irakastearen aldeko iritzien proportzioa²⁶ pixka bat handiagoa da (% 31,5), EAeko gazteen artean baino.

4.3.7. Ideia politiko edo erlijiosoak indarkeriaren bidez defendatzea

Idea politiko edo erlijiosoak indarkeriaren bidez defendatzea da EAeko gazteen artean babes gutxien jasotzen duen gai soziala. % 16 bakarrik ageri dira gai honen alde; % 75 aurka ageri dira; eta % 9k ez dakite zer erantzun edo nahiago dute ez erantzun.

Gai honetan, ehunekoak horren baxuak izanik, ez dago diferentzia nabarmenik emakume eta gizonen artean edo adin-taldearen artean.

²⁶ INJUVE, Gazteen Espainiako Institutua (2014) *ob.cit.*

4.11 taula

IDEIA POLITIKO EDO ERLIJIOSOAK INDARKERIAREN BITARTEZ DEFENDITZEARI BURUZKO IRITZIA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

Orain esadazu, zuk zeuk egingo zenukeenaz aparte, ideia politiko edo erlijiosoak indarraren bidez defendatzearen alde ala kontra zauden						
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Alde	16	16	17	16	18	15
Kontra	75	76	74	76	74	76
Ed/Ee	9	8	9	8	8	9
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600

Item honetan ere hautematen da diferentzia txikien EAEn jaiotako eta atzerrian jaiotako pertsonen artean. Klase sozial baxu edo ertain-baxukotzat definitzen diren pertsonak dira, hein handiago batean, ideia politiko edo erlijiosoak indarkeriaz defendatzearen alde agertzen direnak (% 21).

4.12 taula

IDEIA POLITIKO EDO ERLIJIOSOAK INDARKERIAREN BITARTEZ DEFENDITZEARI BURUZKO IRITZIA, KLASA SOZIAL SUBJEKTIBOAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

Orain esadazu, zuk zeuk egingo zenukeenaz aparte, ideia politiko edo erlijiosoak indarraren bidez defendatzearen alde ala kontra zauden						
(%)	GUZTIRA	Klase sozial subjektiboa			Jaiolekua*	
		Altua edo ertain-altua	Ertaina	Baxua edo ertain-baxua	Euskadi	Atzerria
Alde	16	15	15	21	17	12
Kontra	75	72	78	69	74	80
Ed/Ee	9	13	7	9	9	8
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	166	963	347	1184	249

* Espainiako gainontzeko lekuetan jaiotako gazteei buruzko datuak ez dira gurutzaketa-aldagai bezala erabili, laginean gutxi jaso zirelako.

Idea politiko edo erlijiosoak indarkeriaz defendatzearen aldeko iritziak 2008ko balioetara itzuli dira 2016an, 2012an gorakada izan ostean: ziurrenik munduko hainbat tokitan izan ziren jazoeren (kaleko protestak eta arabiar udaberriak) ondorioz, *Euskadiko gazteak 2012* ikerketarako inkesta egin zen garai berean gertatu baitziren.

4.4. TOLERANTZIA IDEOLOGIKOA


Euskadiko gazteak izeneko seriean, tolerantzia ideologikoa neurtzeko, zenbait pertsona bestelako ideia, sinesmen edo balioak dituzten pertsonekin zein heinetaraino deseroso sentitzen diren haztatzen da.

EAEko gazteen % 16k esan dute oso edo nahiko deseroso egoten direla bestelako ideia, sinesmen edo balioak dituztenekin. % 39 ez dira oso deseroso egoten baina ezta eroso ere; % 40 ez dira batere deseroso egoten; eta % 5ek ez dakite edo ez dute erantzun nahi.

Bestelako pentsamoldea duten pertsonekin deseroso sentitzen diren gazteen proportzioak gora egin du 2000. eta 2016. urteen artean. 2000. urtean, gazteen % 10 deseroso sentitzen ziren bestelako ideia, sinesmen edo balioak zituzten pertsonekin; 2004an proportzio bera erregistratu zen (% 10), eta gora egin zuen ondoren: % 12 zen 2008an; % 17, 2012an; eta % 16 da 2016an.

4.4 grafikoa

BERAIEN IDEIEKIN BAT EZ DATOZEN IDEIAK, SINESMENAK
EDO BALIOAK DITUZTENEKIN DESEROSO SENTITZEAREN EBOLUZIOA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

Gizon gazteek emakumeek baino neurri handiagoan diote ez daudela gustura beren ideiekin edo sinesmenekin bat ez datozen ideiak eta sinesmenak dituztenekin. Sentsazio hori apur bat handitzen da, halaber, adinean gora egin ahala.

Politikan interes handiagoa duten eta, ziurrenik, inplikazio handiagoa duten pertsonak (ideologikoki edo modu aktiboagoan, alderdi politikoetan parte hartuz) hein handiagoan adierazi dute deseroso sentitzen direla ideia, sinesmen edo balio desberdinak dituzten pertsonekin daudenean (% 20).

4.13 taula

NORBERAREN IDEIA, SINESMEN EDO BALIOAK EZ BEZALAKOAK DITUZTEN PERTSONEKIN EGOTEAN SENTITUTAKO DESEROSOTASUN-MAILA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA POLITIKAREKIKO INTERESAREN ARABERA (%)

Zenbateraino sentitzen zara deseroso zureak ez bezalako ideiak, sinesmenak edo baloreak dituzten pertsonekin?								
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Politikarekiko interesa	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Interes handia edo nahikoa	Interes gutxi edo batere ez
Oso deseroso	4	3	5	2	5	5	5	3
Nahikoa deseroso	12	11	14	13	12	13	15	11
Ez oso deseroso	39	40	38	40	39	38	40	39
Batere deseroso ez	40	41	38	41	39	39	36	42
Ed/Ee	5	5	5	4	4	5	4	5
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	560	911


4.5. ATZERRIKO IMMIGRAZIOAREKIKO JARRERAK

2016ko urtarrilaren 1ean, atzerriko herritartasuna zuten 149.348 pertsona zeuden EAEn. EAeko biztanleria osoarekiko (2.171.886) hartuta, % 6,9 atzerritarrak ziren. Atzerriko pertsonen bertako biztanleriarekiko ehuneko hori handiagoa da 15-29 urteko gazteen artean: % 12,7.

Nahiz eta datu objektiboek adierazten duten EAEn dauden atzerritarren kopurua ez dela oso altua (har dezagun, adibidez, Torontoren kasua, Kanadan, non biztanleen % 50 atzerrian jaio baitira²⁷), EAeko gazteen % 29k uste dute atzerritar gehiegi bizi direla EAEn. % 55ek uste dute dezente daudela baina ez direla gehiegi, eta % 9k uste dute atzerritar gutxi daudela. % 7k ez dakite zer erantzun edo nahiago dute ez erantzun.

4.5 grafikoa

EUSKADIN BIZI DIREN BESTE HERRIALDE BATZUETAKO PERTSONA KOPURUAREN PERTZEPZIOA (%)




²⁷ Fernández, Rosario (2013): *Toronto, una ciudad en la que los extranjeros son bienvenidos* [linean] Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): <http://www.expansion.com/2013/07/10/directivos/1373475210.html> [Kontsulta: 2017/07/12]

Baina adierazle horren eboluzioa oso positiboa da, izan ere, 2016an alderantzikatu egin da 2000. urteaz geroztik mantendu den joera bat. Urte hartan, % 12k uste zuten EAEn atzerritar gehiegi zeudela. Ehuneko hori % 24ra igo zen 2004an, % 38ra 2008an eta % 45era 2012an, baina 2016an % 29ra jaitsi da.

4.6 grafikoa

EUSKADIN BIZI DIREN BESTE HERRIALDE BATZUETAKO PERTSONA KOPURUAREN PERTZEPZIOAREN EBOLUZIOA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

2016an EAEn atzerritar gehiegi daudela uste dutenen portzentajea txikiagoa da gazteen artean (% 29) EAeko 18 urteko eta gehiagoko biztanleen artean baino (% 36)²⁸.

4.14 taula

EUSKADIN BIZI DIREN BESTE HERRIALDE BATZUETAKO PERTSONA KOPURUAREN PERTZEPZIOA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

Ondoren Euskal herrian bizi den beste herrialde batzuetako jendeari buruz hitz egingo dugu. Zuk zer esango zenuke: gehiegi daudela, asko samar daudela baina ez gehiegi edo gutxi daudela?						
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Gehiegi daude	29	32	27	24	28	35
Asko samar daude, baina ez gehiegi	55	53	56	62	56	47
Gutxi daude	9	7	10	7	9	10
Ed/Ee	7	8	7	8	7	7
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600

²⁸ Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariakoa (2016): *ob. cit.*

Emakume gazteek hein handiagoan jotzen dute EAEn atzerritar gehiegi daudela, gizon gazteekin alderatuta (% 32 eta % 27, hurrenez hurren). Halaber, gora egiten du atzerritarren kopurua gehiegizkoa dela uste dutenen portzentajeak, adinean gora egin ahala.

Hiriburuetan, EAeko gazteen % 38k uste dute beste herrialde batzuetako pertsona gehiegi daudela. Beste % 50ek diote asko samar daudela, baina ez direla gehiegi.

Atzerritar asko daudelako pertzepzio hori askoz handiagoa da langabezian dauden pertsonen artean (% 44), ikasten ari diren pertsonen (% 23) eta lanean dauden pertsonen (% 36) kasuan baino.

4.15 taula

EUSKADIN BIZI DIREN BESTE HERRIALDE BATZUETAKO PERTSONA KOPURUAREN PERTZEPZIOA, OKUPAZIO NAGUSIAREN ETA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA (%)

Ondoren Euskal herrian bizi den beste herrialde batzuetako jendeari buruz hitz egingo dugu. Zuk zer esango zenuke: gehiegi daudela, asko samar daudela baina ez gehiegi edo gutxi daudela?							
(%)	GUZTIRA	Okupazio nagusia			Udalerriaren tamaina		
		Ikasten	Lanean	Langabezian	Txikia	Ertaina	Hiriburua
Gehiegi daude	29	23	36	44	24	25	38
Asko samar daude, baina ez gehiegi	55	60	47	44	58	56	50
Gutxi daude	9	9	9	10	11	9	8
Ed/Ee	7	8	8	2	8	10	4
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	800	489	173	280	600	620


Beste herrialde batzuetatik datozen pertsonen etorrera kudeatzeko moduen artean, hiru soluzio eskaini zaizkie elkarriketatutako gazteei: etorrera al bait gehien erraztea; lan-kontratua dutenei bakarrik etorrera erraztea; eta, azkenik, beste herrialde batzuetako pertsonen etorrera debekatzea.

EAeko gazteen % 39 beste herrialde batzuetako pertsonen etorrera al bait gehien errazteko ideien alde agertzen dira; % 46k uste dute lan-kontratua dutenei bakarrik erraztu behar zaiela etorrera. % 5ek uste dute, beste herrialde batzuetako pertsonak iristearen aurrean, sarrera debekatzea dela kudeaketa-neurri onena. % 10ek ez dakite zer jarrera hartu edo nahiago dute erantzunik ez ematea gai honen inguruan.

Gehien errepikatzen den aukera, alegia, lan-kontratua duten pertsonen etorrera erraztearena, badirudi oso pertsona gutxik bete dezaketenez baldintza dela, langabezia-tasei begiratzen badiegu eta kontuan hartzen badugu beste herrialde batzuetako pertsonen zailtasun handiak izaten dituztela gure ingurunean lana lortzeko.

4.7 grafikoa


EUSKADIRA BESTE HERRIALDE BATZUETATIK DATOZEN PERTSONEKIKO HARTU BEHARREKO NEURRI EGOKIENARI BURUZKO IRITZIA (%)



2012arekiko, nabarmen behera egin du lan-kontratua dutenei bakarrik etorrera erraztuko lieketen gazteen ehunekoak, nahiz eta oraindik ere hori den gazteek gehien aukeratzen duten neurria. Ehuneko horrek behera egin du, 2012an % 63 izatetik gaur egun % 46 izateraino eta 2000. urtean hasitako seriearen baliorik baxuena da. Bestalde, 20 puntutan igo da beste herrialde batzuetatik datozen pertsonen etorrera al bait gehien erraztuko luketen gazteen proportzioa, 2012an % 18 izatetik 2016an % 39 izateraino, kasu honetan seriearen baliorik altuena.

4.8 grafikoa

EUSKADIRA BESTE HERRIALDE BATZUETATIK DATOZEN ETORKINEKIKO HARTU BEHARREKO NEURRI EGOKIENARI BURUZKO IRITZIAREN EBOLUZIOA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko Gazteak seriea).

Ikerketa honetan aztertu ditugun hiru adin-taldeei behatzen badiegu, ikusiko dugu etorkinei etorrera al bait gehien errazteko aukerak behera egiten duela galdetutako pertsonen adinak gora egin ahala. 15 urtetik 19 urtera bitarteko gazteen % 44k uste dute etorkinei al bait gehien erraztu behar zaiela etorrera; balio hori % 43n mantentzen da hurrengo adin-tartean, baina % 32ra jaisten da 25 urtetik 29 urtera bitarteko gazteen artean.

Atzerrian jaiotako gazteak EAEn jaiotakoak baino hein handiagoan erraztuko liekete sarrera atzerriko etorkinei.

4.16 taula

EUSKADIRA BESTE HERRIALDE BATZUETATIK DATOZEN ETORKINEKIKO HARTU BEHARREKO NEURRI EGOKIENARI BURUZKO IRITZIA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

Atzerriko langile etorkinei buruz, irakurriko dizkizudanetatik zein uste duzu dela neurririk egokiena?								
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Jaiolekua*	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Euskadi	Atzerria
Etorkinen sarrera ahalik eta gehien erraztea	39	39	39	44	43	32	38	49
Sarrera erraztea lan kontratua dutenei bakarrik	46	48	44	43	43	50	46	40
Langile etorkinen sarrera debekatzea	5	4	7	4	4	7	6	2
Ed/Ee	10	9	10	9	10	11	10	8
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	1184	249

* Espainiako gainontzeko lekuetan jaiotako gazteei buruzko datuak ez dira gurutzaketa-aldagai bezala erabili, laginean gutxi jaso zirelako.

Halaber, EAEn dauden atzerritarren pertzepzioarekin gertatzen zen moduan, diferentzia handiak daude elkarrizketatutako gazteen okupazioaren arabera. Ikasten ari direnen artean, balio bera dute etorkinen etorrera al bait gehien erraztuko luketen gazteen eta soilik lan-kontratua dutenen etorrera erraztuko luketen gazteen proportzioak (bi kasuetan, % 44). Proportzio horiek ez dira mantentzen lanean ari direnen artean eta langabezian daudenen artean. Bigarren taldean, zehazki, langabezian daudenen artean, % 32k erraztuko lukete al bait gehien etorkinen etorrera, baina % 47k lan-kontratua duten etorkinen etorrera bakarrik erraztuko lukete.

Beren burua klase sozial altukotzat edo ertain-altukotzat jotzen duten gazteak dira etorkinen sarrera gehien zabalduko edo erraztuko luketenak.

4.17 taula

EUSKADIRA BESTE HERRIALDE BATZUETATIK DATOZEN ETORKINEKIKO
HARTU BEHARREKO NEURRI EGOKIENARI BURUZKO IRITZIA, OKUPAZIO NAGUSIAREN
ETA KLASE SOZIAL SUBJEKTIBOAREN ARABERA (%)

Atzerriko langile etorkinei buruz, irakurriko dizkizudanetatik zein uste duzu dela neurririk egokiena?							
(%)	GUZTIRA	Okupazio nagusia			Klase sozial subjektiboa		
		Ikasten	Lanean	Langabezia	Altua edo ertain-altua	Ertaina	Baxua edo ertain-baxua
Etorकिन sarrera ahalik eta gehien erraztea	39	44	35	32	54	36	43
Sarrera erraztea lan kontratua dutenei bakarrik	46	44	48	47	32	51	39
Langile etorkinen sarrera debekatzea	5	3	8	11	5	5	6
Ed/Ee	10	9	9	10	9	8	12
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	800	489	173	166	963	347

4.6. EUSKADIRA ERREFUXIATUAK HELTZEAREKIKO JARRERA

Europako migrazio-krisia, Mediterraneoko migrazio-krisi edo Europako errefuxiatu-krisi ere deritzona, 2015ean okerrera egin zuen egoera humanitarioa da. Urte hartan, asilo eske zetozen errefuxiatuen, etorkin ekonomikoen eta zaurgarritasun-egoeran zeuden bestelako etorkinen fluxuak kontrolik gabe egin zuen gora, Europar Batasuneko herrialdeetaranzko desplazamendu irregularretan. Iheslarietarako Nazio Batuen Goi Mandatariaren Bulegoak (UNHCR-ACNUR) kaleratutako datuen arabera, 2015ean milioi batean baino gehiagotan handitu zen Europara etorritako errefuxiatuen kopurua²⁹.

Egia esan ez da egon, edo behintzat ez da hauteman, Siriako eta inguruko herrialdeetako pertsonen etorrera handirik EAEn, eta Europar Batasunak eta Turkiak 2016an sinatutako akordioen ostean, ez dirudi gertatuko direnik ere.


Ikerketa honen bidez, jakin nahi izan dugu EAEko gazteek zer jarrera duten Siriako gerratik datozen errefuxiatuak hartzeari dagokionez. Galdera honela egin zen: «Europara etortzen ari diren errefuxiatuei dagokienez, EAera errefuxiatuak etorriko balira, ados egongo al zinateke haiei etxebizitza eta laguntzak ematearekin?».

EAera heltzen diren errefuxiatuei etxebizitza eta laguntzak emateko ideiarekin alde daude EAEko gazteen % 68. % 21 ez daude ados proposamen horrekin eta % 11k ez dute argi edo nahiago dute ez erantzun.

²⁹ UNHCR-ACNUR, Iheslarietarako Nazio Batuen Goi Mandatariaren Bulegoa (2015): *Tendencias globales 2015: forzados a huir* [linean] Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): <http://www.acnur.es/PDF/TendenciasGlobales2015.pdf> [kontsulta: 2017/07/10]

4.9 grafikoa

EUSKADIRA ETOR LITEZKEEN ERREFUXIATUEI ETXEBIZITZA ETA LAGUNTZAK EMATEKO IDEIAREKIKO ADOSTASUNA (%)



Gazteenak, 15-19 urte dituztenak, dira elkartasun handiena agertzen dutenak, horrela adieraz badaiteke (horietako % 72 Euskadira etor litezkeen errefuxiatuei laguntzak ematearen aldekoak agertu baitira). Elkartasun-maila hori mantendu egiten da 24 urteko adineraino (% 71, 20 eta 24 urte bitartekoen artean), baina portzentajezko 9 puntu jaisten da. % 62 izateraino, 25 urtetik 29 urtera bitarteko lagunen artean. Azken adin-talde horretan (25-29 urte) lau pertsonatik bat etor litezkeen errefuxiatuei etxebizitzak eta laguntzak ematearen aurka dago.

4.18 taula

EUSKADIRA ETOR LITEZKEEN ERREFUXIATUEI ETXEBIZITZA ETA LAGUNTZAK EMATEKO IDEIAREKIKO ADOSTASUNA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

Errefuxiatuei dagokienez, Euskadira errefuxiatuak etorriko balira, etxebizitza eta laguntzak ematearen aldekoa zinateke?						
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bai	68	69	67	72	71	62
Ez	21	20	22	18	19	25
Ed/Ee	11	11	11	10	10	13
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600

Beste herrialde batzuetako pertsonak harreran hartzeko kopuruari eta moduari buruzko beste bi galderetan gertatu den fenomeno bera hauteman da. Langabezia dauden pertsonak dira Euskadira etor litezkeen errefuxiatuei etxebizitza zein laguntzak eskaintzeko ideiarekin hein txikienean ados agertzen direnak (hala ere, gehiengoak, % 56, agertzen da alde); ikasten duten gazteen artean, proportzio hori % 73 da eta % 63, berriz, lanean ari direnen artean.

Oraingo honetan, atzerrian jaiotako gazteek bertan jaiotakoek baino elkartasun handiagoa agertzen dute errefuxiatuen dramaren aurrean, batezbestekoa baino hamar puntu gehiagorekin (% 78 laguntzak ematearen aldekoak dira).

4.19 taula

EUSKADIRA ETOR LITEZKEEN ERREFUXIATUEI ETXEBIZITZA ETA LAGUNTZAK EMATEKO IDEIAREKIKO ADOSTASUNA, OKUPAZIO NAGUSIAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

Errefuxiatuei dagokienez, Euskadira errefuxiatuak etorriko balira, etxebizitza eta laguntzak ematearen aldekoa zinateke?						
(%)	GUZTIRA	Okupazio nagusia			Jaiolekua*	
		Ikasten	Lanean	Langabezian	Euskadi	Atzerria
Bai	68	73	63	56	67	78
Ez	21	17	25	30	22	11
Ed/Ee	11	10	13	14	11	11
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	450	450	600	1184	249

* Espainiako gainontzeko lekuetan jaiotako gazteei buruzko datuak ez dira gurutzaketa-aldagai bezala erabili, laginean gutxi jaso zirelako.

4.7. MUGIKORTASUN JASANGARRIA

Biztanleria orokorraren mugikortasunari buruzko zenbait azterketak eta gai horretako zenbait adituk adierazten dute ezinezkoa dela egungo mugikortasun-eredua mantentzen jarraitzea, gizartean, ingurunean eta ekonomian dituen ondorioak direla eta³⁰.

Desplazamendu mota desberdinak erabiltzeko jarraibideak zenbait aldagaik baldintzatzen dituzte, hala nola: bidaia egiteko arrazoiak; garraiobide zehatz bat erabiltzea sustatzen duten zerbitzu eta azpiegiturak eskaintzeak; eta, azkenik, lurraldearen egiturak berak.

15 urtetik 29 urtera bitarteko EAeko gazteen mugikortasun-ereduek argi uzten dute desplazatzeko modu ohikoena oinez ibiltzea dela. % 82 oinez desplazatzen dira egunero edo ia egunero.

Garraio publiko kolektiboa % 40k erabiltzen dute egunero edo ia egunero. Ibilgailu pribatu motordunak, hau da, autoa edo motorra, % 26k erabiltzen dituzte egunero edo ia egunero; eta, azkenik, bizikleta % 8k erabiltzen dute egunero edo ia egunero.

Ibiltzea da EAeko gazteen desplazatzeko modu nagusia, ohiko desplazamenduei dagokienez. Emakumeak gehiago desplazatzen dira oinez gizonak baino (emakumeen % 85 egunero edo ia egunero, eta gizonen % 79). Ikusiko dugun moduan, desberdintasun hori gertatzen da gizonak hein handiagoan erabiltzen dituztelako beste garraiobide batzuk, hala nola autoa, motorra eta bizikleta.

Adinari begiratuta ere fenomeno berdina hautematen da. Gazteenak dira ohiko desplazamenduak hein handiaren oinez egiten dituztenak (15-19 urteko gazteen % 88k; 20-24 urteko gazteen % 81ek; eta 25-29 urteko gazteen % 78k).

³⁰ Gazteen Euskal Behatokia (2008): *Euskadiko gazteriarren mugikortasun espazialaren ereduak* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteen_joerak/eu_liburuak/adjuntos/Pautas_movilidad_e.pdf [Kontsulta: 2017/07/10]

4.20 taula

GARRAIOBIDEEN ERABILERA-MAIZTASUNA (%)

Zure ohiko joan-etorrietan zenbatero mugitzen zara ondoko garraio moduetan?				
(%)	Garraio moduak			
	Oinez	Garraio publikoa	Kotxea/Motorra	Bizikleta
Egunero edo ia egunero	82	40	26	8
Astean 3-4 egun	6	11	9	5
Astean 1-2 egun	5	18	19	5
Hilean behin edo gehiagotan	1	12	9	6
Maiztasun gutxiago	3	8	13	15
Inoiz ez edo ia inoiz ez	3	11	24	61
GUZTIRA	100	100	100	100

Bizkaia da gazteak oinez gehien desplazatzen diren lurralde historikoa (% 85).

Garraio publikoa EAeko gazteen % 40k erabiltzen dute egunero edo ia egunero. Emakumeen % 45ek egunero edo ia egunero garraio publiko kolektiboa erabiltzen dute beren desplazamenduetan, eta gizonen kasuan, proportzio hori % 35era jaisten da.

Adin-taldee begiratzuz gero, ikusten da 25 urte betetzean garraio publiko kolektiboa erabiltzeari uzten zaiola hein batean, ziurrenik, motordun ibilgailuren bat erosteagatik. 15 urtetik 19 urtera bitarteko gazteen artean, % 47 egunero edo ia egunero desplazatzen dira garraio publikoan, eta ehuneko hori antzekoa da 20 urtetik 24 urtera bitartekoen kasuan ere (% 46), baina 25-29 urteko pertsonen artean % 29ra jaisten da.

EAeko gazteek garraio publikoa erabiltzean dituzten diferentzia handienak bizi diren lurralde historikoak zehazten ditu. Hiru lurralde historikoetan oso eskaintza desberdina dago garraio publikoari dagokionez eta, gainera, mugikortasun-matrizeak oso desberdinak dira, hiri-sakabanaketa eta -difusio maila desberdinak dituztelako. Bizkaia da garraio publikoa egunero edo ia egunero gehien erabiltzen den lurralde historikoa (% 46). Gipuzkoan, gazteen % 37 egunero edo ia egunero garraio publiko bidez desplazatzen dira eta Araban, berriz, % 23 baino ez.

Autoa edo motorra, hau da, ibilgailu motordunak, egunero edo ia egunero gehien erabiltzen diren hirugarren garraio bidea dira. EAeko gazteen % 26k diote ohiko desplazamenduetarako erabiltzen dituztela, egunero edo ia egunero. Gizonek emakumeek baino gehiago erabiltzen dute autoa edo motorra (% 30 eta % 22, hurrenez hurren), baina adinean hautematen dira, batez ere, desberdintasun handienak. Garraio kolektiboaren kasuan ez bezala, autoaren edo motorraren erabilerak gora egiten du, batez ere, 25-29 urteko adin-taldean. 15 urtetik 19 urtera bitarte dituztenen artean, ibilgailu motordunak egunero edo ia egunero erabiltzen dituzte % 13k; proportzio hori % 38ra igotzen da 25-29 urtekoen taldean.

Beste garraio bide batzuekin gertatzen den ez bezala, ez dago alde handirik motorraren edo autoaren erabileran hiru lurralde historikoetan.

Azkenik, bizikletaren erabilera nabarmen aldatzen da gazteen sexuaren, adinaren eta bizi diren lurralde historikoaren arabera.

Zure ohiko joan-etorrietan zenbatero mugitzen zara...?									
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
...kotxez edo motoz?									
Egunero edo ia egunero	26	22	30	13	25	38	22	26	29
Astean 3-4 egun	9	9	9	11	9	7	9	10	8
Astean 1-2 egun	19	20	17	19	19	18	12	21	18
Hilean behin edo gehiagotan	9	9	9	9	11	7	8	11	7
Maiztasun gutxiago	13	15	11	13	14	12	17	14	9
Inoiz ez edo ia inoiz ez	24	25	24	36	22	17	31	18	31
Ed/Ee	0	0	0	0	0	1	1	1	0
...bizikletaz?									
Egunero edo ia egunero	8	5	11	11	9	5	20	4	10
Astean 3-4 egun	5	2	8	5	8	4	8	4	6
Astean 1-2 egun	5	3	6	7	4	3	4	5	4
Hilean behin edo gehiagotan	6	6	7	7	4	7	8	5	7
Maiztasun gutxiago	15	14	15	14	15	15	12	16	15
Inoiz ez edo ia inoiz ez	61	70	52	56	60	66	48	66	58
Ed/Ee	1	1	1	0	0	1	0	1	0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	400	600	500

4.8. KONTSUMO JASANGARRIA

Gazteen Euskal Behatokiaren *Kontsumo arduratsua EAEko gazteen artean*³¹ ikerketan, honela definitzen zen kontsumo jasangarria: produktuen erabilera bakarraren, bilgarri gehiegi erabiltzea bultzatzen duen, eta erabili eta botatzearen kulturara eta antzeko kulturara jotzen duen bizimodutik eta kontsumo-eredutik aldentzen dena. Kontsumo jasangarria gauzatzeko gakoa eguneroko bizitzan kontsumoa murriztean eta ingurumenarekiko errespetagarriagoak izango diren produktuak eta zerbitzuak erabiltzean, birziklatzean, energia aurreztean eta antzekoetan datza.

Ikerketa honetan, kontsumo jasangarriaren indizea kalkulatzeko, aztertutako bost jokabide hauetako lau arrunki egitea hartu da oinarritzat: nor bere poltsa edo erosketa-orgatxoia eramatea erosketak egiterakoan; gutxi ontziratutako edo paketatutako produktuak erosten saiatzea; etxeko zaborra motaren arabera bereiztea; ur-kontsumoa mugatzen saiatzea; eta, azkenik, garraio publiko edo kolektiboa erabiltzea edo autoa partekatzea.


³¹ Longo Imatz, Oskar, Bilbao Gaztañaga, Miren eta Corcuera Bilbao, Nieves (2013): *Kontsumo arduratsua EAEko gazteen artean*, [linean] Hemen eskuragarri: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteen_joerak/eu_liburuak/adjuntos/JOERAK_6.pdf [Kontsulta: 2017/07/10]

Gai horiek oinarri hartuta, 15-29 urteko EAeko gazteen % 30ek modu jasangarrian kontsumitzen dutela kalkulatu dugu, hau da, aipatu berri ditugun bost ekintzetako lau gutxienez arrunki egiten dituzte.

Proporzio hori 2012an erregistratutakoa (% 21) baino portzentajezko 9 puntu altuagoa da.

4.10 grafikoa

KONTSUMO JASANGARRIAREN INDIZEA (%)



Kontsumo jasangarria askoz ohikoagoa da emakumeen artean gizonen artean baino (% 36 eta % 24, hurrenez hurren), eta gorakada handia hautematen da 20 urtetik gora. 15-19 urtekoen artean, proporzioa % 24 da; % 32ra igotzen da 20-24 urtekoen artean eta % 33ra, adin handieneko taldean, hots, 25 urtetik 29 urtera bitarte dituztenen artean, beharbada, adin horietan emantzipatuta dauden eta, horren ondorioz, erosketez eta etxeko bestelako kontuez arduratzen diren pertsona gehiago daudelako.

Lurralde historikoaren arabera ere diferentzia handiak hautematen dira. Araba da 15-29 urteko pertsonen kontsumo jasangarriko indize baxuena duten lurraldea (% 29). Bizkaia bat dator EAeko balio orokorrarekin (% 30) eta Gipuzkoa da indize handiena duena (% 33).

4.22 taula

KONTSUMO JASANGARRIAREN INDIZEA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)


(%)	Kontsumo jasangarriaren indizea								
	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Modu jasangarrian kontsumitzen du	30	36	24	24	32	33	24	30	33
Ez du modu jasangarrian kontsumitzen	70	64	76	76	68	67	76	70	67
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	400	600	500

Lehen aipatu dugun bezala, kontsumo jasangarriaren indizearen eboluzioa oso positiboa izan da lau urteotan, hala, 2012an % 21 izatetik ikerketa honetan % 30 izatera igaro da. Jakina, gorakada nabarmen hori aztertutako ia kolektibo guztietan gertatu da. Araban bakarrik egon da eboluzio negatiboa; izan ere, 2012an % 26 izatetik 2016an % 24 izatera igaro da.

Emakumeen kasuan, portzentajezko hamar puntuko gorakada egon da 2012tik 2016ra (% 26 eta % 36), eta 20-24 urte dituztenen artean, kontsumo jasangarriaren indizea % 18 izatetik % 32 izatera pasa da.

4.11 grafikoa

KONTSUMO JASANGARRIAREN INDIZEAREN EBOLUZIOA,
SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

Elkarrizketatutako pertsonen proposatu zaizkien bost ekintzetatik, gehien egiten dena etxeke zaborra hondakin motaren arabera bereiztea da. Gazteen % 64k arrunki egiten dute, % 14k batzuetan bakarrik eta % 22k inoiz ez edo ia inoiz ez.

Ez dago alde esanguratsurik emakume eta gizonen artean, ez eta hiru adin-taldeen artean ere, gure ingurunean birziklatzearen kultura hedatuta baitago.

EAEko gazteek arrunkien izaten duten bigarren jokabide jasangarria ur-kontsumoa mugatzea da. % 61ek diote arrunki egiten dutela, % 18k diote batzuetan soilik mugatzen dutela ur-kontsumoa, eta % 20k diote ez dutela inoiz edo ia inoiz egiten.

Ildo horretan, aldeak sortzen dira emakumeen eta gizonen artean, eta alde horiek, beste batzuekin batera, distantzia handia eragiten dute, azken batean, bi kolektiboen artean, kontsumo jasangarriaren indizeari dagokionez.

Emakumeen kasuan, % 65ek diote arrunki mugatzen dutela ur-kontsumoa; gizonen kasuan, berriz, % 57k. Halaber, kontzientzia handiagoa hautematen da elkarrizketatutako pertsonaren adinak gora egin ahala. 15 urtetik 19 urtera bitarte dituztenen artean, % 53k diote arrunki egiten dutela; 20 urtetik 24 urtera bitartekoaren artean, % 61ek; eta 25 urtetik 29 urtera bitartekoaren artean, berriz, proportzioa % 66ra igotzen da.

Ia ehuneko berarekin, hirugarren postuan ageri da garraio publiko kolektiboa erabiltzea edo autoa partekatzea. Gazteen % 59k diote egunero egiten dutela, % 18k diote batzuetan soilik egiten dutela, eta % 23k diote ez dutela inoiz edo ia inoiz erabiltzen.

Mugikortasun jasangarriaren arloan, lehen mugikortasuna aztertu dugunean zehaztasunez aztertu dugun moduan, alde handiak daude emakumeen eta gizonen artean. Emakumeen % 65ek diote arrunki erabiltzen dutela garraio publiko kolektiboa edo autoa partekatzen dutela, eta gizonen % 53k (pentsa liteke gizonen auto pribatua erabiltzea nahiago dutela).

Adin-taldearen arabera diferentziak ere badaude eta horiek, bestalde, logikoak dira. 25 urtetik aurrera, beherakada nabarmena dago garraio publiko kolektiboaren erabileran. 20 urte baino gutxiago dituztenen artean, % 69k garraio publikoa erabiltzen dute edo autoa partekatzen dute, baina 25-29 urte dituztenen artean, berriz, proportzioa % 49ra jaisten da.

Laugarren postuan, erosketa-poltsa edo -orgatxo erabiltzea dago, plastikozko poltsen erabilera murrizteko. % 54k diote normalean erabiltzen dituztela halakoak, % 17k diote batzuetan soilik erabiltzen dituztela, eta % 27k diote ez dituztela inoiz edo ia inoiz erabiltzen. Kontsumo jasangarriaren arloan, emakume eta gizonen arteko diferentziak hain dira handiak (emakumeen % 62 eta gizonen % 46), ezen indize orokorrean bi sexuen artean hautematen diren diferentzien arrazoi nagusia baitira.

Halaber, ohitura horrek gora egiten du adinak gora egin ahala, ziurrenik, adin handiagoko pertsonak hein handiagoan egoten direlako emantzipatuta eta, hortaz, erosketekin erlazionatutako alderdi oro beren gain hartzen dituztelako.

Aztertutako bosgarren alderdia neurritz gandi paketatuta edo ontziratuta ez dauden produktuak kontsumitzeari dagokio, eta oso ehuneko baxua agertzen du, beste laurekin konparatuta. EAEko gazteen % 23 baino ez dira arrunki saiitzen halako produktuak erosten; % 21ek diote soilik batzuetan egiten dutela; eta % 52k, berriz, inoiz edo inoiz ez.

Kontsumo jasangarriaren alderdi horretan ehunekoek nabarmen egiten dute behera, eta ez da alde handirik hautematen sexuaren arabera. Adinean gora egin ahala handitzen doa gutxi paketatutako produktuak erosten saiitzen direnena, eta 25 eta 29 urte bitartekoaren balioak (% 31) bizkoiztu egiten du talderik gazteenean (15-19 urte) jasotakoa (% 15).

4.23 taula


KONTSUMO JASANGARRIARI LOTUTAKO HAINBAT JARRAIBIDEREN MAIZTASUNA,
SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

Esango al didazu zuk sarritan, batzuetan bakarrik edo inoiz ez edo ia inoiz ez...						
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
...etxeko zaborrak hondakin-motaren arabera banatzen dituzun						
Sarritan	64	65	62	62	62	66
Batzuetan bakarrik	14	13	15	11	17	15
Inoiz ez edo ia inoiz ez	22	21	22	26	21	18
Ed/Ee	1	0	1	1	1	0
...uraren kontsumoa murrizten saiatzen zaren						
Sarritan	61	65	57	53	61	66
Batzuetan bakarrik	18	17	19	21	18	16
Inoiz ez edo ia inoiz ez	20	18	23	25	20	17
Ed/Ee	1	1	1	1	1	0
...garraio publiko kolektiboa erabiltzen duzun edo kotxea partekatzen duzun						
Sarritan	59	65	53	69	61	49
Batzuetan bakarrik	18	16	19	14	19	20
Inoiz ez edo ia inoiz ez	23	19	26	16	19	30
Ed/Ee	1	1	2	1	1	1
...zure poltsa edo orga eramaten duzun erosketak egiterakoan						
Sarritan	54	62	46	44	55	61
Batzuetan bakarrik	17	16	18	16	15	20
Inoiz ez edo ia inoiz ez	27	20	34	36	29	19
Ed/Ee	2	2	3	5	1	1
...gutxi paketatutako produktuak erosten saiatzen zaren						
Sarritan	23	25	21	15	23	31
Batzuetan bakarrik	21	22	20	17	25	20
Inoiz ez edo ia inoiz ez	52	49	55	64	48	46
Ed/Ee	4	4	4	5	4	3
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600

Ohitura horiek eboluzio positiboa izan dute azken lau urteotan. 2012tik 2016ra handitu egin da sarritan edo normalean beren ur-kontsumoa murrizten saiatzen diren gazteen portzentajea, bai eta erosketak egitean beren poltsa edo orga propioa eramaten dutenena eta gutxi paketatutako produktuak erosten saiatzen direnena ere. Garraio publiko kolektiboa erabiltzen edo kotxea partekatzen dutenen portzentajea ere handixeagoa da orain, lehen baino. Etxeko zaborrak hondakin motaren arabera banatzen dituztenen portzentajeak orain dela lau urte bezala jarraitzen du.

4.12 grafikoa

KONTSUMO JASANGARRIARI LOTUTAKO HAINBAT JARRAIBIDE SARRITAN EGITEAREN EBOLUZIOA (%)



Sarritan jarraitze hauek betetzen dituzten gazteen kopurua handitu izanak aipatutako kontsumo jasangarriaren indizea ere handitzea ekarri du.

4.9. ONDORIOAK

Zaila da EAEko gazteen balio eta jarrera sozialak ondorioztatzen dituzten ideiak eskaintzea.

Esan beharreko lehen gauza da gazteak gero eta gehiago urruntzen direla erlijioetatik eta gehienek diote ez direla sinestunak, hau da, ateoak direla edota agnostikoak direla edo erlijioa ez zaiela arduratzen.

EAEko gazteek, oro har, balio progresistak agertzen dituzte izaera sozialeko gaietan, hala nola abortuari, eutanasiari, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzari eta sexu-aldaketari dagokienez. EAEko emakumeak gizonak baino progresistagoak dira eta, halaber, toleranteagoak dira ideia eta sinesmen desberdinak dituzten pertsonekin erlazionatzeko orduan.

Alde oso handiak hauteman dira tolerantzia soziala aztertzean, elkarrizketatutako pertsonen jatorriaren arabera. Sexu-aniztasunari loturiko gaitan (hala nola sexu bereko pertsonen arteko ezkontza edo sexu-aldaketa), atzerritarrak askoz hein txikiagoan agertu dira halakoen alde, EAEn jaiotako pertsonak baino. Aldeak are nabariagoak dira abortuari edo eutanasiari dagokienean.

Atzerritarrekin izan beharreko zenbait jarreratan nolabaiteko kontraesanak agertzen dira. Gazte gehienak errefuxiatuei etxebizitza eta laguntzak eskaintzearen alde dauden arren, eta EAEn atzerritar gehiegi daudelako ideiak nabarmen behera egin duen arren, gazte askoren ustez EAEn atzerritar gehiegi dago, nahiz eta pertzepzio hori errealtatearekin bat ez etorri. Gainera, gazteen ia erdiak, beste herrialde batzuetako etorkinen etorrera nola kudeatu galdetutakoan, zera adierazi du, lan-kontratua dutenei bakarrik utzi beharko litzaiekeela sartzen. Beste herrialde batzuetatik datozen pertsona gehienek dituzten zailtasunak kontuan hartuta, ez dirudi haien etorrera errazteko har litekeen erabaki progresista eta solidarioena denik hori.

Mugikortasun jasangarria nagusitu egiten da gazteen artean, izan ere, gazteak oinez eta garraio publikoan mugitzen dira, batez ere, beren ohiko joan-etorrietan. Dena den, adinean gora egin ahala, badirudi garraiobide jasangarriak alde batera uzten direla, ibilgailu motordunen alde egiteko. Beraz, beharbada premia dohain bihurtzen ari gara, eta fenomenoak ez dio egiazko kontzientzia ekologikoari erantzuten.

Argi dago garraio jasangarriaren (hala nola bizikleta) alde egiten duten hirietan, halakoak gehiago erabiltzea lortzen dela. Oinezkoei orientatutako hirigintzari, garraio publikoko sistema trinkoari eta bidegorri-sareari esker, posible da autoak hainbeste nagusitzen ez diren mugikortasun-ereduaren alde egitea.

Bestalde, handitu egin da kontsumo jasangarriko ohiturak jarraitzen dituzten gazteen kopurua. Gehien zabaldu den ohitura norberaren erosketa-poltsa edo -orga eramatea izan da; hala ere, etxeko hondakinak motaren arabera banatzea birziklatzeko da, orain dela lau urte bezala, gazteek gehien jarraitzen duten ohitura jasangarria.



5

Internet eta sare sozialak

5.1. SARRERA

Euskadiko Gazteak inkesta-seriearen bizitzak iraun duen hamasei urteetan, Interneten erabilera izan da aldaketa handienak agertu dituen gaia. Interneten eta sare sozialen nonahikotasuna ezin da zalantzan jarri, baina ez da beti horrela izan.

Teknologia berriei loturiko guztia hain bizkor aldatu da, ezen zaharrituta geratu baitira *Euskadiko Gazteak* serieko azterketetan egin diren hurbilketak; horrela, uneoro moldatu behar izan dira gai hau jorrazteko planteamendua eta galderak.

Egoera 2000. urtetik gaur egunera arte zein heinetaraino aldatu den adierazteko, aski da gogoratzea 2000. urteko *Euskadiko Gazteak* inkestan, ondorioztatzen zela Interneten erabilera ez zegoela orokortuta gazteen artean³². Une hartan, 15 urtetik 29 urtera bitarteko gazteen % 46k bakarrik erabili zuten Internet noizbait eta % 63k urtebete baino gutxiago zeramaten sarean nabigatzen. Internetekin esperientziaren bat zutenen erdiak, adierazten zuten astean ordubete baino gutxiago konektatzen zirela. Gogoan izan behar da 2000. urtean ordenagailu bidez bakarrik zela posible Internetera konektatzea, eta ez zegoela ordenagailurik eta, are gutxiago, Internet konexiorik etxe guztietan.

Urteak igaro ahala eta, batez ere, Smartphone-ak orokortzeaz geroztik, Interneten erabilerari eta gazteek astean konektatuta ematen duten denborari buruzko galderak zaharrituta geratu dira. 2000. urtean, gazteen % 46 noizbait konektatu ziren Internetera; 2004an, ehunekoa % 82ra igo zen; 2008an, % 94 ziren; eta 2012an, berriz, % 98.

Hortaz, 2016an, Interneten erabilera orokortuta dagoenez eta gazteak ia etengabe konektatuta daudenez telefono mugikorren bidez, interesa gazteek gehien erabiltzen dituzten sare sozialetan zentratu dugu eta gai berriak planteatu ditugu, hala nola: ziberaktibismoa, sare sozialak gai sozialak salatze edo eztabaidatzeko erabiltzea eta ziberbullyinga (inkestatutako pertsonen galdetu diegu zenbait bazterkeria- edo jazarpen-jarrera zehatz jasan ote dituzten sare sozialetan).

5.2. SARE SOZIALEN ERABILERA

Sare sozialak oso ohikoak dira Euskadiko gazteen eguneroko bizitzan. 15 urtetik 29 urtera bitarteko ia gazte guztiek erabiltzen dute sare sozialen bat.

³² Gazteen Euskal Behatokia (2000): *Euskadiko Gazteak 2000* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskadiko_gazteak/eu_liburuak/adjuntos/Juventud_vasca_2000_e.pdf [Kontsulta: 2017/06/27]

2012an, hots, *Euskadiko Gazteak* seriean gai hau jorratu zen lehen urtean, gazteen % 83k adierazi zuten profila zutela sare sozialen batean; lau urte geroago, 2016an, proportzio hori ia maximora heldu da, % 99ra iritsi baita.

Gainera, 15-29 urteko euskal gazteen % 99 sare sozialen bateko erabiltzaile dira, erabiltzaile gisa ulertuta gutxienez astean behin erabiltzen dutela, eta ez soilik sare sozial batean profila dutenik edo aplikazioa deskargatu dutenik.

Esan dugun moduan, sare sozialen erabilera oso zabalduta dago. Sare sozialen bat astero erabiltzen duten gazteen proportzioa % 99 da, baina egunero erabiltzen dutenena ia berdina da, % 98, alegia.

Diferentziak oso txikiak dira adinaren edo sexuaren arabera, beraz, ondoriozta daiteke EAEko ia gazte guztiek egunero erabiltzen dituztela sare sozialak, komunikatzeko tresna gisa.

5.1 taula

SARE SOZIALEN ASTEROKO ETA EGUNEROKO ERABILERA,
SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

(%)	Zenbatero erabiltzen dituzu sare sozialak?					
	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Astero	99	100	99	99	100	99
Egunero	98	98	97	97	98	98
(n)	1500	750	750	450	450	600

Euskadin, 4 sare sozial erabiltzen ditu (gutxienez, astean behin), batez beste, gazte bakoitzak (zehazki, 3,8). Eguneko erabilera aztertzen badugu, batezbestekoa pixka bat jaisten da, eta 15-29 urteko gazteen talde orokorrean 3 sare sozial erabiltzen dira. Ez dago desberdintasunik sexuaren arabera, baina 15 urtetik 19 urtera bitarteko adin-taldeak pixkanaka presentzia handiagoa du sare-sozialetan.

5.2 taula

ASTEAN ETA EGUNEAN ERABILITAKO SARE SOZIALEN KOPURUA,
SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (KOPURU ABSOLUTUAK)

(Absolutuak)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Astero erabiltzen diren sare kopurua	3,8	3,9	3,8	4,4	3,8	3,4
Egunero erabiltzen diren sare kopurua	3,0	3,0	2,9	3,4	3,0	2,5
(n)	1500	750	750	450	450	600

Datu horiek lortzeko, sare sozialen zerrenda bat aurkeztu zaie gazteei (besteak beste, zenbait aplikazio mugikor), eta galdetu zaie horiek guztiak zenbateko maiztasunarekin erabiltzen dituzten. Proposatutako sare sozialak hauek izan dira:

- WhatsApp: berehalako mezularitzako aplikazioa, telefono mugikorretan erabiltzen dena.
- Facebook: pertsonak konektatzeko sare soziala.

- Twitter: microblogging-zerbitzua, luzera txikiko testuak idazteko eta partekatze edota irudiak partekatze erabiltzen dena.
- Youtube: bideoak igotzeko eta partekatze erabiltzen den webgunea.
- Instagram: argazkiak eta bideoak editatzeko eta internetera igotzeko aplikazioa.
- Snapchat: segundo gutxira desagertzen diren argazki edo bideoak bidaltzeko sare soziala eta mugikorreko aplikazioa.
- Spotify: streaming bidez musika partekatzea, jaistea eta entzutea ahalbidetzen duen sare soziala.
- LinkedIn: enplegua bideratutako sare soziala, enpresak eta curriculum profesionala sartu duten erabiltzaileak harremanetan jartzeko erabiltzen dena.
- Telegram: berehalako mezularitzaren zerbitzua, tamaina handiko fitxategiak bidaltzeko eta jasotzeko erabiltzen dena.
- Ask.fm: galderak egiteko eta erantzunak kontsultatzeko sare soziala.
- Pinterest: zaletasun eta interesei buruzko irudiak (bidaiak, autoak, moda, dekorazioa...) partekatze sare soziala
- Wattpad: kontaketak argitaratzeko eta partekatze –eta horien alde bozkatzeko– erabiltzen den sare soziala.

Horretaz gain, aukera eman zaie modu irekian eta espontaneoki aipa ditzaten gazteek erabiltzen dituzten beste sare sozial batzuk. Baina proposatutako sareen zerrenda nahiko osoa izan da, izan ere, laginaren % 2k bakarrik aipatu dituzte beste sare sozial batzuk. Horien artean, berehalako mezularitzako sareak (Line, Viber edo Messenger), harremanetarako edo bikotekidea bilatzeko webguneak (Badoo), musika entzuteko eta partekatze webguneak (hala nola Deezer) edo microblogging plataformak (hala nola Tumblr) aipatu dira.

Euskadiko gazteak gehien konektatzen diren sare sozialak WhatsApp, Facebook, Youtube eta Instagram dira. Bigarren bloke batean, Twitter, Snapchat eta Spotify daude. Gutxiengo batek erabiltzen ditu Ask.fm, Telegram, LinkedIn, Pinterest edo Wattpad.

5.3 taula

SARE SOZIALEN ERABILERA-MAIZTASUNA (% HORIZONTALA)


Zenbatero erabiltzen duzu sare sozial bakoitza?								
(%)	Egunero edo ia egunero	Astean 3-4 egun	Astean 1-2 egun	Hilean behin edo gehiagotan	Maiztasun gutxiago-rekin	Inoiz ez edo ia inoiz ez	Ed/Ee	GUZTIRA
WhatsApp	96	2	0	0	0	2	0	100
Facebook	56	8	6	3	3	24	0	100
Youtube	40	18	13	4	4	21	0	100
Instagram	40	5	3	2	2	47	1	100
Twitter	22	5	5	4	6	57	1	100
Snapchat	19	2	2	1	1	74	1	100
Spotify	14	4	4	2	4	71	1	100
Ask.fm	3	0	1	1	1	92	2	100
LinkedIn	2	1	2	1	2	90	2	100
Telegram	2	0	1	1	2	92	2	100
Pinterest	1	1	1	1	1	93	2	100
Wattpad	1	0	0	1	1	95	2	100

Sare sozial bakoitzaren xedeak berak eta funtzionaltasunak zehazten du, hein batean, erabilera-profila. Dena den, eta nahiz eta egia den zenbait sare sozialen erabilera murriztagoa izan daitekeela, beren xedearengatik (adibidez, lanera orientatutako sareak, hala nola LinkedIn), ezin da zalantzan jarri WhatsAppek toki nagusia hartzen duela, % 98k astero erabiltzen baitu eta % 96k, egunero.

Hamar gaztetik zazpi gutxienez astean behin erabiltzen dituzte Facebook eta Youtube, nahiz eta Facebook egunero erabiltzen duten gazteen ehunekoa (% 56) handiagoa den Youtube egunero erabiltzen dutenena baino (% 40). Instagram laugarren postuan dago, asteko erabileraren ehunekoa kontuan hartzen badugu, baina Youtubek eguneroko erabilera-ehuneko bera du, % 40, alegia. Gainera, nabarmentzekoa da erabiltzen dutenen gehienek egunero erabiltzen dutela.

5.1 grafikoa

SARE SOZIAL ERABILIENEN ASTEKO ETA EGUNEKO ERABILERA (%)



Edozelan ere, horiek gazteria osoari dagozkion ehuneko orokorrak dira, baina nabarmendu behar da alde handiak daudela nesken eta mutilen erabileraren artean eta, batez ere, 20 urtetik beherako gazteek egiten duten erabileran, 20-29 urteko gazteen erabilerarekin alderatuta.

Harremanak izateko eta irudiak partekatzeko sare sozialetan, nesken presentzia mutilena baino handiagoa da. Sare sozial horien eguneroko erabilerari dagokionez, neskek mutilek baino gehiago erabiltzen dituzte egunero Facebook, Instagram eta Snapchat; mutilek, aldiz, neskek baino gehiago erabiltzen dute egunero Youtube.

Spotify, Pinterest eta Wattpad-en eguneroko konexioari dagokionez, nesken ehunekoa, berriz ere, mutilena baino pixka bat handiagoa da; aitzitik, Twitter eta Telegramen eguneroko konexioa handiagoa da mutilengan neskengan baino.

Adinari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu gazteenak (15-19 urte) honako sare hauen kontsumitzaile handienak direla: Instagram (20 urtez azpikoak egunero gehien konektatzen diren sare soziala da, WhatsApp-en atzetik), Youtube, Snapchat, Twitter, Spotify, Ask.fm eta Wattpad.

Aitzitik, 25-29 urtekoak dira LinkedIn gehien erabiltzen dutenak, eta 20-24 urtekoekin batera Facebook. Hain zuzen ere, Facebook da (WhatsApp-en atzetik) 20 urtekoek eta hortik gorakoek egunero gehien erabiltzen duten sare soziala.

Adinaren arabera erabilera-rankinga egingo bagenu, ikusiko genuke, 20 urtetik beherakoek artean, gehien erabiltzen den sare soziala (WhatsApp-en atzetik) Instagram dela, eta Youtube eta Snapchat, horren atzetik. Facebook bosgarren postuan legoke, kolektiboaren heren batek baino gehixeagok erabiltzen baitu sare hau egunero.

20 urtetik 24 urtera bitarte dituztenen artean, WhatsApp-en atzetik Facebook dugu (20 urtetik beherakoek artean izaten diren eguneroko erabilera-ehunekoak ia bikoizten dituela), eta atzerago Instagram (hogei puntu jaisten da, gazteenen erabilerarekin konparatuta), Youtube eta Twitter daude. Snapchat zazpigarren postuan geratuko litzateke, Spotify-ren atzetik, eguneroko erabiltzaileak hogeita hamar puntu baino gehiago jaitsi ondoren (15 eta 19 urte bitartekoekin alderatuta berriro ere).

Azkenik, 25-29 urtekoen kolektiboan, Facebook da gehien erabiltzen den sare soziala WhatsApp-en atzetik (azken hau guztiz nagusi baita adin guztietan), eta urrun samar daude Youtube eta Instagram (beste hogei puntu jaisten da aurreko adin-taldearekin, 20-24 urtekoena, konparatuta). Atzetik Twitter eta Spotify gelditzen dira. Snapchat ia ez dute erabiltzen 25 urtetik 29 urtera bitartekoek, eta are beherago geratzen da sailkapenean LinkedIn-en atzetik, zeina 25 urte bete ondoren hasten baita erabilia izaten.

5.4 taula

SARE SOZIALEN EGUNEROKO ERABILERA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
WhatsApp	96	97	95	96	97	96
Facebook	56	62	50	35	65	66
Instagram	40	44	37	63	42	20
Youtube	40	35	45	46	42	33
Twitter	22	20	24	27	25	15
Snapchat	19	21	16	45	11	3
Spotify	14	15	13	19	12	11
Ask.fm	3	3	2	8	0	0
Telegram	2	1	3	2	2	2
LinkedIn	2	1	2	0	1	4
Pinterest	1	2	1	1	2	1
Wattpad	1	1	0	2	1	0
Beste bat	2	1	2	1	1	2
(n)	1500	750	750	450	450	600

* Portzentajeak ez dira batu behar, galderak banan-banan egin baitira.

Sexua eta adina gurutzatzen baditugu, ikus dezakegu zer kolektibo espezifikok erabiltzen dituzten gehien sare horiek eta, horrela, sare bakoitzaren erabiltzaile-profila ezar dezakegu.

15-19 urteko neskek dira sare sozialen «kontsumitzaile» nagusiak, izan ere, kolektibo hori da proposatutako hamabi sareetako zazpita gehien konektatzen dena: WhatsApp, Instagram, Snapchat, Twitter, Spotify, Ask.fm eta Wattpad (eguneroko konexio handienetik txikienerako ordenan).

Harrigarria da Twitterren kasua, izan ere, mutilek oro har zertxobait gehiago erabili arren, analisi gurutzatu hau egiten badugu, ikusiko dugu konexio-ehuneko handienak 15-19 urteko neskek dituztela.

Bestalde, Facebooken erabiltzaile-profila 20-24 urteko emakumea da. Youtuberen kasuan, 15 urtetik 19 urtera bitarteko mutila. Eta LinkedInen kasuan, berriz, 25 urtetik 29 urtera bitarteko gizona.

5.5 taula

SARE SOZIALEN EGUNEROKO ERABILERA, SEXUAREN ETA ADINAREN ALDAGAIK KONBINATUTA (%)

(%)	GUZTIRA	15-19 urte		20-24 urte		25-29 urte	
		Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
WhatsApp	96	98	93	97	96	97	95
Facebook	56	40	30	76	55	70	62
Instagram	40	69	56	45	40	22	18
Youtube	40	41	51	37	47	29	38
Twitter	22	31	24	22	28	10	20
Snapchat	19	56	35	10	12	3	3
Spotify	14	20	18	16	10	11	12
Ask.fm	3	10	6	0	1	0	0
Telegram	2	0	4	1	3	1	2
LinkedIn	2	1	0	1	1	3	5
Pinterest	1	3	0	3	1	1	1
Wattpad	1	4	0	0	1	0	0
Beste bat	2	2	1	1	2	1	3
(n)	1500	225	225	225	225	300	300

Lehen aipatu dugun moduan, gazteek hiru sare sozial erabiltzen dituzte egunero, batez bestez. Oro har, gazteenek (15-19 urte) apur bat gehixeago erabiltzen dituzte sare sozialak: batez beste, 3,4 sareetara konektatzen dira, egunean. 20-24 urtekoak, batez beste, 3 sare sozialetara konektatzen dira egunean, eta kopuru hori 2,5era jaisten da 25-29 urtekoen artean.

Sare sozialen eguneroko erabileran gehien errepikatzen den konbinazioa hau da: WhatsApp, Facebook eta Youtube (hiruko konbinazioak egiten ditugu, kontuan izanik gazteak, euren esanetan, hiru sareetara konektatzen direla, batez beste, egunero). Gazteen % 24 hiru sare horietara konektatzen dira egunero.

Hau da hurrengo konbinaziorik ohikoena: WhatsApp, Facebook eta Instagram. Gazteen % 8 hiruretara konektatzen dira egunero. Eta gehien errepikatzen diren konbinazioetatik hirugarrena hau da: WhatsApp, Facebook y Twitter (gazteen % 7 hiruretara konektatuta egunero).

Hori guztia, gazteak osorik hartuta. Inkestatutako gazteen adina eta sexua konbinatzean lortzen ditugun sei taldeetan arreta jartzen badugu, ikusiko dugu zenbait diferentzia daudela gehien erabiltzen diren sare sozialen konbinazioetan.

WhatsApp alde batera uzten badugu, lehen ondorioa da Instagram eta Snapchat direla sare gazteenak eta nabarmen ordezkatu dutela Facebook 15 urtetik 19 urtera bitartekoen lehentasunetan. Bestalde, Facebookek eguneroko erabilera-ehuneko altuak ditu 20 urteko eta gehiagoko gazteen artean.

Bestetik aipa daiteke, Youtubek erabilera-ehuneko handiagoa duela gizonen artean nesken artean baino, hiru adin-taldeetan.

5.6 taula

EGUNERO GEHIEN ERABILTZEN DIREN SARE SOZIALEN RANKINGA,
SEXUAREN ETA ADINAREN ALDAGAIK KONBINATUTA

15-19 urte		20-24 urte		25-29 urte	
Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
WhatsApp (% 98)	WhatsApp (% 93)	WhatsApp (% 97)	WhatsApp (% 96)	WhatsApp (% 97)	WhatsApp (% 95)
Instagram (% 69)	Instagram (% 56)	Facebook (% 76)	Facebook (% 55)	Facebook (% 70)	Facebook (% 62)
Snapchat (% 56)	Youtube (% 51)	Instagram (% 45)	Youtube (% 47)	Youtube (% 29)	Youtube (% 38)
Youtube (% 41)	Snapchat (% 35)	Youtube (% 37)	Instagram (% 40)	Instagram (% 22)	Twitter (% 20)

5.3. SARE SOZIALEN ERABILERARI LOTURIKO ESPERIENTZIA NEGATIBOAK

Euskal gazteek sare sozialen erabilerari loturik izan dituzten esperientzia negatiboak sakon aztertzeko asmorik izan gabe ere, azterketa honetan sareetan maiz bizi ohi diren hiru egoera planteatu dira, bazterkeria edo jazarpena adierazten dutenak: WhatsApp taldeetatik kanporatzea; sare sozialen batean identitatea ordezkatzeari; eta irudi konprometituak edo umiliagarriak zabaltzea.

5.3.1. WhatsApp taldeetatik kanporatzea

WhatsApp talde batetik kanporatzea da kontuan hartu diren hiru jokabideetako ohikoena. Bost gaztetik batek (% 20) adierazi du WhatsAppeko talderen batetik bota dutela noizbait. Dena den, gehienek baieztatu dute egoera hori gutxitan bizi izan dutela (noizbait), eta gazteen oso ehuneko txikiak (% 4) adierazi dute askotan gertatu zaionik.

Arreta jartzen badugu inoiz edo askotan WhatsApp talderen batetik bota dituztela diotenengan, egoera hori mutilengan nesken bano ohikoagoa dela ikusiko dugu (% 23 eta % 16, hurrenez hurren), eta, horretaz gain, maizago gertatzen dela hori kolektiborik gazteen artean; izan ere, adinean gora egin ahala gutxiago gertatzen da

halakorik: 15-19 urtekoen % 31k diote inoiz WhatsApp talderen batetik bota dituztela; 20-24 urtekoen artean, % 17ra jaisten da kopuru hori, eta 25-29 urtekoen artean, berriz, % 13ra.

5.7 taula

GAZTEAK WHATSAPP TALDE BATETIK KANPORATU DITUZTEN MAIZTASUNA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

Inoiz izan zara baztertuta WhatsAppeko talde batetik? Bota zaituzte horrelako talderen batetik?						
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Askotan	4	3	5	6	4	2
Noizbait	16	13	18	25	13	11
Inoiz ez	80	84	76	69	82	87
Ed/Ee	0	0	1	0	1	0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600

5.3.2. Sare sozialetan identitatea ordeztzea

Inkestan aztertu den bigarren jokabidea pertsona baten identitatea sare sozialetan ordeztzea izan da. Jokabide hori gutxi jasan dute, gazte gehien-gehieni (% 90) ez baitzaie egoera hori inoiz gertatu.

Gazteen % 1ek bakarrik adierazi dute beren identitatea askotan ordeztu dietela sare sozialetan eta % 8ri noizbait gertatu zaie hori.

Ez dago desberdintasunik gizonen eta emakumeen artean, eta ez dago adin-taldeen araberako alde handirik ere.

5.8 taula

GAZTEEI BEREN IDENTITATEA SARE SOZIALETAN ORDEZTU DIETEN MAIZTASUNA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

Zure ordeztu aritu dira inoiz sare sozialen batean zure baimenik gabe?						
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Askotan	1	1	1	1	0	1
Noizbait	8	8	8	8	10	6
Inoiz ez	90	91	90	90	89	92
Ed/Ee	1	0	1	1	1	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600

5.3.3. Irudi konprometituak edo umiliagarriak zabaltzea

Azkenik, irudi konprometituak edo umiliagarriak baimenik gabe zabaltzea ere jokabide ezohikoa da. EAEko gazteen % 93k ez dute inoiz egoera hori jasan. Halako jokabideen biktima izan diren gazteen % 7tik, gehienek noizbait jasan dute eta % 1ek bakarrik diote askotan gertatu zaiela.

Gazteen baimenik gabe irudi konprometituak edo umiliagarriak zabaltzeari dagokionez, ez dago alde nabarmenik sexuaren eta adinaren arabera.

5.9 taula

GAZTEEK IRUDI UMILIAGARRIAK EDO KONPROMETITUAK INTERNETEN EDO SARE SOZIALETAN ZABALTZEA JASAN DUTEN MAIZTASUNA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

Igo dute Internetera edo zabaldu dute sare sozialetan, zure baimenik gabe, konprometitua, iraingarria edo lotsagarria den zure argazki edo bideorik?						
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Askotan	1	1	0	1	0	1
Noizbait	6	6	6	6	7	4
Inoiz ez	93	93	93	93	92	94
Ed/Ee	1	0	1	0	1	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600

5.3.4. Zibergaitzespena eta ziberjazarpena

Gazteak aurreko atalean planteatutako hiru egoeretako baten biktima izan diren maiztasuna oinarri hartuta, aldagai berri bat prestatu da, zehazteko gazteen zer ehunekok jasan duen «zibergaitzespen» deritzoguna eta zer ehuneko izan den «ziberjazarpenaren» biktima.

Hala, «ziberjazarpen» kategorian sartu ditugu hiru egoeretako bat (edo gehiago) askotan jasan dituztenak. «Zibergaitzespena» egoera horietakoren bat noizbait (baina ez askotan) jasan dutenei dagokie.

Hasiera batean pentsa daitekeen arren aztertutako jokabideetako bat besteak baino larriagoa dela, uste dugu larritasunak zerikusi gehiago duela biktimen pertzepzio subjektiboarekin, jazoera zehatzarekin baino. Baina informazio hori ez dugunez, jo dugu hiru egoerak hein berean direla negatiboak.


Planteamendu horrekin bat, hau adieraz dezakegu: Euskadiko gazteen % 4k ziberjazarpen-egoeraren bat nozitu dute, eta % 24k, berriz, zibergaitzespen-egoeraren bat. Guztira, gazteen % 28k pertsonalki bizi izan dute sare sozialetan gaitzespen- edo jazarpen-egoeraren bat.

Mutilek neskek baino ziberjazarpen-egoera gehiago nozitu dituzte (% 6 eta % 3, hurrenez hurren). Ziberjazarpen-egoerak ohikoagoak dira adin txikieneko taldean, horretan, % 6k jasan baitute jazarpen motaren bat sare sozialetan. Egoera horiek gutxiago gertatzen dira adinean gora egin ahala: 20 urtetik 24 urtera bitartekoen artean, % 5ek bizi izan dute halakorik, eta 25-29 urtekoen artean, berriz, % 3k.

Ziberjazarpen gehien nozitzen duten kolektiboak (15-19 urteko gazteak eta mutilak) dira, aldi berean, zibergaitzespen gehien nozitzen dutenak; alegia, talde horiek dira horrelako egoerak bizitzeko arriskurik gehien dutenak, sare sozialak erabiltzerakoan.

5.2 grafikoa

ZIBERJAZARPEN- EDO ZIBERGAITZESPEN-EGOERAREN BAT JASAN DUTEN GAZTEAK, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)



Gainera, deskribatutako bizipen horiek ondorioak izan ditzakete osasunean eta ongizate psikologikoan. Ziberjazarpen edo zibergaitzespen motaren bat noizbait bizi izan duten gazteen laurden batek baino gehiagok (% 28) adierazi dute iazko urtean arazo psikologikoren bat izan dutela (antsietatea, estresa edo depresioa); egoera hori jasan ez dutenen artean, arazo psikologikoak izan dituztenen proportzioa % 16 da.

5.4. ZIBERAKTIBISMOA


Sare sozialak gero eta gehiago erabiltzen dira jarduerak antolatzeko, informazioa partekatzeko, debateetan parte hartzeko edo egoerak salatzen, sareek gure bizitzan duten presentzia hazten ari den heinean. Batzuek sareetako kultura politiko berria aipatzen dute eta, zalantzarik gabe, merezi du bizitza publikoan parte hartzeko modu honen segimendua egitea.

Asmo horrekin txertatu da azterketa honetan, lehen aldiz, sare sozialetan debateak edo salaketak sustatzeari edo babesteari buruzko galdera bat. Aktibismo birtuala gazteen herenak baino gehiagok egiten dute (% 37), horiek adierazten baitute sare sozialak erabili dituztela debateak edo salaketak sustatu edo ezagutarazteko, edota gairen bati buruzko iritzia adierazteko, azken urtean.

Eztabaida edo salaketaren bat sustatzeko, testu bat idazten duten eta / edo irudi zein bideo bat zabaltzen duten gazteak hartzen baditugu alde batetik, eta, bestetik, halakoak babesteko testu edo irudia birbidaltzen dutenak edo beren iritzia adierazten dutenak, ikusten dugu gazteen % 9 proaktiboak direla eta % 28k beste pertsona batzuk abian jarritako ekintzetan parte hartzen dutela.

5.3 grafikoa

AZKEN URTEKO ZIBERAKTIBISMO-MAILA (%)



Adinean gora egin ahala, ziberaktibismoa ere handitu egiten da, zeina honela ulertu behar baita: sare sozialak erabiltzea etxabaida edo salaketak sustatzeko eta zerbait babesteko, birbidaltzeko edo horri buruzko iritzia emateko. Inkesta egin aurreko urtean, honelakoa izan zen ziberpartaidetza: 15 urtetik 19 urtera bitartekoen artean, % 33koa; 20 urtetik 24 urtera bitartekoen artean, % 37koa; eta 25 urtetik 29 urtera bitartekoen artean, % 40koa.

Adinarekin batera, hau ikusten da: goi-mailako ikasketak dituzten gazteek ikasketa-maila hori ez dutenek baino etxabaida edo salaketa gehiago sustatu edo bultzatu zituzten Interneten eta gazteen batezbestekoaren gainetik daude (hamar puntu).

5.10 taula

GAZTEEN ZIBERAKTIBISMO-MAILA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA AMAITUTAKO IKASKETA-MAILAREN ARABERA (%)

Azken urtean, Interneten, sare sozialen edota WhatsApp moduko aplikazio mugikorren bidez sortu, bultzatu edo eragin duzu etxabaidarik edo salaketarik testu bat idatziz zein irudiak edo bideoak bidaliz, edo, zuk sortu gabe, zure iritzia edo adostasuna adierazi duzu edo birbidali duzu, edo ez duzu horrelakorik egin?									
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Amaitutako ikasketa-maila		
		Emaku-meak	Gizo-nak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Derrigorrezkoak	Derrigorrezkoen osteko bigarren mailakoak	Goi-mailakoak
Etxabaida edo salaketa sortu, bultzatu edo eragin duzu	9	9	8	8	9	9	7	9	11
Zure iritzia edo adostasuna adierazi duzu edo birbidali duzu	28	28	29	25	28	31	23	28	36
ZIBERAKTIBISMOA	37	37	37	33	37	40	30	37	47
Ez duzu horrelakorik egin	62	61	62	65	61	59	69	61	52
Ed/Ee	1	2	1	2	1	1	1	2	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	566	457	473

Alderdi horri dagokionez, ez dago alderik mutila izan ala neska izan; aldiz, politikarekiko interesa erabakigarria da kasu horretan. Politika asko edo dezente interesatzen zaiela diotenen artean, gehienek (% 57) diote debateak sustatu edo babestu dituztela sare sozialetan, eta politikarekiko interes txikia dutenen edo politika interesatzen ez zaienen artean ziberaktibismo-ehunekoa % 24ra jaisten da.

Gai publikoetan parte hartzea gustatuko litzaiekeela dioten gazteen erdiak baino gehixeagok (% 53) baieztatu dute iazko urtean sare sozialen bidez eztabaida edo salaketaren bat sustatu edo bultzatu zutela. «Nahikoa parte hartzen dutela» diotenen kasuan, proportzioa % 43 da, eta parte hartu nahi ez dutenen kasuan, berriz, % 22.

5.11 taula

GAZTEEN ZIBERAKTIBISMO-MAILA, POLITIKAREKIKO INTERESAREN ETA GAI PUBLIKOETAN PARTE HARTZEKO NAHIAREN ARABERA (%)

Azken urtean, Interneten, sare sozialen edota WhatsApp moduko aplikazio mugikorren bidez sortu, bultzatu edo eragin duzu eztabaidarik edo salaketarik testu bat idatziz zein irudiak edo bideoak bidaliz, edo, zuk sortu gabe, zure iritzia edo adostasuna adierazi duzu edo birbidali duzu, edo ez duzu horrelakorik egin?	GUZTIRA	Politikarekiko interesa		Gai politikoetan parte hartu nahi izatea		
		Handia edo nahikoa	Gutxi edo batere ez	Nahiko lukete	Nahikoa parte hartzen dute	Ez litzaieke gustatuko
Eztabaida edo salaketa sortu, bultzatu edo eragin duzu	9	15	4	13	10	5
Zure iritzia edo adostasuna adierazi duzu edo birbidali duzu	28	42	20	40	33	17
ZIBERAKTIBISMOA	37	57	24	53	43	22
Ez duzu horrelakorik egin	62	42	75	46	56	77
Ed/Ee	1	1	1	1	1	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	800	489	631	129	686

Azkenik, gizarte-aldaketarako nahiak (gai publikoetan duten interesarekin eta aktiboki parte hartzeko nahiarekin lotura estua duenak) korrelazioa du ziberaktibismoarekin ere. Gizarteak erreforma sakonak behar dituela uste dutenek eta, batez ere, gizartearen errotik aldatu behar dela uste dutenek agertzen dute ziberaktibismo-ehuneko altuena, % 45 eta % 49 baitira, hurrenez hurren.

5.12 taula

GAZTEEN ZIBERAKTIBISMO-MAILA, GIZARTERAKO NAHI IZANDAKO ALDAKETA-MAILAREN ARABERA (%)

Azken urtean, Interneten, sare sozialen edota WhatsApp moduko aplikazio mugikorren bidez sortu, bultzatu edo eragin duzu eztabaidarik edo salaketarik testu bat idatziz zein irudiak edo bideoak bidaliz, edo, zuk sortu gabe, zure iritzia edo adostasuna adierazi duzu edo birbidali duzu, edo ez duzu horrelakorik egin?						
(%)	GUZTIRA	Gizarterako nahi izandako aldaketa-maila				
		Dagoen moduan ondo dago	Hobetu daiteke aldaketa txikiak eginez	Aldaketa edo erreforma sakonak behar ditu	Zeharo aldatu behar da	
Eztabaida edo salaketa sortu, bultzatu edo eragin duzu	9	6	4	9	16	
Zure iritzia edo adostasuna adierazi duzu edo birbidali duzu	28	5	20	36	33	
ZIBERAKTIBISMOA	37	11	24	45	49	
Ez duzu horrelakorik egin	62	87	75	54	49	
Ed/Ee	1	2	1	1	2	
GUZTIRA	100	100	100	100	100	
(n)	1500	83	461	640	279	

5.5. ONDORIOAK

Ia EAEko gazte guztiak egunero konektatzen dira sare sozialen batera. Ohikoena egunean hiru saretara konektatzea da.

WhatsApp da nagusi sare sozialetan, sexua eta adina edozein izanik ere. 20 urtetik beherakoen artean, Instagram dago bigarren postuan. 20 urtetik gorakoen artean, berriz, postu horretan Facebook dago.

Snapchat sare sozial nagusiki gaztea da; 20 urtetik beherakoen ia erdiak erabiltzen dute egunero, eta 25 urtetik gorako pertsonak ez dira ia konektatzen horretara.

Oro har, 15-19 urteko pertsonak dira sare sozialen kontsumitzaile handienak eta, horien artean, neskak hein handiagoan mutirik baino.

Gazteen heren batek baino gehixeagok sare sozialak erabili ditu azken urtean debate edo salaketaren bat sustatzeko, halakoei babesa emateko edo iritzia adierazteko. «Ziberaktibismoak» gora egiten du adinarekin, politikarekiko interesarekin eta gizarte-aldaketarako nahiarekin batera.

Bestalde, gazteen laurdena baino pixka bat gehiago azterketa honetan proposatutako hiru egoera negatiboetako baten biktima izan dira noizbait: WhatsApp talde batetik kanporatzea, sare sozialetan identitatea ordeztzea, eta izaera umiliagarri edo konprometituko irudi edo bideoak baimenik gabe zabaltzea.

Gazteen % 4k jazarpen-egoeraren bat bizi izan dute sare sozialetan. «Ziberjazarpen» ohikoena WhatsApp taldeetatik behin eta berriz kanporatzea da. 15-19 urtekoen taldea da ziberjazarpena gehien jasaten duena.



6

Aisia, kirola, kultura eta euskara

6.1. SARRERA

Kapitulu honetan aisialdia eta hori betetzeko modua aztertuko ditugu. Gazteek denbora librean gehien egiten dituzten jarduerak aipatuko dira: kirolarekin, irakurketarekin, lonjekin eta praktika kultural eta artistikoekin dituzten harremanak aztertuko ditugu, bai eta ekitaldi kulturaletara ikusle gisa joaten diren ere. Kapituluak amaitzeko, familiako eta lagunarteko euskara-erabilerari buruzko datuak aurkeztuko ditugu.

6.2. DENBORA LIBRE ERABILGARRIA

Denbora libre honako hau da: oinarrizko premiak (elikadura, loa...) ase ondoren eta geure lan-, ikasketa- eta/edo zaintza-betebeharrak bete ostean geratzen zaigun denbora.

2016an, gazteen % 37k diote egunean lau ordu baino gehiago dituztela libre, batez beste, astegunetan. % 26k diote egunean hiru orduetik lau ordura bitarte izaten dituztela libre. % 31k ordubetetik bi ordura bitarte, eta % 5ek ordubete baino gutxiago. Gainerako % 1ak ez du erantzun.

Aurreko urteetako datuekin konparatuta, ikus daiteke behera egin duela egunero lau ordu libre baino gehiago dituztenen ehunekoak. Beherakada hori ez da hain harrigarria, kontuan hartzen badugu 2012. urtetik 2016. urtera bitarte behera egin duela langabezian dauden gazteen ehunekoak eta arinki gora egin duela, berriz, lana eta ikasketak konbinatzen dituzten gazteen ehunekoak.


Langabezian dauden pertsonak dira egunean denbora libre gehien dutenak; % 73k diote egunean lau ordu libre baino gehiago dituztela, lanegunetan. Lanean ari diren gazteen artean, ehuneko hori erdira jaisten da (% 35) eta, are gehiago, ikasten ari diren gazteen artean (% 31).

Gizon gazteek emakume gazteek baino ordu libre gehiago izaten dituzte: gizonen % 42k diote egunean lau ordu libre baino gehiago dituztela, eta emakumeen % 32k diote gauza bera.

Seme-alabak izateak eragin nabarmena du eskuragarri den denbora librean. Seme-alabaren bat duten pertsonen artean, gehienek (% 55) diote gehienez ere bi ordu libre dituztela egunean.

6.1 grafikoa

LANEGUNETAN GAZTEEK IZATEN DITUZTEN ORDU LIBREEN EBOLUZIOA (%)

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

6.1 taula

GAZTEEK LANEGUNETAN DITUZTEN ORDU LIBREAK EGUNEKO, SEXUAREN, OKUPAZIO NAGUSIAREN ETA SEME-ALABARIK DUTEN ARABERA (%)

Astegunetan zenbat denbora libre izaten duzu, batez beste?								
(%)	GUZTIRA	Sexua		Okupazio nagusia			Seme-alabak	
		Emakumeak	Gizonak	Ikasten	Lanean	Langabezia	Bai	Ez
Ordubete baino gutxiago	5	8	3	5	6	2	10	4
Ordubete edo bi ordu	31	34	28	34	32	16	45	30
Hiru edo lau ordu	26	25	26	29	27	6	12	27
Lau ordu baino gehiago	37	32	42	31	35	73	31	38
Ed/Ee	1	1	1	1	0	3	2	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	800	489	173	146	1354

6.3. AISIALDIKO JARDUERAK

Gazteek zenbat denbora libre duten jakin ostean, hurrengo galdera honako hau da: zer egiten dute denbora libre horretan?

Gazteek denbora librean nagusiki zer jarduera egiten dituzten aztertzeko, gazteei 16 jarduera motako zerrenda bat aurkeztu zaie eta eskatu zaie adierazteko jarduera horietako bakoitza zer maiztasunekin egiten duten (egunero edo ia egunero aukeratik inoiz edo ia inoiz aukerara bitarte).


Proposatutako jarduerak egunero egiten dituztela diotenen ehunekoari begiratuta, adieraz daiteke gazteek sarrien egiten duten aisia-jarduera musika entzutea dela (% 82). Hori ez da harritzekoa, musika entzuteak ez baitu dedikazio eskusiboa eskatzen eta pertsona askok lan egiten duten bitartean, ikasten dutenean, kirola egiten dutenean... entzuten baitute. Gazteek gehien praktikatzen dituzten aisia-jardueren artean, bigarrena kalean egotea da (% 57). Hirugarren postuan serieak, filmak edo telebista-programak ikustea dago (% 53).

Gainera, % 43k diote bideoak ikusten dituztela egunero Youtuben; % 24k kirola egiten dute egunero; % 15ek kontsolekin, ordenagailu-jokoekin edo mugikorreko jokoekin jolasten dute egunero; eta % 14 tabernaren batera joaten dira.

Gainerako jarduerak kasuen % 10etik behera egiten dira egunero. % 7 lonjaren batera joaten dira; % 6k eskulanak egiten dituzte, zaletasunez josi egiten dute edo kozinatzen dute; % 3 dendetara joaten dira, errostera edo begiratzerara (baina ez etxeke ohiko erosketak egitera); % 2k bideoak igotzen dituzte Internetera; % 2k blogetan idazten dute; eta % 2 gaztetxeetara joaten dira. Bestalde, ez dira % 1era heltzen egunero udal-gaztegune edo -gaztelekuetara joaten direnak, diskoteketara joaten direnak edo litro edo botiloia egiten dutenak.

6.2 grafikoa

GAZTEEK EGUNERO EGITEN DITUZTEN AISIA-JARDUEREN RANKINGA (%)



Jarraian, ikusiko dugu jarduera horiek zer maiztasunez egiten diren, bai eta zer kolektibok egiten dituen hein handienera ere.

6.3.1. Musika entzutea

Adierazi dugun moduan, gazteen % 82k musika entzuten dute egunero. % 8k musika astean hiru edo lau egunetan entzuten dute eta % 7k, berriz, astean behin edo bitan. Hala, ikusten da gazteen % 97k gutxienez astean behin entzuten dutela musika. Gainerakoek maiztasun txikiagoz egiten dute hori edo ez dute erantzun.

Ez dago diferentzia handirik kolektiboen artean, jarduera hori oso zabalduta baitago talde guztietan. Azpimarragarriena da, adinean behera egin ahala, handiagoa dela musika egunero entzuten duten gazteen ehunekoak: 15 urtetik 19 urtera bitartekoen % 85ek; 20 urtetik 24 urtera bitartekoen % 83k; eta 25 urtetik 29 urtera bitartekoen % 78k.

6.3.2. Kalean egotea

Gazteen % 57 egunero egoten dira kalean, paseatzen, berriketan eta abar, lagunekin edo familiarekin. % 16 astean hiru edo lau egunetan ibiltzen da kaletik eta % 22, berriz, astean behin edo bitan.

Langabezian dauden gazteak dira kalean egunero egoten direla gehien adierazi dutenak (% 70). Nabarmentzekoa da seme-alabak dituzten kolektiboa ere, kalean denbora gehiago ematen baitute seme-alabarik ez dutenek baino (% 69 eta % 56, hurrenez hurren).

Denbora libre gehiago izan ahala, gora egiten du kalean egunero daudenen ehunekoak.

6.2 taula

GAZTEAK BEREN DENBORA LIBREAN KALEAN EGOTEN DIREN MAIZTASUNA, OKUPAZIO NAGUSIAREN, SEME-ALABARIK DUTEN ETA LANEGUNETAN DITUZTEN ORDU LIBREEN ARABERA (%)

Orain denbora librean egin daitezkeen hainbat ekintza aipatuko dizut. Mesedez, esadazu zenbatero egiten duzun horietako bakoitza zure denbora librean: egunero edo ia egunero, astean 3 edo 4 egunetan, astean behin edo bitan, hilean behin edo gehiagotan, maiztasun gutxiagorekin, edo inoiz edo ia inoiz ez									
Kalean egon									
(%)	GUZTIRA	Okupazio nagusia			Seme-alabak		Ordu libreak		
		Ikasten	Lanean	Langa-bezian	Bai	Ez	Bi ordu edo gutxiago	3 edo 4 ordu	4 ordu baino gehiago
Egunero edo ia egunero	57	53	58	70	69	56	47	54	68
Astean hiru edo lau egunetan	16	17	16	12	9	17	16	19	15
Astean behin edo bitan	18	22	15	11	12	19	25	20	10
Hilean behin edo gehiagotan	2	2	2	1	3	2	3	1	1
Maiztasun gutxiago	2	2	2	2	1	2	3	2	1
Inoiz ez edo ia inoiz ez	4	4	6	3	4	4	5	4	4
Ed/Ee	1	0	1	1	2	0	1	0	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	800	489	173	146	1354	558	380	543

6.3.3. Filmak, serieak edo telebista-programak ikustea

EAEko gazteen % 53k adierazi dute egunero bere denbora librearen zati bat serieak, filmak edo telebista-programak ikusten ematen dutela, horiek ikusteko euskarria edozein izanik ere. % 20k astean hiru edo lau egunetan egiten dute eta % 21ek, berriz, astean behin edo bitan.

25-29 urteko pertsonak denbora libre gehiago ematen dute egunero jarduera horretan 25 urtetik beherako gazteek baino (% 60 eta % 48, hurrenez hurren).

Langabezian dauden pertsonak eta egunean lau ordu libre baino gehiago dituzten pertsonak hein handiagoan ikusten dituzte serieak, filmak edo telebista-programak egunero. Seme-alabak dituzten gazteek ere ehuneko altuagoak agertzen dituzte jarduera horretan seme-alabarik ez dutenek baino.

6.3 taula

GAZTEAK BEREN DENBORA LIBREAN FILMAK, SERIEAK EDO TELEBISTA-PROGRAMAK IKUSTEN DITUZTEN MAIZTASUNA, OKUPAZIO NAGUSIAREN, SEME-ALABARIK DUTEN ETA LANEGUNETAN DITUZTEN ORDU LIBREEN ARABERA (%)

Orain denbora librean egin daitezkeen hainbat ekintza aipatuko dizut. Mesedez, esadazu zenbatero egiten duzun horietako bakoitza zure denbora librean: egunero edo ia egunero, astean 3 edo 4 egunetan, astean behin edo bitan, hilean behin edo gehiagotan, maiztasun gutxiagorekin, edo inoiz edo ia inoiz ez									
Pelikulak, serieak edo telebistako programak ikusi									
(%)	GUZTIRA	Okupazio nagusia			Seme-alabak		Ordu libreak		
		Ikasten	Lanean	Langa-bezian	Bai	Ez	Bi ordu edo gutxiago	3 edo 4 ordu	4 ordu baino gehiago
Egunero edo ia egunero	53	45	57	70	64	51	47	48	61
Astean hiru edo lau egunetan	20	23	18	16	12	21	19	23	19
Astean behin edo bitan	21	25	20	9	18	21	27	22	14
Hilean behin edo gehiagotan	3	3	3	2	2	3	2	4	3
Maiztasun gutxiago	2	3	1	3	3	2	3	2	2
Inoiz ez edo ia inoiz ez	1	1	1	0	1	1	2	1	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	800	489	173	146	1354	558	380	543

6.3.4. Youtuben, Vimeon eta antzekoetan bideoak ikustea

Gazteen % 43k egunero bisitatzen dute Youtube (edo antzeko plataformaren bat), denbora librean bideoak ikusteko. % 18k astean hiru edo lau egunetan egiten dute hori eta % 17k, berriz, astean behin edo bitan. Guztira, lau gaztetik hiruk (% 78) bideoak ikusten dituzte Youtuben denbora librean, gutxienez, astean behin.

Mutilek neskek baino sarriago ikusten dituzte bideoak Youtuben: mutilen % 47k egunero ikusten dituzte, eta nesken % 39k.

25 urtetik beherako gazteek ere ehuneko altuagoa agertzen dute jarduera honetan 25-29 urteko kolektiboak baino (% 45 eta % 40, hurrenez hurren).

6.4 taula

GAZTEEK BEREN DENBORA LIBREAN YOUTUBEN BIDEOAK IKUSTEN DITUZTEN MAIZTASUNA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

Orain denbora librean egin daitezkeen hainbat ekintza aipatuko dizut. Mesedez, esadazu zenbatero egiten duzun horietako bakoitza zure denbora librean: egunero edo ia egunero, astean 3 edo 4 egunetan, astean behin edo bitan, hilean behin edo gehiagotan, maiztasun gutxiagorekin, edo inoiz edo ia inoiz ez						
Bideoak ikusi youtube, vimeo... edo horrelakoetan						
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Egunero edo ia egunero	43	39	47	45	45	40
Astean hiru edo lau egunetan	18	17	20	19	18	18
Astean behin edo bitan	17	19	15	17	17	17
Hilean behin edo gehiagotan	6	7	5	6	6	7
Maiztasun gutxiago	7	8	6	7	6	9
Inoiz ez edo ia inoiz ez	8	10	7	7	9	9
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600

Zenbat eta denbora libre gehiago izan, orduan eta sarriago ikusten dira bideoak Youtuben: % 35, egunean gehienez ere bi ordu libre dituztenen artean; % 44, egunean hiru edo lau ordu libre dituztenen artean; eta % 50, egunean lau ordu libre baino gehiago dituztenen artean.

Seme-alabak dituzten gazteek hein txikiagoan ikusten dituzte bideoak Youtuben egunero (% 28k, eta seme-alabarik ez duten gazteen % 45ek).

6.3.5. Kirola egitea

Gazteen laurden batek egunero egiten dute kirola bere denbora librean (% 24). % 25ek astean hiru edo lau egunetan egiten dute eta % 22k, berriz, astean behin edo bitan. Guztira, gazteen % 71k egiten dute kirola denbora librean, astean behin, gutxienez.

Kirola egunero egiten dutenei erreparatuz gero, mutil kopuruak bikoiztu egiten du aisialdiaren zati bat kirola egiten ematen duten nesken kopurua (% 32 eta % 15, hurrenez hurren).

Adinaren eta eskuragarri den denbora librearen arabera, ez dago alderik egunero kirola egiten dutenen artean. Baina seme-alabak izatea erabakigarria da gai horretan. Seme-alabaren bat dutenen artean, % 11k baino ez dute kirola egiten egunero, eta seme-alabarik ez dutenen kasuan, aldiz, % 25ek.

Okupazioaren arabera ere aldeak daude. Beste jarduera batzuen kasuan gertatzen ez den bezala, langabezian dauden gazteak dira kirola hein txikienean egunero egiten dutenak.

6.5 taula

GAZTEEK BEREN DENBORA LIBREAN KIROLA EGITEN DUTEN MAIZTASUNA, SEXUAREN, OKUPAZIO NAGUSIAREN ETA SEME-ALABARIK DUTEN ARABERA (%)

Orain denbora librean egin daitezkeen hainbat ekintza aipatuko dizut. Mesedez, esadazu zenbatero egiten duzun horietako bakoitza zure denbora librean: egunero edo ia egunero, astean 3 edo 4 egunetan, astean behin edo bitan, hilean behin edo gehiagotan, maiztasun gutxiagorekin, edo inoiz edo ia inoiz ez								
Kirola egin								
(%)	GUZTIRA	Sexua		Okupazio nagusia			Seme-alabak	
		Emakumeak	Gizonak	Ikasten	Lanean	Langa-bezian	Bai	Ez
Egunero edo ia egunero	24	15	32	25	24	19	11	25
Astean hiru edo lau egunetan	25	23	28	29	21	20	13	27
Astean behin edo bitan	22	24	19	22	21	20	15	22
Hilean behin edo gehiagotan	5	5	4	3	7	4	4	5
Maiztasun gutxiago	8	10	6	7	8	10	11	7
Inoiz ez edo ia inoiz ez	17	23	11	13	18	27	45	14
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	800	489	173	146	1354

6.3.6. Kontsolekin, ordenagailu-jokoekin edo mugikorreko jokoekin jolastea

Azken urteotan, gero eta etxe gehiagotan daude ordenagailuak edo bideo-kontsolak. Horri gehitzen badiogu gazteen % 99k telefono mugikorra dutela, agerikoa da gazteak bideojokoekin ibil daitezkeen euskarriak orokortu egin direla eta ia gazte guztiek dituztela eskura.

Baina horrek ez du esan nahi gazte guztiek beren aisialdiaren zati bat halako entretenimenduetan ematen dutenik. % 15ek egunero jolasten dute bideo-jokoekin, % 10ek astean hiru edo lau egunetan, eta % 14k, berriz, astean behin edo bitan. Guztira, % 39k bideo-jokoekin jolasten dute astean behin, gutxienez. Bestalde, gehiago dira ordenagailuko, mugikorreko edo kontsolako jokoekin inoiz jolasten ez duten gazteak (% 43).

Gizonek emakumeek baino gehiago jolasten dute bideo-jokoekin: gizonen % 18k, egunero, eta emakumeen % 11k. Are gehiago, emakume gazteen kasuan, gehienek (% 56) ez dute inoiz edo ia inoiz jolasten.

20 urte baino gutxiago dituzten pertsonek gehiago jolasten dute bideo-jokoekin adin hori gainditzen dutenek baino, eta % 19k egunero egiten dute.

Langabezian dauden gazteak dira bideo-jokoekin egunero gehien jolasten dutenak: % 26k.

6.6 taula

GAZTEEK BEREN DENBORA LIBREAN KONTSOLEKIN, ORDENAGAILU-JOKOEKIN EDO MUGIKORREKO JOKOEKIN JOLASTEN DUTEN MAIZTASUNA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)

Orain denbora librean egin daitezkeen hainbat ekintza aipatuko dizut. Mesedez, esadazu zenbatero egiten duzun horietako bakoitza zure denbora librean: egunero edo ia egunero, astean 3 edo 4 egunetan, astean behin edo bitan, hilean behin edo gehiagotan, maiztasun gutxiagorekin, edo inoiz edo ia inoiz ez									
Kontsolekin edo ordenagailuko edo mobileko jokuekin jokatu									
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Okupazio nagusia		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Ikasten	Lanean	Langabezia
Egunero edo ia egunero	15	11	18	19	12	14	15	11	26
Astean hiru edo lau egunetan	10	5	13	11	10	7	10	9	9
Astean behin edo bitan	14	9	19	18	14	12	16	12	11
Hilean behin edo gehiagotan	8	8	9	8	10	7	9	8	6
Maiztasun gutxiago	10	10	9	9	10	9	10	9	9
Inoiz ez edo ia inoiz ez	43	56	31	35	44	50	40	50	39
Ed/Ee	0	1	0	0	0	1	0	0	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	800	489	173

6.3.7. Tabernetara joatea

Tabernetara joatea, tradizionalki, denbora libre pasatzeko modu bat izan da, bai gazteen kasuan eta bai adin handiagoko pertsonen kasuan. Gazteen % 14k onartzen dute egunero joaten direla tabernaren batera, denbora librean. % 17k diote astean hiru edo lau egunetan joaten direla tabernetara eta talde handienak (% 40) adierazi du astean behin edo bi egunetan joaten direla tabernetara. Hortaz, hamar gaztetik zazpi (% 71) astean behin joaten dira, gutxienez, tabernetara.

Adinak eta denbora libreak gora egin ahala, gora egiten du, halaber, denbora librean egunero tabernetara joateko ohiturak. Nolanahi ere, aldagai erabakigarriena okupazioa da. Hala, lan egiten duten gazteen taldea (eroste-ahalmen handiagoa dute eta, gainera, otorduak etxetik kanpo egiteko behar handiagoa izaten dute) da tabernetara gehien joaten dena egunero (% 24).

6.7 taula

GAZTEAK BEREN DENBORA LIBREAN TABERNETARA JOATEN DIREN MAIZTASUNA, ADIN-TALDEAREN, OKUPAZIO NAGUSIAREN ETA LANEGUNETAN DITUZTEN ORDU LIBREEN ARABERA (%)

Orain denbora librean egin daitezkeen hainbat ekintza aipatuko dizut. Mesedez, esadazu zenbatero egiten duzun horietako bakoitza zure denbora librean: egunero edo ia egunero, astean 3 edo 4 egunetan, astean behin edo bitan, hilean behin edo gehiagotan, maiztasun gutxiagorekin, edo inoiz edo ia inoiz ez										
Tabernetara joan										
(%)	GUZTIRA	Adin-taldeak			Okupazio nagusia			Ordu libreak		
		15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Ikasten	Lanean	Langa-bezian	2 ordu edo gutxiago	3 edo 4 ordu	4 ordu baino gehiago
Egunero edo ia egunero	14	7	15	20	8	24	18	10	14	18
Astean hiru edo lau egunetan	17	9	23	19	16	23	11	16	19	18
Astean behin edo bitan	40	38	44	40	42	37	39	41	40	40
Hilean behin edo gehiagotan	9	12	6	8	10	6	11	9	8	10
Maiztasun gutxiago	6	9	5	6	7	4	9	7	6	6
Inoiz ez edo ia inoiz ez	13	25	7	7	17	5	11	17	13	8
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	450	450	600	800	489	173	558	380	543

6.3.8. Lonjara joatea

Gazteen % 7 egunero joaten dira lonja batera. Talde horri astean hiru edo lau aldiz joaten direnen taldea (% 5) eta astean behin edo bi aldiz joaten direnena (% 9) gehitzen badizkiogu, ikusiko dugu gazteen % 21 asteko maiztasunarekin joaten direla lonjetara.

Lonjetara egunero joaten direnak % 10 baino gutxiago direnez, batera aztertuko ditugu gutxienez astean behin joaten diren pertsona guztiak, ikusteko zer kolektibo diren lonjetara gehien joaten direnak.

Kasu honetan, aldagai erabakigarriak sexua eta adina dira. Gizonek askoz gehiago erabiltzen dituzte lonjak emakumeek baino (mutilen % 28 gutxienez astean behin joaten dira lonjaren batera eta nesken kasuan, proportzio hori % 13 da). Adinean gora egin ahala, behera egiten du lonjen erabilerak. Hala, 15 urtetik 19 urtera bitartekoen artean % 29 joaten dira lonjetara, eta proportzio hori % 12ra jaisten da 25 urtetik 29 urtera bitartekoen artean (bi kasuetan, gutxienez astean behin bertaratzen direnei dagokie ehunekoa).

6.8 taula

GAZTEAK BEREN DENBORA LIBREAN LONJETARA JOATEN DIREN MAIZTASUNA,
SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

Orain denbora librean egin daitezkeen hainbat ekintza aipatuko dizut. Mesedez, esadazu zenbatero egiten duzun horietako bakoitza zure denbora librean: egunero edo ia egunero, astean 3 edo 4 egunetan, astean behin edo bitan, hilean behin edo gehiagotan, maiztasun gutxiagorekin, edo inoiz edo ia inoiz ez						
Lonjan edo lokalean egon						
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Egunero edo ia egunero	7	3	10	9	7	5
Astean hiru edo lau egunetan	5	3	8	8	6	3
Astean behin edo bitan	9	7	10	12	11	4
Hilean behin edo gehiagotan	2	2	3	2	3	2
Maiztasun gutxiago	4	4	3	4	3	4
Inoiz ez edo ia inoiz ez	73	80	65	64	69	83
Ed/Ee	1	1	1	1	1	0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600

6.3.9. Eskulanak egitea, jostea edo kozinatzea, zaletasun gisa

Eskulanak egitea kontzeptu zabala da eta jarduera asko hartzen ditu barne, hala nola puzzleak edo maketak egitea, edo marketeria edo brikolajea eta abar. Gainera, atal honetan sartu dira josteari edo kozinatzeari loturiko bestelako esku-jarduera ludiko batzuk ere.

Gazteen % 6k adierazi dute egunero egiten duela eskulanen bat. % 5ek adierazi dute astean hiru edo lau egunetan egiten dituztela eta % 13, berriz, astean behin edo bitan. Hortaz, esan daiteke gazteen % 24k eskulanekin, josteari edo kozinatzearekin erlazionatutako jardueraren bat egiten dutela denbora librean, gutxienez, astean behin.

Gutxienez, astean behin egiten dituztenak kontuan hartzen baditugu, ikusiko dugu halako jarduerak ohikoagoak direla emakumeen artean gizonen artean baino, hein handiagoan egiten direla adinean gora egin ahala eta bere denbora librea halakoetan gehien ematen duen kolektiboa langabezian dauden gazteena dela.

6.9 taula

GAZTEEK BEREN DENBORA LIBREAN ESKULANAK EGITEN DITUZTEN, JOSTEN DUTEN EDO ZALETASUNEZ KOZINATZEN DUTEN MAIZTASUNA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)

Orain denbora librean egin daitezkeen hainbat ekintza aipatuko dizut. Mesedez, esadazu zenbatero egiten duzun horietako bakoitza zure denbora librean: egunero edo ia egunero, astean 3 edo 4 egunetan, astean behin edo bitan, hilean behin edo gehiagotan, maiztasun gutxiagorekin, edo inoiz edo ia inoiz ez									
Eskulanak egin, josi edo sukaldaritza egin hobby moduan									
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Okupazio nagusia		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Ikasten	Lanean	Langa-bezian
Egunero edo ia egunero	6	7	6	4	8	7	4	9	13
Astean hiru edo lau egunetan	5	7	4	4	6	6	5	6	7
Astean behin edo bitan	13	15	11	11	11	15	13	13	11
Hilean behin edo gehiagotan	11	13	8	11	9	12	11	11	10
Maiztasun gutxiago	10	10	9	11	10	9	11	8	8
Inoiz ez edo ia inoiz ez	54	47	61	58	55	51	56	51	50
Ed/Ee	1	1	1	1	1	1	0	2	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	800	489	173

6.3.10. Aisialdiko bestelako jarduera batzuk

Planteatutako gainerako aisia-jarduerak, hala nola dendetara joatea, blogetan idaztea, Internetera bideoak igotzea, gaztetxeetara joatea, udal-gazteleku edo -gazteguneetara joatea, diskoteketara joatea edo litroak egitea, gazteen % 5ek baino gutxiagok egiten dute egunero kasuan kasu, beraz ikusiko dugu zer kolektibok egiten dituen hein handiagoan, gutxienez astean behin (hau da, gutxienez, astean egun batean) egiten dituztenak kontuan hartuta.

Dendetara joatea, begiratzera edo eroatera (baina, betiere, etxeko ohiko erosketez bestela), ohikoagoa da emakumeen artean gizonen artean baino: emakumeen % 32k gutxienez astean behin egiten dute hori beren denbora librean, eta gizonen % 18k. Gainera, pentsa daiteke desberdintasunak egongo direla emakume eta gizonak joaten diren denda-moten artean, baina ez da horri buruz galdetu. Guztira, gazteen % 25ek diote dendetan pasatzen dutela denbora, astean behin, gutxienez.

Gazteen % 15 diskoteketara joaten dira, astean behin, gutxienez. Ez dago diferentzia handirik kolektiboen artean, baina aipa daiteke 20-24 urtekoen taldea dela diskoteketara gehien joaten dena (% 18). 25 urtetik aurrera, jarduera hori behera egiten hasten da (% 12).

Gazteen % 9k diote gaztetxeetara joaten direla, astean behin, gutxienez. EAEn jaiotako gazteak hein handiagoan joaten dira gaztetxeetara atzerrian jaiotakoak baino (% 10 eta % 3, hurrenez hurren). Halaber, desberdintasunak hautematen dira sexuaren arabera, izan ere, mutilak hein handiagoan joaten dira halako lokaletara neskak baino (% 11 eta % 6, hurrenez hurren).

Gutxienez astean behin udal-gaztegune edo -gaztelekuren batera joaten direnen proportzioa txikiagoa da (% 4) eta ez dago ia diferentziarik kolektibo batetik bestera; nabarmenena da atzerrian jaiotako gazteak hein txikiagoan joaten direla batezbestekoa baino (% 1 baino ez).

Gazteen % 8k diote litroak edo botiloia egiten dituztela, gutxienez astean behin. Jarduera hori ohikoagoa da 15-19 urtekoen artean (% 13) eta, gero, jaitsi egiten da adinean gora egin ahala: 25 urtetik 29 urtera bitarteko gazteen % 4k bakarrik egiten dituzte litroak astean behin. Diferentziak daude, orobat, jatorriaren arabera. Hala, jarduera hori askoz ohikoagoa da EAEn jaiotako gazteen artean (% 10), atzerrian jaiotako gazteen artean baino (% 1).

Azkenik, % 6k diote denbora librean bideoak igotzen dituztela Internetera, gutxienez, astean behin. Beste % 5ek diote maiztasun horrekin blogetan idazten dutela. Ez dago ia alderik sexuaren edo adinaren arabera, Internetera bideoak igotzeari edo blogetan idazteari dagokionez. Baina badirudi gazte atzerritarrek pixka bat hein handiagoan igotzen dituztela bideoak Internetera, EAEn jaiotako gazteek baino (% 9 eta % 6, hurrenez hurren).

6.10 taula

DENBORA LIBREAN, GUTXIENEZ ASTEAN BEHIN, ONDOKO AISIA-JARDUERAK EGITEN DITUZTEN GAZTEAK, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

Orain denbora librean egin daitezkeen hainbat ekintza aipatuko dizut. Mesedez, esadazu zenbatero egiten duzun horietako bakoitza zure denbora librean: egunero edo ia egunero, astean 3 edo 4 egunetan, astean behin edo bitan, hilean behin edo gehiagotan, maiztasun gutxiagorekin, edo inoiz edo ia inoiz ez								
Ondoko jarduera bakoitza gutxienez astean behin egiten dutenen ehunekoa								
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Jaiolekua*	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Euskadi	Atzerria
Dendetan ibili	25	32	18	26	26	25	25	30
Diskoteketara joan	15	13	16	15	18	12	15	11
Gaztetxeetara joan	9	6	11	8	11	7	10	3
Botiloia, litroak, kale-zurruta egin	8	8	9	13	10	4	10	1
Bideoak igo Internetera	6	6	7	6	7	6	6	9
Blogetan idatzi	5	4	5	5	6	4	5	6
Udal-gaztegune edo -gaztelekuetara joan	4	3	5	4	4	3	4	1
(n)	1500	750	750	450	450	600	1184	249

* Espainiako gainontzeko lekuetan jaiotako gazteei buruzko datuak ez dira gurutzaketa-aldagai bezala erabili, laginean gutxi jaso zirelako.

6.4. LONJAK EDO GAZTE-LOKALAK

Gazteen lonjek izen desberdinak dituzte: lonjak, lokalak, txokoak eta abar, baina guztiek gauza bera aipatzen dute: erabilera pribatuko lokala, gazte talde batek bere denbora librean erabiltzen duena.

Lokal horiek aisia-denboran erabiltzen dira eta azken urteotan presentzia handia dute. Gaur egun, EAEko ia udalerrri guztietan dago honelako lokalen bat.

Aurreko atalean aipatu da gazteak zer maiztasunekin joaten diren denbora librean lonjetara. Atal honetan gehiago sakondu nahi dugu eta, bertaratzea neurtzeaz gainera, jakin nahi dugu zenbat gazte diren lonja edo gazte-lokalen bateko kide.

Gazteen % 20k adierazi dute gazteen lonja edo lokal bateko kide direla egun. % 30ek adierazi dute orain ezetz, baina iraganean lonja edo lokal bateko kide izan direla; eta % 50ek diote inoiz ez direla lonja edo gazte-lokal bateko kide izan.

Gaur egun erregistratutako kide kopurua 2012an erregistratutakoarekin bat dator (% 20)³³, baina gora egin du iraganean lonjaren bateko kide izan direla adierazi dutenen ehunekoak. Hala, noizbait lonja edo gazte-lokalen bateko kide izan diren gazteen bolumena handiagoa da (% 50) lau urte lehenago baino (% 45).

Lonja bateko kide izatea ohikoagoa da gizon gazteen artean emakume gazteen artean baino. Halaber, askoz ohikoagoa da EAEn jaiotako gazteen artean, atzeritik etorri direnen artean baino.

6.11 taula

GAZTEAK LONJETAKO EDO GAZTE-LOKALETAKO KIDE IZATEA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

Eta bazara gazteen lonja edo lokal bateko kide edo partaide, izan zara baina orain jada ez, edo ez zara inoiz kide izan?									
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Kide zara orain	20	12	28	28	24	11	15	24	17
Lehen bai baina orain ez	30	31	29	22	32	34	20	30	33
Inoiz ez	50	57	43	50	44	55	65	45	51
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	400	600	500

* Espainiako gainontzeko lekuetan jaiotako gazteei buruzko datuak ez dira gurutzaketa-aldagai bezala erabili, laginean gutxi jaso zirelako.

Adina ere funtsezkoa da; gaur egun lonjaren bateko kide diren gazteen bolumen handiena 15-19 urtekoen taldean dago eta, gero, adinean gora egin ahala, jaitsi egiten da gaur egun lonja duten gazteen kopurua eta igo, berri,

³³ CORCUERA BILBAO, Nieves, BILBAO GAZTAÑAGA, Miren eta LONGO IMATZ, Oskar (2013): *Gazteen lonjak eta lokalak EAEn* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteen_joerak/eu_liburuak/adjuntos/Joerak_7_tendencias.pdf [Kontsulta: 2017/06/15]

iraganean izan dutela diotenena. Horrekin ikusten dugu lonja bateko kide izatea 25 urtetik beherako gazteen artean dela ohikoagoa eta bertan behera uzten dela adin hori pasatakoan.

Adinarekin batera, hautematen da ikasleak direla hein handienez lonja eta lokaletako kide direnak (ikasleen % 26 lonjaren bateko kide dira gaur egun; lanean ari direnen kasuan % 13; eta langabezia daudenen % 17).

Azkenik, adieraztekoa da lurralde historikoaren arabera ere aldeak daudela. Izan ere, Bizkaian ohikoagoa da lonja bateko kide izatea gainerako lurraldeetan baino.

Lonjetara joateari dagokionez, 6.3.8 atalean ikusi dugun moduan, gizonak eta 20 urtetik beherakoak dira lonjetara gehien joaten direnak, kolektibo horietan arruntagoa baita lonjetako kide izatea.

Puntu honetan aztertuko dugu lonjetako kideak zer maiztasunekin joaten diren lonjetara, eta kide ez direnak zein heinetan joaten diren halakoetara.

Lonja edo lokalen bateko kide direnen artean, ikusten dugu laurdena baino gehiago (% 29) egunero edo ia egunero joaten direla lokalera. Horri astean hiru edo lau egunetan joaten direnak (% 23) eta astean behin edo bitan joaten direnak (% 35) gehitzen badizkiogu, ikusten dugu, guztira, % 87 lonjara joaten direla astean behin, gutxienez.

Puntu honetan, nabarmentzekoa da gazte gutxi batzuk, lonja bateko kide izan arren, astean behin baino gutxiagotan joaten direla bertara (% 9), eta % 4 ez direla inoiz edo ia inoiz joaten.

Bestalde, iraganean lonja bateko kide izan diren baina jadanik ez diren gazteen % 6 eta lonja edo lokal bateko kide inoiz izan ez diren gazteen % 3 nahiko maiz joaten dira lagunengatik lonjetara (gutxienez astean behin).

6.12 taula

GAZTEAK BEREN DENBORA LIBREAN LONJETARA JOATEN DIREN MAIZTASUNA,
LONJETAKO KIDE DIREN ARABERA (%)

Mesedez, esadazu zenbatero egoten zaren LONJAN zure denbora librea: egunero edo ia egunero, astean 3 edo 4 egunetan, astean behin edo bitan, hilean behin edo gehiagotan, maiztasun gutxiagorekin, edo inoiz edo ia inoiz ez				
(%)	GUZTIRA	Lonjetako kideak		
		Gaur egun	Lehen izan ziren, orain ez	Inoiz ez
Egunero edo ia egunero	7	29	1	1
Astean hiru edo lau egunetan	5	23	2	1
Astean behin edo bitan	9	35	3	1
Hilean behin edo gehiagotan	2	7	2	1
Maiztasun gutxiago	4	2	7	2
Inoiz ez edo ia inoiz ez	73	4	84	93
Ed/Ee	1	0	1	1
GUZTIRA	100	100	100	100
(n)	1500	281	427	788

6.5. KIROLA

Aurreko atalean adierazi dugun moduan, lau gaztetik batek (% 24) egunero egiten du kirola. Beste laurden batek (% 25) astean hiru edo lau egunetan egiten dute kirola, beraz, esan dezakegu gazteen erdiak kirola egiten dutela arrunki.

Kontuan hartzen badugu ere astean behin edo bitan kirola egiten dutela diotenen % 22a, ikusiko dugu gazteen % 71k kirola egiten dutela, gutxienez astean behin. Ehuneko hori EAeko 15 urteko eta gehiagoko biztanleria orokorrerako batez bestez erregistratutakoa (% 46,9) baino handiagoa da, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak argitaratutako datuen arabera³⁴.


Aitzitik, gazteen % 17k ez dute inoiz edo ia inoiz kirolik egiten. % 17ko proportzio hori % 23ra igotzen da emakume gazteen kasuan, izan ere, kirola egiteari dagokionean, alde nabarmenak daude sexuen artean (ikus 6.5 taula).

Kirol-praktika erregularra kirola astean hiru aldiz edo gehiagotan egiteari dagokio. Hala, ikusten da gizonek emakumeek baino hein handiagoan egiten dutela kirola erregulartasunez, halaber, adinean behera egin ahala kirola sarriago egiten dela eta ohikoagoa dela EAEn jaiotako gazteen artean atzerrian jaiotakoen artean baino.

Kirol-praktika erregularrak gora egin du 2012. urtearekiko, urte hartan gazteen % 40k aipatu baitzuten kirola astean hiru aldiz edo gehiagotan egiten zutela. Gorakada hori nesken eta mutilen artean gertatu da, baita hiru adin-taldeetan ere.

6.3 grafikoa

GAZTEEN OHIKO KIROL-PRAKTIKAREN EBOLUZIOA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).


³⁴ Espainiako Gobernuaren Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (2015): *Encuesta de Hábitos Deportivos 2015* [linean]. Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): <https://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/estadisticas/deporte/encuesta-habitos-deportivos.html> [Kontsulta: 2017/06/21]

Jarraian, EAEn gehien egiten diren kirolak zeintzuk diren aztertuko dugu. Horretarako, gazteei galdetu diegu zer bi kirol egiten dituzten sarrien. Erantzunak ikusita, honako hauek nabarmentzen dira: futbola eta areto-futbola (% 20k diote hori dela gehien egiten duten kirola); gimnasio-jarduerak, hala nola mantentze-gimnasia, fitness, pilates edo muskulazioa (% 20) eta korrika egitea (% 19).

Ondoren, honako hauek daude: bizikleta, errepideko, mendiko eta spinning-eko modalitateetan (% 9); igeriketa (% 8); aerobik, zumba, gimnastika erritmikoa, dantza edo antzekoak (% 7); mendira joatea, trekkinga edo eskalatzea (% 7); ibiltzea (% 6); eta saskibaloia (% 5).

6.4 grafikoa

GAZTEEK GEHIEN EGITEN DITUZTEN KIROLAREN EBOLUZIOA (%)*



* Galdera irekia, erantzunik iradoki gabe. Gehienez ere bi erantzun; pertsonak bi kirol baino gehiago egiten baditu, sarrien praktikatzen dituen bi kirolak adierazi ditu. Ehunekoen baturaren emaitza 100 baino gehiago da, bi erantzun eman baititezkeen.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

Kasuan kasu, gainerako kirolak gazteen % 5ek baino gutxiagok aipatu dituzte. % 3k adierazi dute gehien praktikatzen dituzten kirolak pala- edo erraketa-kirolak direla (tenisa, padela...); % 2k frontoi-kirolak aipatu dituzte (esku-pilota edo pala); beste % 2k atletismoa egiten dute; % 2k futbolaz edo saskibaloiaz bestelako talde-kirolak egiten dituzte, hala nola eskubaloia, boleibola, errugbia, hockeya...; % 2k ur-kirolak egiten dituzte, hala nola surfa, arrauna, piraguismoa...; % 2k borroka-arteak egiten dituzte; eta beste % 2k kontaktu-kirolak, hala nola boxeo edo kickboxinga. Horrez gain, % 1ek dio gehien praktikatzen dituen kirolen artean patinatzea edo skate-a daudela; beste % 1ek elur-kirolak aipatu ditu (eskia, snowboard...); beste % 1ek yoga aipatu du; eta gainerako % 2ek beste kirol batzuk aipatu dituzte, hala nola golfa, hipika eta abar.

6.13 taula

GAZTEEK GEHIEN EGITEN DITUZTEN KIROLAK, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

Zein kirol edo kirolak egiten dituzu sarriago?						
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Futbola (areto-futbola)	20	4	34	23	19	18
Mantentze-gimnasia, pilatesa, muskulazioa	20	21	19	17	23	19
Korrika egitea	19	17	21	14	23	20
Bizikleta	9	10	9	7	10	11
Igeriketa	8	8	8	5	9	10
Aerobika, zumba, gimnasia erritmikoa, dantza	7	12	1	10	6	5
Mendira joatea, trekkinga edo eskalatzea	7	7	8	4	7	10
Ibiltzea	6	11	2	4	6	8
Saskibaloia	5	3	6	7	5	3
Pala- edo erraketa-kirolak, baina ez frontoikoak (tenisa, padela, squash...)	3	2	3	2	2	3
Frontoi-kirolak (esku-pilota edo pala)	2	1	4	2	2	2
Bestelako talde kirolak (eskubaloia, boleibola, errugbia, hockeya...)	2	1	4	4	2	1
Atletismoa	2	1	2	3	1	0
Ur- edo itsas-kirolak (surfa, arrauna, piraguismoa...)	2	1	3	2	1	2
Borroka-arteak	2	1	3	4	1	1
Boxeo edo kickboxinga	2	1	3	2	3	1
Patinajea, skatea	1	2	1	1	1	2
Yoga	1	1	0	1	1	1
Elur-kirolak	1	1	0	1	0	1
Beste kirolak (hipika, golf...)	2	2	2	4	2	2
(n)	1500	750	750	450	450	600

* Galdera irekia, erantzunik iradoki gabe. Gehienez ere bi erantzun; pertsonak bi kirol baino gehiago egiten baditu, sarrien praktikatzen dituen bi kirolak adierazi ditu. Ehunekoen baturaren emaitza 100 baino gehiago da, bi erantzun eman baitzitezkeen.

Datu horiek duela lau urteko datuekin konparatzen baditugu, ikus daiteke nabarmen egin duela gora kirol-jarduera nagusizat korrika egiten duten gazteen ehunekoak (% 12tik % 19ra), baita mantentze-gimnasia edo muskulazioa egiten dituzten gazteen ehunekoak ere (% 14tik % 20ra).

Dena den, diferentzia handiak daude kolektiboen artean. Izan ere, kasu honetan ere diferentzia nabarmenak daude gizon eta emakume gazteen artean. Futbola (edo areto-futbola) jarduera nagusiki maskulinoa da. Mutilen % 34k adierazi dute sarrien egiten duten kiroletako bat dela, eta nesken % 4k baino ez dute futbola aipatu jarduera nagusizat. Futbolaz gainera, mutilek neskek baino hein handiagoan aipatu dituzte saskibaloia (% 6 eta % 3, hurrenez hurren) eta gainerako talde-kirolak (% 4 eta % 1, hurrenez hurren), baita frontoi-kirolak ere (% 4 eta % 1, hurrenez hurren). Bestalde, emakume gazteek gizonen baino hein handiagoan aukeratu dituzte musikarekin eta koreografiekin erlazionatutako jarduerak, hala nola aerobika, zumba edo gimnastika erritmikoa (nesken % 12 eta mutilen % 1), baita ibiltzea ere (% 11 eta % 2).

Aldeak daude adinaren arabera ere, izan ere, adin-talde gazteenean hein handiagoan egiten dira talde-kirolak (futbola, saskibaloia eta abar). 20 urtetik beherako pertsonak dira, halaber, aerobika, zumba, dantza edo gimnastika erritmikoa gehien praktikatzen dituztenak, baita borroka-arteak eta atletismoa ere. Adinean gora egin ahala, hein handiagoan praktikatzen dira bakarrik egin daitezkeen jarduerak, hala nola bizikleta, igeriketa, mendira joatea edo ibiltzea.

6.6. JARDUERA ARTISTIKO EDO KULTURALAK

Lehen aipatu ditugun aisia- edo kirol-jarduez gainera, gazteen erdiak baino gehiagok (% 55) jarduera artistiko edo kulturalen bat egin dute zaletu gisa (*amateur*), inkesta egin aurretiko hamabi hilabeteetan.

Arteari edo kulturari loturiko zenbait jarduera jasotzen dituen zerrenda bat proposatu diegu gazteei eta, hori oinarri hartuta, ikus dezakegu gazteek gehien egiten duten jarduera artistiko edo kulturala argazkilaritza dela (% 28k aipatu dute argazkilaritza praktikatzen dutela, zaletu gisa). Gero eta kalitate hobeko argazki-kamerak dituzten telefono mugikorrek orokortu direnez, eta sare sozialek irudiak erakustea ahalbidetzen dutenez (kasu batzuetan, irudietan oinarritzen dira nagusiki, Instagramen kasuan, adibidez), argazkilaritza asko zabaldu da gazteen artean. Argazkilaritzan jarduten duten gazteen proportzioak gora egin du, 2008an % 12 izatetik, 2012an % 19 izatera eta 2016an, berriz, % 28 izatera.

Gazteek gehien praktikatzen dituzten hurrengo jarduerak hauek dira: idaztea (% 21); margotzea edo marraztea (% 18); bideoak egitea (% 15); musika-tresnaren bat jotzea (% 15); eta dantza edo baleta egitea (12 %). Kasu bakoitzean, % 10 baino gutxiago dira inkestatu aurreko urtebetean bestelako jarduera artistiko hauetakoren bat egin dutenak: bideo eta argazkilaritza bestelako ikus-entzunezko jarduerak, hala nola, diseinu grafikoa, webguneak, programazioa, bideo-jokoak edo antzekoak (% 8); koro edo musika-talde batean abestea (% 6); bestelako arte plastikoak, hala nola zeramika, eskultura edo antzekoak (% 6); antzerkia (% 5); eta bertsolaritza (% 2).

Aipatutako jarduera guztiek egin dute gora eta, beraz, azken urtean jarduera artistiko edo kulturalen bat egin dutela adierazi duten gazteen bolumena 2008an % 40 izatetik, 2012an % 43 izatera eta 2016an % 55 izatera pasa da.

6.14 taula

GAZTEEK JARDUERA ARTISTIKO EDO KULTURALAK EGITEAREN EBOLUZIOA (%)

Azken 12 hilabeteetan egin duzu ondoko jarduera artistiko edo kulturalik? ("Amateur" mailako jarduera, hau da, ez profesionala)*			
(%)	2008**	2012	2016
Argazkilaritza	12	19	28
Idaztea	10	16	21
Margotzea edo marraztea	10	13	18
Bideoak egitea	4	8	15
Musika-tresna bat jotzea	11	10	15
Dantza eta baleta	7	9	12
Beste ikus-entzunezkoak (diseinu grafikoak, web orriak edo antzekoak...)	2	6	8
Abesbatza edo musika talde batean abestea	3	4	6
Beste arte plastikoak (zeramika, eskultura...)	3	4	6
Antzerkia	2	2	5
Bertsolaritza	1	1	2
JARDUERA ARTISTIKO EDO KULTURALEN BAT EGITEA	40	43	55
<i>(n)</i>	<i>887</i>	<i>1500</i>	<i>1500</i>

* Jarduera bakoitzari buruz banan-banan galdetu da. Ehunekoak baiezeko erantzunen islada dira.

** Kulturaren Euskal Behatokiak emandako datuak, Kultura Ohiturak, Praktikak eta Kontsumoari buruzko inkesta Euskal Herrian 2007-2008 inkestaren estatistikak oinarri hartuta.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

Jarduera kultural edo artistiko horietan ere aldeak hautematen dira sexuaren eta adinaren arabera. Oro har, emakume gazteek gizonen baino hein handiagoan egiten dituzte honelako jarduerak, eta diferentzia nagusiak (emakumeen alde) dantza edo baletarekin, pintura edo marrazketarekin eta argazkilaritzarekin erlazionatuta daude. Gizon gazteek bideoak egiteari edo bestelako ikus-entzunezko jarduerari eta musika-tresnak jotzeari dagokienez soilik dituzte emakumeek baino proportzio arinki handiagoak.

20 urtetik beherakoak dira jarduera kultural eta artistiko gehien egiten dutenak. Halako jarduerak hein txikiagoan egiten dira adinak gora egiten duen heinean. Idaztea da adinarekin gehien behera egiten duen jarduera. Edozelan ere, nabarmentzekoa da diferentziak ez direla oso handiak jarduerak banan-banan aztertzen baditugu. Beraz, pentsa liteke gazteenek jarduera mota desberdinak egiten dituztela eta, adinean gora egin ahala, murriztu egiten dela egiten diren jardueren kopurua.

6.15 taula

GAZTEEK JARDUERA ARTISTIKO EDO KULTURALAK EGITEA,
SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

Azken 12 hilabeteetan egin duzue ondoko jarduerak artistiko edo kulturalik? ("Amateur" mailako jarduerak, hau da, ez profesionalak)*						
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Argazkilaritza	28	32	25	28	29	28
Idaztea	21	24	19	26	21	18
Margotzea edo marraztea	18	23	13	21	17	16
Bideoak egitea	15	14	16	14	14	15
Musika-tresna bat jotzea	15	13	17	15	16	13
Dantza eta baleta	12	18	6	13	12	10
Beste ikus-entzunezkoak (diseinu grafikoa, web orriak edo antzekoak...)	8	6	9	6	9	8
Abesbatza edo musika talde batean abestea	6	6	6	6	7	5
Beste arte plastikoak (zeramika, eskultura...)	6	9	4	4	7	6
Antzerkia	5	6	4	7	4	4
Bertsolaritza	2	2	2	3	2	1
JARDUERA ARTISTIKO EDO KULTURALEN BAT EGITEA	55	59	51	59	56	51
<i>(n)</i>	<i>1500</i>	<i>750</i>	<i>750</i>	<i>450</i>	<i>450</i>	<i>600</i>


* Se ha preguntado por cada una de las actividades de una o una. Los porcentajes corresponden a las respuestas afirmativas a cada una de ellas.

Azkenik, datu horiek 15 urteko eta gehiagoko EAEko biztanleen datu orokorrekin konparatzen baditugu³⁵, ikusten dugu gazteek hein handiagoan egin dituztela proposatutako jarduerak mota guztiak EAEko biztanleriaren batezbestekoak baino (arte plastikoaren kasuan salbu). Alde handiena idazteari dagokio, izan ere, biztanleria orokorrean, inkesta egin aurreko urtean (2014-2015) idatzi dutenen batezbestekoa % 7,6 da.

³⁵ Espainiako Gobernuaren Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (2015): *Espanian kultur ohitura eta praktikei buruzko inkesta 2014-2015* [linean] Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): <https://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/estadisticas/cultura/mc/ehc/2014-2015/presentacion.html> [Kontsulta: 2017/06/21].

6.5 grafikoa

JARDUERA ARTISTIKO ETA KULTURALAK EGITEN DITUZTEN GAZTEEN
ETA 15 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIAREN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



* Espainiako Gobernuaren Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren inkesta horretan koro batean abesten ote zuten galdetu zitzaizkien, musika-taldeak alde batera utzita, eta ez zen bertsolaritzari buruz galdetu.

15 urteko eta gehiagoko biztanleriari buruzko datu-iturria: Espainiako Gobernuaren Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (*Espanian kultur ohitura eta praktikei buruzko inkesta 2014-2015*).

6.7. KULTURA- EDO KIROL-IKUSKIZUNETARA JOATEA

Kultura-aisiaren beste modalitate bat kultura- edo kirol-ikuskitzinetara joatea da. Atal honetan sartu dira zinemara, antzokietara, museoetara, kontzertuetara eta kirol-ikuskitzinetara bertaratzea.

Jaso diren ikuskizun mota guztien artean, ohikoena zinema da. Gazteen % 66 zinemara joan dira inkesta egin aurreko hiru hilabeteetan (inkesta egin zen data kontuan hartuta, hiru hilabete horiek, gutxi gorabehera, 2015eko abenduari eta 2016ko urtarril eta otsailari dagozkio, hau da, Gabonak barne hartzen dira). Gainera, % 47 kirol-ikuskitzinen batera joan dira aldi berean, % 39 musika-kontzerturen batera; % 19 museoren batera; eta % 13, berriaz, antzerkia ikustera.

Zinemara joateak behera egin zuen 2008tik 2012ra bitarte, batez ere, filmak Internetetik deskargatzea eta online ikustea orokortu zelako eta, aldi berean, zinema-aretoetako sarreraren prezioak gora egin zuelako; dena den, badirudi hein handi batean suspertu dela jarduera hori. Badirudi zinema-festa deritzenek, sarrera merkeekin, eta ikusle-egun gehiago egoteak lagundu egin dutela suspertze horretan.

Musika-kontzertuetako bertaratzea handiagoa izan da 2008an erregistratutakoa baino, baina 2012koa baino txikiagoa. Zehaztu behar da horrelako ekitaldietara joan ahal izateko, batetik, gazteek dirua izan behar dutela (sarrerak erosteko, desplazamenduetarako...) eta, bestetik, uneko eskaintzak erakargarria izan behar duela gazteentzako. Gainera, galdetu dugun aldian ez da EAeko musika-jaialdi handietako bat bera ere egiten (BBK Live, Azkena rock, BIME, jazz edo folk jaialdiak, musika klasikoko jaialdiak eta abar).

Museoetara joatea ere aurreko urteetako zifra beretan mantendu da. Antzokietara joateari dagokionez, errepikatu egiten da 2012ko zifra (2008koa baino pixka bat handiagoa).

Azkenik, kirol-ikuskizunetara joatea ez zen jasotzen inkestan orain arte, beraz, ez dugu horren eboluzioari buruzko daturik.

6.16 taula

GAZTEAK IKUSKIZUN KULTURALETARA EDO KIROL-IKUSKIZUNETARA JOATEAREN EBOLUZIOA (%)

Eta gutxienez azken hiru hilabeteetan behin joan al zara...?*			
(%)	2008**	2012	2016
Zinemara	72	53	66
Kirol-ikuskizunen batera	–	–	47
Musika-kontzerturen batera	30	42	39
Museoren batera	18	20	19
Antzokiren batera	9	13	13
(n)	887	1500	1500

* Banan-banan galdetu da ikuskizun bakoitzari buruz. Portzentajeek bakoitzari emandako baiezeko erantzunak islatzen dituzte.

** Kulturaren Euskal Behatokiak emandako datuak, «Kultura Ohiturak, Praktikak eta Kontsumoari buruzko inkesta EAEn 2007-2008» inkestaren estatistikak oinarri hartuta.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).


EAeko biztanleria orokorrarekin konparatuta,³⁶ kontuan hartu behar da, denbora-erreferentzia inkesta egin aurreko hiru hilabeteak izan arren, ez direla hilabete berdinak; izan ere, biztanleria orokorraren inkesta 2014ko martxotik 2015eko otsailera bitarteko uneren batean egin zen, orduan egin baitziren Espainia osorako inkestak.

³⁶ Espainiako Gobernuaren Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (2015): *Espanian kultur ohitura eta praktikei buruzko inkesta 2014-2015* (ob. cit)

Edozelan ere, konparazio horretatik ondoriozta daiteke biztanleriaren batezbestekotik nabarmen gaindi joaten direla gazteak zinemara eta kontzertuetara. Antzerkia ikustera joatea pixka bat ohikoagoa da gazteen kasuan ere, eta museoetara joateak ehuneko berdinak agertzen ditu biztanleria-talde batean eta bestean. Kirol-ikuskizunetara joatearen konparaziorik ezin da eskaini, Kirol Ohituren Inkestak azken urteko datuak neurtzen dituelako, eta ez azken hiruhilekokoak.

6.6 grafikoa

IKUSKIZUN KULTURAL EDO KIROL-IKUSKIZUNETARA JOATEN DIREN GAZTEEN
ETA 15 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIAREN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



* Espainiako Gobernuaren Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren inkesta horretan ez zen galdetu kirol-ikuskizunetara joateari buruz.

15 urteko eta gehiagoko biztanleriari buruzko datu-iturria: Espainiako Gobernuaren Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (*Espanian kultur ohitura eta praktikei buruzko inkesta 2014-2015*).

Gazte-kolektiboen arteko aldeei erreparatzen badiegu, ikus daiteke gizonak emakumeak baino gehiago joaten direla kirol-ikuskizunetara eta musika-kontzertuetara. Emakumeak zertxobait gehiago joaten dira museoetara eta antzokietara, baina aldeak ez dira esanguratsuak.

25 urtetik beherako pertsonak dira zinemara, kirol-ikuskizunetara eta musika-kontzertuetara gehien joaten direnak; bestalde, adin horretatik aurrera, gehiago joaten dira antzokietara. 20 urtetik 24 urtera bitarteko pertsonak dira museoetara gehien joaten direnak, baina ez dago alde handirik arlo horretan.

Beren burua klase altu edo ertain-altukotzat duten gazteak dira proposatutako ikuskizun guztietara gehien joaten direnak. Seme-alabak dituzten gazteak dira gutxien joaten direnak.

6.17 taula

GAZTEAK IKUSKIZUN KULTURALETARA EDO KIROL-IKUSKIZUNETARA JOATEA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN, KLASE SOZIAL SUBJEKTIBOAREN ETA SEME-ALABARIK DUTEN ARABERA (%)

Eta gutxienez azken hiru hilabeteetan behin joan al zara...?*											
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Klase sozial subjektiboa			Seme-alabak	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Altua edo ertain-altua	Ertaina	Baxua edo ertain-baxua	Bai	Ez
Zinemara	66	65	67	69	69	61	79	65	62	42	68
Kirol-ikuskitzen batera	47	35	58	51	48	43	63	47	39	19	49
Musika-kontzerturen batera	39	34	43	41	42	34	56	34	44	10	41
Museoren batera	19	20	18	16	21	19	27	18	18	7	20
Antzokiren batera	13	15	12	12	11	17	18	13	14	3	15
(n)	1500	750	750	450	450	600	166	963	347	146	1354

* Banan-banan galdetu da ikuskizun bakoitzari buruz. Portzentajeek bakoitzari emandako baiezeko erantzunak islatzen dituzte.

6.8. IRAKURTZEA

Irakurtzen duten gazteen ehunekoa neurtzeko, kontuan hartu da inkesta egin aurreko hilabeteen libururen bat irakurri ote duten aisia-arrazoiengatik (hau da, ez lanarengatik edo ikasketengatik). Ez dira prentsa edo blogak kontuan hartzen eta irakurketa hori borondatezkoa izatea (eta ez inposatua) bilatzen da, hurbileko denbora-tarte batean. Euskarriak (elektronikoa edo papera) ez du axola neurketa honetan.


Gazteen % 54k diote libururen bat irakurri dutela azken hilabeteetan, aisialdi-jarduera gisa. Ehuneko hori bat dator 2012an erregistratutakoarekin (% 54) eta 2008koa baino handiagoa da (% 45). 2012an agerian geratu zen bezala, urte haietan gazte-literaturako zenbait bildumak izandako arrakasta komertzialak azal lezake, zati batean, irakurtzen zuten gazteen ehunekoak gora gitea, batez ere 20 urtetik beherakoen eta nesken artean.

Irakurle gazteen ehunekoa EAEko 15 urteko eta gehiagoko biztanleriaren batezbestekoaren gainetik dago (batezbesteko hori % 41,9 zen 2014-2015 aldian, Espainiako Gobernuaren Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren datuen arabera). Hain zuzen ere, azken urteotako eboluzioari begiratzen badiogu, ikus daiteke irakurtzeko ohitura handiagoa dutela gazteek biztanleria orokorrak baino, aztertutako aldi desberdinetan, nahiz eta datu globalek ere gora egin duten³⁷.

³⁷ Espainiako Gobernuaren Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa: *Espanian kultur ohitura eta praktikei buruzko inkesta* azterlaneko estatistikak [linean]. Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): <https://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/eu/estadisticas/cultura/mc/ehc/portada.html> [Kontsulta: 2017/06/22]

6.7 grafikoa

AISIA-ARRAZOIENGATIK IRAKURTZEN DUTEN GAZTEEN ETA 15 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIAREN EBOLUZIOA ETA HAIEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



Gazteei buruzko datu-iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea) eta 15 urteko eta gehiagoko biztanleriari buruzko datu-iturria: Espainiako Gobernuaren Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (*Espanian kultur ohitura eta praktikei buruzko inkesta 2006-2007, 2010-2011 eta 2014-2015*)

Gehien irakurtzen dutenak 20 urtetik beherako pertsonak dira (15-19 urtekoen % 58k) eta irakurketa-ehunekoak pixkanaka jaisten dira adinean gora egin ahala. Ikasleen kolektiboak gehiago irakurtzen du (% 59), lanean ari direnenak edo langabezian daudenak baino. Ikasketa-mailak ere eragina du eta ikusten da unibertsitate-titulazioa duten pertsonak direla gehien irakurtzen dutenak (% 68). Gainera, emakume gazteek gizon gazteek baino gehiago irakurtzen dute aisia-arrazoiengatik (% 60 eta % 49, hurrenez hurren).

Bestalde, nahiz eta xedea ez den beti irakurtzea edo liburuak maileguan hartzea, azken hilabeteen liburutegi edo mediateketara hurbildu direnen proportzioa ere neurtu da. Hilabete hori 2016ko urtarril edo otsailari dagokio inkesta honetan, alegia, unibertsitate-azterketen garaian, eta horrek beti eragiten du liburutegietara hein handiagoan joatea ikastera. Aurreko hilabeteen liburutegira joan direla adierazi duten gazteen proportzioa % 39 da.

Azken hilabeteen liburutegi edo mediatekaren batera joan izana adierazi duten gazteen ehuneko hori 2012an erregistratutakoaren berdina da (% 39) eta 2008koa baino pixka bat handiagoa (% 33).

Liburutegi edo mediateketara gehien joaten diren gazteak ikasleak dira (% 53 joan dira inkesta egin aurreko hilabeteen). Adinean gora egin ahala, jaitsi egiten da ikasleen ehuneko eta baita liburutegira joaten direnen proportzioa ere. Hain zuzen ere, Batxilergoa bukatu dutenak baina oraindik goi-mailako titulaziorik ez dutenak dira gehien joan direnak (% 55); pentsa liteke horietako gehienak ikasleak direla. Neskak mutilak baino gehiago joaten dira.

6.18 taula

GAZTEEK AISIAGATIK IRAKURTZEA ETA LIBURUTEGI EDO MEDIATEKETARA JOATEA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)

Azken hilean irakurri al duzu libururik, edozein hizkuntzatan, denbora pasatzeko, hau da, ez ikasketarako edo lanerako behar zenuelako? Eta joan al zara liburutegi edo mediatekaren batera azken hilean?									
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Okupazio nagusia		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Ikasten	Lanean	Langabezian
Aisia-arrazoiengatik irakurtzea	54	60	49	58	54	52	59	52	42
Liburutegi edo mediateketara joatea	39	42	36	48	44	27	53	22	20
(n)	1500	750	750	450	450	600	800	489	173

* Irakurtzeari eta liburutegi edo mediateketara joateari buruz galdera ezberdinetan galdetu da. Portzentajeek galdera bakoitzari emandako baiezko erantzunak islatzen dituzte.

Liburutegi edo mediateketara joaten direnen proportzioak altuagoak dira aurreko hilabeteen aisia-arrazoiengatik liburu bat irakurri izana adierazi dutenen artean (% 49), irakurri ez dutenen artean baino (% 27).

6.9. EUSKARA

1. kapituluaren euskararen ezagutza-maila aztertu dugu. Analisi horretan, aipatzen genuen gazteen % 69k euskara ondo edo nahiko ondo dakitela aipatzen dutela, nahiz eta alde nabarmenak dauden lurraldeen artean: Araban gazteen % 51k ondo edo nahiko ondo hitz egiten dute euskaraz; Bizkaian % 68k; eta Gipuzkoan, berriz, % 79k (ikus 1.13 grafikoa).

Ez dago ia alderik sexuaren arabera, baina bai, ordea, adin-taldearen arabera. Adinean behera egin ahala, gehiagok diote ondo edo nahiko ondo dakitela euskaraz hitz egiten; hala, 25 urtetik 29 urtera bitartekoen taldean % 59 izatetik % 69 izatera pasa dira 20 urtetik 24 urtera bitartekoen taldean eta % 81era, berriz, 15 urtetik 19 urtera bitartekoen taldean.

Aurreko urteetako datuekin konparatuz gero, ikusten da gazteek euskara hitz egiteko duten ezagutzak edo gaitasunak gora egin duela. Euskara ondo edo nahiko ondo dakitenen ehunekoa % 48 zen 2000. urtean, % 56ra igo zen 2004an eta 2008an; % 62ra igo zen 2012an; eta % 69ra, berriz, 2016an.

Atal honetan, euskararen erabileran sakonduko dugu, bai ahoz (etxean eta lagunekin) eta bai irakurketari dagokionez.

Datu globalei begiratzen badiegu, hau da, gazteen guztizkoari, nabarmentzekoa da gazteen % 15ek etxean dena edo ia dena hitz egiten dutela euskaraz, edo euskaraz hitz egiten dutela gaztelaniaz baino gehiago. % 8k diote bi hizkuntzak berdin hitz egiten dituztela; beraz, gazteen ia laurdenak (% 23) euskara gaztelania bezain beste edo gehiago erabiltzen dute etxean. Ehuneko hori EAEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleen batezbestekoaren (% 19) gainetik dago, VI. Inkesta Soziolinguistikoko datuak kontuan hartuta³⁸.


³⁸ Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa - Office Public de la Langue Basque (2016): VI. Inkesta Soziolinguistikoa (Euskal Autonomia Erkidegoa) [linean] Hemen eskuragarri: https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLG-EH_eus.pdf?1499236557 [Kontsulta: 2017/06/23]

Euskara etxean erabili ahal izateko, beharrezkoa da etxean bizi diren gainerako kideek ere euskara-maila jakin bat izatea. Lagunekin erabiltzeari dagokionez, abiapuntua, teorian, aldekoagoa da, kontuan hartzen badugu gazte gehienek euskara ondo edo nahiko ondo dakitela adierazi dutela. Dena den, praktikan, etxeko erabilerarekiko hazkundea txikia da. Berrito ere, ikusten dugu % 15ek lagunekin dena edo ia dena euskaraz hitz egiten dutela, edo euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dutela; eta % 11k, berriz, bi hizkuntzak berdinean erabiltzen dituzte. Guztira, % 26k adierazi dute euskara gaztelania bezainbeste, edo gaztelania baino gehiago, erabiltzen dutela lagunetik harremanetan.

Lagunekin euskaraz hitz egiten dutenen ehunekoa pixka bat altuagoa da gazteen artean (% 26), 16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren guztizkoan baino (% 21,4)³⁹. Bai gazteen artean eta bai biztanleria orokorrean, joera berdina hauteman da: lagunekin zertxobait gehiago erabiltzen da euskara, etxean baino.

6.8 grafikoa

ETXEAN ETA LAGUNEKIN EUSKARA, GAZTELERA BESTE EDO GEHIAGO, ERABILTZEN DUTEN GAZTEEN ETA 16 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIAREN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



16 urteko eta gehiagoko biztanleriari buruzko datu-iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa.

Euskararen erabilerak, bai etxean eta bai lagunekin, arinki egiten du gora adinean behera egin ahala, eta askoz ere ohikoagoa da Gipuzkoan Bizkaian baino, eta azken horretan ohikoagoa da Araban baino. Hori logikoa da, kontuan hartzen badugu gazteen artean eta Gipuzkoan euskara-ezagutza handiagoa dela, gazteei buruzko datuei begiratuta, baina nabarmentzekoa da erabilera-diferentziak handiagoak direla ezagutza-diferentziak baino. Kolektibo batzuek eta besteek ezagutza handiagoa edo txikiagoa izatearen efektua neutralizatzeko, jarraian kolektibo euskaldunaren euskara-erabilera aztertuko dugu soilik, alegia, euskara ondo edo nahiko ondo dakiten gazteena.

Gazte euskaldunen % 33k diote etxean soilik euskaraz hitz egiten dutela, euskaraz gaztelania baino gehiago hitz egiten dutela edo euskara gaztelania bezainbeste erabiltzen dutela; eta % 38k gauza bera adierazi dute lagunekin hitz egiteari dagokionez.

³⁹ *Ibidem*.

6.19 taula

GAZTEEK ETXEAN ETA LAGUNEKIN EUSKARAZ HITZ EGITEA.
GAZTEEN GUZTIZKOAREKIKO ETA GAZTE EUSKALDUNEKIKO EHUNEKOAK (%)

(%)	Etxean		Lagunekin	
	Gazteak guztira	Gazte euskaldunak*	Gazteak guztira	Gazte euskaldunak*
Guztia edo ia guztia euskaraz	13	18	12	17
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	2	3	3	5
Bi hizkuntzetan berdin	8	12	11	16
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	7	9	11	16
Guztia edo ia guztia gaztelaniaz	38	55	31	44
Gehienbat beste hizkuntza batean	1	2	1	1
Ed/Ee	0	1	0	1
Ez dakite euskaraz ondo hitz egiten	31	0	31	0
GUZTIRA	100	100	100	100
EUSKARAZ DENA, GEHIAGO EDO BEZAINBESTE	23	33	26	38
(n)	1500	1005	1500	1005


* Gazte euskaldunak euskaraz oso ondo edo nahikoa ondo hitz egiten dakitenak dira.

Arinki behera egin du euskararen erabilerak etxean; aurreko urteetan, gazte euskaldunen (euskara ondo edo nahiko ondo hitz egiten zutenak) % 37k adierazi zuten etxean soilik euskaraz hitz egiten zutela, euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen zutela edo euskara gaztelania bezainbeste erabiltzen zutela. 2016an, proportzio hori % 33ra jaitsi da.

Lagunen arteko erabileraren kasuan, beherakada handiagoa izan da eta, euskara ezagututa, hizkuntza nagusitzat edo gaztelania bezainbeste erabiltzen dutenen proportzioa 2004an % 49 izatetik 2016an % 38 izatera pasa da.

6.9 grafikoa

GAZTE EUSKALDUNEK ETXEAN ETA LAGUNEKIN EUSKARAZ HITZ EGITEAREN EBOLUZIOA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko Gazteak seriea).

Euskararen erabilera izandako beherakada handiena, bai etxean eta bai lagunartean, Bizkaian gertatu da. Hamabi urtean, lurralde horretan % 30etik % 25era jaitsi da etxean euskaraz (gaztelaniaz bezainbeste edo gehiago) hitz egiten duten gazte euskaldunen ehunekoak. Baina beherakada handiena lagunekiko erabilera gertatu da. Bizkaian lagunekin soilik euskaraz, euskaraz gaztelaniaz baino gehiago edo gaztelaniaz bezainbeste hitz egiten duten gazte euskaldunen ehunekoak etengabe egin du behera, 2004an % 45 izatetik 2016an % 27 izateraino.

2016ko datuei begiratzen badiegu, eta betiere gazte euskaldunei dagokienez, ikusten dugu etxeko erabilera antzekoa dela hiru adin-taldeetan, baina lagunekiko erabilera kasuan, txikiagoa dela kolektibo gazteenean eta gora egiten duela adinean ere gora egin ahala.

Baina diferentzia nabarmenenak bizi diren lurraldeak zehazten ditu. Bai etxean eta bai lagunekin, Gipuzkoan bizi diren gazte euskaldunek gehiago hitz egiten dute euskaraz Bizkaian eta Araban bizi direnek baino. Hain zuzen ere, Gipuzkoako ehunekoak bikoiztu egiten dituzte Bizkaikoak eta horiek, halaber, Araban erregistratutakoak baino askoz altuagoak dira.

6.20 taula

GAZTE EUSKALDUNEK ETXEAN EUSKARA ERABILTZEAREN EBOLUZIOA,
ADIN-TALDEAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

2004	2008	2012	2016	Etxean						
				GUZTIRA	Adin-taldeak			Lurralde historikoa		
					15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
37	37	37	33	35	36	42	12	30	50	
37	36	34	32	36	33	41	8	29	50	
37	34	35	34	34	35	42	17	27	56	
33	32	34	34	34	34	34	19	25	49	

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

6.21 taula

GAZTE EUSKALDUNEK LAGUNEKIN EUSKARA ERABILTZEAREN EBOLUZIOA,
ADIN-TALDEAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

2004	2008	2012	2016	Lagunekin						
				GUZTIRA	Adin-taldeak			Lurralde historikoa		
					15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
49	45	42	38	43	44	44	20	45	59	
43	44	39	34	53	44	49	18	34	63	
53	39	39	38	48	39	47	27	31	60	
48	43	38	43	48	38	43	21	27	58	

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

Euskal sentimenduak ere eragiten du euskararen erabileran. Beren burua soilik euskalduntzat edo espainiar baino euskaldunagotzat duten gazte euskaldunen artean, etxeko euskara-erabileraren ehuneko % 45era igotzen da, eta % 50era lagunetik erabileraren kasuan. Hau da, euskal sentimenduak eragin handia du euskara erabiltzean.


Euskararen erabilera neurtzeko beste modu bat euskaraz zenbat irakurtzen den aztertzea da. Horretarako, gazteei galdetu zaie ea libururik irakurri duten euskaraz, arrazoia edozein dela ere (aisia, ikasketak, lana...) azken hiru hilabeteetan.

Gazte guztien % 31k adierazi dute azken hiru hilabeteetan libururen bat irakurri dutela euskaraz. Gazte euskaldunen kasuan (euskaraz ondo edo nahiko ondo dakite), proportzio horrek % 42ra egiten du gora, eta zifra hori aurreko urteetan erregistratutakoaren antzekoa da: % 43, 2008an; eta % 43, 2012an.

Euskaldunen kolektiboan zentratzen bagara, ikusten da euskarazko irakurketa-ehuneko handienak adin-talde gazteenean (% 60) eta ikasleen artean (% 50) daudela, batez ere soilik derrigorrezko ikasketak bukatuta dituztenen kasuan (% 58); horietako gehienak, elkarrizketatu zituzten unean, Batxilergoa ikasten ari ziren. Hortaz, pentsa liteke ikasketengatik irakurtzen dela, aisiagatik baino.

6.10 grafikoa

GAZTE EUSKALDUNEK EUSKARAZ IRAKURTZEAREN EBOLUZIOA, ADIN-TALDEAREN, OKUPAZIO NAGUSIAREN ETA AMAITUTAKO IKASKETA MOTAREN ARABERA (%)



Gazte euskaldunen euskarazko irakurketaren analisia lurraldeka egiten bada, agerian geratzen da, ahozko erabileraren kasuan ez bezala, euskarazko irakurketa ez dagoela hain zabalduta Gipuzkoan (% 38), Bizkaiaren (% 44) edo Arabaren (% 45) aldean.

Euskal sentimenduak diferentzia gutxi eragiten ditu kasu honetan. Beren burua soilik euskalduntzat edo espainiar baino euskaldunagotzat dutenen artean, euskaraz irakurtzen dutenen proportzioa % 45 baino ez da. Euskaraz irakurtzea okupazioak eta adinak zehazten du, nagusiki.

Azkenik, aipatzekoa da euskararen ahozko erabilerak euskarazko irakurketarekin erlazioa duela: etxean soilik euskaraz, euskaraz gaztelaniaz baino gehiago edo bi hizkuntzetan hein berean hitz egiten duten gazte euskaldunen % 51k euskarazko libururen bat irakurri dute azken hiru hilabeteetan; eta etxean beste hizkuntza bat erabili ohi duten euskaldunen artean, aldiz, % 37k. Lagunekin modu lehenetsian edo gaztelania bezainbeste euskara erabiltzen duten gazte euskaldunen kasuan, % 50ek irakurtzen dute euskaraz, eta lagunekin nagusiki gaztelaniaz erlazionatzen diren euskaldunen kasuan, proportzio hori % 37 da.

6.10. ONDORIOAK

Gazte gehienek egunean bi ordu libre baino gehiago dituzte. Egunean lau ordu libre baino gehiago dituzten gazteen proportzioak nabarmen egin du behera 2012arekiko, ziurrenik, langabezia-tasak behera egin duelako; halere, guztizkoaren heren batek baino gehiagok ditu lau ordu baino gehiago libre.

Gazte gehienek, denbora librean, musika entzuten dute, kalean egoten dira eta filmak, serieak edo telebista-programak ikusten dituzte. Ez da alde nabarmenik hautematen sexuaren edo adinaren arabera jardura horietan. Gainera, gazteen ia erdia egunero konektatzen da Youtubera, bideoak ikusteko, eta laurden batek kirola egiten du egunero. Gizon gazteek emakume gazteek baino denbora gehiago ematen dute bi jardura horietan: bideoak ikusten eta kirola egiten.

Kirola arrunki egiteak (gutxienez astean hirutan) gora egin du 2012arekiko, bai gizonen artean eta bai emakumeen artean, eta hiru adin-taldeetan. 2016an, gazteen erdiak adierazi dute kirola egiten dutela arrunki, hau da, 15 urteko eta gehiagoko EAEko biztanleen batezbestekoak baino gehiagok. Gizon gazteek batez ere futbola edo areto-futbola praktikatzeko dituzte, halaber, korrika egiten dute edo gimnasia joaten dira (mantentze-gimnasia, muskulazioa eta abar egitera). Emakume gazteek gimnasio-jarduerak eta korrika egitea nahiago izaten dituzte, baina baita aerobika, zumba edo antzekoak eta ibiltzea ere.

Bost gaztetik bat lonja edo gazte-lokal bateko kide da gaur egun. Lonja izatea ohikoagoa dira mutilen artean, 25 urtetik beherako pertsonen artean eta Bizkaian bizi direnen artean. Kide gehienak gutxienez astean behin joaten dira lonjara.

Jardura kulturaletan parte hartzeari dagokionez, adieraz daiteke gazteen erdiak baino gehiagok egin dutela jardura artistiko edo kulturalen bat azken urtean, zaletu gisa. Ehuneko horrek gora egin du aurreko urteekiko, eta 15 urteko eta gehiagoko EAEko biztanleen batezbestekotik gora dago. Proposatutako jardura moten artean, ohikoenak argazkilaritza eta idazketa dira.

Ikuskizun kulturaletara eta kirol-ikuskizunetara joateari dagokionez (ikusle gisa, partaidetza aktiborik gabe), ikus daiteke gazteak biztanleria orokorra baino hein handiagoan joaten direla zinemara eta kontzertuetara. Zinemak susperraldia izan du 2012arekiko, eta gazteen bi herenek adierazi dute azken hiru hilabeteetan zinemara joan direla. Bestalde, azken hiru hilabeteetan, gazteen ia erdia joan da kirol-ekitaldiren batera eta hamarretik lau, berriz, kontzertu batera.

Bestetik, erdiak baino pixka bat gehiagok adierazi dute libururen bat irakurri dutela azken hilabeteetan, aisia-arrazoiengatik. Irakurle gazteen ehuneko altuagoa da biztanleria orokorraren batezbestekoa baino eta, gainera, gora egin du 2008tik. Irakurketa ohikoagoa da emakumeen artean, gizonen artean baino.

Euskarazko irakurketa, edozein arrazoi dela eta (aisia, ikasketak, lana...), ez da hain ohikoa. Gazte euskaldunen (hau da, euskaraz irakurtzeko gaitasuna duten gazteen) erdiak baino gutxiagok irakurri dute libururen bat euskaraz azken hiruhilekoan, alegia, gazteen guztizkoaren heren batek, gutxi gorabehera.

Oro har, euskara-ezagutzak gora egin arren, euskararen erabilera ez da nagusitzen gazte euskaldunen artean: erdiak baino gutxiagok erabiltzen dute modu lehenetsian edo gaztelania bezainbeste, lagunekin daudenean, eta are gutxiago, etxean, horretarako, etxeko gainerako kideek ere euskaraz hitz egiteko gai izan behar baitute. Gainera, euskararen erabilerak, bai etxean eta bai lagunartean, behera egin du azken urteetan, batez ere Bizkaian. Gipuzkoa da, alde handiarekin, euskaraz hitz egiten duten gazte gehien dagoen lurraldea.

7

Emakume eta gizonen arteko desberdintasunak

7.1. SARRERA

Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundearen emakume eta gizonen arteko berdintasunerako planetako gomendioetan eta Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako 4/2005 Legearen⁴⁰ II. kapituluaren –Estatistikak eta Azterketak– honako hau zehazten da (Lege horren 16. artikuluan estatistikak eta azterketak egokitzea aipatzen da):

- a) Egiten dituzten estatistika, inkesta eta datu-bilketa guztietan sexu-aldagaia sistematikoki sartzeari.
- b) Estatistikako eragiketetan adierazle berriak ezarri eta sartzeari, hain zuzen ere emakumeen eta gizonen balio, rol, egoera, baldintza, jomuga eta beharretan dauden aldeak, horien guztien adierazpena eta aztertuko den errealitatearekin duten elkarreragina hobeto ezagutzea posible egiteko.

Gazteen Euskal Behatokiak, aurrekoari jarraikiz, sexu-aldagaia jaso zuen *Euskadiko Gazteak* seriearen 2000., 2004., 2008. eta 2012. urteetako edizioetan. Gainera, honen aurreko edizioan, *Euskadiko Gazteak 2012* ikerlanean, lehen aldiz jaso zen berariaz emakume eta gizonen arteko berdintasunari eta emakumeen aurkako indarkeriari loturiko gaiak aztertzeko atal bat, «Desberdintasuna eta sexismoa» izenburuarekin.

Ikerketa honetan, Gazteriaren Euskal Behatokiak EAEn bizi diren gazteen genero-desberdintasunetan eta emakumeen aurkako indarkeriaren oinarrian dagoen sexismoan sakontzen jarraitzen du. Hori dela eta, kapitulu honetan, galderen bidez, EAeko emakume eta gizon gazteen artean balio-aldaketarik, berdintasunezko erlazioen alde, gertatzen ari ote den ebaluatzen saiatzen da.

2016an, 15 urtetik 29 urtera bitarteko 1.046 emakumek salatu zuten indarkeriarekin erlazionatutako jazoeraren bat. Kontuan hartzen badugu adin-talde horretan 139.037 emakume zeudela, horien % 0,75 genero-indarkeriaren biktima izan zen. 15-29 urteko emakume gazteek jasandako eraso guztizkotik, kasuen % 22 sexu-askatasunaren aurkako delituak ziren.

Kapitulu honetan emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoarekin (indarkeria fisikoa ez den heinean) erlazionatutako balioen eboluzioa neurtu nahi dugu. Indarkeria sinboliko horrek forma ugari izan ditzake, hala nola bereizkeria lana

⁴⁰ EUSKADI (2005): *4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa* [linean] Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2005/03/0500982a.pdf> [Kontsulta: 2017/06/14]

lortzeko orduan, etxeko lanen eta haur nahiz senideen zaintzaren banaketa bidegabea, denboraren eta espazio publikoen erabilera eta abar.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunari loturiko balioen eboluzioa neurtzea da sentsibilizazio-kanpainen eraginkortasuna ebaluatzeko modu bakarra. Indarkeriaren kontrako borroka efektiboa gizartearen balio-aldaketarekin estuki erlazionatuta dago. Hori horrela, eraldaketa hori funtsezkoa da indarkeria ezabatzeko eta behar bezala eta behin betiko konpontzeko.

7.2. BERDINTASUNIK EZA LANA LORTZEAN

Lana lortzean gertatzen diren desberdintasunak dira gure gizartean emakume eta gizonen arteko desberdintasuna errepikatzen eta finkatzen duten faktoreetako bat. Emakundek, Emakumearen Euskal Erakundeak, bata bestearen atzetik onartutako berdintasun planek eta gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak enpresen barruan berdintasuna sustatzeko neurriak bultzatzeko eta garatzeko bidea eman duten arren, gazteek desberdintasun-egoerak hautematen jarraitzen dute.

Bereizkeria handiagoa da, gizon gehiago dauden zenbait jarduera-esparrutan ordainsari osagarriak jasotzen dituztelako eta horiek areagotu egiten dituztelako oinarriko sektoreez bestelako soldata-desberdintasunak (adibidez, zuzendaritza-mailak erabat maskulinizatuta daude, eta horietan ohikoagoa da soldata-osagarriak jasotzea).

Posible da erabat sexualizatuta dauden sektoreak egotea eta, beharbada, sektore horietako batzuk, hala nola etxeko lanak, garbiketa (lan-baldintza txarrak dituztenak: soldata baxuak eta gizarte-errekonozimendu baxua), emakumeek okupatzen dituzte ia soilik. Baina EAeko emakumeen prestakuntzari eta ibilbide akademikoari begiratzen badiogu (goi-mailako ikasketen tasa % 40,7 da gizonen artean eta % 58,0, emakumeen artean), ikusten dugu lana lortzeko orduan gertatzen diren desberdintasunen kausa ez dela emakumeek prestakuntza txikiagoa izatea, baizik eta sexuak eragiten dituela desberdintasunak.

Bereizkeria modu inplizituan gertatzen den alderdiak –hala nola soldata-arraila, kontratu mota, okupazioaren iraupena eta mota– alde batera utzita, bereizkeria modu sotilagoan ere gertatzen da, lanpostua betetzeko aukera izateko orduan. Lana eskuratzeko aukeretan hautematen dira desberdintasunak gizonen eta emakumeen artean, baita gazteen artean ere.

Ikerketa honetan, eta 2008ko eta 2012ko edizioetan, EAeko gizon eta emakume gazteei galdetu zaie ea uste duten beren ikasketa eta prestakuntzara egokitutako lanpostu baterako hautaketa-prozesuan, hautagaien egokitasun-maila berdina izanik, gizona edo emakumea izatea lana lortzeko faktorea al den.

Gazteen % 61ek uste dute lana lortu nahi duen pertsonaren sexuak ez duela inolako eraginik. % 24k uste dute gizonek aukera gehiago dituztela eta soilik % 9k uste dute emakumeek lana lortzeko aukera gehiago dituztela. Azkenik, % 6k ez dakite edo ez dute erantzun.

Sexuarengatiko bereizketaren xede izateko sentipen hori handiagoa da emakumeen artean. Emakumeen % 28k uste dute gizonek aukera gehiago dituztela, eta gizonen % 21ek, berriz, uste dute gizonek aukera gehiago dituztela. Halaber, gizonen artean handiagoa da sexuak inolako eraginik ez duelako sentipena.

7.1 taula

LANA LORTZEAN SEXUAK DUEN ERAGINARI BURUZKO IRITZIA, SEXUAREN ARABERA (%)

Zure ikasketa eta prestakuntzari dagokion lan baterako hautaketa prozesu batean bazeunde, eta zure adin, prestakuntza eta esperientzia berbera dituen lehiakidea neska/mutila balitz, uste duzu lanpostua lortzeko berak aukera gehiago dituela neska/mutila delako, zuk aukera gehiago dituzula neska/mutila zarelako edo sexuak ez duela inolako eraginik?			
(%)	GUZTIRA	Sexua	
		Emakumeak	Gizonak
Gizonak aukera gehiago ditu	24	28	21
Emakumeak aukera gehiago ditu	9	8	10
Neska edo mutila izateak ez du inolako eraginik	61	58	63
Ed/Ee	6	6	6
GUZTIRA	100	100	100
(n)	1500	750	750

Emakume gazteenek (15-19 urte) hein handiagoan hautematen dute gizonak lana lortzeko aukera gehiago dituztela, prestakuntza eta esperientzia berdinak izanda (% 32k adierazi dute hori). 20-24 urteko emakumeen artean, proportzioa % 24ra jaisten da eta 25-29 urtekoen artean, berriz, % 28k uste dute gizonak aukera gehiago dituztela.

7.2 taula

LANA LORTZEAN SEXUAK DUEN ERAGINARI BURUZKO IRITZIA, SEXUAREN ETA ADINAREN ALDAGAIK KONBINATUTA (%)

Zure ikasketa eta prestakuntzari dagokion lan baterako hautaketa prozesu batean bazeunde, eta zure adin, prestakuntza eta esperientzia berbera dituen lehiakidea neska/mutila balitz, uste duzu lanpostua lortzeko berak aukera gehiago dituela neska/mutila delako, zuk aukera gehiago dituzula neska/mutila zarelako edo sexuak ez duela inolako eraginik?								
(%)	Emakumeak				Gizonak			
	GUZTIRA	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	GUZTIRA	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Gizonak aukera gehiago ditu	28	32	24	28	21	21	23	20
Emakumeak aukera gehiago ditu	8	6	9	10	10	7	5	16
Neska edo mutila izateak ez du inolako eraginik	58	57	59	59	63	65	67	59
Ed/Ee	6	5	9	4	6	8	6	5
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	750	225	225	300	750	225	225	300

Adierazle honen eboluzioak adierazten du kezka erantsi bat dagoela, laneratzen diren emakume gazteek aurre egin behar dioten beirazko sabaian. Alegia, lanpostu bat lortzeko orduan, prestakuntza eta esperientzia berdinak izanik, gizonak emakumeek baino aukera gehiago dituztelako sententzioak gora egin du emakumeen artean, 2008an erregistratutako balioetatik.

7.3 taula

GIZON ETA EMAKUME GAZTEEN IRITZIAREN EBOLUZIOA,
LANA LORTZEAN SEXUAK DUEN ERAGINARI BURUZ (%)

Zure ikasketa eta prestakuntzari dagokion lan baterako hautaketa prozesu batean bazeunde, eta zure adin, prestakuntza eta esperientzia berbera dituen lehiakidea neska/mutila balitz, uste duzu lanpostua lortzeko berak aukera gehiago dituela neska/mutila delako, zuk aukera gehiago dituzula neska/mutila zarelako edo sexuak ez duela inolako eraginik?

(%)	Emakumeak			Gizonak		
	2008	2012	2016	2008	2012	2016
Gizonak aukera gehiago ditu	23	28	28	23	19	21
Emakumeak aukera gehiago ditu	9	9	8	6	9	10
Neska edo mutila izateak ez du inolako eraginik	60	57	58	64	64	63
Ed/Ee	7	6	6	7	8	6
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	750	750	750	750	750	750

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

7.3. BERDINTASUNIK EZA ETXEKO LANAK BANATZEAN

Etxeke lanen banaketan gertatzen diren desberdintasunek agerian uzten dute emakumeek inplikazio handiagoa dutela etxeke lanetan, garbiketan, zaintza-lanetan eta abarretan.

Bikotekidearekin bizi diren emakumeen artean, ia laurdenak (% 22) diote etxeke lan guztiak edo gehienak beraiek egiten dituztela.

7.4 taula

ETXEKO LANEN BANAKETA BIKOTEKIDEAREKIN BIZI DIREN GIZON
ETA EMAKUME GAZTEEN ARTEAN, SEXUAREN ARABERA (%)

Pentsa ezazu etxean egin beharreko lanetan, esate baterako erosketak, otorduak eta garbiketa.
Lan horiek zenbateraino banatzen dituzu zure bikotekidearekin?

(%)	Sexua	
	Emakumeak	Gizonak
Emakumeak egiten ditu lan horiek guztiak edo ia guztiak	22	17
Lan horiek erdibana egiten dira	59	67
Gizonak egiten ditu lan horiek guztiak edo ia guztiak	3	5
Beste norbaitek egiten ditu lan horiek*	1	2
Ed/Ee	14	9
GUZTIRA	100	100
(n)	158	87

* Aukera hori ez zitzaizen eskaini elkarrizketatutako pertsoneri.

Emakumeek etxeko lan gehienak egiten dituztelako pertzepzio-desberdintasunak behera egin du azken urteotan gizonen eta emakumeen artean.

7.5 taula

ETXEKO LANEN BANAKETAREN EBOLUZIOA BIKOTEKIDEAREKIN BIZI DIREN GIZON
ETA EMAKUME GAZTEEN ARTEAN, SEXUAREN ARABERA (%)

Pentsa ezazu etxean egin beharreko lanetan, esate baterako erosketak, otorduak eta garbiketa. Lan horiek zenbateraino banatzen dituzu zure bikotekidearekin?						
(%)	Emakumeak			Gizonak		
	2008	2012	2016	2008	2012	2016
Emakumeak egiten ditu lan horiek guztiak edo ia guztiak	48	40	22	21	26	17
Lan horiek erdibana egiten dira	48	45	59	64	51	67
Gizonak egiten ditu lan horiek guztiak edo ia guztiak	2	1	3	10	8	5
Beste norbaitek egiten ditu lan horiek*	0	0	1	0	0	2
Ed/Ee	2	15	14	4	15	9
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	127	137	158	79	53	87

* Aukera hori ez zitzaien eskaini elkarrizketatutako pertsoneri.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

7.4. ZAINZA-LANARI BURUZKO IRITZIA ORDAINDUTAKO LANAREN ALDEAN

Hein handi batean ondasun eta zerbitzuen kontsumora bideratuta dagoen gizarte honetan, logikoa da etxetik kanpoko lana, kontsumo-parametro «normalak» izateko diru-baliabideak ematen dituen, hobeto baloratuta egotea adin txikiko senideak zein senide adindunak zaintzea dakarren etxeko lana baino, azken lan horren ordainsaria ukiezina baita.

Zaintza-lanek eta mantenu-lanek, hots, ugalketaren eta ekoizpenaren arloak, balio eta gizarte-errekonoizimendu berdinak izan ditzaten eta gizon eta emakumeen arteko banaketa bidezkoa izan dadin ahalegin handiak egin badira ere, desoreka-egoerak daude bi arlo horien artean; desoreka horiek kalte egiten diote zaintza-lanetan diharduen kolektiboari eta horren bizitza eta autonomia erabat garatzea oztopatzen dute. Zaintzetara bideratutako bizitza eta lorpen sozial, ekonomiko eta publikoetara bideratutako bizitza aurrez aurre geratzen dira.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Emakunderen VI. Planak berak aitortzen du oso zaila dela balioak aldatzea, zaintzei egozten zaien balio soziala handitzeko, etxetik kanpo lan egitearen aurrean. Hain zuzen ere, planean honako hau adierazten da: «Azken helburua pertsonen eta bizitzaren zainketa sostenguaren toki berean egotea dela ziur jakinik, beste urrats bat eman beharra dago. Hala, zaintzaren etikaren pedagogia egin behar da pertsona guztiekin, norberak bere burua zain dezan eta gainerakoak zain ditzan, elkarrekikotasun-harreman batean, ez mendetasun-harreman batean. Une hori iritsi bitartean, eta kontuan izanik egoera konplexuak eta herritarren


artean oso errotuta daudenak ditugula abiapuntu, plan honek pertsonen eta bizitzaren zainketako erantzunkidetasunaren esanahia berraztertzea proposatzen du»⁴¹.

Zaintza-lanetan erantzunkide izateko helburua planteatzen denean, hauxe esan nahi da zehazki: zaintza-lana, dituen dimentsio guztietan, etxeko pertsona guztien artean banatzea eta guztien artean partekatzea.

Ikerketa honetan jasotako datuei begiratzen badiegu, oraindik ere, pertsonen proportzio handi batek (% 54k) uste du etxetik kanpoko lana gogobetegarriagoa dela seme-alabak eta senideak zaintzea baino. % 21ek uste dute bi lanak hein berean direla gogobetegarriak (aukera hori ez zitzaien eskaini elkarrizketatutako pertsoneri eta modu espontaneoan agertu da) eta % 19k uste dute gogobetegarriagoa dela senideak zaintzea, etxetik kanpo lan egitea baino.

7.1 grafikoa

GOGOBELEGARRIAGOAK DIREN LAN MOTEI BURUZKO IRITZIA (%)



* Erantzun aukera hauek ez zitzaizkien inkestatuei eskaini.

Egia da errealitate desberdin asko daudela, bai etxetik kanpoko lanetan eta bai familiako zaintza-lanetan; azken horretan desberdintasun emozionalak daudelako seme-alaben zaintzaren eta guraso edo bestelako senide nagusien zaintzaren artean, baina argi dago etxetik kanpoko lanak ez direla homogeenak. Galderak mugak dituela aitortuta ere, maila teorikoan, badirudi arraila handia dagoela etxetik kanpoko jarduerak ordainduak eta etxeko lan ez-ordainduak baloratzeko orduan.

Etxetik kanpoko lana gogobetegarriagoa delako iritzi horrek portzentajezko balio antzekoak ditu emakume eta gizon gazteen artean.

Seme-alabak dituzten eta, hortaz, zaintza-lanak (adin txikikoen zaintza behintzat) ezagutzen dituzten pertsonen hobeto baloratzen dute lan mota hori, oraindik seme-alabarik ez duten pertsonen baino. Ondorengo taulan ikus daitezkeen moduan, seme-alabak dituztenen banaketa antzekoa da hiru iritzietan (% 33k uste dute etxetik kanpo lan egitea gogobetegarriagoa dela; % 35ek uste dute seme-alaba eta senideak zaintzea gogobetegarriagoa dela; eta % 31k berdintzat jo dituzte). Seme-alabarik ez dutenen artean, % 56k uste dute etxetik kanpo lan egitea gogobetegarriagoa dela; % 17k zaintza-lanak gogobetegarriagoak direla uste dute; eta, azkenik, % 20k berdintzat jo dituzte.

⁴¹ Emakunde= Emakumearen Euskal Erakundea (2014): *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_vi_plan/eu_emakunde/adjuntos/VIPlan_final_eu.pdf (108 or.) [Kontsulta: 2017/06/14]

7.6 taula

ZAINTZA-LANARI BURUZKO IRITZIA ORDAINDUTAKO LANAREN ALDEAN,
SEME-ALABARIK DUTEN ARABERA (%)

Zure egungo egoera edozein izanda ere, eta soldata albo batera utzita, zuk zein uste duzu dela gustukoagoa: etxetik kanpo egindako lana edo seme-alabak eta beste senideak zaintzea?			
(%)	GUZTIRA	Seme-alabak	
		Bai	Ez
Etsetik kanpo egindako lana	54	33	56
Seme-alabak eta senideak zaintzea	19	35	17
Biak berdin*	21	31	20
Bat ere ez da gustukoa*	1	0	1
Ed/Ee	6	1	6
GUZTIRA	100	100	100
(n)	1500	146	1353

* Erantzun aukera hauek ez zitzaizkien inkestatuei eskaini.

Adierazle horrek 2012. urtetik 2016. urtera bitarte izandako eboluzioari begiratzen badiogu, ikusten da seme-alaba eta senideen zaintza-lanari buruzko iritziak arinki egin duela hobera, bai gizonen artean eta bai emakumeen artean. Zaintza-lanak gogobetegarriagoak direla uste dutenak eta bi lanak baliokidetzat jo dituzten pertsonak kontuan hartuta, ikusten da gizon zein emakumeen artean portzentajezko 9 puntuko gorakada egon dela 2012. urtetik 2016. urtera bitarte.

7.7 taula

ZAINTZA-LANARI BURUZKO IRITZIAREN EBOLUZIOA,
ORDAINDUTAKO LANAREN ALDEAN, SEXUAREN ARABERA (%)

Zure egungo egoera edozein izanda ere, eta soldata albo batera utzita, zuk zein uste duzu dela gustukoagoa: etxetik kanpo egindako lana edo seme-alabak eta beste senideak zaintzea?				
(%)	Emakumeak		Gizonak	
	2012	2016	2012	2016
Etsetik kanpo egindako lana	57	52	60	56
Seme-alabak eta senideak zaintzea	18	20	14	18
Biak berdin*	15	22	14	19
Bat ere ez da gustukoa*	1	0	1	1
Ed/Ee	9	5	11	6
GUZTIRA	100	100	100	100
(n)	750	750	750	750

* Erantzun aukera hauek ez zitzaizkien inkestatuei eskaini.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

Gizonen artean gertatu den gorakada esanguratsua da (nahiz eta emakumeen balioen azpitik dauden oraindik), izan ere, berdintasun-planen arabera, ezinbestekoa da emakume eta gizonen artean erantzunkidetasuna egotea, zaintza-lanak ekoizpen-lanak bezainbeste baloratzea lortzeko balio-aldaketari aurre egiteko orduan.

7.5. AUZOAN EDO HERRIAN GAUEZ IBILTZEKO BELDURRA

Kalean gauez bakarrik ibiltzeko beldurra da emakumeek beren mugimendu-askatasuna eta espazio publikoen erabilera murriztuta ikus dezaketen moduetako bat.


EAEko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Planean Emakunde honako hau adierazi zuen: «beharrezkoa da emakumeen segurtasuna handitzea, bai hiri diseinuari dagokionez, beren diseinuagatik edo argi ezagatik edo isolatuta daudelako arriskutsuak diren edo segurtasun-faltaren sententzioa sortzen duten tokiak kenduz, bai prebentzio prozedurak edo protokoloak ezarritz»⁴².

Beldurraren pertzepzioa horren alderdi subjektiboa izanik, *Euskadiko gazteak* ikerketak, 2000. urteaz geroztik, EAEko gazteei galdetu die ea gauean kaletik bakarrik ibiltzeko beldur ote diren.

EAEko emakume gazteen % 34k adierazi dute beldurra sentitzen dutela beren hiri, herri edo auzoan gauez bakarrik ibiltzen direnean. Proporzio hori % 4koa baino ez da gizon gazteen kasuan.

7.2 grafikoa

EMAKUME GAZTEEK AUZOAN EDO HERRIAN GAUEZ BAKARRIK IBILTZEKO BELDURRA (%)



Ez dago zalantzarik beldur-sententzioa oso desberdina dela emakume eta gizonen artean, baina gainera beldurra aipatzen dutenen proportzioak handiagoak dira emakume gazteagoen artean (15 urtetik 19 urtera bitarteko nesken % 44k diote beldurra sentitzen dutela kalean gauez bakarrik ibiltzean). Beldur-sententzio hori berretsi egiten da, 2016an emakumeen sexu-askatasunaren aurka erregistratu ziren delituen banaketari begiratzen badiegu. Urte horretan, emakumeek 235 salaketa jarri zituzten. Horietatik, 57 salaketa 15-19 urteko neskek jarri zituzten; 27 salaketa, 20-24 urteko neskek eta 21, berriz, 25-29 urtekoek.

⁴² Emakunde = Emakumearen Euskal Erakundea (2010): *EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Plana. IX. Legealdirako jarraibideak* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/vcm_marco_juridico/eu_def/adjuntos/v.plan.igualdad.eus.pdf (151 or.) [Kontsulta: 2017/06/14]

7.8 taula

AUZOAN EDO HERRIAN GAUEZ IBILTZEKO BELDURRA,
SEXUAREN ETA ADINAREN ALDAGAIK KONBINATUTA (%)

Zuri beldur ematen dizu gauez zure herri edo auzotik bakarrik ibiltzeak?								
(%)	Emakumeak				Gizonak			
	GUZTIRA	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	GUZTIRA	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bai	34	44	33	28	4	5	3	4
Ez	65	56	67	71	95	94	96	96
Ed/Ee	1	0	0	1	1	1	1	0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	750	225	225	300	750	225	225	300

Nahiz eta beharbada aurkakoa pentsa litekeen, badirudi beldurraren bizipena antzekoa dela udalerrri txikietan, ertainetan eta hiriburuetan. Hiriburuetan bizi diren mutilen artean bakarrik hautematen da arinki beldur handiagoa, balio orokorra baino portzentajezko puntu bat handiagoa baita.

7.9 taula

AUZOAN EDO HERRIAN GAUEZ IBILTZEKO BELDURRA,
SEXUAREN ETA UDALERRIAREN TAMAINAREN ALDAGAIK KONBINATUTA (%)


Zuri beldur ematen dizu gauez zure herri edo auzotik bakarrik ibiltzeak?								
(%)	Emakumeak				Gizonak			
	GUZTIRA	Txikia	Ertaina	Hiriburua	GUZTIRA	Txikia	Ertaina	Hiriburua
Bai	34	34	34	34	4	3	4	5
Ez	65	65	65	66	95	97	96	94
Ed/Ee	1	1	1	0	1	0	0	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	750	140	300	310	750	140	300	310

Bestalde, nabarmentzekoa da beldurra sentitzen duten gizon gazteen ehunekoa nahiko konstante mantendu dela azken urteotan (% 3, 2000. urtean; % 6, 2004an; % 7, 2008an; % 7, 2012an; eta, azkenik, % 4, 2016an), gorabeherak txikiak izanik.

Baina gauez kaletik bakarrik ibiltzearen beldur diren emakumeen ehunekoa, beti gizonena baino askoz altuagoa izateaz gain, etengabe igo da azken urteotan (% 26 zen 2000. urtean; % 22 zen, 2004an; % 29, 2008an; % 32, 2012an; eta, azkenik, % 34, 2016an).

7.3 grafikoa

AUZOAN EDO HERRIAN GAUEZ IBILTZEKO BELDURRAREN EBOLUZIOA, SEXUAREN ARABERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak* seriea).

Emakumeak gauz bakarrik ibiltzearen beldur izateak zenbait ekimeni eman die bide, hala nola Beldur Barik programari. Programa hori EAEko erakundeek sustatzen dute, gazteen arteko indarkeria sexista prebenitzeko eta gazteen artean hausnarketa eta debateak sustatzeko, hala, gizartea eraldatzen laguntzeko eta gizarte matxista berdintasunezko gizarte bihurtzeko. Azken batez, Beldur Barik jarrera sustatzea.⁴³

Urtez urte, indarkeriari buruzko kanpainetan agertu ohi diren estereotipoetatik ihes egiteko ahalegina egiten da (indarkeria fisikora mugatzen dira eta emakumeei biktima-rola esleitzen zaie kanpaina horietan). Horretarako, gaia ikuspegi positibo batetik jorratzen da, ikusten baita beharrezkoa dela emakumeak ahalduz bideratutako mezuak indartzea eta herritar guztien inplikazioa lortzea. Mutilei dagokienez, jarrera sexisten prebentzioan lan egiteko behar da haiekin, eraso sexisten aurrean rol aktiboa izan dezaten animatuz.⁴⁴

7.6. EMAKUMEEN AURKAKO HAINBAT INDARKERIA MOTAREN LARRITASUNA


Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako EAEko VI. Planaren arabera, zera da emakumeen kontrako indarkeria, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legeari (otsailaren 18ko 4/2005) jarraikiz: «sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan».⁴⁵

⁴³ Beldur Barik: Programa [linean] Hemen eskuragarri: <http://beldurbarik.org/eu/beldur-barik-programa> [Kontsulta: 2017/06/14]

⁴⁴ Beldur Barik [linean] Hemen eskuragarri: <http://beldurbarik.org/eu/ibilbidea> [Kontsulta: 2017/06/14]

⁴⁵ Emakunde= Emakumearen Euskal Erakundea (2014): *ob. cit.* (119. or.) [Kontsulta: 2017/06/14]

Ikerketa honetan, EAEko gazteek indarkeria mota desberdinei buruz egiten duten balorazioa ezagutu nahi da, indarkeria fisiko eta sexu-abusuetatik hasi eta hitzezko indarkeriaraino (irainak, mehatxuak, gutxiespenak eta abar), indarkeriaren piramide deritzon defintzen diren kontzeptuei jarraikiz.



Piramide horrek lau maila dituela jotzen badugu, ikerketa honetan 2. eta 3. mailak hartu dira kontuan. 2. mailan umiliazioa, desbalorizazioa, bazter uztea, gutxiestea, xantaia emozionala eta erruduntzea daude; 3. mailan, berriz, eraso fisikoak, bortxaketa, sexu-abusua, mehatxuak, oihu egitea eta iraintzea.

Ikerketa honetarako erabili den galdera sortan, honako indarkeria mota hauen balorazioa (oso larria, nahiko larria, pixka bat larria, ez da tratatu txarra) egin da:


- Iraintzea
- Gauzak erabakitzen ez uztea
- Mehatxatzea
- Etxetik irtetea debekatzea
- Sexu-harremanak borondatearen aurka izatera behartzea
- Mespretxuak egitea

Emakumeen aurkako indarkeria forma horien larritasunari buruz azken ia 20 urteetan izan den eboluzioari begiratzen badiogu, ikus daiteke aurrerapen handiak egin direla emakumeen aurkako indarkeriaren gaitzespen formalean.

Agerikoa da Berdintasun Planek balio eta jarrerak aldatzeko eta sentsibilizatzeko egindako lana eraginkorra izan dela, 1997an erregistratutako balioei begiratzen badiegu. Urte hartan Emakunderen II. Plana zegoen indarrean (1995-1998), garai hartan EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboen Plana zeritzona⁴⁶.

7.5 grafikoa

AURKEZTUTAKO TRATU TXAR MOTA BAKOITZA OSO LARRITZAT JOTZEN DUTEN GAZTEEN EHUNekoAREN EBOLUZIOA (%)



* 1997ko datuak 18 urtetik 29 urtera bitarteko gazteei dagozkie.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* seriea, 2012ko eta 2016ko datuei dagokienean) eta Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (*Tratu txarrak bikote barruan*, 1997ko datuak direnean).

1997an⁴⁷, EAEko gazteen % 82k oso larritzat jotzen zuten bikotekidea sexu-harremanak izatera behartzea. Balio hori ia maximora igo da kolektibo berean, 2016an (% 97). Etxetik irtetea debekatzea gazteen % 46k jotzen zuten oso larritzat 1997an eta 2016an, berriz, balio horrek % 91raino egin du gora. Mehatxatzea oso larritzat jotzen zuten EAEko gazteen % 51ek 1997an eta 2016an, berriz, % 91k jo dute oso larritzat.

Hiru jokabide horien eboluzioa oso garrantzitsua izan da, baina are esanguratsuagoa da 2016an gaitzespen-balio baxuenak lortu dituzten hiru jokabideena (mespretxuak egitea, gauzak erabakitzen ez uztea eta iraintzea).

1997an, EAEko gazteen soilik % 11k uste zuten bikotekideari mespretxuak egitea oso larria zela. Balio hori % 74raino igo da 2016an.

⁴⁶ Emakunde= Emakumearen Euskal Erakundea (1996): *Euskadiko Autonomi Elkartearen Emakumeentzako Ekintza Positiboen II. Plana* [linean] Hemen eskuragarri http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_planes_antteriores/eu_def/adjuntos/2.plana.pdf [Kontsulta: 2017/07/11]

⁴⁷ Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzakoa (1998): *Los malos tratos en la pareja* [linean] Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_t982/eu_t982/adjuntos/t982.pdf [Kontsulta: 2017/07/11]

Bikotekideari gauzak erabakitzen ez uztea oso larritzat jotzen zuten EAEko gazteen % 31k, baina 2016an proportzio horrek % 69raino egin du gora.

Azkenik, bikotekidea iraintzea gaur egun (2016an) oso larritzat jo dute EAEko gazteen % 60k, eta 1997an, berriz, % 14k baino ez.

7.6.1. Sexu-harremanak izatera behartzea

Sexu-harremanak izatera behartzea izan da EAEko gazteek larrirentzat jo duten jokabideetako bat. Hain zuzen ere, gazteen % 97k oso larritzat jotzen dute. Balio horri nahiko larritzat jotzen dutenen proportzioa gehitzen badiogu, ikusten dugu EAEko gazte guztiak erabat gaitzesten dutela jokabide hori.

Elkarrizketatutako pertsonaren sexuaren arabera, ikusten da emakumeen artean % 98k oso jokabide larritzat hartzen dutela eta gizonen artean, berriz, % 96k. Oso balio antzekoak daude adin-taldeen arabera ere, izan ere, 15 urtetik 19 urtera bitartekoen artean, % 97k jotzen dute jokabide hori larritzat; 20 urtetik 24 urtera bitartekoen artean, balio hori % 96 da; eta 25 urtetik 29 urtera bitartekoen artean, berriz, % 97.

Ondorengo taulan, bai eta hurrengoetan ere, elkarrizketatutako pertsonaren jatorriaren aldagaia (jaiolekua, alegia) ikus daiteke, EAEn jaio diren pertsonen eta atzerriko herrialderen batean jaiotako pertsonen artean banatuta (Espainako gainontzeko lekuetan jaiotako gazteei buruzko datuak ez dira aurkezten laginean gutxi jaso direlako). Aldagai hori txertatu da, ikerketa honen aurrekoan (*Euskadiko Gazteak 2012*), diferentzia sakonak hauteman zirelako bi kolektibo horien artean.

Baina, lau urte geroago, diferentzia horiek asko murriztu dira. *Euskadiko Gazteak 2012* lanean, EAEn jaiotako gazteen % 95ek jotzen zuten borondatearen aurka sexu-harremanak izatera behartzea oso larria zela, eta proportzio hori % 77koa zen, atzerrian jaiotako artean. Baina *Euskadiko Gazteak 2016* lanean, ondorengo taulan egiazta daitekeen moduan, alde nahiko txikiak daude indarkeria mota horren larritasunari buruzko iritzietan (EAEn jaiotako artean, % 98k larritzat jo dute eta, atzerrian jaiotako artean, berriz, % 92k).

7.10 taula

SEXU-HARREMANAK IZATERA BEHARTZEAREN LARRITASUN-MAILAREN BALORAZIOA,
SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

Esadazu mesedez, zure ustez tratu txarra den ala ez bere borondatearen kontra sexu harremanak izaten behartzea eta baiezkotan zuretzat oso larria den, nahiko larria den edo ez den oso larria								
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Jaiolekua	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Euskadi	Atzerria
Oso larria	97	98	96	97	96	97	98	92
Nahiko larria	3	2	3	3	3	2	2	6
Ez oso larria	0	0	0	0	1	0	0	1
Ez da tratu txarra	0	0	0	0	0	0	0	0
Ed/Ee	0	0	1	0	0	1	0	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	1184	249

7.6.2. Etxetik irtetea debekatzea

Etxetik irtetea debekatzea oso jokabide larritzat dute EAeko gazteen % 91k; % 7k nahiko larritzat dute eta % 1ek, berriz, ez oso larritzat. Hortaz, oso larria edo nahiko larria dela uste duten pertsonak batuta, % 98ra heltzen da.

Badaude portzentualki aipatzekoak diren zenbait diferentzia. Emakumeen ehunekoa altuagoa da gizonena baino (% 93 eta % 88, hurrenez hurren, jokabide hori oso larritzat dutenen artean).

Portzentajezko 10 puntuko aldea dago, halaber, EAEn jaiotako gazteen eta atzerriko herrialderen batean jaiotako gazteen artean (% 92 eta % 82, hurrenez hurren). 2012ko ikerketan, bi kolektibo horien arteko diferentzia askoz handiagoa zen (EAEn jaiotako pertsonen % 81 eta atzerrian jaiotako pertsonen % 63). Hortaz, oso eboluzio positiboa hautematen da bi kolektiboetan.

7.11 taula

ETXETIK IRTETEA DEBEKATZEAREN LARRITASUN-MAILAREN BALORAZIOA,
SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

Esadazu mesedez, zure ustez tratu txarra den ala ez etxetik irtetea debekatzea eta baiezkotan zuretzat oso larria den, nahiko larria den edo ez den oso larria								
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Jaiolekua	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Euskadi	Atzerria
Oso larria	91	93	88	89	91	92	92	82
Nahiko larria	7	6	9	10	7	6	7	12
Ez oso larria	1	1	1	1	2	1	0	4
Ez da tratu txarra	0	0	0	0	1	0	0	0
Ed/Ee	1	0	1	0	0	1	0	2
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	1184	249

7.6.3. Mehatxatzea

Mehatxatzea da ikerketa honetan larritasunaren arabera tratatu dugun hirugarren jokabidea. EAeko gazteen % 91k oso jokabide larritzat jotzen dute. Beste % 8k nahiko larritzat jotzen dute.

Jokabide honi dagozkionean ere zenbait diferentzia hautematen dira kolektiboen artean. Lehenik, emakumeek gizonen baino hein handiagoan jo dute oso larritzat (% 93 eta % 89, hurrenez hurren). Bi kolektiboetako ehunekoa oso altuak diren arren, nabarmenezkoa da (eta gauza bera gertatzen da aztertutako jokabide guztietan) neskek beti jotzen dituztela mutilek baino larriagozat. Jokabide hauen gaitzespen-ehunekoen behera egiten duten heinean, agerikoagoak dira sexuen arteko diferentziak.

Portzentajezko 7 puntuko diferentzia dago, halaber, EAEn jaio diren eta atzerrian jaio diren pertsonen artean (oso larritzat jo dute % 92k eta % 85ek, hurrenez hurren). 2012an, diferentzia hori askoz handiagoa zen (% 81, EAEn jaiotako artean; eta % 65, atzerrian jaiotako gazteen artean).

7.12 taula

MEHATXATZEAREN LARRITASUN-MAILAREN BALORAZIOA,
SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

Esadazu mesedez, zure ustez tratatu txarra den ala ez mehatxatzea eta baiezkotan zuretzat oso larria den, nahiko larria den edo ez den oso larria								
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Jaiolekua	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Euskadi	Atzerria
Oso larria	91	93	89	89	90	92	92	85
Nahiko larria	8	7	10	10	9	7	8	13
Ez oso larria	0	0	1	1	1	0	0	0
Ez da tratatu txarra	0	0	0	0	0	0	0	0
Ed/Ee	0	0	1	0	0	1	0	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	1184	249

7.6.4. Mespretxuak egitea

Zerrendako azken hiru jokabideetan, aztertutako portaera oso larritzat jotzen duten gazteen (emakume zein gizon) ehunekoak nabarmen egin du behera. Hala, bikotekideari mespretxuak egitea oso larritzat jo dute euskal gazteen % 74k. % 24k uste dute jokabide hori nahiko larria dela. Azkenik, % 2k uste dute jokabide hori ez dela oso larria.

7.13 taula

MESPRETXUAK EGITEAREN LARRITASUN-MAILAREN BALORAZIOA,
SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

Esadazu mesedez, zure ustez tratatu txarra den ala ez mespretxuak egitea eta baiezkotan zuretzat oso larria den, nahiko larria den edo ez den oso larria								
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Jaiolekua	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Euskadi	Atzerria
Oso larria	74	79	70	72	75	75	74	76
Nahiko larria	24	20	27	27	23	22	24	21
Ez oso larria	2	1	2	1	2	2	2	2
Ez da tratatu txarra	0	0	0	0	0	0	0	0
Ed/Ee	0	0	1	0	0	1	0	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	1184	249

Item horretan hautematen dira gizonen eta emakumeen arteko diferentzia esanguratsuenak. Mespretxuak egitea oso jokabide larritzat jotzeko orduan, emakumeen % 79 erregistratzen da eta gizonen artean, berriz, proportzioa % 70 da. Ez dago alde nabarmenik aztertutako hiru adin-taldeetan, baina badirudi 20 urtetik aurrera arinki igotzen dela larritasun-balorazioa.

Bikotekideari mespretxuak egitearen larritasuna baloratzeko orduan, atzerrian jaiotako gazteen artean arinki proportzio handiagoak erregistratzen dira EAEn jaiotako gazteen artean baino (% 76 eta % 74, hurrenez hurren). Ehuneko horiek aldi berean egin dute gora 2012. urteaz geroztik (urte hartan, % 63 zen, EAEn jaiotako gazteen artean eta % 59, atzerrian jaiotakoaren artean).

7.6.5. Gauzak erabakitzen ez uztea

Gauzak erabakitzen ez uztea jokabide larritzat jotzeari dagokionean, ikusten da jarraitu egiten duela aurreko itemean abian jarritako joerak, hau da, % 69raino egiten du behera muturreko larritasun-balorazioak (oso larria) eta areagotu egiten dira emakume eta gizonen arteko diferentziak.

Jokabide hori oso larritzat jotzen duten emakumeen portzentajezko balioa % 75 da eta gizonen kasuan, berriz, proportzioa % 63 da.

Iritzi horrek gora egiten du elkarrizketatutako pertsonaren adinean gora egin ahala ere. Hala, 15-19 urte dituzten gazteen artean, % 64k oso larritzat jo dute; 20-24 urtekoen artean, % 68k jo dute oso larritzat; eta 25-29 urtekoen artean, berriz, % 74k.

Item honetan ez dago diferentziarik EAEn jaiotako gazteen (% 69) eta atzerrian jaiotako gazteen (% 68) artean.

7.14 taula

GAUZAK ERABAKITZEN EZ UZTEAREN LARRITASUN-MAILAREN BALORAZIOA,
SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA JAIOLAKUAREN ARABERA (%)

Esadazu mesedez, zure ustez tratu txarra den ala ez gauzak erabakitzen ez uztea eta baiezkotan zuretzat oso larria den, nahiko larria den edo ez den oso larria								
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Jaiolekua	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Euskadi	Atzerria
Oso larria	69	75	63	64	68	74	69	68
Nahiko larria	25	21	30	31	26	21	26	22
Ez oso larria	5	3	6	5	5	4	4	8
Ez da tratu txarra	0	0	1	0	1	0	0	0
Ed/Ee	1	0	1	0	0	1	0	2
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	1184	249

7.6.6. Iraintzea

Ikerketa honetan aztertutakoen artean, iraintzea da larritasun-balorazio txikiena jasotzen duen tratu txar edo errespetu-falta mota. Hala ere, oso larritzat edo nahiko larritzat jotzen duten pertsonen proportzioak batuta, % 91ra heltzen dira. Ehuneko horren barruan, % 60k oso larritzat jotzen dute eta % 31k, berriz, nahiko larritzat. % 7k uste dute larritasun txikia duela eta % 1ek uste du ez dela tratu txarra.

Iraina tratu txartzat hartzeari dagokionean, eboluzioa hauteman da, adin-taldean arabera. Izan ere, adinean gora egin ahala, garrantzi handiagoa hartzen du eta, hortaz, larriagotzat hartzen da. 15 urtetik 19 urtera bitarteko gazteen % 53k oso larritzat jo due; 20 urtetik 24 urtera bitartekoaren artean, proportzioa % 60ra igotzen da; eta 25 urtetik 29 urtera bitartekoaren artean, berriz, % 66ra.

Orobat, nabarmentzekoa da portzentajezko 10 puntuko aldea dagoela jokabide hori oso larritzat jotzen duten nesken (% 65) eta mutilen (% 55) artean.

Kasu honetan ere, ez da diferentzia handirik hautematen EAEn jaiotako eta atzerrian jaiotako gazteen artean.

7.15 taula

IRAINTEAREN LARRITASUN-MAILAREN BALORAZIOA, SEXUAREN,
ADIN-TALDEAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

Esadazu mesedez, zure ustez tratu txarra den ala ez iraintzea edo insultatzea eta baiezkotan zuretzat oso larria den, nahiko larria den edo ez den oso larria								
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Jaiolekua	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Euskadi	Atzerria
Oso larria	60	65	55	53	60	66	60	63
Nahiko larria	31	28	33	36	31	27	31	28
Ez oso larria	7	6	9	9	7	5	7	7
Ez da tratu txarra	1	0	1	1	1	1	1	1
Ed/Ee	1	0	1	1	0	1	1	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	1184	249

7.7. ONDORIOAK

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eza egiturazko arazoa da eta EAEn bizi diren emakume eta gizon gazteak ez dira horretatik kanpo geratzen. Emakume nahiz gizonak jasaten dituzte lan ordaindua neurritz gaindi estimatzen duen sistema ekonomiko eta sozialaren ondorioak. Sistema honetan, ez dira hein berean balioesten adin txikikoen eta adindunen zaintza-lanak, gizonak kontratatzea lehenesten da prestakuntza berdina edo handiagoa duten emakumeen gainetik, eta sexuagatiko desberdintasunetan oinarritutako sistema finkatzen laguntzen da (gainera, emakume batzuek bidegabekeria gehigarriak jasaten dituzte, beren arraza, jatorria... direla eta).

Nahiz eta ezin den zalantzan jarri berdintasunera bidean aurrerapen formal eta legegintzazko aurrerapen handiak egin direla, bai eta aurrerapen handiak izan direla ere 2000. urtean hasitako *Euskadiko Gazteak* seriean jaso diren datuetan, badaude oraindik ere jorratu beharreko zenbait arlo.

EAEko gazteek oraindik uste dute, lanpostu bat lortzeko hautaketa-prozesuetan, hobe dela gizona izatea emakume izatea baino; hortaz, badirudi arlo horretako legegintza landu egin behar dela, sexu-arrazoiengatik bereizkeria desagerraraziko duten mekanismoak arautzeko.

Emakume gazteen heren batek beldurra sentitzen badu gauez kalean bakarrik dabilenean, beharrezkoa da hirietako hirigintzak eta diseinuak beldur hori murrizten lagun dezaten.

Aztertu ditugun tratu txarrezko jokabideei dagokienez, hobekuntza hauteman da, ia guztien adostasuna lortzeraino. Baina errepikatzen dugu berdintasun formalari buruz ari garela, paper gainekoa eta inkesta bati erantzuten diona, eta posible da hori pose kontua izatea, egiazko jarrera baino, ikerketa honetan aztertutako beste gai batzuen kasuan gerta litekeen moduan.

Galdera horiei 1997an erantzun zieten adin handiagoko taldeek, orduan 25-29 urte zituztenek, 20 urte gehiago dituzte orain eta, hein handi batean, belaunaldi berri baten gurasoak dira. Espero dugu belaunaldi berri hori emakume eta gizonen arteko berdintasunean oraindik ere hein handiagoan oinarritutako balioetan heziko dutela.

Tratu txarren larritasuna baloratzeko orduan, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak hautematen jarraitzen dugu, berezitasun batekin (beharbada, ez da halako berezitasuna). Jokabidea zenbat eta larriagoa izan, orduan eta diferentzia txikiagoak daude bi kolektiboen artean. Hau da, gizon eta emakumeen artean ia erabateko adostasuna dago bikotekidea sexu-harremanak izatera behartzearen larritasunari buruz; baina ez da hala gertatzen hain muturrekoak ez diren indarkeria formekin, hala nola irainekin eta mespretxuekin. Jokabide horien larritasuna baloratzeko orduan, desberdintasun handiak daude oraindik ere nesken eta mutilen balorazioen artean (neskek larriagozat baloratzen dituzte). Hortik ondoriozta daiteke beharrezkoa dela indarkeria-piramideko indarkeria mota guztiak hein berean identifikatzea, batzuetan, oinarrian dauden indarkeria motak piramidean gora egiten jarraitzeko lehen urratsa baino ez baitira.

8

Osasuna eta sexualitatea

8.1. SARRERA

Osasuna eta gazteria aipatzen ditugunean, badirudi bat etorri behar dutela. Eta hala izan ohi da, orokorrean. EAEko gazteen osasuna oso ona da oro har, bai ikuspegi objektibotik begiratuta, bai haien pertzepzioaren arabera. Nolanahi ere, azken urteotan aldaketak egon dira bizi-estiloan (ariketa eta elikadura), eta horiek aztertu beharreko aldaketak islatzen dituzte.

Kapitulu honetan, etengabe aipatzen ditugu osasun-egoera eta hori zehazten duten faktoreak. Hasiera batean, lau gurutzatze-aldagai erabiliko ditugu: batetik, sexua eta adina (elkarrizketatutako pertsonen banako alderdi biologikoak) eta, bestetik, udalerraren tamaina eta klase sozial subjektiboa (alderdi sozial, ekonomiko eta ingurumenezkoak).

Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020 txostenean ezartzen den moduan, «biztanleriaren osasun-maila (osasunaren magnitudea) hertsiki lotuta dago gizarte-taldeen arteko osasunaren banaketarekin. Osasun-maila eta osasuneko ekitatea txanpon bakar baten bi aldeak dira»⁴⁸.

Osasuna pertsona guztiek gehien estimatzen duten balioetako bat da, eta hala jaso da EAEko gazteen osasun-egoera aztertzen saiatu diren Gazteriaren Euskal Behatokiak egindako zenbait ikerketatan. Urtero egiten den *Aurrera Begira* ikerketaren lau edizioetan, 15 urtetik 29 urtera bitarteko gazteei osasunaren garrantziari buruz galdetu zaie, 0 eta 100 bitarteko eskala batean, eta lau urteetan 95 eta 96 bitarteko balioak erregistratu dira. Hain zuzen ere, galdetegian familia, lagunak, lana, ikasketak, independentzia pertsonala, etxebizitza, denbora libre, harreman afektibo eta sexualak eta dirua ere tratatzen ziren arren, osasuna izan da *Aurrera Begira* lanaren edizio guztietan EAEko gazteek garrantzitsuentzat hartu duten alderdia.⁴⁹

8.2. OSASUN-EGOERA

EAE n bizi diren gazteen osasun-egoera orokorra aztertzeko orduan, zehaztu behar da elkarrizketatutako pertsonen osasun-pertzepzio subjektiboa dugula abiapuntu. Horrez gain, gaixotasun kroniko edo desgaitasunik edota arazo psikologikorik duten edo izan duten galdetu diegu gazteei, informazio osagarri gisa.

⁴⁸ Eusko Jaurlaritzaren Osasun saila (2014): *Osasuna, Pertsonen Eskubidea, Guztion Ardura. Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020* [linean] Hemen eskuragarri: https://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkpubl01/eu/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/eu_pub/adjuntos/osasun_plana_2013_2020.pdf (21 or.) [Kontsulta: 2017/07/06]


⁴⁹ Gazteen Euskal Behatokia: *Aurrera Begira* seriea [linean] Hemen eskuragarri: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/aurrera_begira/eu_def/index.shtml?_ga=1.168915876.429906876.1417601129 [Kontsulta: 2017/07/06]

8.2.1. Osasunaren pertzepzio subjektiboa

Osasunaren pertzepzio subjektiboa neurtzeko, Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatutako eta estandarizatutako galdera erabili da. Horren bidez, elkarriketatutako pertsonen beren osasun-egoera deskribatzeko eskatzen zaie, Oso ona, Ona, Hala moduzkoa, Txarra eta Oso txarra kategoriak jasotzen dituen eskala erabiliz⁵⁰.

15 urtetik 29 urtera bitarteko gazteek beren osasunari buruz duten pertzepzio subjektiboa ona da, oro har. % 44k iritzi diote beren osasuna oso ona dela; % 47k uste dute ona dela; % 8k hala moduzkoa dela diote; eta, azkenik, % 1ek txarra dela diote.

8.1 grafikoa
OSASUNAREN PERTZEPZIO SUBJEKTIBOA (%)



Osasunaren pertzepzioa aldatu egiten da gazteen sexuaren arabera. Gizon gazteen % 48k uste dute beren osasuna oso ona dela, eta emakume gazteen % 40. Dena den, beren osasuna oso ona edo ona dela uste dutenen baterako balioa berdina da gizonen eta emakumeen artean (emakume gazteen % 90 eta gizon gazteen % 93).

Gauza bera gertatzen da adinarekin. Kolektibo gazteena (15-19 urte) da bere osasuna oso ona dela hein handiengan jotzen duen kolektiboa (% 52), eta pertzepzio horrek behera egiten du adinean gora egin ahala. Bere osasuna oso ona edo ona dela uste dutenen baterako balorazioan, ez dago ia diferentziarik.

Gizarte-inguruneko aldagaiak, hala nola klase sozial subjektiboa eta udalerriaren tamaina kontuan hartuta (ikerketan honetan hiru mailatan egituratu dira udalerriak: txikiak, hots, 10.000 biztanle baino gutxiagokoak; ertainak, hots, 10.000 biztanle baino gehiagokoak; eta hiriburuak, alegia, Bilbo, Donostia eta Gasteiz), uler daiteke gazteen kolektiboetan, faktore sozioekonomikoek eragina dutela pertsonen ohituretan eta osasunean.

Gure hiru hiriburuak megahiriak izatetik oso urrun dauden arren, eta gehiegizko populaziotik eratorritako arazorik ez duten arren, badirudi udalerri txikietan gazteek beren osasunari buruz duten pertzepzioa zertxobait hobea dela hiriburuetan baino (udalerri txikietan bizi direnen artean % 93k oso ona edo ona dela uste dute, eta hiriburuetan bizi direnen artean, aldiz, % 88k).

⁵⁰ Eurostat - Europar Batasuneko Bulego Estatistikoa (Statistical Office of the European Union): Statistics explained. Glossary: European health interview survey (EHIS). One question instrument assessing the general perceived health: «How is your health in general? Is it...» Very good / Good / Fair / Bad / Very bad. It is a standardized question recommended by the World Health Organization. It is used in European health interview survey (EHIS) (HS1 variable) and EU statistics on income and living conditions (EU-SILC) (PH010 variable) [Kontsulta: 2017/07/06]

8.1 taula

OSASUNAREN PERTZEPZIO SUBJEKTIBOA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

Oro har, nolakoa da zure osasuna: oso ona, ona, hala-holakoa, txarra edo oso txarra?						
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Oso ona	44	40	48	52	43	39
Ona	47	50	44	40	50	50
Hala-holakoa	8	9	7	7	7	10
Txarra	1	1	1	1	1	1
Oso txarra	0	0	0	0	0	0
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600

Halaber, klase sozial subjektiboak ere zenbait diferentzia agertzen ditu, norberak bere buruari hautematen dion osasunean. Beren burua klase sozial altu edo ertain-altukotzat dutenen artean, osasunaren pertzepzio ona edo oso ona % 94ra heltzen da. Beren burua klase sozial ertainekotzat dutenen artean, proportzio horrek pixka bat egiten du behera (% 92), baina beren burua klase sozial baxuko edo ertain-baxukotzat dutenen artean, berriz, % 88raino jaisten da.

8.2 taula

OSASUNAREN PERTZEPZIO SUBJEKTIBOA, UDALERRIAREN TAMAINAREN
ETA KLASE SOZIAL SUBJEKTIBOAREN ARABERA (%)

Oro har, nolakoa da zure osasuna: oso ona, ona, hala-holakoa, txarra edo oso txarra?							
(%)	GUZTIRA	Udalerrriaren tamaina			Klase sozial subjektiboa		
		Txikia	Ertaina	Hiriburua	Altua edo ertain-altua	Ertaina	Baxua edo ertain-baxua
Oso ona	44	49	44	41	46	44	41
Ona	47	44	48	47	48	48	47
Hala-holakoa	8	8	6	11	7	6	11
Txarra	1	0	1	1	0	1	1
Oso txarra	0	0	0	2	0	0	2
Ed/Ee	0	0	0	1	0	0	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	800	489	173	166	963	347

Nahiz eta aisiari buruzko kapituluak kirola sakon aztertu den, nabarmentzekoa da kirola egiteak osasunaren pertzepzio subjektiboan duen eragina. Ondorengo taulan, ikusten da astean 3 egunetan edo gehiagotan kirola egiten dutenen artean, % 51k jotzen dutela beren osasuna oso ona dela eta beste % 43k, ona dela. Beren osasuna oso ona dela uste duten pertsonen ehunekoa % 38ra jaisten da, kirola astean 3 egunetan baino gutxiagotan egiten dutenen artean; gainera, azken talde honetan, beren osasuna hala-moduzkoa edo txarra dela uste dutenen kopuruak bikoiztu egiten du aurreko taldean jasotakoa.

8.3 taula


OSASUNAREN PERTZEPZIO SUBJEKTIBOA, KIROL-PRAKTIKAREN MAIZTASUNAREN ARABERA (%)

Oro har, nolakoa da zure osasuna: oso ona, ona, hala-holakoa, txarra edo oso txarra?			
(%)	GUZTIRA	Kirol-praktikaren maiztasuna	
		Astean 3 egun edo gehiago	Astean 3 egun baino gutxiago
Oso ona	44	51	38
Ona	47	43	50
Hala-holakoa edo txarra	8	6	12
GUZTIRA	100	100	100
(n)	1500	728	771

EAEko gazteen osasun pertzepzioa Europar Batasunaren (EB28) batezbestekoarekin bat etorri da 2016an (% 90,8). Zehaztu behar da Eurostatek osasunaren pertzepzioari buruz jasotako datuak 16-29 urteko pertsoneri eta 2015. urteari dagozkia⁵¹.

8.2 grafikoa

OSASUNAREN PERTZEPZIO SUBJEKTIBOA (OSO ONA + ONA) EB28 OSATZEN DUTEN HERRIALDEETAKO GAZTEEN ARTEAN (%)



* Txekiar Errepublikako datuak 2012koak dira, ez baitago berriagorik.

Iturria: EUROSTAT. Self-perceived health statistics. 2015.

⁵¹ Eurostat (Europako Estatistika Bulegoa): *Database*. Self-perceived health statistics. [linean] Hemen eskuragarri (ingelesez): http://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php/Self-perceived_health_statistics [kontsulta: 2017/07/12]

Osasunaren pertzepzio subjektiboak portzentajezko 4 puntutan egin du hobera 2006tik⁵² 2016ra, beren osasuna oso ona edo ona dela uste duten pertsonen dagokienez (% 87, 2006an, % 88, 2012an; eta % 91, 2016an), eta % 1ean konstante mantendu da azken hamar urteotan beren osasuna txarra dela jotzen duten 15-29 urteko EAEko gazteen proportzioa.

8.4 taula

OSASUNAREN PERTZEPZIO SUBJEKTIBOAREN EBOLUZIOA (%)

Oro har, nolakoa da zure osasuna: oso ona, ona, hala-holakoa, txarra edo oso txarra?			
(%)	2006	2012	2016
Osasun ona (Oso ona + ona)	87	88	91
Hala-holako osasuna	12	10	8
Osasun txarra (Txarra+oso txarra)	1	1	1
GUZTIRA	100	100	100
(n)	1500	1500	1500

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Osasuna eta gazteak*, 2006ko datuen kasuan, eta *Euskadiko gazteak* seriea, 2012ko eta 2016ko datuen kasuan).

8.2.2. Gaixotasun kronikoak edo desgaitasunak

Osasun-faltak mugatu eta murriztu egiten ditu pertsona batek bere ahalmen guztiak garatzeko dituen aukerak. Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, gaixotasun kronikoak «iraupen luzeko eta oro har progresio geldoko gaixotasunak dira»⁵³. Bestalde, honela definitzen du desgaitasuna: «desgaitasuna termino orokorra da eta urritasunak, jarduteko mugak eta parte hartzeko murrizketak biltzen ditu. Desgaitasunek gorputzeko egitura edo eginkizun bati eragiten diote; jarduteko mugak ekintza edo zereginak gauzatzeko zailtasunak dira, eta parte hartzeko murrizketak, aldiz, bizi-egoeretan parte hartzeko arazoak dira. Horrenbestez, desgaitasuna fenomeno konplexua da eta giza gorputzaren ezaugarrien eta gizakia bizi den gizartearen ezaugarrien arteko elkarreragina adierazten du»⁵⁴.

Gaixotasun kroniko edo desgaitasunek EAEko 15-29 urteko gazteen % 14ri eragiten diote. Argitu beharra dago gaixotasun kroniko guztiek ez diotela hein berean eragiten pertsona baten osasunari, bizi-kalitateari, mugikortasunari eta abarri.

Datu hori Eurostatek bere osasun-adierazleetan eskaintzen dituen datuekin konparatzen badugu, ikusten dugu EAE erabat bat datorrela EB28k adierazle horretan duen batez besteko balioarekin (%13,7, 2015 urtean). Halere, bi alderdi argitu behar dira: batetik, Eurostatek jasotako balioak 16-29 urteko biztanleriari dagozkio; eta, bestetik, organismo horren definizio zehatza honako hau da: «*Longstanding health problem or disease is a health problem*

⁵² Gazteen Euskal Behatokia (2008): *Osasuna eta gazteak. Euskadiko gazteen ikusmoldeak osasunari buruz* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.gazteakukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteak_bilduma/eu_liburuak/adjuntos/Gazteak_Salud_e.pdf [Kontsulta: 2017/07/06]


⁵³ Osasunaren Mundu Erakunde: *Osasun-gaiak: Gaixotasun kronikoak* [linean] Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): http://www.who.int/topics/chronic_diseases/es/ [Kontsulta: 2017/07/06]

⁵⁴ Osasunaren Mundu Erakunde: *Osasun-gaiak: Desgaitasunak* [linean] Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): <http://www.who.int/topics/disabilities/es/> [Kontsulta: 2017/07/06]

that has lasted or is likely to last for at least 6 months. The main characteristic of a longstanding problem is that it is permanent and is expected to require a long period of monitoring, observation or care».⁵⁵

8.3 grafikoa

GAIXOTASUN KRONIKOAK EDO DESGAITASUNAK (%)



Gaixotasun kronikoek pixka bat gehiago eragiten diete gizon gazteei emakume gazteei baino (% 15 eta % 12, hurrenez hurren), eta gehiago hautematen dira elkarrizketatutako pertsonak adinean gora egin ahala.

8.5 taula

GAIXOTASUN KRONIKOAK EDO DESGAITASUNAK, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA KLASE SOZIAL SUBJEKTIBOAREN ARABERA (%)

Baduzu gaixotasun kronikorik edo ezintasunik?									
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Klase sozial subjektiboa		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Altua edo ertain-altua	Ertaina	Baxua edo ertain-baxua
Bai	14	12	15	12	14	15	12	12	20
Ez	86	88	85	87	86	85	87	88	80
Ed/Ee	0	0	0	1	0	0	1	0	0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	166	963	347

Udalerriaren tamainari dagokionez, ez dago desberdintasun handirik, baina bai, ordea, klase sozial subjektiboaren arabera. Beren burua klase sozial altu edo ertain-altukotzat dutenen artean, eta klase ertainekotzat dutenen artean, gaixotasun kroniko edo desgaitasunen bat dutenen proportzioa % 12 da. Beren burua klase sozial baxu edo ertain-baxukotzat dutenen artean, balio horrek % 20ra egiten du gora, hau da, beren burua klase baxu edo ertain-baxukotzat duten bost gaztetik batek gaixotasun kroniko edo desgaitasunen bat du.

⁵⁵ Eurostat (Europako Estatistika Bulegoa): *Statistics explained*. Glossary: Longstanding health problema or disease [linean] Hemen eskuragarri (ingelesez): http://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php/Glossary:Longstanding_health_problem_or_disease [Kontsulta: 2017/07/06]

Halaber, desberdintasun nabarmenak daude EAEn jaiotako edo atzerriko herrialderen batean jaiotako pertsonen artean, gaixotasun kronikoei edo desgaitasunei dagokienez (% 15 eta % 9, hurrenez hurren).

Gaixotasun kronikoren bat edo desgaitasunen bat duten pertsonen ez dute beren osasunaren hain balorazio positiboa egiten.

8.6 taula

OSASUNAREN PERTZEPZIO SUBJEKTIBOA, GAIXOTASUN KRONIKOAK EDO DESGAITASUNAK IZATEAREN ARABERA (%)

Oro har, nolakoa da zure osasuna: oso ona, ona, hala-holakoa, txarra edo oso txarra?			
Oso ona Ona Hala-holakoa edo txarra GUZTIRA (n)	GUZTIRA	Gaixotasun kroniko edo desgaitasunak	
		Bai	Ez
Oso ona	48	22	48
Ona	46	51	46
Hala-holakoa edo txarra	6	27	6
GUZTIRA	100	100	100
(n)	1500	196	1300


Gaixotasun kroniko edo desgaitasun bat dutela adierazten duten gazteen ehunekoak gora egin du, 2006an erregistratutako % 10etik⁵⁶.

8.2.3. Arazo psikologikoak azken 12 hilabeteetan

2016. urtearen hasieran, 15 urtetik 29 urtera bitarteko EAeko gazteen % 19k adierazi zuten arazo psikologikoren bat izan zutela (antsietatea, estresa, depresioa eta abar) aurreko urtean.

8.4 grafikoa

ARAZO PSIKOLOGIKOAK (ANTSIETATEA, ESTRESA, DEPRESIOA...) AZKEN 12 HILABETEETAN (%)



⁵⁶ Gazteen Euskal Behatokia (2008): *Osasuna eta gazteak*. Ob. cit.

Arazo psikologikoren bat izan zuten emakume gazteen ehunekoak gizonena bikoizten du: nesken % 26k eta mutilen % 13k. Diferentzia hori beharbada ez dagokio errealitate objektibo bati, baizik eta emakume eta gizonen osasun psikologikoari buruzko pertzepzio desberdina izateari. Gazteen Euskal Behatokiaren 2006ko Osasuna eta Gazteak azterlanari jarraikiz, «Emakume gazteen osasunaren ikuskera «ondo sentitzearen» ideian oinarritzen edo garatzen da. Osasunaren ikuskera integral eta orokor horretan garrantzi handia du norberarekiko harremanaren dimentsioak, baina baita besteekiko harremanarenak ere. Gizonen artean, ordea, (...) gizonen duten osasunaren ikuskeran maila emozional-psikologikoak ez du betetzen emakumeen diskurtsoan duen posizio nagusia; aitzitik, gizonen beren osasun-nozioa indarraren, ahalmen fisikoaren ideian oinarrituta eratzten dute⁵⁷. Hortaz, diferentzia horiek kontuz hartzekoak dira eta portzentajezko alde soilaz haratago aztertzekoak dira.

8.7 taula

ARAZO PSIKOLOGIKOAK AZKEN 12 HILABETEETAN, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

Azken 12 hilabeteetan izan al duzu arazo psikologikorik, hala nola, antsietate, estres, depresio edo horrelakorik?						
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bai	19	26	13	18	19	20
Ez	81	74	87	82	81	80
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600

Ez da alde handirik hautematen adinaren edo lan-egoeraren arabera, baina klase sozialaren arabera diferentziak agertzen dira. Berrito ere, beren burua klase sozial baxu edo ertain-baxukotzat duten gazteek hein handiagoan adierazten dute arazo psikologikoak (estresa, depresioa eta abar) izan dituztela, beren burua klase altu edo ertain-altukotzat dutenek baino. Hiriburuetan bizi diren gazteek ere adierazten dute arazo psikologiko gehiago jasan dituztela, udalerrri txikietan bizi direnek baino.

8.8 taula

ARAZO PSIKOLOGIKOAK AZKEN 12 HILABETEETAN, UDALERRIAREN TAMAINAREN ETA KLASE SOZIAL SUBJEKTIBOAREN ARABERA (%)

Azken 12 hilabeteetan izan al duzu arazo psikologikorik, hala nola, antsietate, estres, depresio edo horrelakorik?							
(%)	GUZTIRA	Udalerriaren tamaina			Klase sozial subjektiboa		
		Txikia	Ertaina	Hiriburua	Altua edo ertain-altua	Ertaina	Baxua edo ertain-baxua
Bai	19	14	19	23	17	16	30
Ez	81	86	81	77	83	84	70
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	800	489	173	166	963	347

⁵⁷ *Ibidem.*

5. kapituluan ikusi dugun moduan, sare sozialetan jazarpena edo bazterkeria jasan duten pertsonen (WhatsApp taldeetatik kanporatu dituzte, beren identitatea ordeztu dute sare sozial batean eta/edo Interneten beren irudi umiliagarri edo konprometituak zabaldu dituzte) hein handiagoan jasan dituzte arazo psikologikoak, egoera horiek bizi ez dituztenek baino: % 28 eta % 16, hurrenez hurren. Badirudi sare sozialek osasunaren gainean duten efektua hurrengo ikerketetan aztertu beharreko alderdi bat izan litekeela.

Azkenik, azken urtean arazo psikologikoren bat izan dutela onartzen dutenek beren osasunaren pertzepzio subjektibo negatiboagoa dutela egiaztatzen da.

8.9 taula

OSASUNAREN PERTZEPZIO SUBJEKTIBOA, AZKEN 12 HILABETEETAN
ARAZO PSIKOLOGIKOAK IZATEAREN ARABERA (%)

Oro har, nolakoa da zure osasuna: oso ona, ona, hala-holakoa, txarra edo oso txarra?			
(%)	GUZTIRA	Arazo psikologikoak	
		Bai	Ez
Oso ona	48	22	49
Ona	46	54	45
Hala-holakoa edo txarra	6	24	6
GUZTIRA	100	100	100
(n)	1500	293	1202

Arazo psikologikoen eboluzioari dagokionez, antsietatea, estresa, depresioa edo antzeko arazoren bat izan dutela aitortzen duten gazteen kopuruak arinki egin du gora 2012arekiko, urte hartan, ehuneko orokorra % 16 baitzen. Gorakada handiena emakumeen kasuan gertatu da, emakumeen kolektiboan, arazo psikologikoen prebalentzia % 21etik % 26ra pasa baita.

8.3. OHITURA OSASUNGARRIAK


Ikerketa honetan aztertu diren ohitura osasungarriak elikadura orekatuari eta bizitza aktiboari dagozkie.

8.3.1. Elikadura orekatua

15 urtetik 29 urtera bitarteko EAeko gazteen % 82k adierazi dute elikadura-ohitura orekatuak dituztela, hots, dieta aberatsa, askotarikoa eta, oro har, osasungarria. Badirudi elikadura-ohiturak egonkor mantendu direla, izan ere, 2012an, % 80k adierazi zuten beren ohiko elikadura nahiko orekatua zela.

8.5 grafikoa

ELIKADURA-OHITURAK (%)



15 urtetik 19 urtera bitartekoen taldea da elikadura orekatuaren ehuneko handiena agertzen duena, adin horretan, oraindik ere gurasoek erabakitzen baitute, oro har, zer jaten duten. Aurkako muturrean 20-24 urteko gazteak daude, aldi horretan ordutegiak, betebeharrak eta ohiturak aldatu egiten baitira. Talde horretan, % 23k diote dieta desorekatua dutela. 25 urtetik aurrera, badirudi elikadura-ohitura osasungarriak berreskuratzen direla.

Edozelan ere, alde handienak agertzen dituen aldagaia klase soziala da: beren burua klase sozial altu edo ertain-altukotzat dutenen % 92k diote modu orekatuan jaten duela, beren burua klase baxu edo ertain-baxukotzat dutenen (% 72) 20 puntu gainerik. Datu horrek berretsi egiten du gizarte-faktoreek osasunaren gainean duten eragina, hau da, estatus ekonomiko eta sozialak pertsonen ohitura eta osasunean eragiten dituen desberdintasunak.

8.10 taula

ELIKADURA-OHITURAK, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA KLASE SOZIAL SUBJEKTIBOAREN ARABERA (%)

Orain zure ohiturei buruz hitz egingo dugu. Ohiko elikadura kontuan hartuz, esango zenuke zure elikadura gehienbat orekatua dela edo gehienbat desorekatua dela?									
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Klase sozial subjektiboa		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Altua edo ertain-altua	Ertaina	Baxua edo ertain-baxua
Gehienbat orekatua	82	81	84	89	77	82	92	84	72
Gehienbat desorekatua	17	19	16	11	23	17	8	15	28
Ed/Ee	1	0	0	0	0	1	0	1	0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	166	963	347

Azkenik, behatu dugu elikadura desorekatua duten pertsonen beren osasunaren pertzepzio subjektibo negatiboagoa dutela.

8.11 taula

OSASUNAREN PERTZEPZIO SUBJEKTIBOA, ELIKADURA-OHITUREN ARABERA (%)


Oro har, nolakoa da zure osasuna: oso ona, ona, hala-holakoa, txarra edo oso txarra?			
(%)	GUZTIRA	Elikadura-ohiturak	
		Gehienbat orekatua	Gehienbat desorekatua
Oso ona	48	50	15
Ona	46	45	57
Hala-holakoa edo txarra	6	5	28
GUZTIRA	100	100	100
(n)	1500	1230	261

8.3.2. Bizimodu aktiboa

Bizi-estiloari dagokionez, 15-29 urteko euskal gazteen % 84k diote bizi estilo aktiboa dutela. % 15ek diote bizi estilo sedentarioa dutela eta gainerako % 1ak ez dio galdera honi erantzun.

8.6 grafikoa

GAZTEEN BIZI-ESTILOA (BIZIMODU AKTIBOA / BIZIMODU SEDENTARIOA) (%)



2012an aipatzen zen, eskola-kirola amaitutakoan, askotan ariketa fisikoa bertan behera uzten zela; baina badirudi joera hori eten egin dela eta ez da diferentzia handirik hautematen hiru bosturteko-taldeetan artean, hau da, 2016an, 15-19 urtekoek, 20-24 urtekoek eta 25-29 urtekoek hein berean jotzen dute beren burua aktibotzat.

Ez da desberdintasun esanguratsurik hautematen emakumeen eta gizonen artean ere.

8.12 taula

BIZI-ESTILOA (BIZIMODU AKTIBOA / BIZIMODU SEDENTARIOA),
SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

Eta zure ohiko jarduerak kontuan hartuz, nolakoa da zure bizitza zure ustez, gehienbat aktiboa edo gehienbat sedentarioa?						
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Gehienbat aktiboa	84	82	86	86	82	84
Gehienbat sedentarioa	15	17	14	12	17	16
Ed/Ee	1	1	0	1	1	0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600

Badaude aldeak, ordea, klase sozial subjektiboaren arabera. Kolektibo guztiek, nagusiki, nahiko bizitza aktiboa dutela adierazten duten arren, klase altu edo ertain-altukoaren artean % 83k adierazi dute hori eta proportzioa % 86raino igotzen da klase ertainekoaren artean; klase baxu edo ertain-baxukoaren artean, berriz, % 77ra jaisten da ehuneko hori.

Gazteen okupazio nagusiari erreparatuz gero, ikus daiteke langabezian dauden gazteak direla bizi-estilo sedentarioagoa dutenak.

8.13 taula

BIZI-ESTILOA (BIZIMODU AKTIBOA / BIZIMODU SEDENTARIOA),
OKUPAZIO NAGUSIAREN ETA KLASE SOZIAL SUBJEKTIBOAREN ARABERA (%)

Eta zure ohiko jarduerak kontuan hartuz, nolakoa da zure bizitza zure ustez, gehienbat aktiboa edo gehienbat sedentarioa?							
(%)	GUZTIRA	Okupazio nagusia			Klase sozial subjektiboa		
		Ikasten	Lanean	Langabezian	Altua edo ertain-altua	Ertaina	Baxua edo ertain-baxua
Gehienbat aktiboa	84	84	88	73	83	86	77
Gehienbat sedentarioa	15	15	12	27	17	13	22
Ed/Ee	1	1	0	0	0	1	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	800	489	173	166	963	347


8.4. ARRISKU-JOKABIDEAK

Inolaz ere osasungarriak ez diren eta arrisku-jokabidetzat jo daitezkeen ohituren artean, honako hauek aztertu ditugu: tabako-kontsumoa, alkohol-kontsumoa, legez kanpoko drogen kontsumoa eta baimendutako alkoholemia-tasaren ginetik gidatzea.

8.4.1. Tabakoa

15-29 urteko euskal gazteen % 53k diote ez dutela inoiz erre. % 31k diote egunero erretzen dutela, % 7k noizean behin erretzen dutela, eta % 8 erretzaile ohizat jo daitezke, lehen erretzen baitzuten baina orain ez.

8.7 grafikoa
ERRETZEKO OHITURA (%)



Gizonezkoen % 34k diote egunero erretzen dutela eta emakumeen kasuan proportzio hori % 28 da.

Adin-taldee begiratzuz gero, agerian geratzen da diferentzia handiak daudela hiru adin-taldeen artean. Izan ere, 15-19 urteko gazteen % 21ek erretzen dute egunero; 20-24 urtekoen artean, % 31k; eta are gehiago 25-29 urtekoen artean, % 40k, hain zuzen ere.

Eguneroko tabako-kontsumoak klase sozialaren osagai sakona ere badu. Beren burua klase altu edo ertain-altukotzat jotzen dutenen % 22k egunero erretzen dute; klase ertainekotzat definitzen direnen % 30ek erretzen dute egunero; eta % 40k, klase baxu edo ertain-baxukotzat definitzen direnen kasuan.

Aztertutako kolektiboetako batzuetan (adibidez, 25 urtetik 29 urtera bitarteko taldean) hamar pertsonatik lauk egunero erretzen duten arren, tabako-kontsumoaren eboluzioa beherakorra izan da. 2012an jasotako balioak ikerketa honetako balioekin konparatzen baditugu, ikusten dugu orduan (2012an) % 39 zela erretzaileen proportzioa eta 2016an, berriz, % 31.

Bestalde, portzentajezko 14 puntutan egin du gora (% 39tik % 53ra), inoiz erre ez duten EAEko 15 urtetik 29 urtera bitarteko gazteen ehunekoak.


8.14 taula

ERRETZEKO OHITURA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA KLASA SOZIAL SUBJEKTIBOAREN ARABERA (%)

Erretzen duzu edo erre al duzu inoiz?	Erretzen duzu edo erre al duzu inoiz?								
	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Klasa sozial subjektiboa		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Altua edo ertain-altua	Ertaina	Baxua edo ertain-baxua
Egunero erretzen du	31	28	34	21	31	40	22	30	40
Noizean behin erretzen du	7	7	7	6	7	8	7	6	11
Lehen erretzen zuen baina orain ez	8	10	7	5	5	13	6	8	8
Ez du inoiz erre	53	55	52	68	57	39	65	55	41
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0	0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	166	963	347

8.8 grafikoa

ERRETZEKO OHITURAREN EBOLUZIOA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko Gazteak seriea).

8.4.2. Alkohola

Alkohol-kontsumoari erlazionatutako arrisku-jokabideak neurtzeko honako hauek neurtu dira: batetik, zenbat gazte mozkortu diren inkesta egin aurreko hilean; eta, bestetik, zenbat gaztek gidatu duten edo ibili diren gidariak legez baimendutako alkohol-tasa gainditzen zuen ibilgailu batean.

15 urtetik 29 urtera bitarteko euskal gazteen % 42 behin mozkortu dira, gutxienez, inkesta egin aurreko hilabetean. Ehuneko horrek ere behera egin du 2012arekiko (% 48).

Ehuneko hori hamar puntu altuagoa da gizonen artean, emakumeen artean baino (% 47 eta % 37, hurrenez hurren). Aztertutako hiru adin-taldeei dagokienean, proportzio handiena 20 urtetik 24 urtera bitartekoen artean aurkitzen da (% 48 noizbait mozkortu dira inkesta egin aurreko hilabetean).

8.15 taula

AZKEN HILABETEAN MOZKORTZEA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

Eta gutxienez azken hilabetean behin mozkortu al zara?						
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bai	42	37	47	35	48	43
Ez	58	63	53	65	52	57
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600

Bestalde, alkoholaren eraginpean gidatzeari dagokionez, hamar gaztetik batek baieztatzen du alkoholemia-kontrol batean positibo emateko moduan gidatu duela edo gidaria positibo emateko moduan zegoen ibilgailu batean ibili dela. Adin-taldeen araberako diferentziei begiratzen badiegu, ikusten da gazteenak (15-19 urtekoak) direla arrisku-jokabide hau gutxien izan dutenak. 20 urtetik 29 urtera bitarteko pertsonak dira ehuneko altuenak agertzen dituztenak, adin horiekin gida-baimena eta berezko ibilgailua izateko aukera handiagoak baitituzte.

Gizon gazteek emakumeek baino puntuazio altuagoak dituzte arrisku-jokabide honetan ere.

Arrisku-jokabide honetan ez da ia aldaketarik egon azken urteotan: % 9, 2012an; eta % 10, 2016an.

8.16 taula

GIDATZEA EDO NORBAITEK AUTOZ ERAMATEA ONARTUTAKOA BAINO ALKOHOL-TASA HANDIAGOAREKIN AZKEN HILABETEAN, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

Eta gutxienez azken hilabetean behin gidatu al duzu edo eraman al zaitu kotxean gidari batek onartzen dena baino alkohol-tasa handiagorekin?						
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bai	10	7	12	5	13	10
Ez	90	93	87	94	86	89
Ed/Ee	0	0	1	1	1	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600


8.4.3. Legez kanpoko drogak

EAEko gazteen % 19k aitortu dute legez kanpoko drogaren bat (kanabisa, kokaina, pilulak eta abar) kontsumitu dutela gutxienez behin inkesta egin aurreko hilabetean.

Legez kanpoko drogak aipatzen ditugunean, argitu behar da galderan ez zirela drogak bereizten, nahiz eta kanabisak, kokainak eta pilulek oso kontsiderazio sozial desberdina duten. Dena den, kalkulatzeko ezinezkoa izan arren, ziurrenik erregistratutako proportzio handiena haxix- edo kanabis-kontsumitzaileei dagokie. Hain zuzen ere, Euskadi eta Drogak ⁵⁸seriearen azken edizioan (2012koa da) jasotako balioei begiratzen badiegu, 15-34 urtekoen kolektiboan, kanabisaren azken aldiko kontsumoa % 15,0 da; speed-aren azken aldiko kontsumoa, % 2,5 da; kokainarena, % 1,7; eta estasiarena, % 0,6.

8.9 grafikoa

LEGEZ KANPOKO DROGAREN BAT (KANABISA, KOKAINA, PILULAK ETA ABAR) KONTSUMITZEA AZKEN HILABETEAN (%)



⁵⁸ Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (2013): *Euskadi eta drogak 2012*. [linean] Hemen eskuragarri: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones/innovacion/eu_otrosamb/adjuntos/promocion_salud/940012e_Euskadi_drogas_2012_e.pdf (122. or.) [Kontsulta: 2017/06/01]

Elkarrizketa egin aurreko hilabeteen legez kanpoko drogen kontsumoa askoz handiagoa da gizonen kasuan, emakumeen kasuan baino (% 23 eta % 14, hurrenez hurren). Halaber, igo egiten da elkarrizketatutako pertsonen adinean gora egin ahala, baina gorakada ez da pixkanakakoa, 20 urtetik aurrera gertatzen baita. 15 urtetik 19 urtera bitarte duten gazteen taldean, azken hilabeteen legez kanpoko drogaren bat kontsumitu duten pertsonen proportzioa % 14 da. % 20ra igotzen da 20-24 urteko gazteen artean eta pixka bat gehiago igotzen da, % 21eraino hain zuzen, 25-29 urteko gazteen artean.

Elkarrizketatutako pertsonak bere buruari aitortzen dion klase sozialari begiratzen badiogu, berriro ere ikus daiteke ohitura ez-osasungarriak hedatuago daudela klase sozial baxu edo ertain-baxukoak direla dioten pertsonen artean. Horietatik, % 28k diote azken hilabeteen legez kanpoko drogaren bat kontsumitu dutela. Beren burua klase altu edo ertain-altukotzat eta klase ertainekotzat dutenen kasuan, proportzioak txikiagoak dira (% 15 eta % 16, hurrenez hurren).

8.17 taula

LEGEZ KANPOKO DROGAREN BATEN KONTSUMOA (KANABISA, KOKAINA, PILULAK ETA ABAR) AZKEN HILABETEAN, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA KLASE SOZIAL SUBJEKTIBOAREN ARABERA (%)

Eta gutxienez azken hilabetean behin droga ilegalik hartu al duzu, hala nola, haxixa, kokaina, pilulak edo horrelakorik?									
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak			Klase sozial subjektiboa		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Altua edo ertain-altua	Ertaina	Baxua edo ertain-baxua
Bai	19	14	23	14	20	21	15	16	28
Ez	81	86	77	86	80	79	85	84	72
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0	0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600	166	963	347

2012. urtearekiko ez da aldaketa handirik egon, urte hartan, gazteen % 20k adierazi baitzuten inkesta egin aurreko hilabeteen legez kanpoko drogaren bat kontsumitu izana.

8.5. SEXUALITATEA


Sexualitatea unibertso konplexua da, lau alderdi nagusi jasotzen dituena: biologikoa, psikologikoa, soziala eta etikoa. Horiek guztiak elkarrekin erlazionatuta daude eta ezin dira bereizi. Alderdi horietako bakoitzak rol garrantzitsua du sexualitatearekin erlazionatutako oro hautematen dugun eran.

Ikerketa honetan gai hau bi ikuspegitatik aztertzen saiatu gara. Sexu-esperientzia bera eta, bestalde, sexualitatearen ikuspegi sozial eta etikoa, sexualitate eta sexu-ibilbide desberdinekiko errespetu gisa ulertuta.

8.5.1. Esperientzia sexu-harremanetan

15-29 urteko gazte guztiak hartuta, ikusten dugu % 81ek sexu-esperientziaren bat dutela eta ez dago ia alderik mutilen eta nesken artean: mutilen % 81ek eta emakumeen % 80k diote sexu-harremanak izan dituztela.

8.10 grafikoa
ESPERIENTZIA SEXU-HARREMANETAN (%)



Adinean gora egin ahala, nabarmen igotzen da, halaber, sexu-esperientzia duten gazteen ehunekoa ere. Horrela, 15 urtetik 19 urtera bitarteko gazteen artean, sexu-esperientzia dutenak erdia izatetik (% 49) ia guztiak izatera (% 97) igarotzen dira 25 urtetik 29 urtera bitartekoen taldean.

8.18 taula
SEXU-ESPERIENTZIA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)


Zuk izan duzu inoiz harreman sexualik?						
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bai	81	80	81	49	92	97
Ez	18	18	18	49	6	2
Ed/Ee	1	1	1	2	2	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600

Sexu-praktikek, batzuetan, zenbait arrisku ekartzen dituzte beraiekin, eta agian are gehiago gazteen kasuan: nahi gabeko haurdunaldiak eta/edo sexu-transmisioko gaixotasunak, edo biak.

Sexu-esperientzia duten gazteen % 15ek diote sexu-harreman arriskutsuren bat izan dutela inkesta egin aurreko urtean: % 13k nahi gabeko haurdunaldien edo sexu-transmisioko gaixotasunen arriskua lekarkeen sexu-harremanen bat izan dute, eta % 2k sexu-transmisioko gaixotasuna izateko arriskua bai baina haurdunaldi-arriskurik ez zuen praktikaren bat egin dute.

8.11

SEXU-HARREMAN ARRISKUTSUAK* (%)



* Oinarria: Sexu-harremanak izan dituzten gazteak (% 81).

Mutilen artean, sexu-harreman arriskutsuak pixka bat ohikoagoak dira nesken artean baino; sexu-esperientzia duten mutilen % 17k diote azken urtean sexu-harreman arriskutsuren bat izan dutela; eta sexu-esperientzia duten nesken kasuan, berriz, % 13 dira praktika arriskutsuren bat izan dutenak.

Adinean gora egin ahala, jaitsi egiten da sexu-harreman arriskutsuak izan dituztela dioten sexu-esperientziadun gazteen ehunekoa. Hala, sexu-esperientzia duten 20 urtetik beherako gazteen % 19 izatetik, % 16ra igarotzen da 20-24 urteko pertsonen artean, eta % 14ra, 25-29 urtekoen artean.

8.19 taula

SEXU-HARREMAN ARRISKUTSUAK, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

Azken urtean izan al duzu nahi gabe haurdun geratzeko edo sexu-transmisioko gaixotasunen bat hartzeko arriskua dakarren harreman sexualik?*	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bai, nahi gabe haurdun geratzeko arriskukoa	7	6	9	10	8	6
Bai, sexu-transmisioko gaixotasunen bat hartzeko arriskukoa	2	2	2	3	2	2
Bai, bi arrisku mota horietakoa	6	5	6	6	6	6
Ez	83	85	81	80	81	86
Ed/Ee	2	2	2	1	3	1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1204	596	608	212	412	580

* Galdera hau bakarrik sexu-esperientzia duten gazteei galdetu zaie.

EAEko gazte guztiak kontuan hartzen baditugu (sexu-harremanak izan dituzten edo ez alde batera utzita), soilik % 12k izan dute azken urtean nahi gabeko haurdunaldia izateko, sexu-transmisioko gaixotasun bat harrapatzeko edo bietako arriskua zuen sexu-harremanen bat. Ondoriozta daiteke sexu-praktika arriskutsuak ez direla ohikoak EAEko 15 urtetik 29 urtera bitarteko pertsonen artean eta, gainera, behera egin dute, 2012an gazteen guztizkoaren % 18k aitortzen baitzituzten halakoak.

8.5.2. Homosexualitatea gaixotasuntzat hartzearekiko adostasun-maila

1973an Amerikako Psikiatria Elkarteak homosexualitatea buru-nahasmenduen zerrendatik atera zuen estatistika- eta diagnostiko-eskuliburutik eta, 1990an, Osasunaren Mundu Erakundeak homosexualitatea atera zuen gaixotasunen munduko sailkapenaren eskuliburutik. Harrezkero, aldaketa sozial handiak gertatu dira homosexualitatea beste edozein sexu-orientazio bezain zilegi delako iritzian. Hala ere, badaude oraindik homosexualitatea arazoa dela errepikatzen duten populazio-talde txikiak eta, horregatik, ikerketa honetan EAEko gazteei galdetzen jarraitzen zaie ea ados dauden honako baieztapen honekin: «homosexualitatea gaixotasuna da eta hala tratatzekoa da».

EAEko gazteen % 85 baieztapen horren erabat aurka ageri dira eta % 7k «adostasun txikia» agertzen dute. Hortaz, % 92 baieztapen horren aurka ageri dira. Ehuneko horrek gora egin du azken ikerketatik (*Euskadiko Gazteak 2012*), orduan % 88 erregistratu baitzen.

Adostasun txikia edo erabateko desadostasuna agertzen duten pertsonen balioak batzen baditugu, ez da diferentzia handirik hautematen emakume eta gizonen artean, ezta adin-taldearen arabera ere.

8.20 taula

HOMOSEXUALITATEA GAIKOTASUNTZAT HARTZEAREKIKO ADOSTASUN-MAILA,
SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

Esadazu, mesedez, esaldi honekin oso ados zauden, nahikoa ados zauden, ez zauden oso ados edo ez zauden batere ados: «Funtsean homosexualitatea gaixotasun bat da eta horrela tratatu behar da»						
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Oso ados	2	1	3	2	2	3
Nahikoa ados	2	2	1	2	1	2
Ez ados ezta kontra ere*	2	2	3	2	3	1
Ez oso ados	7	6	8	10	6	5
Batere ados ez	85	87	83	82	86	86
Ed/Ee	3	3	3	3	2	3
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600

* Erantzun aukera hau ez zitzaien inkestatuei eskaini.

Dena den, diferentzia handiak agertzen dira honako hauek gurutzatzen baditugu: «homosexualitatea gaixotasuna da eta halakotzat tratatu behar da» baieztapena, eskoletan erlijioa irakastearen aldeko jarrera eta norberari hautemandako klase soziala.

Eskoletan erlijioa irakastearen alde dauden pertsonen % 8 baieztapen horrekin oso edo nahiko ados agertzen dira, eta eskoletan erlijioa irakastearen aurka daudenen artean, berriz, % 2 baino ez. Eskoletan erlijioa irakastearen alde dauden pertsonen artean, baieztapen horrekiko erabateko desadostasuna % 75ekoa da; eskoletan erlijioa irakastearen aurka dauden pertsonen kasuan, berriz, % 90ekoa.

Horrenbesteko diferentzia sakonik eragiten ez duen arren, badirudi klase sozial subjektiboa ere faktore erabakigarria dela homosexualitatearekiko iritziei dagokienez. Beren burua klase altu edo ertain-altukotzat hartzen dutenen artean, baieztapen horrekin ados (oso ados edo nahikoa ados) daudenen ehunekoa % 1 da. Klase sozial baxu edo erdi-baxukoen artean, ordea, % 6 da proportzioa.

8.21 taula

HOMOSEXUALITATEA GAIXOTASUNTZAT HARTZEAREKIKO ADOSTASUN-MAILA, ERLIJIOA ESKOLETAN IRAKASTEAREKIKO JARRERAREN ETA KLASE SOZIAL SUBJEKTIBOAREN ARABERA (%)

Esadazu, mesedez, esaldi honekin oso ados zauden, nahikoa ados zauden, ez zauden oso ados edo ez zauden batere ados: «Funtsean homosexualitatea gaixotasun bat da eta horrela tratatu behar da»						
(%)	GUZTIRA	Eskoletan erlijioa irakastea		Klase sozial subjektiboa		
		Alde	Kontra	Altua edo ertain-altua	Ertaina	Baxua edo ertain-baxua
Oso ados	2	4	1	0	2	4
Nahikoa ados	2	4	1	1	1	2
Ez ados ezta kontra ere *	2	4	1	2	2	3
Ez oso ados	7	11	6	5	7	7
Batere ados ez	85	75	90	89	85	82
Ed/Ee	3	3	2	3	3	3
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	473	843	166	963	347

* Erantzun aukera hau ez zitzaien inkestatuei eskaini.

Azkenik, elkarrizketatutako pertsonen erlijio-praktikaren arabera aldea badaude. Beren burua katolikotzat dutenen artean (praktikanteak zein ez), soilik % 3 agertzen dira homosexualitatea gaixotasuna delako baieztapenarekin ados (oso ados edo nahiko ados). Baina beste erlijio batzuetako praktikanteen artean (batez ere islamaren kasuan), % 22k dute iritzi hori. Erlijiotik urrunago agertzen diren pertsonak (ateoak, agnostikoak, erlijioa axola ez zaienak) jarrera sendoagoak agertzen dituzte planteatutako baieztapena aurkatzeko orduan.

8.22 taula

HOMOSEXUALITATEA GAIXOTASUNTZAT HARTZEAREKIKO ADOSTASUN-MAILA,
ERLIJIOARI DAGOKIONEZ HARTUTAKO JARRERAREN ARABERA (%)

Esadazu, mesedez, esaldi honekin oso ados zauden, nahikoa ados zauden, ez zauden oso ados edo ez zauden batere ados: «Funtsean homosexualitatea gaixotasun bat da eta horrela tratatu behar da»					
(%)	Erljioari dagokionez hartutako jarrera				
	GUZTIRA	Katoliko elizkoiak eta ez elizkoiak	Beste erlijio bateko sinestuna	Jainkoarengan sinesten du, erlijioetan ez	Ateoa, agnostikoa, ez zaio interesatzen
Oso ados	2	1	12	0	1
Nahikoa ados	2	2	10	1	0
Ez ados ezta kontra ere *	2	2	10	2	1
Ez oso ados	7	10	9	9	4
Batere ados ez	85	82	50	86	92
Ed/Ee	3	3	9	2	2
GUZTIRA	100	100	100	100	100
(n)	1500	430	126	62	839

* Erantzun aukera hau ez zitzairen inkestatuei eskaini.

8.5.3. Sexu-aukera aldatzeari buruzko iritzia

Sexualitateari dagokionez, elkarriketatutako pertsonen tolerantzia ebaluatzeko erabili den bigarren baieztapena honako hau da: «bizitzan zehar, pertsona batek bere sexu-aukera alda dezake eta gizon zein emakumeekin izan ditzake sexu-harremanak».

EAEko gazteen % 66 baieztapen horrekin erabat ados ageri dira eta % 16 nahiko ados ageri dira. % 82ko ehuneko metatuak portzentajezko hazkunde handia agertzen du, 2012an % 65 baitzen.

Emakumeek askoz adostasun handiagoa agertzen dute baieztapen horrekin mutilek baino. Nesken % 71 baieztapen horrekin oso ados daude eta gizonen artean, berriz, oso ados daudenen ehunekoa 10 puntu txikiagoa da (% 61). Aztertutako hiru adin-taldean artean ez da alde esanguratsurik hautematen.

Homosexualitatea gaixotasuna delako baieztapenarekin gertatzen zen moduan, eskoletan erlijioa irakastearen aldeko edo aurkako jarreraren arabera diferentzia handiak hautematen dira, eta komeni da horiek aipatzea. Eskoletan erlijioa irakastearen alde ageri direnen artean, % 55 oso ados daude, eta ehuneko hori 18 puntu handiagoa da eskoletan erlijioa irakaslearen alde ez daudenen artean (% 73).

Elkarriketatutako pertsonen klase sozial subjektiboaren arabera diferentziak ere badaude. Beren burua klase altu edo ertain-altukotzat dutenen artean, % 69 baieztapen horrekin oso ados daude, eta beren burua klase baxu edo ertain-baxukotzat dutenen artean, berriz, proportzioa % 62 da.

8.23 taula

SEXU-AUKERA ALDATZEARI BURUZKO IRITZIA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

Esadazu, mesedez, esaldi honekin oso ados zauden, nahikoa ados zauden, ez zauden oso ados edo ez zauden batere ados: «Bizitzan zehar pertsona batek aldatu ahal du bere aukera sexuala eta harreman sexualak izan gizonekin edo emakumeekin»

(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Oso ados	66	71	61	67	66	66
Nahikoa ados	16	15	18	17	18	16
Ez ados ezta kontra ere *	6	5	7	6	7	5
Ez oso ados	3	2	4	2	4	3
Batere ados ez	7	5	8	5	6	9
Ed/Ee	2	2	2	3	1	3
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	750	750	450	450	600

* Erantzun aukera hau ez zitzaien inkestatuei eskaini.

8.24 taula

SEXU-AUKERA ALDATZEARI BURUZKO IRITZIA, ERLIJIOA ESKOLETAN IRAKASTEAREKIKO JARRERAREN ETA KLASA SOZIAL SUBJEKTIBOAREN ARABERA (%)

Esadazu, mesedez, esaldi honekin oso ados zauden, nahikoa ados zauden, ez zauden oso ados edo ez zauden batere ados: «Bizitzan zehar pertsona batek aldatu ahal du bere aukera sexuala eta harreman sexualak izan gizonekin edo emakumeekin»

(%)	GUZTIRA	Eskoletan erlijioa irakastea		Klasa sozial subjektiboa		
		Alde	Kontra	Altua edo ertain-altua	Ertaina	Baxua edo ertain-baxua
Oso ados	66	55	73	69	67	62
Nahikoa ados	16	20	15	16	18	12
Ez ados ezta kontra ere *	6	6	5	8	4	9
Ez oso ados	3	5	2	2	3	4
Batere ados ez	7	12	4	1	6	10
Ed/Ee	2	3	2	3	2	3
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	473	843	166	963	347

* Erantzun aukera hau ez zitzaien inkestatuei eskaini.

Elkarriketatutako pertsonen erlijio-orientazioa aldagai esanguratsua da berriro ere. Katolikotzat definitzen diren pertsonak (praktikanteak ala ez) baieztapen horrekin oso ados agertzen dira kasuen % 59an; Jainkoarengan sinesten duten baina erlijioetan sinesten ez duten pertsonen kasuan, proportzioa antzekoa da (% 58). Baieztapen horri dagokionean, muturreko iritziak dituzte beste erlijio batzuk praktikatzan dituzten pertsonen eta beren burua ateo edo agnostikotzat aitortzen dutenek zein erlijioa axola ez zaienek.

Hala, ikusten dugu beste erlijio batzuk praktikatzan dituztela adierazten duten pertsonen artean, % 20 soilik daudela ados pertsona batek bere bizitzan zehar sexu-aukera aldatu dezakeelako baieztapenarekin. Hain zuzen, katolikoaz bestelako erlijio batzuetako pertsonen % 47 ideia horren erabat aurka daude.

Aurkako muturrean daude pertsona ateoak, agnostikoak eta erlijioa axola ez zaienak. Horietatik, % 77 baieztapen horrekin erabat ados agertzen dira.

8.25 taula

SEXU-AUKERA ALDATZEARI BURUZKO IRITZIA,
ERLIJIOARI DAGOKIONEZ HARTUTAKO JARRERAREN ARABERA (%)

Esadazu, mesedez, esaldi honekin oso ados zauden, nahikoa ados zauden, ez zauden oso ados edo ez zauden batere ados: «Bizitzan zehar pertsona batek aldatu ahal du bere aukera sexuala eta harreman sexualak izan gizonekin edo emakumeekin»						
Erljioari dagokionez hartutako jarrera	Erljioari dagokionez hartutako jarrera					
	(%)	GUZTIRA	Katoliko elizkoiak eta ez elizkoiak	Beste erlijio bateko sinestuna	Jainkoarengan sinesten du, erlijioetan ez	Ateoa, agnostikoa, ez zaio interesatzen
Oso ados	66	66	59	20	58	77
Nahikoa ados	16	16	21	10	22	15
Ez ados ezta kontra ere *	6	6	6	12	8	4
Ez oso ados	3	3	4	6	6	1
Batere ados ez	7	7	7	47	6	1
Ed/Ee	2	2	3	6	0	2
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1500	1500	430	126	62	839

* Erantzun aukera hau ez zitzaien inkestatuei eskaini.

8.6. ONDORIOAK

EAEko gazteen osasuna, oro har, ona da, nahiz eta bost gaztetik batek dion aurreko urtean arazo psikologikoren bat (antsietatea, depresioa...) izan duela; emakumeek gizonen baino proportzio handiagoan. Oro har, 15 urtetik 29 urtera bitarteko pertsonen artean agerikoak dira diferentzia sozioekonomikoek eragindako ekitate-faltaren ondorioak.

Klase soziala faktore erabakigarria da gazteen osasunean eta, hortaz, egiaztatuta geratzen da baldintza sozioekonomikoek eta ingurune-baldintzek eragina dutela bizi-baldintzetan eta lan-baldintzetan. Era berean, azken

faktore horiek eragina dute babes sozial eta komunitarioan, bizi-ohituretan eta, azkenik, faktore pertsonal eta familia-faktoreetan.

Elikadurari eta bizitza aktiboari loturiko bizi-ohiturek adierazten dute gazteek elikadura-ohitura onak dituztela eta, oro har, bizi-estilo aktibora orientatuta daudela. Baina Eusko Jaurlaritzaren Osasun Inkestak erregistratutako obesitate-tasa etengabe igotzen aritzeak zalantzan jartzen du gazteen bizi-estilo integrala egiazki osasungarria ote den.

Arrisku-jokabideetan hauteman dira argien emakume eta gizonen sozializazio desberdinak. Oro har, jokabidea zenbat eta arriskutsuagoa izan, are maskulinizatuago dago fenomenoak. Gizon eta emakume gazteen arteko aldeak are handiagoak dira legez kanpoko drogei buruz ari garenean. Badirudi gazteen berezkoa den garaitezintasun-sentsazioa biziago adierazten dela gizonen artean, emakumeen artean baino.

Sexu-praktikei dagokienez, 20 urtetik aurrera, 10 pertsonatik 9k sexu-harreman osoak izan dituzte jada. Arrisku-jokabideak ez dira oso ohikoak gazteen artean: 15-29 urteko pertsonen % 12k soilik izan dute sexu-harreman arriskutsuren bat azken urtean.



Emaitzarik aipagarrienak

FAMILIA-, PRESTAKUNTZA- ETA OKUPAZIO-EGOERA

Ikasketak luzatu egiten dira enplegarritasun-estrategia gisa eta, horren ondorioz, prestakuntza-mailak gora egiten du

Gazteen % 55en kasuan, ikastea da okupazio nagusia. Ehuneko hori altuena da, 2000. urtean *Euskadiko gazteak* seriea hasi zenetik.

Prestakuntzaren aldia luzatzearen ondorioz, 25 urtetik 29 urtera bitarteko gazteen erdiak baino gehiagok (% 53) goi-mailako titulazioa dute, dela unibertsitate-gradua edo lanbide-heziketan (adin tarte horri erreparatu diogu, horretan pertsona gehienek jadanik amaitu dutelako hezkuntza arautua).

Emakumeek gizonen baino pixka bat maila altuagoa lortzen dute, baina diferentzia nagusiak atzerrian eta EAEn jaiotako gazteen artean gertatzen dira. EAEn jaiotako 25 urtetik 29 urtera bitarteko gazteen % 60k goi-mailako titulazioa dute, eta atzerrian jaio direnen % 27k baino ez.

25-29 urteko talde horretan, goi- edo erdi-mailako heziketa-zikloak egin dituzten pertsonen ehunekoa (% 35) handiagoa da unibertsitate-ikasketak amaitu dituztenena baino (% 31). Titulazio profesionalak gora egiten jarraitu dute 2012az geroztik eta joera hori mantendu egin da 2016an.

Ingeles- eta euskara-ezagutzak gora egiten du gazteen artean, orokorrean

Hamar gaztetik zazpi ondo edo oso ondo hitz egiten dute euskaraz. Euskara-ezagutzan eragin handia du lurraldeak: Gipuzkoan gazteen % 79k dakite ondo euskaraz; Bizkaian % 68k; eta Araban, berriz, % 51k. Atzerrian jaiotako gazteen artean, euskara-ezagutza % 12raino jaisten da.

Gazteen % 42k diote ondo edo egoki dakiela ingelesez. Ezagutza-maila % 51ra igotzen da 15 urtetik 19 urtera bitartekoen taldean, baina amaitutako ikasketa mota da alde handienak agertzen dituen aldagaia: unibertsitate-ikasketak dituztenen % 61ek dakite ingelesez, eta heziketa-zikloak egin dituztenen % 25ek. Atzerrira hizkuntzak ikastera edo eskola- zein unibertsitate-trukeetan parte hartzera bidaiatu dutenen artean, % 72k diote ingelesa ondo dakitela.

Euskal hezkuntza-sistemarekiko gogobetetze-mailak hobera egin du, batez ere heziketa-zikloak egin dituztenen artean

Gazteen % 67k adierazi dute EAEko hezkuntza-sistema ona edo oso ona dela, hots, zortzi puntuko gorakada egon da 2012arekiko. Lanbide-heziketa egin dutenen artean, jasotako hezkuntza ona edo oso ona izan dela uste dutenen ehunekoa % 74 da, eta unibertsitate-ikasketak egin dituztenen kasuan, berriz, % 63 da.

Halaber, heziketa-zikloak egin dituztenen artean, ikastegian jasotako lan-informazio eta -orientazioarekiko gogobetetze-maila ere handiagoa da., unibertsitatean ikasi dutenena baino.

Zailtasunak gorabehera, emantzipatuta bizi direnen ehunekoa mantendu egiten da, nahiz eta 15 urtetik 29 urtera bitarteko EAEko gazte gehienak jatorrizko familiarekin bizi diren eta ekonomikoki haren mende dauden

15 urtetik 29 urtera bitarteko gazteen % 72 gurasoekin bizi dira. % 24 emantzipatuta daude eta % 3 kanpoan bizi dira lanegunetan eta familiaren etxera itzultzen dira asteburuetan. Emantzipatuta bizi diren gazteen portzentajearen eboluzioa positiboa izan da, izan ere, 2004an, gazteen % 14 baino ez ziren familiaren etxetik kanpo bizi.

Gazteen % 54rentzako, familia da diru-sarrereren iturri nagusia; % 37rentzako, lana da; % 2k langabezia-prestazioa jasotzen dute; eta % 4k, berriz, gizarte-laguntzak.

Seme-alabaren bat duten gazteen ehunekoak gora egin du pixkanaka eta % 9raino heldu da (2000. urtean % 3 zen). Jatorria erabakigarria da arlo honetan: atzerrian jaiotako gazteen % 30ek seme-alabaren bat dute, gutxienez, eta EAEn jaiotakoan artean, berriz, % 5ek.

EGOERA PERTSONALAREN ETA SOZIALAREN BALORAZIOA

Gazteen kezka nagusia enplegua eta lan-merkatuari loturiko arazoak dira

Gazteen erdiak baino gehiagok (% 56) adierazi dute arazo hori dela pertsonalki gehien kezkatzen dituen.

Adinean gora egin ahala eta ikasketak amaituta izan ahala, arazo hori gehiago aipatzen da, batez ere langabezia dauden pertsonen artean.

Hala ere, 2012arekiko nabarmen egin du behera arazo hori aipatzen duten gazteen ehunekoak.

Lehen aldiz, ikasketak bigarren postuan daude, gazteen kezken eskalan

Gazteen ia laurden batek aipatu ditu ikasketak (% 22). Eta, lan-merkatuari loturiko arazoaren kasuan ez bezala, ikasketen aipamenek gora egiten dute adinean behera egin ahala.

Horren atzetik, arazo ekonomikoak (% 15), osasuna eta osasungintza (% 8), eta etxebizitza eta emantzipazioa (% 8) daude, aipamen-ehuneko txikiagoak dituzten bestelako arazo batzuek gainera.

Gazteek beren egoera pertsonalaren balorazio positiboa egiten dute, biztanleria orokorraren batezbestekoaz gaindi

Gazteen % 79k adierazi dute beren egoera pertsonalarekin gustura daudela, eta gogobetetze-mailak gora egin du aurreko urteekiko.

0-10 eskalan, 7,3ko puntuazioa ematen diote beren bizitzari, eta puntuazio horrek gaintitu egiten du 18 urteko eta gehiagoko biztanleriaren batezbestekoa (6,4).

Gazteria orokorraren edo Euskadiko egoerari buruz egiten duten balorazioak ez dira hain positiboak, baina hobera egin dute 2012arekiko

Gazteen erdiak (% 49) uste dute gazteen egoera hala moduzkoa dela, alegia, ona alderdi batzuetan eta txarra beste batzuetan. Egoera ona dela uste dutenen ehunekoa (% 24) eta txarra dela uste dutenen ehunekoa (% 26) antzekoak dira.

Erdiak baino zertxobait gehiagok (% 53) uste dute Euskadiko egoera hala moduzkoa dela. Kasu honetan, gehiago dira egoera ona dela uste dutenak (% 31) egoera txarra dela uste dutenak baino (% 14).

Bi kasuetan, egoera ona dela uste dutenen ehunekoak nabarmen egin du gora 2012arekiko.

Oraindik ere, gazte gehienek uste dute erakundeek ez dutela beren iritzia kontuan hartzen, baina horien pisu erlatiboak behera egin du pixkanaka

Hiru gaztetik bik uste dute erakundeek ez dituztela gazteen iritzia kontuan hartzen. Dena den, 2012arekiko, 10 puntutan egin du gora aurkakoa pentsatzen dutenen ehunekoak, hau da, erakundeek beren iritzia kontuan hartzen dituztela uste dutenen ehunekoak (% 17tik % 27ra).

Beharbada, horregatik egin du hobera administrazioek (udalek, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak) gazteria-arloan egiten duten kudeaketari buruz gazteek egiten duten balorazioak, kudeaketa horrek gaintitzeko moduko nota lortzen baitu hiru administrazio-mailetan.

JARRERA POLITIKOAK ETA PARTAIDETZA

Gora egin du EAEko gazteek politikan duten interesak eta gazte gehienek ideologikoki ezkerrekotzat definitzen dute beren burua

2015eko abenduaren 20ko hauteskunde orokorren ostean, gobernua eratzeko saiakerak zirela eta, intentsitate handiko une politikoa bizi izan zen, eta garai hartan gorakada handia gertatu zen, hain zuzen ere, gazteen politikarekiko interesean. Hamar gaztetik lauk (% 39k) adierazi dute politikan interesa dutela. Zifra hori 2000. urtetik erregistratu den zifrarik handiena da eta EAEko biztanleria orokorraren proportzioa baino handiagoa da (biztanleria orokorrarena hamar puntu beherago geratzen da).

Gazteen % 53 soilik euskaldun edo espainiar baino gehiago euskaldun sentitzen dira, 18 urtetik gorako biztanleria orokorrari dagokion ehunekoaren ginetik (% 44); eta gazteen beste % 26 euskaldun bezain espainiar sentitzen dira. Adierazle hori ez da gehiegi aldatu azken hamarkadan.

Gazte asko Europarekin identifikatzen ez diren arren (% 49), 2012arekin alderatuz gero, ikusten da gora egin duela europar sentimenduak gazteen artean, % 39 izatetik % 45 izatera pasa baita.

Gazteen % 56k ideologikoki ezkerrekotzat definitzen dute beren burua, eta serieko balio altuena lortu da. Autoposizionamendu horrekin eta politikarekiko interesak gora egitearekin bat, gazteen % 63k uste dute gizarteak erreforma sakonak behar dituela, eta % 42k adierazi dute gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzea gustatuko litzaiekeela.

Gora egin dute asoziazionismoak eta boluntariotzak gazteen artean

Gazteen ia erdia elkarteren bateko kide dira (% 46) eta kirol-elkarteak dira gazte gehien biltzen dituztenak.

Kirol-elkarteen pisuak azaltzen du asoziazionismo-tasa handiagoa izatea gizonen artean (% 52) emakumeen artean baino (% 41), eta handiagoa izatea 15-19 urteko gazteen artean, adin horietatik gorakoetan baino. Kirol-elkarteak kanpo uzten baditugu, sexuaren eta adinaren arabera diferentziak desagertu egiten dira.

Kirol-elkarteen atzetik, gazte gehien biltzen dituzten elkarteak hauek dira: aisia-elkarteak, gazte-elkarteak edo denbora libreko elkarteak eta elkarte kultural edo artistikoak.

EAEko gazteen % 11k boluntario-lanak egiten dituzte gaur egun (horietarako, konpromiso egonkorra izan behar da denboran edo dedikazio handia eskaini, denbora mugatuagoan). Gazteen % 19k iraganean halakoak egin izan dituzte, baina gaur egun ez. Emakumeek hein handiagoan hartzen dute parte boluntario-lanetan (% 15) gizonek baino (% 8), nahiz eta ehuneko altuenak elkarteren bateko kide diren gazteek (% 21), unibertsitate-ikasketak dituztenek (% 20) eta politikan interesa duten gazteek (% 20) agertzen dituzten.

BALIO ETA JARRERA SOZIALAK

Gazte gehienek ateo edo agnostikotzat definitzen dute beren burua

Katolikotzat (praktikanteak ala ez) definitzen diren gazteen ehunekoak jaisten jarraitzen du: 1998an % 59 ziren eta 2016an, berriz, % 27 baino ez. Bestalde, agnostiko edo ateotzat definitzen diren gazteak 1998an % 38 izatetik 2016an % 58 izatera pasa dira.

Atzerrian jaiotako gazteen artean pertsona katolikoaren ehunekoa handiagoa da, % 37, eta, batez ere, garrantzia hartzen dute beste erlijio batzuetako gazteen ehunekoak (% 40). Horiek batuta, gazte sinestunen oso ehuneko altua lortzen da (% 77).

Erljioari dagokionez, belaunaldi-etena oso nabarmena da. Izan ere, 18 urteko edo gehiagoko EAEko biztanleria orokorrean, katolikotzat aitortzen diren pertsonen proportzioa % 55 da, alegia, 15-29 urteko gazteen proportzioaren bikoitza.

EAEko gazteen sekularizazioa handiagoa da Espainia osoko gazteena baino, izan ere, Espainian gazteen % 43k diote katolikoak direla (EAEko gazteen artean, berriz, % 27k).

Gora egin du sexu-aniztasunarekiko tolerantziak, orokortzeraino, baita abortu librearen aldeko jarrerak ere

Gazteen % 91 sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde agertu dira, eta % 86 sexu-aldaketaren edo sexua berregokitzearen alde daude. Gazte gehienek agertu zuten aldeko iritzi hori 2012an ere, nahiz eta hein txikiagoan. Orduan, % 87 zeuden sexu bereko pertsonen ezkontzaren alde, eta % 81 sexu-aldaketaren alde.

Abortu libre eta borondatezkoak gazteen % 84ren babes a jaso du, 2012an jasotakoaren 5 puntu gaineratik.

Erlazio argia dago sekularizazioaren eta gai hauen aldeko jarreraren artean, eta azaltzen du atzerrian jaiotako gazteek zergatik dituzten hain iritzi desberdinak, EAEn jaiotako gazteen aldean. Atzerrian jaiotakoaren artean, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak babes txikiagoa jaso du (% 64) EAEn jaiotakoaren artean baino (% 95). Halaber, babes txikiagoa jaso du sexu-aldaketak atzerrian jaiotako gazteen kasuan (% 57), EAEn jaiotako gazteekin alderatuta (% 91). Bestalde, abortu librearen kasuan, alde daudenen proportzioa % 45eraino jaisten da atzerrian jaiotako pertsonen artean, eta % 91raino igotzen da, berriz, EAEn jaiotakoaren artean.

Emakumeak zertxobait toleranteago agertzen dira sexu-aniztasunaren aurrean eta gizonek baino hein handiagoan aldeztu dute abortu libre a.

Mantendu egin da eutanasiaren babes zabala

Gazteen % 79 eutanasiaren alde ageri dira, eta gaixotasun sendaezin bat duen pertsona bati hiltzen laguntzearen alde daude, gaixoak hala eskatzen badu. Aldeko iritzien proportzioa % 49raino jaisten da atzerrian jaiotako gazteen artean eta % 84ra igotzen da, EAEn jaiotakoaren kasuan.

Gazteen erdia baino pixka bat gehiago kanabisa legeztatzearen alde agertzen da

Kanabisa legeztatzearen alde daudenen proportzioa pixka bat jaisten da 2012arekiko, % 61 izatetik % 56 izatera pasa baita 2016an. Aurkako iritziak bat datoz bi urteetan (% 27) eta, edizio honetan, gora egin du alde edo aurka ageri ez direnen ehunekoak.

Berriro ere, gainerako gaitan bezala, atzerrian jaiotako gazteen iritzia gehiengoaren iritziaren desberdina da. Hala, atzerrian jaiotako gazteen % 56 kanabisa legeztatzearen aurka ageri da eta alde % 29 baino ez.

Eskoletan erlijioa irakastearen alde dauden gazteen proportzioa jaitsi egin da

Portzentaje hori % 40 zen 2008an eta % 29ra jaitsi da 2016an. Bakarrik atzerrian jaiotako gazteak agertu dira erlijioa irakastearen alde (% 58, eta EAEn jaiotakoaren artean % 24 baino ez).

Gazte gehienak toleranteak dira ideia, balio edo sinesmen desberdinak dituzten pertsonekin eta ez dute aldeztu indarkeria erabiltzea ideia politiko edo erlijiosoak defendatzeko

Gazteen % 79k ez dute arazorik ideia edo sinesmen desberdinak dituzten pertsonekin erlazionatzeko.

Bestalde, talde guztietan gehiengo osatzen dute (% 75, batez beste) ideia politiko edo erlijiosoak defendatzeko indarkeria erabiltzeari uko egiten diotenenk.

Behera egin du atzerritar gehiegi daudela uste duten gazteen ehunekoak eta gora egin du, berriz, etorkinei etorrera albait gehien erraztu behar zaiela uste dutenen ehunekoak

Gazteen % 29k uste dute EAEn atzerritar gehiegi daudela, eta proportzio hori 18 urteko eta gehiagoko biztanleria orokorraren iritziaren oso azpitik geratu da, talde horren % 36k uste baitu atzerritar gehiegi daudela.

2012an gazteen % 45ek uste zuen atzerritar gehiegi zeudela eta adierazle horrek ikaragarri egin du behera, portzentajezko 16 puntutan hain zuzen ere.

Bestalde, 2012an % 18 izatetik 2016an % 39 izatera pasa da etorkinen etorrera albait gehien erraztearen alde ageri diren gazteen proportzioa. Era berean, behera egin du lan-kontratua dutenei bakarrik sartzen uztearen alde agertzen diren proportzioak, 2012an % 63 izatetik 2016an % 46 izateraino. Etorkinei sarrera erabat debekatzea aldeztu dutenen proportzioak ere behera egin du, % 10etik % 5era.

Gazteen % 68 EAera etor litezkeen errefuxiatuei laguntza ematearen alde daude. Ziurrenik, errefuxiatuekiko sentsibilizazio sozialak eragin du, oro har, etorkinen etorrera hein handiagoan babestea.

Arinki egin dute gora ingurumenarekiko adeitsua den kontsumoa sustatzen duten zenbait jokabidek

EAEko gazteen % 30ek modu arduratsuan kontsumitzen dute, eta ehuneko hori 2012an lortutakoa baino handiagoa da (% 21). Zaborra birziklatzea, ur-erabilera edo plastiko-kontsumoa mugatzea eta garraio publikoa erabiltzea dira kontsumo arduratsuen indizea eraikitzeko kontuan hartu diren jokabideak. Indize horrek hobera egin duen arren, are gehiago hobetu daiteke.

Gazte gehienak oinez desplazatzen dira edo garraio publikoa erabiltzen dute eguneroko desplazamenduetarako. Baina, adinean gora egin ahala, gora egiten du autoa edo motorra erabiltzen dutenen ehunekoak. Gazteen %13k egunero edo ia egunero erabiltzen dute bizikleta eta garraiobide hori ohikoagoa da Araban (% 20).

INTERNET ETA SARE SOZIALAK

la gazte guztiek erabiltzen dituzte sare sozialak eta, batez bestez, egunean hiru saretara konektatzen dira

WhatsApp da sare sozial nagusia, kolektibo guztietan % 90etik gorako eguneroko konexio-mailak erregistratzen baitira.

Sexuaren eta adinaren araberako diferentziak handiak dira sare sozial desberdinen erabileran. WhatsAppen atzetik, Instagram, Youtube eta Snapchat dira gazteenek (15-19 urte) gehien erabiltzen dituzten sare sozialak, batez ere, adin horietako nesken artean. Facebook hein handiagoan erabiltzen da 20 urtetik gora, eta bigarren postuan dago WhatsAppen atzetik; neskek presentzia handiagoa dute Facebooken, mutilek baino. Youtubek pisu handiagoa du mutilen artean, adin-talde guztietan.

Oro har, 20 urtetik beherako neskek dira sare sozialen erabiltzaile ohikoena.

Gazteen heren batek baino gehiagok erabili dituzte sare sozialak eztabaidak edo salaketak sustatzeko edo aldezteko

Gazteen % 9k eztabaida edo salaketaren bat sustatu dute Interneten edo sare sozialetan, testu, bideo edo irudi bat zabalduz. % 28k ez dute halakorik sustatu, baina aldeztu egin dute, birbidali egin dute edo beren iritzia adierazi dute. Guztira, % 37ak «ziberjardun» dute.

Ziberaktibismoa gero eta handiagoa da adinak, ikasketa-mailak, politikarekiko interesak, arazo publikoetan parte hartzeko gogoak eta gizarte-aldaketarako nahiak gora egin ahala.

Gazteen laurden batek baino zerbait gehiagok esperientzia negatiboren bat izan dute sare sozialetan

Gazteen % 20 noizbait kanporatu dituzte WhatsApp-eko talderen batetik. % 9k sare sozialetan beren identitatea ordeztea pairatu dute eta % 7, berriz, sare sozialetan irudi konprometitu edo umiliagarriren bat baimenik gabe zabaltzearen biktima izan dira. Guztira, % 28k egoera negatiboren bat bizi izan dute sareetan.

% 4k egoera horietakoren bat behin baino gehiagotan jasan dute, eta horri «ziberjazarpen» deritzo. 15 urtetik 19 urtera bitarteko pertsonak dira sare sozialetan jazarpena jasateko aukera gehien dituztenak, eta hori logikoa da, adin-tarte horretako pertsonak baitira sare sozialen erabiltzaile handienak.

AISIA, KIROLA, KULTURA ETA EUSKARA

Gazte gehienek egunean bi ordu libre baino gehiago dituzte

EAEko gazteek egunero hein handiengan praktikatzen duten aisia-jarduera musika entzutea da (% 82k egunero entzuten dute musika). Horren atzetik, kalean egotea (% 57) dago eta, hirugarren postuan, serieak edo filmak ikustea (% 53).

Gazteen % 20k adierazi dute gazteen lonja edo lokal bateko kide direla egun. % 30ek adierazten dute orain ezetz, baina iraganean lonja edo lokal bateko kide izan direla; eta % 50ek diote inoiz ez direla lonja edo gazte-lokal bateko kide izan. Lonja bateko kide izatea ohikoagoa da gizonen artean eta 15-19 urteko gazteen artean.

Gora egin du erregulariki kirola praktikatzeak, gizonen zein emakumeen artean

EAEko gazteen % 71k kirola egiten dute, gutxienez astean behin.

Kirol-jarduera erregularrak (astean hiru egunetan edo gehiagotan) gora egin du azken urteotan eta gorakada hori gizonen zein emakumeen artean gertatu da.

EAEko gazteek gehien praktikatzen duten kirola futbola edo areto-futbola da, baina zehaztu behar da kirol-jarduera hori nagusiki maskulinoa dela (gizonen % 34k aipatzen dute gehien praktikatzen dituzten kirolen artean eta emakumeen kasuan, % 4k baino ez dute aipatzen).

Emakume gazteek hein handiagan egiten dituzte mantentzearekin edota sasoian jartzearekin lotutako kirol-jarduerak, hala nola pilatesa eta abar, eta gizonengandik desberdintzen dira, batez ere, neskak askoz gehiago ibiltzen direlako bai eta musikarekin lagundutako ariketa fisikoa (dantza, aerobika, zumba edo gimnastika erritmikoa) egiten dutelako.

Gazteen erdiak baino gehiagok zaletu gisa parte hartzen dute jarduera artistiko edo kulturalen batean

EAEko gazteen % 55ek zaletu gisa parte hartu dute artearekin edo kulturarekin erlazionatutako jardueraren batean azken urtean.

Argazkilaritza da EAEko gazteen jarduera artistiko ohikoena. Telefono mugikorretan bereizmen handiko kamerak egoteak eta argazkiak sare sozialetan erakusteko aukerak eragin dute jarduera horren gorakada.

EAEko gazteek beste jarduera artistiko eta kultural batzuk ere aipatu dituzte: idaztea (% 21ek azken urtean idatzi dute); margotzea edo marraztea (% 18); bideoak egitea (% 15); musika-tresnaren bat jotzea (% 15); eta dantza edo baleta egitea (% 12).

Gora egin du irakurtzeko ohiturak gazteen artean

Gazteen % 54k diote libururen bat irakurri dutela azken hilabeteetan, aisialdi-jarduera gisa. Ehuneko hori 2008an erregistratutako proportzioa (% 45) baino ia hamar puntu handiagoa da.

Emakume gazteek gizon gazteek baino gehiago irakurtzen dute aisia-arrazoiengatik (% 60 eta % 49, hurrenez hurren).

Euskarazko liburuak irakurtzea ez da hain ohikoa. Gazte guztien % 31k adierazi dute azken hiru hilabeteetan libururen bat irakurri dutela euskaraz.

Euskararen erabilerak, bai etxean eta bai lagunartean, behera egin du azken urteetan

Euskaraz ondo dakiten gazteak lehen baino gehiago izan arren, euskararen erabilerak pixkanaka egin du behera 2004az geroztik, bai etxean eta bai lagunekin.

EAEko gazte guztietatik, % 23k etxean dena edo ia dena hitz egiten dute euskaraz, euskaraz gaztelaniaz baino gehiago, edo bi hizkuntzetan bezain beste. Lagunekin euskaraz hitz egiteari dagokionez, proportzioa % 26 da.

EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK

Gazteek sexuagatiko desberdintasunak hautematen jarraitzen dute lanpostu bat lortzeko orduan eta etxeko lanak banatzeko orduan, eta neskek mutilek baino hein handiagoan hautematen dituzte

Lau gaztetik batek (% 24) uste du, prestakuntza eta esperientzia berarekin, gizon batek emakume batek baino aukera gehiago dituela lanpostu bat lortzeko. Askoz gutxiago dira emakumeek aukera gehiago dituztela uste dutenak (% 9).

Gizonek lanpostu bat lortzeko aukera gehiago dituztelako ideia zabalduago dago emakumeen artean, eta behera egin baino, bereizkeria-sentsazioa igo egin da emakumeen artean (2008an emakume gazteen % 23k uste zuten gizon batek aukera gehiago zituela lanpostu bat lortzeko bere sexua zela eta; proportzio hori % 28ra igo da 2016an).

Etxeko lanen banaketari dagokionean (bikotekidearekin bizi diren gazteen artean), emakumeek gizonek baino hein handiagoan sentitzen dute etxeko lanen pisua (emakumeen % 22k hala uste dute). Nolanahi ere, kasu honetan,

beherakada handia egon da 2008. urtearekiko, etxeko lan guztiak edo gehienak egiten dituztela dioten emakumeen ehunekoan (bikotekidearekin bizi diren emakumeen % 48 izatetik % 22 izatera).

Zaintza-lanen kontsiderazioak lan ordainduen kontsiderazioaren azpitik egoten jarraitzen du, baina gora egin du azken urteetan

Gazteen erdiak baino gehiagok (% 54) uste dute etxetik kanpo lan egitea gogobetegarriagoa dela seme-alabak edo beste senide batzuk zaintzea baino; % 19 kontrako iritzia dute, eta % 21ek uste dute bata zein bestea direla gogobetegarriak. Guraso izateak aldatu egiten du pertzepzio hori eta zaintza-lanak lan ordainduaren errekonozimendu bera lortzen du.

Zaintza-lana etxetik kanpo lan egitea bezain gogobetegarriagoa, edo gehiago, delako ideiak bederatzi puntutan egin du gora 2012tik 2016ra.

Emakumeen heren bat bere herri edo auzoan gauez bakarrik ibiltzearen beldur da

Gizon eta emakumeen arteko diferentziak handiak dira gai honetan: emakume gazteen % 34 gauez bakarrik ibiltzearen beldur dira, eta gizon gazteen % 4.

Beldur-sentsazioak gora egin du urte hauetan: 2000. urtean emakumeen % 26k adierazten zuten beldur zirela eta % 36k, berriz, 2016an.

Neska gazteenak dira hein handiagoan beldur direla adierazten dutenak, zehazki, 15-19 urteko nesken % 44k.

Gora egin du genero-indarkeriaren orotariko formen larritasun-errekonozimenduak

Proposatutako tratu txarrezko sei jokabideetatik, bikotekidea sexu-harremanak izatera behartzea da larrientzat jo dena (gazteen % 97k oso larri dela esan dute). Halaber, % 90ek baino gehiagok uste dute oso larria dela etxetik irtetea debekatzea (% 91) eta mehatxatzea (% 91).

Halaber, gehiengoak uste du, nahiz eta ehunekoek behera egin, oso larria dela bikotekideari mespretxuak egitea (% 74), gauzak erabakitzen ez uztea (% 69) edo iraintzea (% 60). Eta, larrientzat jo diren indarkeria-formetan diferentzia txikiak dauden arren gizon eta emakume gazteen iritzien artean, aipatu berri ditugun jokabide horiek larriagotzat jotzen dituzte emakumeek gizonen baino.

20 urteko aldian (1997tik 2016ra), indarkeria-adierazpen horiek guztiak oso larriak direlako iritzia ikaragarri egin du gora.

OSASUNA ETA SEXUALITATEA

Gazte gehienek uste dute beren osasuna ona dela, Europako batezbestekoaren antzeko ehunekoan

Gazteen % 91k uste dute osasun ona edo oso ona dutela, eta hori bat dator Europar Batasuneko gazteen batezbestekoarekin (% 90,8).

Baina azpimarratzekoa da gazteen % 14k gaixotasun kroniko edo desgaitasunen bat dutela. Gainera, % 19k adierazi dute arazo psikologikoren bat izan dutela (estresa, depresioa edo horrelakorik) aurreko urtean. Pertsona horiek kritikoagoak dira beren osasun pertsonala baloratzeko orduan.

Klase sozial baxuko edo ertain-baxuko pertsonak gainerakoek baino osasun-arazo gehiago adierazi dituzte eta, hortaz, beren osasun-egoeraren balorazio negatiboagoa egin dute.

Emakume gazteek gizon gazteek baino arazo psikologiko gehiago izaten dituzte edo, gutxienez, publikoki hein handiagoan onartzen dituzte. Gainera, ehuneko horrek gora egin du eta, 2016an, lau emakume gaztetik batek adierazi du aurreko urtean ondoez psikologikoren bat izana.

Gazte gehienek bizitza-ohitura osasungarriak dituzte

Gazteen % 85ek diote bizitza-estilo aktiboa dutela eta % 82k elikadura orekatua dutela.

Berriro ere, alde jakin batzuk hauteman dira klase sozialaren arabera. Hala, klase sozial baxu edo ertain-baxukotzat definitzen diren pertsonen artean, elikadura desorekatua dutenen (% 28) eta pertsona sedentarioen (% 22) proportzioa batezbestekoa baino dezente handiagoa da.

Osasunerako arrisku-jokabideen artean, behera egin dute alkoholaren eta tabakoaren kontsumoak

Gazteen % 31k egunero erretzen dutela diote; mutilek neskek baino gehiago (% 34 eta % 28, hurrenez hurren). Tabakoaren eguneroko kontsumoak behera egin du 2012. urtearekiko, urte hartan % 39k erretzen baitzuten.

Gazteen % 42 behin mozkortu dira, gutxienez, inkesta egin aurreko hilabeteetan; mutilen % 47k adierazi dute hori. Azken hilabeteetan mozkortu diren gazteen ehunekoak ere behera egin du 2012arekiko (% 48).

Gainera, gazteen % 10ek baimendutako alkohol-tasa gainditzeko moduan gidatu dute edo alkohol-tasa gainditzeko moduan zegoen norbaitek gidatzen zuen ibilgailu batean ibili dira (mutilen % 12 eta nesken % 7).

Eta % 19k onartu dute legez kanpoko drogaren bat (kanabisa, kokaina, pilulak edo horrelakoak) kontsumitu dutela aurreko hilabeteetan. Mutilen kasuan, proportzio hori % 23 da, eta nesken kasuan, % 14.

2012tik 2016ra bitarte ez da aldaketa handirik egon legez kanpoko drogen kontsumo-zifretan edota baimendutako alkohol-tasa gainditzeko moduan gidatu duten, edo hori gainditzeko moduan zegoen norbaitek gidatzen zuen ibilgailu batean ibili diren gazteen zifretan.

Sexu-harremanetan, arrisku-jokabideak ezohikoak dira eta, gainera, behera egin dute

20 urte baino lehen, gazteen erdiak soilik aitortu dute sexu-harremanak izan dituztela (% 49). Adin horretatik aurrera, hamar gaztetik bederatzik gutxienez sexu-harreman bat izan dute beren bizitzan (% 92, 20 urtetik 24 urtera bitartekoen kasuan eta % 97, berriz, 25-29 urtekoen kasuan).

Sexu-esperientzia duten pertsonen artean, % 15ek diote sexu-harreman arriskutsuren bat izan dutela (haurdun geratzeko arriskua edo sexu-transmisioko gaixotasun batekin kutsatzeko arriskua) azken urtean, hots, EAEko gazte guztien % 12k.

Sexu-harreman arriskutsuek behera egin dute, 2012an gazteen % 18k aipatzen baitzituzten.

Sexuak eta klase sozialak eragina dute osasunarekin erlazionatutako jokabideetan

Gizon gazteek osasunerako arriskutsuak diren jokabide gehiago izaten dituzte emakume gazteek baino: gehiago erretzen dute, gehiago mozkortzen dira, legez kanpoko droga gehiago hartzen dituzte eta arrisku gehiago hartzen dituzte beren gain sexu-harremanetan.

Klase sozial baxu edo ertain-baxuko pertsonak osasun-arazo gehiago izaten dituzte (fisikoak zein psikologikoak), elikadura desorekatuagoa izaten dute, bizimodu sedentarioagoa dute, gehiago erretzen dute eta legez kanpoko droga gehiago kontsumitzen dituzte.

Igo egin da sexualitatea bizitzeko modu desberdinekiko tolerantzia

2012. urtetik 2016. urtera bitarte, % 88tik % 92ra igo da homosexualitatea gaixotasuntzat hartzearen aurka daudenen proportzioa.

Gainera, 2012an % 65 zeuden pertsona batek bere bizitzan zehar sexu-aukera aldatu ahal izateko ideia alderantziz eta % 82, berriz, 2016an.

Bi jarrera horiek hein handiagoan aldeztu dituzte emakumeek, gizonek baino.



Bibliografia

Beldur Barik [linean] Hemen eskuragarri: <http://beldurbarik.org/eu> [Kontsulta: 2017/06/14]

BILBAO GAZTAÑAGA, Miren (2008): *Euskadiko gazteak 2008* [linean] Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia – Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz. ISBN: 978-84-457-2876-5. Hemen eskuragarri: http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteak_bilduma/eu_liburuak/adjuntos/Juventud_vasca_2008_e.pdf [Kontsulta: 2017/06/27]

BILBAO GAZTAÑAGA, Miren eta TRABADA CRENDE, Elías (2011): *Herritarren parte hartzeari eta Europar Batasunari buruzko EAEko gazteen iritzia* [linean] Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia - Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz. ISBN: 978-84-457-3217-5. Hemen eskuragarri: http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteen_joerak/es_liburuak/adjuntos/joerak_3_tendencias.pdf [Kontsulta: 2017/05/25]

BILBAO GAZTAÑAGA, Miren; LONGO IMATZ, Oskar eta CORCUERA BILBAO, Nieves (2014): *Euskadiko gazteak 2012* [linean] Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia – Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz. ISBN: 978-84-457-3342-4. Hemen eskuragarri: http://www.contenidos.servicios.jakinaplus.ejgvdns/contenidos/informacion/euskadiko_gazteak/eu_liburuak/adjuntos/euskadiko_gazteak_12_e.pdf [Consulta: 27/06/2017]

BILBAO GAZTAÑAGA, Miren; LONGO IMATZ, Oskar eta CORCUERA BILBAO, Nieves (2016): *Gazteak eta enplegua Euskadin 2015* [linean] Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz. ISBN: 978-84-457-3412-4. Hemen eskuragarri: http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteak_bilduma/eu_liburuak/adjuntos/Juventud_empleo%202015_e.pdf [Kontsulta: 2017/05/15]

BILBAO GAZTAÑAGA, Miren, LONGO IMATZ, Oskar eta CORCUERA BILBAO, Nieves (2017): *Gazteen emantzipazioa Euskadin 2015* [linean] Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia – Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz. ISBN: 978-84-457-3419-3 Hemen eskuragarri: http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/presentacion_publicaciones/eu_10717/adjuntos/emantzipazio_liburua_e.pdf [Kontsulta: 2017/09/30]


CORCUERA BILBAO, Nieves, BILBAO GAZTAÑAGA, Miren eta LONGO IMATZ, Oskar (2013): *Gazteen lonjak eta lokalak EAEn* [linean] Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia – Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz. ISBN: 978-84-457-3313-4. Hemen eskuragarri: http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteen_joerak/eu_liburuak/adjuntos/Joerak_7_tendencias.pdf [Kontsulta: 2017/06/15]

- EMAKUNDE= EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA (1996): *Euskadiko Autonomi Elkarteko Emakumeentzako Ekintza Positiboan II. Plana* [linean] EMAKUNDE= Emakumearen Euskal Erakundea, Vitoria-Gasteiz. ISBN: 84-87595-40-5. Hemen eskuragarri http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_planes_anteriores/eu_def/adjuntos/2.plana.pdf [Kontsulta: 2017/07/11]
- EMAKUNDE = EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA (2010): *EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Plana. IX. Legealdirako jarraibideak* [linean] EMAKUNDE = Emakumearen Euskal Erakundea, Vitoria-Gasteiz. Hemen eskuragarri: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/vcm_marco_juridico/eu_def/adjuntos/v.plan.igualdad.eus.pdf [Kontsulta: 2017/06/14]
- EMAKUNDE= EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA (2014): *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana* [linean] Emakunde = Emakumearen Euskal Erakundea, Vitoria-Gasteiz. ISBN: 84-89630-42-9. Hemen eskuragarri: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_vi_plan/eu_emakunde/adjuntos/VIPlan_final_eu.pdf [Kontsulta: 2017/06/14]
- ESPAINIA (2005): *Uztailaren 1eko 13/2005 Legea, Kode Zibila aldaraztekoa, ezkontzeko eskubidearen arloan* [linean] Estatuko Aldizkari Ofiziala (EAO-BOE) 157. zk., 2005eko uztailaren 2koa. Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): <https://www.boe.es/boe/dias/2005/07/02/pdfs/A23632-23634.pdf> eta hemen (euskaraz eta gaztelaniaz): http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/legedia_euskaraz/es_3818/adjuntos/Zuzenbide-zibila/Kode_Zibila_aldaraztekoa_ezkontzeko_eskubidearen_arloan.pdf [Kontsulta: 2017/07/01]
- ESPAINIA (2015): *11/2015 Lege Organikoa, irailaren 21ekoa, neskato adingabeen eta gaitasuna judizialki aldatuta duten emakumeen babesa indartzeko haurdunaldiaren borondatezko etenduran* [linean] Estatuko Aldizkari Ofiziala (EAO-BOE) 227. zk., 2015eko irailaren 22koa. (BOEren euskarazko gehigarria). Hemen eskuragarri: http://boe.es/boe_euskera/dias/2015/09/22/pdfs/BOE-A-2015-10141-E.pdf [Kontsulta: 2017/07/01]
- ESPAINIAKO GOBERNUAREN HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA (2015a): *Encuesta de Hábitos Deportivos 2015* [linean]. Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): <https://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/estadisticas/deporte/encuesta-habitos-deportivos.html> [Kontsulta: 2017/06/21]
- ESPAINIAKO GOBERNUAREN HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA (2015b): *Espanian kultur ohitura eta praktikei buruzko inkesta 2014-2015* [linean] Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): <https://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/estadisticas/cultura/mc/ehc/2014-2015/presentacion.html> [Kontsulta: 2017/06/21].
- ESPAINIAKO GOBERNUAREN HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA: *Espanian kultur ohitura eta praktikei buruzko inkesta* azterlaneko estatistikak [linean]. Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): <https://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/eu/estadisticas/cultura/mc/ehc/portada.html> [Kontsulta: 2017/06/22]
- ETXEBIZITZAKO BEHATOKIA (2016): *EAEko Higiezinaren Eskaintzari buruzko Inkestaren taula estatistikoak. 2016ko 1. hiruhilekoa* [linean] Hemen eskuragarri: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/estadistika/eaeko-higiezinaren-eskaintzari-buruzko-inkestaren-aula-estadistikoak-2016ko-1-hiruhilekoa/r41-ovse01/eu/> [Kontsulta: 2017/05/19]
- ETXEBIZITZAKO BEHATOKIA (2016): *EAEko alokairu-politikaren ebaluazio-txostena 2015* [linean]. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Hemen eskuragarri: http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_adm_alquiler2015/eu_ovv_admi/adjuntos/evaluacion_alquiler_2015_eu.pdf [Kontsulta: 2017/05/15]
- EUROPEAN COMMISSION (2015): *European Youth* [linean] Flash Eurobarometer 408, European Union. ISBN: 978-92-79-45655-8. Hemen eskuragarri (ingelese): <http://ec.europa.eu/commfrontoffice/publicopinion/index.cfm/Survey/getSurveyDetail/instruments/FLASH/surveyKy/2009> [Kontsulta: 2016/01/15]

- EUROSTAT, Europar Batasuneko Bulego Estatistikoa (Statistical Office of the European Union): *Database: Youth* (Gazteriari buruzko datu estatistikoak) [linean] Hemen eskuragarri (ingelesez): <http://ec.europa.eu/eurostat/data/database> [Kontsulta: 2017/05/18]
- EUROSTAT, Europar Batasuneko Bulego Estatistikoa (Statistical Office of the European Union): *Database. Self-perceived health statistics* [linean] European health interview survey (EHIS). Hemen eskuragarri (ingelesez): http://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php/Self-perceived_health_statistics [Kontsulta: 2017/07/12]
- EUROSTAT, Europar Batasuneko Bulego Estatistikoa (Statistical Office of the European Union): *Statistics explained. Glossary: Longstanding health problem or disease* [linean] European health interview survey (EHIS). Hemen eskuragarri (ingelesez): http://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php/Glossary:Longstanding_health_problem_or_disease [Kontsulta: 2017/07/06]
- EUSKADI (2005): *4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa* [linean] Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA) - Boletín Oficial del País Vasco (BOPV) 42. zk., 2005eko martxoak 2. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2005/03/0500982a.pdf> [Kontsulta: 2017/06/14]
- EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA SAILA. Etengabeko ikaskuntza [linean] Hemen eskuragarri: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-644/eu/contenidos/informacion/etengaikaskun/eu_def/index.shtml [Kontsulta: 2017/05/16]
- EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILA (2013): *Euskadi eta drogak 2012* [linean] Hemen eskuragarri: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_otrosamb/adjuntos/promocion_salud/940012e_Euskadi_drogas_2012_e.pdf [Kontsulta: 2017/06/01]
- EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILA (2014): *Osasuna, Pertsonen Eskubidea, Guztion Ardua. Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020* [linean] Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz. Hemen eskuragarri: https://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkpubl01/eu/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/eu_pub/adjuntos/osasun_plana_2013_2020.pdf [Kontsulta: 2017/07/06]
- EUSKO JAURLARITZA, NAFARROAKO GOBERNUA ETA EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA - OFFICE PUBLIC DE LA LANGUE BASQUE (2016): *VI. Inkesta Soziolinguistikoa* (Euskal Autonomia Erkidegoa) [linean] Hemen eskuragarri: https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLG-EH_eus.pdf?1499236557 [Kontsulta: 2017/06/23]
- EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundea (2017): *Datu bankua, Informazioaren gizartea (I+G+b) / Informazioaren gizartea / Familiak* [linean] Hemen eskuragarri: http://eu.eustat.eus/banku/tipo_N/id_2392/indexArbol.html [Kontsulta: 2017/10/20]
- EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundea. Biztanleria jardueraren arabera [linean]. Hemen eskuragarri: http://eu.eustat.eus/bancopx/euskara/id_2307/indiceRR.html [Kontsulta: 2017/09/25]
- FERNÁNDEZ, Rosario (2013): *Toronto, una ciudad en la que los extranjeros son bienvenidos* [linean] Expansión.com, 2013ko uztailaren 10ean. Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): <http://www.expansion.com/2013/07/10/directivos/1373475210.html> [Kontsulta: 2017/07/12]
- GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA (2000): *Euskadiko gazteak 2000* [linean]. Francisco Javier Gutiérrez Páramo (koordinatzailea). Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz. ISBN: 84-457-1638-7. Hemen eskuragarri: http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskadiko_gazteak/eu_liburuak/adjuntos/Juventud_vasca_2000_e.pdf [Kontsulta: 2017/06/27]

- GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA (2004): *Euskadiko gazteak 2004* [linean]. Francisco Javier Gutiérrez Páramo (koordinatzailea). Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz. ISBN: 84-457-2196-8. Hemen eskuragarri: http://www.contenidos.servicios.jakinaplus.ejgvdns/contenidos/informacion/euskadiko_gazteak/eu_liburuak/adjuntos/Juventud_vasca_2004_e.pdf [Kontsulta: 2017/06/27]
- GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA (2008): *Euskadiko gazteriaren mugikortasun espazialaren ereduak* [linean] Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia= Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz. ISBN: 978-84-457-2829-1 Hemen eskuragarri: http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteen_joerak/eu_liburuak/adjuntos/Pautas_movilidad_e.pdf [Kontsulta: 2017/07/10]
- GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA (2008). *Osasuna eta gazteak. Euskadiko gazteen ikusmoldeak osasunari buruz* [linean] Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia= Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz. ISBN: 978-84-457-2705-8. Hemen eskuragarri: http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteak_bilduma/eu_liburuak/adjuntos/Gazteak_Salud_e.pdf [Kontsulta: 2017/07/06]
- GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA. Estatistikak [linean] Hemen eskuragarri: <http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7650x/eu/estadistikak/temasV1.apl?idioma=e&ambito=1> [Kontsulta: 2017/05/11]
- GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA: *Aurrera Begira* seriea [linean] Hemen eskuragarri: http://www.gazteukera.euskadi.eus/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/aurrera_begira/eu_def/index.shtml?_ga=1.168915876.429906876.1417601129 [Kontsulta: 2017/07/06]
- INJUVE, ESPAINIAKO GAZTERIAREN INSTITUTUA (2014). *Cifras jóvenes. Sondeo de Opinión. Jóvenes, valores y ciudadanía* [linean] Espainiako gobernua. Hemen eskuragarri: http://www.injuve.es/sites/default/files/2016/04/publicaciones/tablassondeo_2014-2.pdf [Kontsulta: 2017/07/12]
- INJUVE, ESPAINIAKO GAZTERIAREN INSTITUTUA (2017): *Informe Juventud en España 2016* [linean] Espainiako Gazteriaren Behatokia (koordinatzailea) Hemen eskuragarri: <http://www.injuve.es/sites/default/files/2017/24/publicaciones/informe-juventud-2016.pdf> [Kontsulta: 2017/06/28]
- LONGO IMATZ, Oskar, BILBAO GAZTAÑAGA, Miren eta CORCUERA BILBAO, Nieves (2013): *Kontsumo arduratsua EAEko gazteen artean*, [linean] Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz. ISBN: 978-84-457-3289-2. Hemen eskuragarri: http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteen_joerak/eu_liburuak/adjuntos/JOERAK_6.pdf [Kontsulta: 2017/07/10]
- LÓPEZ OLLER, Joffre (2016): *Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2015* [linean] Gazteen Euskal Behatokia (koordinatzailea), Bilbao. Hemen eskuragarri: http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/emantzipazioa/eu_def/adjuntos/emantzipazioa_16_e.pdf [Kontsulta: 2017/05/15]
- OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEA: *Osasun-gaiak: Desgaitasunak* [linean] Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): <http://www.who.int/topics/disabilities/es/> [Kontsulta: 2017/07/06]
- OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEA: *Osasun-gaiak: Gaixotasun kronikoak* [linean] Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): http://www.who.int/topics/chronic_diseases/es/ [Kontsulta: 2017/07/06]
- PÉREZ OLIVA, Milagros (2017): *La hora de la eutanasia* [linean] El País, 2017ko apirilaren 2an argitaratua. Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): http://politica.elpais.com/politica/2017/03/31/actualidad/1490960180_147265.html [Kontsulta: 2017/07/10]

- PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA (1998): *Los malos tratos en la pareja* [linean] Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza. Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_t982/eu_t982/adjuntos/t982.pdf [Kontsulta: 2017/07/11]
- PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA (1999): *Gazteen argazkiak-3, 1998-1999* [linean] Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza. Hemen eskuragarri: <http://www.euskadi.eus/gazteen-argazkiak/web01-s1lehike/eu/> [Kontsulta: 2017/06/05]
- PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA (2015): *58. Euskal Soziometroa. Kultura demokratikoa* [linean] Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza. Hemen eskuragarri: http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/sociometro_vasco_58/es_def/adjuntos/15sv58.pdf [Kontsulta: 2017/05/30]
- PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA (2016): *60. Euskal Soziometroa. Euskal iritzi publikoa 20 urtetan* [linean] Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza. Hemen eskuragarri: http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/sociometro_vasco_60/eu_def/adjuntos/16sv60.pdf [Kontsulta: 2017/05/17]
- UNHCR-ACNUR, Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandatariaren Bulegoa (2015): *Tendencias globales 2015: forzados a huir* [linean] Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): <http://www.acnur.es/PDF/TendenciasGlobales2015.pdf> [Kontsulta: 2017/07/10]
- WIKIPEDIA (2004): *Sexu bereko pertsonen arteko ezkontza* [linean] Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): https://es.wikipedia.org/wiki/Matrimonio_entre_personas_del_mismosexo_en_Espa%C3%B1a [Kontsulta: 2017/07/12]
